



Bertsio elektroniko honen jatorria: Bizkaiko Foru Aldundia:  
*Idazlan guztiak*, Frai Bartolome Santa Teresa (Julen Urkizaren eta  
Luis Baraiazzarraren edizioa), Euskaltzaindia / Bizkaiko Foru Aldundia, 2000.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/F/FraiSakramen.htm>

## **ELEISAKO ZAZPI SAKRAMENTUBEN IKASIKIZUNAK**

**Frai Bartolome de Santa Teresa**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabeago Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**AL ILUSTRISIMO SEÑOR D. D. Atanasio de  
Puyal y Poveda, Obispo de Calahorra y la  
Calzada, del Consejo de S. M. Señor de  
Arnedillo...**

ILUSTRISIMO SEÑOR.

Es más que justo que yo el menor de sus reconocidos capellanes consagre a V.S.I., Cabeza visible de esta grande diócesi, las pláticas catequísticas en el idioma bascongado sobre los siete sacramentos de la santa Madre Iglesia. Habiendo pues dedicado las del Decálogo al V. Clero del País Bascongado, en cuya gracia se dieron a luz y merecido particular atención de él y de V.S.I. aquellas, con la más rendida sumisión y sincero reconocimiento presento éstas a V.S.I., seguro de que la pastoral sombra de V.S.I. les sobraré, para que el público disimule sus defectos y produzcan los frutos que de ellas se esperan.

No Dudamos, Ilustrísimo Señor, la elección de la divina Providencia en V.S.I. no sólo para arrancar y destruir los vicios y falsas preocupaciones que el enemigo de las tinieblas ha sembrado en la era pasada de horrores y de libertinage aun en el jardín más santo y católico, sino también para edificar y plantar las santas y sólidas virtudes en los corazones de sus ovejas con la leche de la sana y evangélica doctrina. Esto es puntualmente, Ilustrísimo Señor, lo que los fieles, sus verdaderas ovejas, esperan del ministerio pastoral de V.S.I.

Ni esperaba menos seguramente de los progresos superiores, con que V.S.I. se distinguió en el estudio de la sagrada teología, madre de las verdaderas ciencias entre los alumnos y entre los maestros catedráticos de San Fulgencio de Murcia: El eminentísimo cardenal Lorenzana, Primado



de las Españas y grande apreciador de la sólida virtud y de las letras cuando le eligió a V.S.I. para teólogo consultor suyo. El desinterés y exemplar edificación con que sirvió V.S.I. después el canonicato de San Isidro Real de Madrid; el infatigable celo y la alta prudencia con que desempeñó V.S.I. los sagrados deberes de teniente capellan mayor y auxiliar de nuestra Corte en tantos y tan climatéricos años para los ministros del santuario; y la constante y apostólica magnanimidad con que ha sostenido V.S.I. los sagrados derechos de los pastores de Jesucristo y la Religión de nuestros padres en el tiempo y circunstancias más temibles de su absoluta abolición con la dignidad y autoridad de gobernador del Arzobispo de Toledo, durante la mansión de la regencia del reyno en la ciudad de Cádiz; bien acreditan el alto concepto que formó el eminentísimo Lorenzana de la sólida virtud y consumada sabiduría de V.S.I.

Nosotros, ¡gracias al Todo Poderoso! somos los que inmediatamente disfrutamos de los beneficios y paternales desvelos de V.S.I. ¿Qué otra cosa son las Stas. Misiones, que por mandato de V.S.I. se han predicado en toda la diócesis, hasta en las aldeas muy reducidas, sino el saludable pasto espiritual que el vigilante pastor dispensa a sus ovejas? ¿Qué otra cosa son tantas y tan eficaces cartas pastorales que V.S.I. ha dirigido desde el momento de su ministerio apostólico en esta diócesis, ya al V. Clero en particular e ya a todos los fieles en común, sino luz, medicina y alimento de nuestras almas para corregir la relajación, mejorar las costumbres y poner el debido orden en la casa del Señor, y los frutos de la justicia y caridad en la tierra de los santos? ¿Qué otra cosa es lo que experimentan los fieles de este vasto obispado en las santas e incansables visitas de V.S.I. con tan quebrada salud, sino silvos amorosos de su pastor, enseñanza evangélica de su maestro, voces caritativas de su padre, limosnas liberales de su bienhechor y justos mandatos de su vigilante prelado? Se oye con justo agradecimiento a V.S.I. que muchas doncellas han abrazado el claustro con las limosnas de V.S.I., que las viudas y los huérfanos le tienen por su amparo, que los pobres y los mendigos por su refugio, que las comunidades religiosas por su devoto bienhechor, y que todos por su justo y benéfico padre y pastor.

¿A dónde pues yo, pobre de mí, puedo acogerme con mis pláticas bascongadas, corto trabajo de mis verdaderos anhelos, en obsequio de los señores curas y de los fieles bascongados, compuestas para la necesaria y fundamental instrucción de todo fiel cristiano, sino a la sombra de V.S.I.? Yo no he hecho, Ilustrísimo Señor, en estas pláticas más que reunir a un orden predicable analítico, claro y breve, en cuanto le es permitido al

catequista, lo que es propio, urgente y necesario a la gente de mi País, que casi toda ella vive de trabajo de manos en las montañas, como V.S.I. la ha visto en sus santas visitas, teniendo siempre a la mano el dogma de la sagrada teología y el Catecismo Romano. Me he desviado con todo estudio de las materias abstraídas y opinables. He cargado la mano sobre los abusos, ignorancias o relajaciones más com[u]nes y más difíciles de corregir, después de explicar la verdadera doctrina de cada materia. Sólo resta, Ilustrísimo Señor, para que el cielo bendiga estas sencillas pláticas, las riegue y fecunde la divina gracia, y produzcan copiosos frutos en las almas de sus oyentes, las admita V.S.I. bajo su apostólica protección.

Carmen Descalzo de Marquina 13 de Agosto de 1819.

B.L.M. de V.S.I.

su humilde y rendido Capellán

*Fr. Bartolomé de Santa Teresa.*



## SAKRAMENTU GUZTIAI JAGOKUEN IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer dirian Sakramentubak.*
2. *Nok itxi euskuzan.*
3. *Zeinbat dirian Jesukristo geure Jaunak itxi euskuzan sakramentubak.*
4. *Zetarako itxi euskuzan.*

Erromako Katezismuak sakramentu santuben erakutsija asten dabe-nian, esaten deusku, neure kristinaubak, «kristinautzako ikasijaren zati guztiak eskatuten deuskubeela txito ardura andija, ainbat onduen ta zia-tzen guztiak ikasteko ta ezaututeko. Baina sakramentu santuben dotrinia izanik Jaungoikuak aginduta noraezekua geu salbetako ta ain onera andi-kua geure arimetarako, berak eskatuten dabela kura jaunen aparteko ardu-ria ta kontuba, ainbat argiruen, zuzenen ta sarrijen kristinau piel guzti-ai erakusteko. Kristinaubak jakinda egon ditezana zelan prestatu biar dabeen sakramentu santubak errezebiduteko ta ze grazija ugarijak zeruti artuten ditubeen sakramentu santubakin; ta sazerdote jaunak gorde dagijen Jesukristo geure Jaunaren esana, zeinek dinuan: *Ez egijezu txakurrai bota gauza santuba, ezda joija ederrak bota bere lau oinekuen artera*».

Emeti ezaututen da, neure entzula onak, ze birrekua ta premina andikua dan kristinaubarentzat, sakramentu guzti-ai ta bakoxtari jagokan doktrinia ondo ikastia. Sakramentubak dira zeruko grazijak geure arime-tara erasteko bidiak. Eurak dira Jaungoikuaren ontasunak, Jesukristo geure Jaunaren gizatasunaren ta erijotza penazkuaren bitartez, gizonetara dakarreezanak. Eurak dira Eleisa Ama santiari Jesus bere Esposo maitiak itxi utsan jantzi barrija ta grazijazkua. Eurak dira, bizitzako ura beti dari-juen iturri ugarijak ta garbijak. Eurak dira, zeruko jakiturijak Eleisa san-tiari itxi utsazan zazpi pillar mirarizkuak. Leendanaz, antxinati Jaungoikuak gizonai aitu emon gura izan eutseen zelanbait sakramentu santuben ezauberia, euren grazija ta ontasun esan ezin legizanak. Alan sinistu daikegu, kristinaubak, zazpi sakramentu santuben ezaugarrijak edo irudijak diriala Eskritura Sagraduban, Jesukristo geure Jaunaren eto-rrierria ta sakramentubak baino oskozaz leenagoti irakurten ditugun ain-

beste *zazpiko* gauza. Mundubaren *zazpi* edadiak. Espiritu Santubaren *zazpi* doiak. Abraanen *zazpi* bildotsak. Garbituteko *zazpi* egunak. Ogi jagigarri bagakuen *zazpi* egunak. Zakariasen *zazpi* egunak. Bere miraariz-ko arrijaren *zazpi* begijak. Altariaren *zazpi* inutzutiak. Sagrarijoko atari egin biar oi jakozan atzamarragazko *zazpi* odoldutiak. Naaman garbitute-ko, Jordango ibaiko *zazpi* muxak. Ejitoko *zazpi* urte ugarijak. *Zazpi* birtu-te nausijak. Ta beste onako asko, zeintzubetan Jaungoikuak lege zaarrian markauta itxi euskuzan *zazpi* sakramentu santubak.

Sakramentu santuben onerak ta grazijak neurri bagakuak dira, neure entzula onak. Bera gaiti kristinaubak imini biar dabee txito ardura andija, Sakramentuben dotrinia edo erakutsija ondo baino obeto ikasteko. Sakramentubetan bagoz gauza asko, eleisa gizonai bakarrik jagokuezanak. Oneek zubei erakusten ni kansetia, alperrikuaz gainera, izango litzaateke azartu lotsa arin onekua. Bada, zuben arimen jaola jaunak ta eleisa gizo-nak ez dabee ene esanaren biarrik, euren egin biarra ondo kobru emote-ko. Kristinau piel guzti-ai jagokuena, guztiak ikasi biar dabeena, guztiak ondo jakin biar dabeena ta sakramentu santubak errezebiduteko edo bere ariman leku emoteko guztiak biar dabeena da, sakramentu bakoxtian ta guztietan esango deusudana. Baina sakramentu bakoxtaren izatia ta egi-tiak erakustera orduko, esango deusut ikasikizun onetan sakramentu guz-ti-ai jagokuena: 1. *Sakramentubak zer dirian.* 2. *Nok itxi euskuzan.* 3. *Zeinbat dirian Eleisa Ama santiaren sakramentubak.* 4. *Zetarako dirian.* Entzun egizu gogo onagaz.

### I.

Sakramentubak zer dirian aituteko jakin biar dau kristinaubak, sakra-mentubaren izenagaz gauza asko aituten emoten diriala. Batzubetan esa-ten jako *sakramentuba* edozein gauza santuri, santuba dalako beste baga-rik. Beste batzubetan ixilik euki biar dan gauziari esaten jako *sakramentu-ba*. Baita beste askotan *juramentubari* bere. Baina, ez juramentuba, ez isilik euki biar dan gauzia, ez edozein gauza santu dira Jesukristo geure Jaunak Eleisa Ama santiari itxitako sakramentubak. Sakramentu oneek dira, Erromako Katezismuak dinuan legez, *agiri ez dan grazijaren senaile agirijak, geu salbetako, Jesukristo geure Jaunak itxijak. Invisibilis gratiae visibile signum, ad nostram justificationem*. Esaten da, *agiri ez dan grazijaren*. Bada, sakramentu-bak ariman iminten deuskuben grazija ez dogu ikusten. Ta ikusi bere ezin ginai, espirituzkua dalako. Baina pediagaz sinistuten dogu. Esaten da,



*senaille agirija.* Eleisako sakramentu guztiak agiriko gauzetan dagozalako. Batiuan ikusten da seina uragaz garbituten ta entzuten dira bautismoko berbak. Konfirmazioan ikusten da orijo santubagaz igorzen ta entzuten dira berbak. Konpesinoian ta beste sakramentu guztietan agiriko gauzia edo entzun edo ikusi edo sentidu legijana da, sakramentuba egiteko popuertza biar dana. Au gaiti da sakramentuba *agiri ez dan grazijaren senaille agirija.*

Esaten da, sakramentubak diriala *gen salbetako* Jesukristo geure Jaunak itxijak. *Ad nostram justificationem.* Bada, gero esango dan legez, sakramentu guztiak eta bakotxa itxi euskuzan Jesus maitiak, geu salbetako. Senaille ezagun ta agirijetan itxi euskun Jaungoikuaren Semiak, geu salbetako popuertza biar dogun agiri ez dan grazija. Senailia da san Agustinen esanian, agiri dabenaz gainera, beste gauza bat aituten emoten dabena. Senaille batzuk euren izatez aitu eragiten dabee agiri dabeenaz gainera zerbait. Keia da subaren senaille agirija ta berezkua. Beste senaille batzuk, euren ez dabee agiri dabeenaz gainera ezer aitu eragiten. Baina bai gizonak aintzat artuta daukeezalako. Ontzijaren puntako senailiak esaten dau, ontzi a ze erreinutakua dan. Prailiaren abitubak esaten dau, praille a ze erlijinoetakua dan. Ta alan beste senaille aintzat artu asko. Onetariko Jesukristo geure Jaunak aintzat artutako senaille agirijak dira sakramentu santubak. Jesus Jaungoikuaren Seme gizon eginak aintzat artu zituban bere sakramentu santuben geitzat ura, orijo santu balsamotuba, pekatuben damu agertuba, ogija ta ardaa, obispo jaunen esku imintia, gizon eta emakumen gorputzak... Ta Jesus geure Salbatzaile onak berak izentauta itxi zituban, sakramentuben gei onei esatia gura izan eban berbak bere, zeintzubetan emon euskuzan sakramentu santubak, agiri ez dan grazijaren senaille agirijak, geu salbetako. Onetan dago, kristinaubak, sakramentuben izate guztia.

## II.

Jesukristo gure jaunak berak itxi euskuzana sakramentu santubak, inok bere ukatu ezin legi, pedian faltau bagarik. Bada, Jaungoikuari berrari edo Jesukristo Jaungoiko ta gizon egiazkuari jagoko bakarrik sakramentubak pundetia edo egitia. Jaungoikua da bakarrik guztia daikiana. Ta Jaungoiko guztiz alsubak emon eu[t]san Jesus bere Seme gizon eginari zeruko ta lurreko alizate guztia. Alan esaten eutseen Jesukristok bere apostolubai, jentiai prediketara ta sakramentubak egitera bialduten zitu-

banian. *Zeruko ta lurreko eskubide guztia neuri emon jat,* esaten deutse. *Ta juanda, eraku[t]si egi jozu mundu guztiari neure legia ta batiatu egizuz guztiak.* Emen aituten emoten deusku Jesukristo geure Jaunak, bera dala sakramentugina bakarrik. Berak itxi deuskuzala sakramentu santubak. Ta Jesukristoren beraren izenian ta bere birtutiagaz egiten diriala sakramentu guztiak. Augaiti dino san Agustinek, zein batak batiatu, zein bestiak batiatu, bardin emoten jakola arimari sakramentubaren grazija. San Pedrok batiatuten badau bere, Jesukristok batiatuten dau. Ta Judasek batiatuten badau bere, Jesukristok batiatuten dau, dino san Agustinek. Jesukristo geure Jaunarenak dira sakramentu guztiak ta bakotxa. Ez zeruko ainjeru guztiak, ez patriarka ta propeta guztiak, ez apostolu ta beste arima on guztiak bat eginda bere, ezin eukeen ta ezin legije geuri pekatubak parkatuteko ta grazia emoteko duinako sakramentu bat. Orregaiti sinistu biar dogu, neure entzula onak, geure kristinautzako sakramentu guztiak eta bakotxa diriala Jesukristo geure Jaunak geu salbetako itxijak. Alan aginduten deusku Eleisa Ama santiak Trentoko bere batzarrian.

## III.

Baita Eleisa Ama santiak berak erakusten deusku ereje gaistuen kontra, Jesukristo geure Jaunak geuri itxi euskuzan sakramentubak, *zazpi* diriana bere. *Zazpirak kontetan ditu Eleisa Ama santiak banaan banaan Trentoko batzaar santuban.* Ta dira: Bautismua, konfirmazioa, komunioa, penitentsia, estrema unzioa, ordia ta eskontzia. *Inok esaten badau, dino Eleisa Ama santiak, lege barriko edo ebanjelijoko sakramentubak, guztiak eta bakotxa ez diriala Jesukristo geure Jaunak itxijak; edo zazpi baino gutxiago edo geijago diriala; edo areetati bat edo bat ez dala sakramentu egijazkua, au esaten dabena izan dedilla eskomulgauba, izan dedilla madarikatuba, ez dagijala Jaungoikuagaz parterik izan.* Anatema sit.

Zazpi sakramentubetati lelengo bostak preminakuak dira, gizona salbetako. Esan gura dot onegaz, gizonak isten baditu desprezijo z lelengo bost sakramentubak edo areetati bat nai bat, egingo dabela pekatu. Sakramentu bakotxaren erakutsijan esango da zetaragino dan euren preminia. Ta zelan dirian lelengo bostak guztiz biarrekuak, geu salbetako. Beste bijak ez dira popuertzakuak, ez bada geure eskuban Jesukristo geure Jaunak itxi eban eurak errezipidutia edo ez errizibidutia. Alan eleisagizon egitia ta ezkonduzia ez dira popuertzakuak batenzat bere euren ez, salbetako. Sakramentu santubai zelan ariman leku emon biar jakuen



edo zelan errezibidu biar dirian; nos leku emon biar jakuen; zelan kristinaubak prestau biar daben bere parteti, sakramentubai leku emoteko; zer egiten dabeen ariman, biar dan prestaera onagaz leku emoten jakuenian; zeintzuk dirian barristau ezin legizanak ta betiko markia ariman irrasten dabeenak; ta kristinaubak zetan faltau oi dabeen sakramentu santubaren gainian; one[e]k gauza guztiok erakutsiko dira sakramentu bakotxian. Bada, guztiak era batera ezin esan legiz ondo adituteko moduban. Inun bere ez da obetuago ezaututen, neure kristinaubak, Jaungoikuaren jakiturija altuba ta geuri deuskun maitetasun neurri bagakua, sakramentu santubetan baino. Emen zabalduen dira zeruko ondasun andijen atiak ta Jaungoikuaren miseriak. Au ondo ezaututeko, gogoratu biar dau kristinaubak sarri, zetarako Jesukristo geure Jaunak itxi euskuzan sakramentu santubak, biar dan prestaeriaz eurakin balijetako ta esker onagaz Jaungoikuari erantzuteko.

#### IV.

Zetarako deritxazu bada, kristinaubak, itxi euskuzala Eleisa santan Jesus maitiak sakramentubak? Ah, neure entzula onak! Ondo ezautu al baginai au, berau askoko litzaateke geure bijotzak Jesusen amodijo santubagaz ixioteko. Gizonen ta aingeruben jakiturija bere ez da elduten gauza au ondo ezaututera. Pensau daigun, bada, al daigun moduban, geure zeruko Aita mansuaren ontasuna sakramentu santubetan. Geu salbetako Jesukristok itxi euskuzala sakramentubak, dino Erromako Katezismuak Trentoko konzilijuagaz. *Ad nos tram justificationem*. Baina au esan arren, ez da erraz ondo adituten sakramentubetan Jaungoikuak deuskun amodijua ta opa ona. Bada, Jaungoikuak modu askotara salbau gindukezan. Salbau gindukezan bere Seme bakarria gizon egin bagarik. Baita gizon eginda bere, erijotza gogorra kurutzian artu bagarik. Baita Jesukristok erijotzia artuta bere, gu salbetako bidia itxi eukian beste modu askotara. Itxi eukian geure salbazinoia sakramentu baten, zazpitan itxi eban legez. Baita itxi eukian sakramentu bakar a mundu baztar baten. Ta agindu jente guztiak ara juateko, salbau gura beeben. Itxi eukian mundu guztian persona bat bakarrik, batiatuteko. Beste bat bakarrik, konpesetako. Beste bat bakarrik, komulgetako. Ta onan beste sakramentubaren emonzaillak. Ta agindu euskegun Jesukristok, geure salbazailiak, persona bakar areetara juateko sakramentubak artuten, salbau gura dabena.

Zeinbat onako ta gatzagoko modu ez eukazan Jaungoikuaren jakiturijak gu salbetako? Ta zer izango zan gugaz orduban? Oh ze larriak ta penak, ain bide gatzak itxi baleuskuz geu salbetako! Zer izango zan gugaz, ain urrin, ain gora itxi baleuskube geure pekatubaren parkazinoia? Batio biar bakotxian, konpesau biar bakotxian, komulgau biar bakotxian ta ordendu biar bakotxian jua biar izan bagendu Erromara, Jerusalem edo leku urrinago batera, pekatubaren parkazinoiaren eske. Zer izango zan gugaz? Ta urrin atara juanda an egon biar izan bagendu sakramentubaren zain ogeta amazortzi urtian geure arimak garbituteko, piszina ondoko gizon banatuba edo tulliduba pozu onduan egon zan legez, ze nekiak izango zirian guriak? Oh, ze gatzak gure salbazinoia! Nor juango ete zan bigarrenian Erromaragino konpesetara? Ta ze gitxi irugarrenian, pekatu egin arren? Ta zeinbat pekatari inos bere jua bagarik illgo zirian? Ta orregaitino bere esker andijak zoroko geuntsazan Jesus geure Salbazaila maitiari, zan moduban zala, kostetan zana kostetan zala ta bere, salbetako bidia prestau euskuzalako ta zeruko ate santubak edegi euskuzalako.

Baina ez, kristinaubak, Jesus geure arimen Erosia bigunak, amodijozko erraijen jaube onak, beretzat gura izan zituban penak, gatzak ta azken bagako erremedio gogorrak. Ta guretzat era ona, neke bagakua, presta ta seguruba, geure arimak salbetako. Diru bagarik, izerdirik bota bagarik ta kansau bagarik emon gura deusku Jaun zerukuak sakramentubetan gure pekatubaren parkazinoia ta zeruko gloriya. Geuri onduen jagokuzan, geuk naijen oi ditugun ta geuretzat errezen dirian gauzetan itxi deuskuz Jesukristok sakramentubak.

*Lelengo:* Jesukristok itxi euskuzan zazpi sakramentu ta ez geijago ta ez gitxiago. Ta au, zazpi modu jagokazalako onduen gizonaren bitzi aldijari. Gizonari lelengo jagoko jaijotia. Ta jaijotia emoten deuskan legez gizonari argitarako edo mundurako izatia, alan batiak emoten deuska kristinaubari lelengo graziarako edo zerurako izatia. Augaita da batiua graziazko jaijotzia. Jaijo danari jagoko sendotutia ta indartutia. Alan *konfirmazioe*ko sakramentubak sendotu ta indartuten dau pedian, batiatuta daguana. Sendotuta indartsu egon arren, janariya biar dau gizonak, argaldu ta jausiko ez bada. Beste ainbeste kristinautzaan. Alan itxi euskun Jesukristok bere gorputz bizija *komunioe*ko sakramentuban geure arimen janarizat, espirituba argaldu ta jausi ez dakigun. Sendo egon arren, ta ondo jan arren jazo lekijo gizonari gaisotutia ta biar dau osagarriya. Alan itxi euskun Jesukristok, arimia gaixotuten daneko osagarritzat, *konpessioe*ko sakramentuba.



Osatu arren, gatz onduan biar da sendogarrija, gatz ondokinak kenduteko ta leengo osasunera gizona biurtuteko. Alan itxi euskun Jesukristok *extrema unzioia* erijotzako ordurako, pekatuben ondokinak parkatuteko ta arimia osasun onera biurtuteko. Gizonak bizi izateko biar dau nok erakutsi ta nok konberneau. Alan zerurako bidetan. Onetarako itxi euskun Jesukristok *ordiako* sakramentuba, euki daiguzan obispo ta sazerdote jaunak geuri zerura bidia erakutsi eiguben. Azkenian gizonari jagokana da, zerubak emoten deusan pamelija aztia. Atarako itxi euskun Jesukristok ezkontzako sakramentuba, seme alabak zerurako azteko. Oh, ze jakiturija andija ta ontasun neurri bagakua erakusten deuskun Jesus maitiak bere ta geure sakramentu santubetan! Ain merke, ain erraz ta ain ugari itxi euskun geure pekatu guztien parkazinoia ta arimako salbazinoia.

*Bigarrenian:* Itxi euskuzan sakramentubak agiriko gauzetan, geu gorputzezkuak garialako. *Izan bazina zeu espirituzkua*, dino S. Juan Krisostomok, *emongo eutsuzan Jaungoikuak bere doiak espirituko gauzetan. Baina zeu zarian legez gorputzekua, alan emon eutsuzan bere grazijak eta doiak agiriko senailetan.*

*Irugarrenian:* Itxi euskuzan Jesukristok sakramentu santubak kristinau pielen marka edo ezagungarritzat. Sakramentu santubak autortutian ta aintzat artutian ezaututen dira kristinaubak. Sakramentubak egiten gaitube kristinau ta Jaungoikuaren seme. Eurak parkatuten deuskubez pekatubak. Emoten deuskubee grazija, arimiaren arerijuak goituteko indarra ta azkenian zeruko betiko gloriija, zein opa deusudan guztioi Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## BAUTISMOKO SAKRAMENTUBA



## I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Adanek zelan pekatu egin eban.*
2. *Ze kaltiak ekarri zituban Adanen pekatubak.*
3. *Zelan erremedijau zan.*

Adanen pekatubak ekarri ditu, neure entzula onak, geure gainera ari-mako ta gorputzeko naibage, pena ta atsekabe guztiak. Adanen pekatuba da zerubari, Jaungoikuari ta gizonari zereginik geijen emon deutseena ta emoten deutseena. Jaungoikuak ornidu zituban Adan eta Eba, geure lelengo gurasoak, beste erakutsi baten entzun zeunstan grazija, doe ta zorijontasan andijagaz. Ta imini zituban luurreko *paradisuba* deritxon lekuban. An egin ebeen bijak pekatu. Ta zabaldu zan euren pekatuba Adanen belauneti datozen guztietara. Pekatu au dan legez guztiok geure sortueraan madarikatuten gaitubana ta Jaungoikuaren gorrotoko egiten gaitubana, deritxot ondo izango dala, bautismoko sakramentuaren asieraan zeubei erakustia: 1. *Adanek zelan pekatu egin eban.* 2. *Adanen pekatubak ze kaltiak ekarri zituban.* 3. *Zelan erremedijau zan.* Prestau zaitez entzuteko gogo onagaz.

### I.

Bizi zaatekezan, bada, Adan eta Eba paradisuban, eurak gura izan balebee, gatx bagarik, neke bagarik, ezeren bere premina bagarik ta gaiztokerija bagarik, beti on, beti zuzen, beti Jaungoikuaren esanian ta beti ditzoso. An eukeezan gizonak munduban biar zituban ta euki eukezan atsegina ta pozgarri guztiak. Emon eutseen Jaungoikuak leku zorijoneko atan gosetu bagarik, nekatu bagarik, gaisotu bagarik ta ill bagarik bizi izateko biar ebeen guztia. Baita Jaungoikuak berak dei egiten eutseenian zerura zuzen juateko grazija bere. Bakarrik eragotzi eutseen Jaungoikuak Adan eta Ebari, paradisubaren erdijan eguan arbolari prutuba jaatia. *Beste pruta guztietati jango dozu, esan eutsan Jaungoikuak Adani. Baina onaren ta gaxaren jakitia daukan arbolari, ez deitsazu prutia jango. Ta jaaten badeitsazu, ari*

*jaaten deitsazunian illgo zara. In quoquaque die comederis ex eo, morte morieris. Au baino beste gauzarik ez eutsan Jaungoikuak eragotsi Adani paradisuban.*

Satanasa edo diabruba agertu jakon sugiaren etxuriagaz Ebari paradisuban kanpoti. Ta itandu eutsan modu onetan: *Zetarako eragotzi deitsu Jaungoikuak arbola ari prutia jaatia? Erantzun eutsan Ebak: Beste guztietati jaaten dogu, baina ari erdiko arbolari ez jaateko ta ikuturik ez egiteko esan deitsku Jaungoikuak, ill ez gaitazan. Inundi bere ez zara illgo ari jan arren, esan eutsan sugiak Ebari. Baki, bada, Jaungoikuak, dirautsa sugiak Ebari, zubeke arbola ari jango bazeuntsa, zuben begiak edegiko litzaate kezana; jakingo zenduke orduban gauza ona ta txarra zer dan; ta izango zinatekez Jaungoikuak legez. Eritis, sicut Dii. Au entzun ebanian, etorri jakon Ebari gauza ona ta txarra jakiteko gurarija. Ikusi eban pruta eragotzi[j]ak etxura ederra eukana. Baita jaateko ona zirurijana bere. Artu eban, bada, Ebak pruta eragotzi ja ta jan eban. Emon eutsan, berak janda gero, Adan bere senarrari. Ta ak bere jan eban. Orduban bertati edegi zirian bijeen begijak, gauza ona ta txarra ikusteko. Leenago bijak biloxik egon arren, ez zirian lotsatuten, begijak itxita eukezalako gauza gatxerako. Baina pruta eragotzi ja ebeenian, bertati lotsatu zirian, alkar biloxik ikusita. Piko orri batzubeekin, al egijen moduban, laster estaldu zitubeen euren gerriak. Ta ezkutau zirian arbolapian.*

Agertu zan Jaungoikua paradisura. Ta dei egin eutsan Adani: *Nun zara? Erantzun eutsan Adanek Jaungoikuari: Jauna, zeure berbia entzunda lotsatu egin nas, biloxik nengualako. Ta ezkutau egin nas. Nok erakutsi deitsu, bada, biloxik zengozana, Neuk ez jaateko esandako prutia janak baino? esan eutsan Jaungoikuak Adani. Jauna, Zeuk laguntzat emon zeunstan emaztiak, emonda jan dot, esan eutsan Adanek Jaungoikuari. Zetarako ori egin dozu? esan eutsan Jaungoikuak Ebari. Ta erantzun eutsan Ebak: Jauna, diabrubak engainauta jandot. Adanek ezarri eutsan bere pekatubaren erruba Ebari. Ta Ebak sugiari edo diabrubari. Ta Jaungoikuak ezarri eutseen bere maldezi-noia guztiai.*

Lelengo ezarri eutsan sugiari, sugiaren etxuria diabrubak artu ebalako Eba engainetako. Ta esan eutsan Jaungoikuak: *Luurreko gauza guztien artian izango zara madarikatuba, emakumia engainauta pekatu eragin deitsazulako. Luurra janda, tripiaren gainian tatarraska ibiliko zara. Bake gaistua iminiko dot zure ta emakumiaren artian. Baita zure ta aren ondorengen artian bere. Emakumiak zapaldu ta birrinduko deitsu zeure buruba. Ta zuk engainubak ta jausgarriak iminiko deitsazuz aren orpuari. Onen ondorik esan eutsan Jaungoikuak Ebari: Geitu ta askotuko ditut zure penak ta gatxak. Minagaz ta aliagaz seinak egin biarko dituzu. Ta biziko zara gizonaren agindupian. Esan*





eutsan azkenian Jaungoikuak Adani: *Emakumiaren esana egin dozulako ta neuk eragotzitateko prutia jan dozulako, madarikatuba izango da luurra zure biarretan. Eztakak, arantzak ta larrak emongo deutsuz. Izerdijagaz ta nekiagaz jango dozu ogija, ill ta luur biurtu artian. Bada, luurra zara ta luur izatera biurtuko zara.* Ara emen, kristinaubak, Adanen pekatuba ta pekatu ari Jaungoikuak ezarri eutsazan gatzak. Orduban atera zituban Jaungoikuak Adan eta Eba paradisu negarrezko errijetara. Ta imini eban kerubin bat suzko ezpatia-gaz paradisuba zaintuten, an osteria inor sartu ez zedin. Aitu ezker bada, neure entzula onak, zelan pekatu egin eban Adanek, entzun egizu orain ze kaltiak ekarri zituban geure gainera Adanen pekatubak.

## II.

Pekatu egin ebeen orduban atera zituban Jaungoikuak paradisu geure leleno gurasuak. Ta ara nun gagozan eurak ta euren ondorengo guztiok negarrezko ta penazko erri edo balle onetan. Orduban jausi zirian utsegite guztiak, gatx guztiak ta neke guztiak geure gainera. Adanen pekatuba zala bitarte geratu zirian geure gorputzak ta arimak gaixotuta, makalduta, luurrera jausita, guraari gaistuen azpijan. Adina ta nailia, edo entendimentuba ta borondatia dira gizonaren algin edo potenzija nausijak. One[elk emon biar deutsee geure arimako ta gorputzeko gauza guztiak kobru, gizatasunez biziko bagara. Bada, beste gatx askoren artian, Adanen pekatubak ezarri eutseezan geure adinari ta nailiari, bakotxari lau gatx edo zauri, inos bere ondo osatuten ez dirianak. Geure adinari Adanen pekatubak ezarri eutsazan lau zaurijak dira: *Lelengo*: Bizi izateko biar ditugun gauzak ez jakitia. Adanek guztia ekijan, pekatu egin baino leenago. Ta guk bere jakingo genduban, ak pekatu egin ez baleu. Baina orain ez dakigu utsian betian baino, ez zek gatx egin ginaigun, ez zek galdu ginaizan. *Bigarrenian*: Adanen pekatubak ekarri eutskun gatxa da adineko illuntasuna, motztasuna, sortasuna ta gauzak argiro aitu ezina. Begiratu bategaz adituten zituban Adanek gauza guztiak argiro, zirian moduban. Ta guk bere adituko genduzan, ak pekatu egin ez baleu. Baina orain illunezko esi lodi bat daukagu geure adillaan, gauzak adituteko. *Irugarrenian*: Adanen pekatubak ekarri eutskun ikasi ezina. Adanek gauza guztiak ekizan, ikasten ibili bagarik. Ta guk bere jakingo genduzan, ak pekatu egin ez baleu. Baina orain, luzaro ikasten ibilita bere ezer ez dakigu, uts egite askogaz ta naastian edo ezdabaidan baino. Kristinautzako edo pedeko gauzak dakiguz zuzen, Jaungoikuak esan deuskuzalako. Baina

ikasten luzaro ibilita, buruba sarri kansauta ta jakitunago askori itanduta bere, Eleisa Ama santiak erakusten deuskunaz ostian, gure jakiturija guztia da, edo utsegitez, edo dudaz, edo ezdabaidaz betia. Beti ikasten, beti ikasi guraan ta beti ikasi biarrian da gizonaren bizitzia. Au jazoten jaku eginbiar ta opizijo guztietan. Emeti dator geure penseta modubak alkar ez artutia ta gauzai bardin ez eristia. *Laugarrenian*: Adanen pekatubak geure adinera ekarri euskun gatxa da, geure pensamentuba gauza baten euki ezina. Adanek pekatu egin baino leenago, nai ebana pensetan eban. Ta berak nai ez eban gauzarik ez jakon burura etorten. Ta gu bere alan izango ginian, Adanek pekatu egin ez baleu. Baina orain, gura ez dogula bere, milla burutazinoe gogora etorten jakuz. Ezin egon gara, nai izan arren, gauza bat pensetan luzaro. Ezin ezi dogu, edo nai dogun moduban ezin eskuratu dogu geure pensamentuba. Lau zauri oneek etorri jakozan geure adinari Adanen pekatuba ganik. Baita nailiari bere beste lau, zeintzuk dirian:

*Lelengo*: Geure nailiari edo borondatiari Adanen pekatubak ekarri eutsan zaurija da, geure burubak laarregi maitetutia ta estimetia. Emeti dator, gizon ta emakume guztiak euren burubak jasoteko ta estimazioia topeetako daukeen gogo presta ta aurreratuba. Ta geure buruben neurri bagako ta ordena bagako amodijo ta estimazioe laarregiti dator, alkarren artian ta bata bestiaganako daukaguzan bildurrak, ardurak, engainubak, enbidijak, ekusi ezinak, zekenkerijak, asarriak, ezdabaidak ta beste esan ezin legizan beste gatx. *Bigarrenian*: Jaungoikuaren esana egiteko ta gauza oneetarako atzerapena ta gogo mukerra. Ta gauza txarerrako ta pekatu-rako gogo presta. Umetati gara okerrerrako prestago, onerako baino. Ta au Adanen pekatubak ekarri euskun erru zitara da. *Irugarrenian*: Ekarki euskun Adanen pekatubak nairik naira laster aldatutia. Oraintxe nai dogu gauza bat ta gerotxubago beste bat. Ta andi laster, ez bata ta ez bestia. Ezin iraun dau geure goguak nai baten. *Nai dot eta ez dot; ondo deritxat ta ez deritxat; egin banen ta egin ez banen* da, Adanen pekatubak gizonari ekarki eutsan betiko kantia edo illetia. *Laugarrenian*: Pekatu zorigaistoko ak ekarri eutskun gatxa ta ez txikarrena da, Jaungoikuaren ondriari ta geure arimako onari jagokazan biarrik egiteko, indarrak gitxitutia. Ez zan guztiz galdu Adanen pekatubagaz gizonaren onerako ta gatxerako libertadia edo alizatia, erejiak pediaren kontra esaten dabeen legez. Baina geratu zan geure onerako ta gatxerako alizate andi au, gauza onerako, kristinautza zuzenerako, Jaungoikua ondretako, gaixotuta, argalduta, makalduta, leen baino oztaago Jaungoikuaren ta errazoiaren bidia jarraituten deutseela.



Ta gauza gatxerako geratu zan Adanen pekatubagaz geure libertadia bizkortuta, azkortuta, leen baino pretago ta sutsubago.

Ara, neure entzula onak, zelan geratu ginian guztiok Adanen pekatubagaz. Paradisu santuti negarrezko erri oneetara erbestetuta, jausi ginian guztiok pekatubaren azpira, Jaungoikuaren gorrotora ta diabrubaren eskupera. Adineko illuntasuna, naillako okertasuna, arimako ta gorputzeko gaixua, zaurijak ta erijotzia ta betiko kondenetako bidia, guztia ekarri euskun Adanen pekatubak, Trentoko batzaar santubak esaten daben legez. Gorputzian ta ariman iragoten ditugun gatz guztiak Adanen pekatuban dauke euren sustraija ta bizigarrija. Ama Birjina guztiz garbija alderatu ezkeo, beste Adanen seme ta alaba guztiok sortuten gara pekatuban. Ta guztiok dakargu geugaz amaren sabeleti arako *jomes* esaten jakon arimiaren kontrako gerragin andija. Beti geugaz dabilena ta inos bere ondo domau ezin doguna. Era triste ta negargarri onegaz gatoz guztiok mundura. Geure sortueraan lotuten gaitu pekatubaren katiak. Ta kateia au geurez inos bere urratu ezin ginai. Ezin askatu zaatekian gizona bere aleginagaz Adanen pekatubaren kateiati. Oinaz ez dakijan sein txikar bat leza ondotsu batera jausi ezkeo inok ateraten ez badau popuerza illgo dan legez, alan geratu zan gizona Adanen pekatubagaz, inos berez jagiko ez zan moduban, Jaungoikuak bere ontasun neurri bagia gaiti irakoi ta jaso ez baleu pekatubaren lezati. Ta orduban erremerijio bagakua izango zan gu guztiok kondenetia inpernura. Ez jentilak euren aleginagaz, ez judegubak Moisen legiagaz, ez beste gizonik naturaleziaren indarragaz ta argjiagaz zeruban sartuko zan inos, Jaungoikuak Adanen pekatuti askatu edo librau ez baginduz, dino Trentoko batzaar santubak.

Ze bizitza errukarrija, neure kristinaubak! Penaz, nekez ta negarrez mundu triste onetan bizita, gero betiko inpernuba! Zelan estimau ta maitetu biar dogu bada, neure entzula onak, gatz onen erremerijio ta osagarri santuba! Oh, ze esker andijak emon biar deutsaguzan Jaungoikuari, Adanen pekatuti, jatorrizko pekatuti, sortuerako pekatuti, edo pekatu orijinaleti askatu ginduzalako! Entzun egizu, bada, zegaz Jaungoikuak erremerijau eban Adanen pekatuba.

### III.

Adanek pekatu egin eban orduti senailau eban Jaungoikuak pekatuaren osagarrija edo erremerijua. Bada, san Paulo apostolubak dinuan legez, Jaungoikuak nai dau mundura datozen gizon ta emakume guztiak

zerura juatia. *Ez dogu, bada, sinistu biar*, dino S. Agustinek, *Jaungoikuak ez eutsala emon gizonari Adanen pekatubaren erremerijua zirkunzisinoia baino leenagoti*, *Eskritura Sagradubak esan ez arren zegaz parkatuten zan*. Emeti ezaututen dogu, kristinaubak, Adanek pekatu egin arren, miserikordijaren atiak beti zabaldu deuskuzala Jaungoikuak. Abraan justuba ta aren zirkunzisinoia baino leenagoti Jaungoikuak emon eutsan gizonari Adanen pekatubaren osagarrija, arima bat bere inos galdu ez dedin erremerijuren paltaz. Natureleziaren ta judeguben legian zegaz jatorrizko pekatuba parkatuten zan jakitia, ez da premina osokua geure kristinautzarako.

Baina jakin biar dogu ta sinistu biar dogu popuertza, ebanjelijo santuko legian *bautismoko sakramentuba* dala bakarrik, jatorrizko pekatuba geuri parkatuten deuskuna. *Uragaz ta Espiritu Santubagaz batiatu bagarik inor bere salbanko ez da*, dino Jesukristo geure Jaunak. Bautismo santuba da geure arimak lelengo pekatuti grazijara, illuneti argitara, Jaungoikuaren gorrototi bere adiskidetasunera ta galdu bideti gorde bidera aldatuten dituban sakramentuba. Bautismo santubak ez deuskuz kenduten Adanen pekatubak ekarri euskuzan gatz guztiak. Batiatuta egon arren, geugaz dagoz oraindino *ezjakina*, arimako *sortasuna*, gauza onerako *mukertasuna*, gauza okerrerako *prestasuna*, geure buruben *nai laarregija*, luurreko ta gorputzeko gustuen *gurarrija*, *gaixokortzija*, *illkortzija* ta beste onako asko. Baina bautismo santubak partatuten deuskuz arimako pekatu guztiak, erru ta pena. Berak egiten gaitu Jaungoikuaren seme, Jesukristoren ikaslari, Eleisiaren ume ta zeruko etxagun. Berak emoten deusku Jaungoikuaren berbiaren ta betiko egijen sinistutia; zeruko ondasunak jadisteko ustia; Jaungoikuagaz beragaz berba egiteko, Jaungoikua bera ezaututeko ta egijazko espiritubagaz maitetuteko alizatia. Bautismuak egiten gaitu beste sakramentubak artuteko duina. Ta berak kendu ez arren geu ganik Adanen pekatubaren gatz guztiak sustraiti, emoten deusku zeruko grazija ta laguntasuna, zeinegaz errazto goitu daikeguzan etsaijaren tentazinoiak ta aragijaren guraari gaistuak, geuk gura izan ezkeo.

Bautismo santuban emoten jako kristinaubari Jesusen erijotza santako irabatzi neurri bagiaren birtutia, kristinautza egijazkuari ondo kobru emoteko. Au gaiti esaten da bada, neure kristinaubak, bautismoko sakramentuban itxi euskula Jesukristo geure Jaunak Adanen pekatubaren osagarri erraza ta seguruba. Bautismo santuba da sakramentu guztietati lengua ta kristinautziaren asieria. Orregaiti esaten dau Erromako Katezismuak, sarritan kristinaubai erakutsi arren bautismo santuko ikasikizunak, ez dabeela pensau biar kura jaunak inos bere laarregi egiten dabeela. Gogoratu bada, neure entzula onak, Adan eta Eba lelengo geure



gurasuen pekatu negargarrija ta negarlarrija. Gogoratu pekatu zori gaisto ak ekarri euskuzan kaltiak. Baita Jaungoikuak pekatubari deusnan gorrotua bere, ainbeste negargarrigaz mindu zitubanian pekatu bat gaiti Adanen ondorengo guztiak. Baita Jaungoikuaren ontasuna ta miserikordija bere, beti baina batez bere Ebanjelijo santuban, Adanen pekatubaren edo jatorrizko pekatubaren osagarri ezaguna, seguruba ta erraza itxi euskulako bautismoko sakramentuban. Bildurtu gaitez, bada, pekatubagaz. Ta maitetu daigun bijotz osuagaz geure Jaungoiko guztiz ona. Eskatu daigun arima arimati bere grazija santuba, zeinegaz irabatziko dogun betiko zeruko glorija. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer dan bautismua.*
2. *Zeinbat modutakua dan.*
3. *Ze preminatakua dan.*

Bautismoko sakramentuba da, neure entzula onak, kristinautziaren sustraija, ta geure zerurako ustiari asipena ta eldu bidia emoten deusana. Berau gaiti eskatuten dau kristinaubaren ardura guztia ta alegin guztia, sakramentu santu onen erakutsija ondo baino obeto ikasteko. Esango deusut, bada, ikasikizun onetan: 1. *Zer dan bautismoko sakramentuba.* 2. *Zeinbat modutakua dan.* 3. *Ze preminatakua dan.* Prestau zaitez guztiok gogo bizijagaz, ainbat onduen entzuteko.

### I.

Bautismuak berak berez esan gura dabena da, neure kristinaubak, *garbitutia*. Garbitutia izan leiteke modu askotarakua, bai arimako gauzetan ta bai gorputzekuetan. Baina ez jako edozein garbituteri esaten *bautismua*, ez bada Jesusek atarako itxi euskuzan berbak esanaz, kristinau geijari ura ezarrita, lelengo egiten jakon garbitutiari esaten jako bautismua edo bautismoko sakramentuba. Esaten jako bautismuari sinistutiaren edo pediaren sakramentuba. Batiatuten danak, kristinautzako sinistute osua orduban lelengo artu ta autortuten dabelako. Esaten jako argituteko sakramentuba, bautismuak ateraten gaitubalako lelengo pekatubaren illuneti grazijaren argi ederrera. Esaten jako sepultura, batiatu baino leenagoko pekatu guztiak kenduten ditubalako; ta illda aaztuta legez betiko ezkute-tan ditubalako bautismo santubak. Esaten jako bautismuari Jesukristoren kurutzia, batiatuten dana orduban asten dalako kurutzia jarraituten ta mundubari, diabrubari ta aragijari gerra egiten. Esaten jako bizitza barrijaren asieria, bautismoagaz grazijaren bizitzia asten dalako. Esaten jako Eleisako atia, bautismuagaz lelengo Eleisan sartuten garialako. Baita esaten jako zeruko atia bere, zeruban sartuteko bautismua popuertzakua dalako, gero esango dan legez. Izen santa oneek guztiok emoten deutseez



Eleisiaren Gurasuak bautismoko sakramentubari, berak daukazan grazi-jazko ontasunak gaiti.

Bautismoko sakramentuba ez da, bada, beste gauzarik, neure kristinaubak, ez bada *arimari grazijazko lelengo jaijotzia emoteko, Jesukristo geure jaunak atarako itxi zituban herbak esanda, kristinai geijaren gorputzari ura ezartia*. Ze berba esan biar dirian batiatuteko; ze ur biar dan ta zelan ezarri biar jakon kristinai geijari, esango da geroko ikasikizunetan. Bautismoko sakramentubaren irudija ta ezauberia aintxinati Jaungoikuak zerbaitaan gizonai emon eutseen: 1. Dilubijoko uxalekin munduko pekatubak garbitu zitubanian. 2. Naamanek Jordango ibaijan ezkabija garbitu ebanian. 3. Jerusalemgo pozu edo pizina gaixo ta gatx guztien osalarrijagaz. 4. San Juan Bautistaren Jordango ur utsezko bautismuagaz. 5. Jesusek itsubari ikustia emon eutsan Siloeko iturrijagaz. Onan zerubak leendanaz aituten emon eban geuk daukagun bautismoko sakramentu egijazkua. Alabau biar dogu ta adorau biar dogu, bada, esker onagaz geure Jaungoiko guztiz maitegarrija. Bautismo santubaren bitartez bere semetzat ta zeruko etxaguntzat ezaututen gaitubalako. Ta ikasi biar dogu zeinbat modutakua dan bautismua.

## II.

Bautismoko sakramentuba bakarra da, neure kristinaubak. *Ez dago gen salbetako Eleisa bat, sinistute bat ta bautismo bat baino*, dino san Paulo apostolubak. Au onan izan arren esaten da, iru modu dagozala amaren sabeleti dakargun pekatuba ta beste edozein pekatu batiatu baino leenagoko geuri parkatuteko ta geure arimak salbetako. Oneek dira: Lelengo: *Urezko bautismua*. Bigarrenian: *Odolezko bautismua*. Irugarrenian: *Amodijozko ta naizko edo desiozko bautismua*. Baina santo Tomasek esaten daben legez, irurak joten dabee batera. Bada, odolezko ta amodijozko bautismua sartuten dira urezko bautismuan. Urezko bautismua zelan egiten dan, leen esanaren gainera, esango da gero. Bada, bera da bakarrik bautismoko sakramentuaba. Au gaiti bakarrik esango deusut orain, zer aituten dan odolezko ta amodijozko bautismuagaz.

Odolezko bautismua da, batiatu bagarik dagan gizonak nai emakumiak, pede santuba gaiti ta Jesukristo autortutia gaiti, bizitzia galdutia. Au da urezko bautismuaren ordekoa. Bautismo urezkuak parkatuten dituban legez bera artu arteraginoko pekatu guztiak, alan Jesus gaiti ta pede santuba gaiti bizitzia emoten dabenari parkatuten deusaz Jaungoikuak peka-

tu guztiak, batiatu bagarik egon arren. *Zer bautismo obia*, dino san Ziprianok, *Jesusen izenian penaak iragotia baino? Guztien aurrian Jesus Jaungoikotzat autortuta, Jesus ez ukatutia gaiti bizitzia emonda, norberaren odolagaz batiatutia baino?* Odolezko bautismuaren balijua Jesukristok berak esanda itxi euskun ebanjelijo santuban. Berak dino: *Gizonen aurrian neu gaiti arpegija ateraten dabena ta neu autortuten nabena, neuk bere autortuko dot ta zaintuko dot neure Aita Zerukuaren aurrian*. Zeinek, bada, obeto autortuten dau Jesus, Jesus gaiti bizitzia galduten dabenak baino? Baita esan eban Jesusek berak: *Neure amodijua gaiti bizitzia emoten dabenak, gordeko dau bere arimia*.

Alan, kristinaubak, batiatu bagarik inor zeruban sartuko ez dala esaten danian, dino san Agustinek, *aitu biar dala urezko edo odolezko bautismo bagarik illten danian gizona edo emakumia*. Odolezko bautismo onek bardin balijo deutsee persona nausijai ta umiai. Alan santa Emerenzianak, uragazko bautismua artu bagarik irago eban martirijua. Ta da zeruban santa andija. Beste ainbeste esaten da san Philemon martirija gaiti. Baita santa Katalina Alexandrijakuak, Jesusen sinistutera biurtuta, pede santuba gaiti martirija irago ebeen jakitunak gaiti bere. Oneek guztiok ta beste onako askok ez ebeen lekurik euki urezko bautismua artuteko. Ill zitubeen berdugubak Jesusen gorrotoz, pedia ukatu gura ez ebeelako. Ta garbitu zitubeen euren arimak euren odolagaz ta Jesus gaiti bizitzia emonagaz. Erodesek Jesusen gorrotoz ill zituban sein inozente edo erru bagiak gaiti beste ainbeste esaten da. Ta Eleisiak kantetan dau, eurak diriala martirijen loraak. Sinistu biar dogu bada, kristinaubak, odolezko bautismuak parkatuten ditubala pekatubak guztiak, urezko bautismuak berak legez. Baita naizko edo desiozko bautismuak bere.

*Naizko bautismua* esaten da *dala, gizonak edo emakumiak urezko bautismua artuteko gogo osua ta nai egijazkua daukanian ta inundi bere artu ezin dabenian*. Onetarako euki biar da: 1. Jaungoikuaren ezauberia ta sinistutia. 2. Jaungoikuaren amodijua. 3. Pekaturik egin badau, pekatubaren damu bizija, Jaungoikua injurijau dabelako pekatubagaz. 4. Inundi al dagijanian, urezko bautismua artuteko nai egijazkua. Gauza oneek guztiz preminakuak dira, *naizko bautismuak* balijo izateko. Au gaiti, errazoiaren usura eldu ez dirianak ezin balijau leitekez naizko bautismuagaz. Baina bai edozein persona nausi, esan dirian lau gauzaak iminten baditu bere aldeti. Bada, urezko bautismua artu ezin dabenari, al balei artuteko daukan nai egijazkua gaiti, Jaungoikuagana daukan maitetasuna gaiti ta bere pekatuben damu bizija gaiti parkatuten deusaz Jaungoikuak pekatubak guztiak, uragaz ta Espiritu Santubagaz batiatu balitz legez. Ta orduban illo balitz,



juango litzaateke zuzen zerura. Alan dino san Agustinek, *naizko bautismuagaz batiatu zala, Jesusegaz kurutzian ill zan lapur ona*. Beste ainbeste dino san Ambrosiok, Balentiniano gaztia gaiti. Au gaiti esaten dau Eleisa Ama santiaren Trentoko batzaar osuak: Ebanjelijoko sinistutian ez dabela inok pekatuben parkazinoia jaditxiko batiatu bagarik edo bautismuaren *nai* egi-jazkua bagarik.

Emeti ezaaututen da, neure kristinaubak, bautismoko sakramentuba bakarra izan arren, iru modu itxi euskuzala Jesukristo geure Jaunak, amaren sabeleti dakargun pekatuba parkatuteko. Ta baita beste edozein pekatu batiatu baino leenagoko bere. Bata ezin daniel, bestiagaz balijauta geure arimak salbau daiguzan. Ze ona dan geure Jaungoikua! Zelan begiraturen deutseen geure onerako eskina guztiai! Zelan prestatan deuskuzan bidiak, batera ez bada bestera, geu zerura eruateko! Oh, ze maite izan biar dogun geure Jaungoiko ona!

### III.

Ta inor salbau ete leiteke batiatu bagarik? Ez, neure kristinaubak. Pedeko sinistukizuna edo *artikuluba* da, edo urezko, edo odolezko, edo amodijozko ta naizko, esan dan bautismo bagarik ez dala inor zeruban sartuko. Jesukristo geure Jaunaren ebanjelijo santuba azaldau ta predikau zan ezker, erremedio bagakua, popuertzakua, nora ezekua edo naita ezekua da batiatutia, salbetako. *Uragaz ta Espiritu Santubagaz barriro jaijoten ez dana ezin zeruban sartu leiteke*, dino Jesus geure Salbazaille maitegarriak. Uragaz ta Espiritu Santubagaz barriro jaijotia da, pekatubaren illuneti bautismuagaz grazijaren argitara iragotia. Onan aituten ditubee ta erakusten ditubee Jesusen berba are[e]k Eleisa Ama santiaren batzaarrak ta Gurasoak. Berau gaiti esaten dau Eleisiaren Trentoko batzaar nausijak erejen kontra Espiritu Santubaren izenian, *inok esaten badau bautismo bagarik salbau leitekiala edo ez dala nora ezekua bautismo santuba salbetako, izan dedilla eskomulgaua*. Ez dagijala zer ikusirik euki alan berba egiten daben erejiak zeruko gauzetan, dino Eleisa Ama santiak. Sinistu biar dogu bada, kristinaubak, pedeko egizat bautismoko sakramentuba, edo urezkua, edo odolezkua, edo amodijozkua, leen esan dan legez, popuertzakua dala arimak salbeetako. Sinistu biar dogu, nai modu batera ta nai bestera, nai bere erruz ta nai erru bagarik, nai amaren sabelian galduten dala, nai jaijo ta bertati galduten dala, nai azita, nausi eginda illten dala, batiatu bagarik beste mundura doian arimia ez dala inos bere zeruban sartuko.

Erakutsi onetati sinistu biar dogu, neure kristinaubak, *leleengo*: Amaren sabelian galduten dirian seinak, bautismo santubaren paltaz duazala linbora. *Bigarrenian*: Jaijota batiatu bagarik illten dirian seinak, errazoiaren usura eldu ez dirianak ta jatorrizko pekatuba baino beste pekatu-rik ez daukenak, nai diriala kristinauben umiak, nai diriala judegubenak, nai jentilenak, nai turkubenak, nai erejenak, guztiak duazala betiko linbora. *Irugarrenian*: Sinistu biar dogu, errazoiaren usura elduta jatorrizko pekatubaren gainera eurak pekatu mortalak egin ditubeenak, bautismo santuba bagarik illten dirianak, duazala betiko inpernura. Begiratu, neure entzula onak, ze premina andikua dan bautismoko sakramentu santuba. Baita ze itsutasun andijan dagozan bere ainbeste gizon ta emakume mundu zabalian, Jaungoikuari ta Jesukristo geure Jaunaren Eleisiari sinistu gura ez deutseela ta bautismoko sakramentu santuba ukatuten dabee-la. Oneek dira judegubak, jentilak, erejiak ta geure Eleisa Ama santa, bakar, Erromakuaren ta apostolu santubak zabalduaren sinistuteti kanpora dagozan guztiak.

Oh, ze esker andijak emon biar deusaguzan geure Jaungoikuari, bere Eleisa bakar santara dei egin deuskulako, bautismo santubaren bitartez! Oh! Ezautuko bagendu ondo zeinbat balijo deuskun kristinau izatiak, estimauko genduke obetuago Jaungoikuaren doe bardin bagako au, ta erantzungo geunskijo zintzoruago zerurako deijari, bautismo santuban egin genduban eskini santubari. Pensau ete dozu inos ondo, kristinaubak, zeinbat balijo deuskun kristinau izatiak? Pensau ete dozu zeinbat dagozan munduban, andi eginda, zaartuta, kristinau izateko biderik ez daukeenak? Zer dira ainbeste judegu? Ainbeste jentil? Ainbeste moro? Ainbeste *ateista* edo Jaungoikuaren burlaari? Ainbeste hereje ta sakramentuben ukalari? Zetan dagoz ta zetan geratuko dira areen arima tristiak ta gorputzak, batiatuta kristinau egiten ez badira? Duda bagarik dirianak dagoz errukarri tristian, inpernurako bide jakinian. Zer geijago zor eutsun, bada, zuri Jaungoikuak, arei baino? Zer egin zenduban zuk, kristinau izateko? Batiatuta egoteko? Jaungoikuak bere aparteko semetzat artuteko? Salbetako bide segurura ta bakarrera, arei itxita, zuri Jaungoikuak dei egiteko? Zer zenkijan zuk jaijo zinanian? Zer sortu zinanian? Ezer bere ez. Zu ta moro bat, edo judegu bat, edo hereje bat bardin sortu ta bardin jaijo zinian. Ta areek euren utsegitetan itxita, zugana bere begi bigunak Jaungoikuak itzuli zituban. Zu beste askoren artian bere semetzat ta serbizaritzat artu zinduzan Jaungoikuak bautismuagaz.

Ta zeinbat ill edo itoten dira batiatu bagarik kristinauben euren artian? Menturaz neure anae edo arrebak linbuan dagoz betiko, bautis-



muaren paltaz. Neu sortu nintzan amaren sabelian sortu zirian areek bere. Neu gordetako euki eban beste ardura euki eban areek gordetako bere. Areek linbuan dagoz betiko ta ni bautismo santubagaz zeruko bide seguruban nago. Ta neuk Jaungoikuaren dejari erantzuten badeutsat neure aldeti, egongo nas beti zeruban duda bagarik. Zer egin neban, bada, nik areek baino geijago, bizirik jaijoteko ta bautismo santubaren grazija artuteko? Ezer bere ez. Ill nintzaatekian edo ito nintzaatekian jaijo baino leenago. Ta egon nintzaatekian betiko linbo illunian. Baina ez dau gura izan Jaungoikuaren ontasun neurri bagiak. Berak bakarrik bizirik euki ninduban amaren sabelian. Berak azi ninduban ta argitara atera ninduban. Ta berak, bautismo santubagaz garbituta, artu ninduban bere semetzat.

Oh, neure Jaungoiko ona! zeinbat maite izan biar zaitudan, bautismo santubagaz egin zeunstazan mesediak gaiti! Oh nire tristia, judeguba izan banintz! Oh nire errukarrija, morua izan banintz! Oh nire zori gaisotokua, herejen legian jaijo ta azi banintz! Oh nire galduba, Jaungoikuari, Jesukristori, ebanjelijo santubari, sakramentubai, zerubari, arimiari ta Eleisiari jaramonik ez egiten edo barre ta burla egiten erakutsi balestee umetati neure gurasuak, neure erakuslak, neure lagunak ta neure auzuak! Zer izango zan nigaz, Jaun Zerukua, zer izango zan! Baina, zer izango zan? Ah! Diarubak, mundubak ta aragijak goituta; egunian egunian pekatubari pekatuba ezarrita; zeure esan santubak ta betiko egijak, oh Jesus maitia! burlagarritzat artuta biziko nintzan munduban, ganadu baten gisaan. Ta ill nendinian, juango nintzan zuzen inpernuko ondarretara betiko. Oh, neure entzula onak! Au izan zaatekian zuben guztion ta nire azken penagarrija ta bildurgarrija. Edo Jaungoiko gozuaren arpegi santuba ikusi bagarik beti linbo illunian egotia, ito bagina geure amaren sabelian bautismo bagarik.

Baina ez dau gura izan geure Jaungoiko onak gu alako galdu bidian istia. Aintxinati zabaldu zituban bere begi misekordijakuak geugana. Beste millari ta geijagori itxita, ekarri gaitu bere etxe santara, bere Eleisa santara, urrian bertan beragaz bere maijan bizi gaitzean. Bautismoko iturri santuban geure arimaak garbituta, bere semetzak batiuan markauta, grazijagaz apainduta, zeruko sinistutiagaz ta erakutsijagaz argituta, bere odol santubaren balijua sakramentubetan geuri emonda, emen gaukaz zerura eruateko prestetan, geuk nai badogu. Au da Jesukristo geure Jaunak bautismo santubagaz egin deuskun mesede neurri bagia.

Alabau degijela, bada, geure Jesus mategarrija kriatura guztiak. Kantau dagijezala zeruban aingerubak bere miserikordija zabalak. Amau dagijela, adorau dagijela ta jaso dagijela kristinau guztiak Jaungoiko egi-

jazkuaren ontasun neurri bagia. Ta urtu dedilla nire bijotza bere Jaun andi, bakarraren amodijo santuban. Ez nadilla kansau inos esker onak ta grazijak neure Jaun zerukuari emoten; bautismo santubagaz ta kristinau egina-gaz erakutsi deustan maitetasun andijari zelanbait neure aldeti erantzuteko. Onetan amaitu dedilla nire bizitzia.

Bai, neure entzula onak, ez dogu aaztu biar bautismoko mesede andija, erantzun biar deustagu esker onagaz ta humildiagaz Jaungoikuaren dejari. Ez dogu lotsatu biar pekatubagaz kristinaubaren izen santuba. Ez dogu loitu biar pekatubagaz bautismuan emon euskuben grazijazko jantzi ederra. Bada, Jaungoikuaren mesede apartekua dan legez gu zerura eruateko, geuk galduten badogu zeruba geure erruz, Jaungoikuaren asarria bere apartekua izango da gu penectako. Au gaiti, geu bagara lotsa gaistokuak Jaungoikuarentzat, izanik geu Jaungoikuak bere etxera, bere Eleisara ta bere mai santura deitubak, an zintzoro bere esanak guztiak egin daiguzan ta bere esanak ta agindubak egin biarrian, lotsia galduten badeustagu ta asarratuten badogu geure Jaungoikua, errazoe andijagaz bere etxera eruan ez ditubanak baino geijago kastigauko gaitu.

Oh Jesus neure gordezaille maitia! Amaitu egizu, bada, nigan, bautismuagaz asi dozun sail santuba zeure grazija indartsubagaz. Emon deustazu zeure sinistutia ta zeure seme izatia bautismuagaz; bada, emon egidazu, zeu bakarrik maitetu[te]ko atsegina ta zeruban beti gozetako zori ona. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zegaz egiten dan baustismoko sakramentuba.*
2. *Zelan egiten dan.*
3. *Nok egin legijan.*

Aituten emon ezker kristinaubari Adanen pekatubak zelan gaixotu eban geure sortueria, ze era negargarrikora ekarri ginduzan guztiok ak pekatubak ta zelan pekatu aren osagarritzat itxi euskun Jesukristo geure Jaunak bautismoko sakramentuba bakarrik, nora ezekua legez da, neure entzula onak, kristinaubari erakustia sustraiz: 1. *Zegaz egiten dan bautismoko sakramentu santuba.* 2. *Zelan egiten dan.* 3. *Zeinek egin legijan.* Ara emen, erakutsi onetako ikasikizuna. Ezin ukatu ginai, bautismo santuba geu salbetako nora ezekua dana, ezda ustez uste bagarik seinak batiatu biarra sarri jazoten dana bere. Ta ain gitxi, errazoiaren usura eldu dirian gizon eta emakume guztiak daukeela txito premina andija, zegaz, zelan eta nok batiatu legijan jakiteko. Au gaiti erregututen deusut guztioi, imini dagizula ainbat ardurarik andijena bautismo santuko erakutsijak ondo entzuteko ta ikasteko.

#### I.

Jesukristo geure Jaunak berak agindu eban batiatutia, geu salbetako. Baita Jesus maitiak esan euskun bautismua zegaz egin bere. Ya ez dago geure eskuban bautismo geija autortutia edo aldatutia. Ura itxi euskun Jesukristok bautismo geitzat. *Uragaz ta Espiritu Santubagaz barrero jaijo bagarik ez da inor zeruban sartuko,* esan eutsan zeruko Erakusliak Nikodemusi. *Ura ezarten jako batiatuten danari,* dino san Gregorijok; *ta uragaz seinari gorputza garbituten jakonian, Espiritu Santubak garbituten deusa arimia pekatubetati.* *Gauza bat da sakramentubaren ura ta beste bat da Espiritu Santubaren ura,* dino san Isidorok. *Sakramentubaren ura ikusten dana da. Espiritu Santubaren ura ikusten ez dana da. Sakramentubaren urak garbituten dau gorputza ta aituten emoten dau, arimia garbituten dana. Ta Espiritu Santubaren grazijak garbituten dau arimia,* dirausku Santubak berak.

Au da, neure kristinaubak, Jesukristo geure Jaunak itxi euskun bautismoko jaijotza barrija. Pekatuzko bizitzari grazijazko bizitzara urezko sakramentubagaz iragotia. Bautismoko sakramentuba egiteko, nai ta ezekua da ura. Au gaiti esaten deusku san Paulo apostolubak, *uragaz garbitu ebala Jesukristok Eleisa guztia, pekatubaren izurtura, loi edo mantxa bagarik guztia santia, ederra, garbija ta grazijaz apainduba erakusteko.* Uragaz batiatuten danian, Espiritu Santubaren grazijak emoten deusa arimiari jantzi garbi, eder au. Orduban geratuten da kristinaubari arimia pekatubaren zetaka bagarik, illun edo arretasun bagarik, guztia grazijaz zurituta, loratuta, argituta, santa eginda. Ta batiatutako arimak dirian legez Eleisa Ama santia pormau edo orniduten dabeenak, orregaiti esaten dau Apostolu santubak, *uragaz garbitu ebala Jesukristok Eleisa guztia.*

Gauza bi erakusten deuskuz emen Apostolu santubak. Bata da, batiatuten dana guztiz garbija ta santutuba geratuten dana. Ta bestia da, bautismo santuba uragaz egiten dana. Alan Eleisa Ama santiak Trentoko batzaar santuban kondenetan ditu herejetzat esaten dabeenak, *ez dala uragaz egiten bautismoko sakramentuba; edo batiatuteko, ura ez dala nora ezekua.* Sinistu biar dogu bada, neure entzula onak, pedeko gauzatzat, nora ezekua dala ura batiatuteko. Ura dala bautismuaren geija. Ur bagarik ezin legijala bautismoko sakramenturik. Ta asko ete da ura bera bakarrik, seinak batiatuteko? Ez, kristinaubak. Ura seinari ezarten jakonian, esan biar jakoz Jesukristok orduban esateko itxi euskuzan berbak. *Berbia elduten da uragana ta egiten da baustismoko sakramentuba,* esaten deusku san Agustinegaz Erromako Katezismuak. Alan ura ta berbak, bitzubak biar dira batiatuteko. Au gaiti jakin biar dau kristinaubak ondo *lelengo,* ze ur biar dan batiatuteko. *Bigarrenian,* ze berba biar dan.

Ze ur biar da, bada, batiatuteko? Berezko ura izan ezker, edozein ur da asko batiatuteko. Baina eleisan batiatuteko, bautismoko sakramentubari jaokan osotasunagaz, etsaibotetiagaz ta batiatute aldi nausijagaz, biar da urte atan bedeinkatutako ura, dino san Karlos Millanguak. Ez, bautismo santuba bedeinkatu bagako uragaz egingo ez litzaatekialako, ez bada sakramentubaren erreberenzija gaiti Eleisiak alan aginduten dabelako. Onezaz ostian, edozein ur berezko da asko ta da ona seinak batiatuteko. Au da zube jakin biar dozuna, premina orduban etxe bautismua seinari emoteko ta aren arimia pekatuti askatuta, zerurako prestetako. Esaten da biar dala *berezko ura;* au da, beste gauzagaz naastau bagarik daguana. Alan, nai errekekua, nai iturrikua, nai pozukua, nai ituxurekua, nai itxasokua, nai izunguraan edo bidian geratuta daguana, nai otza ta nai berua, nai garbija ta nai arria, edozein ur berezko da asko ta da ona biar



orduban batiatuteko. Egija da, eskura euki ezkerro, oba da ur bedeinkatubagaz batiatutia. Baina alako ordu estuban, seiná ondo ta balijoz batiatutiak euki biar dau ardura nausija.

Oi dira jakitun batzuk, edo *andra-maestra* esaten jakuen batzuk, guztia dakijelakuan ezer bere ondo ez dakijenak. Alako seingintzetan edo seingaltzetan euren utsegitezko jakiturijagaz arrotuta, biar ez dirian burutazinoiak prestetan diardubeen artian, seiná batiatu bagarik eskubetan illten jakuenak. Esaten da, bada, osterá bere, kristinaubak, *edozein berezko ur dala asko estu orduban seiná batiatuteko*. Ez da *berezko* ura, zerbaitegaz naastautá daguana. Ez da *berezko* ura, bedarrakin edo lorakin egositako ura. Ez da *berezko* ura, arduagaz edo saardauagaz naastautako ura. Ez da *berezko* ura, saldiagaz edo beste bustigarriren bategaz naastautako ura. Urak izan biar dau, bada, berezkuak. Naturaleziak egin daben erakuak, ez naastaubak edo aldatubak, batiatuteko. Au jakinda euki biar dabee dotrina puska bat baino ez dakijen kristinaubak, ur naastauba berezkuaren lekuban inos ezarri ez dagjuen seinari. Alan esaten deusku san Karlos Millanguak, erakusteko kristinaubari, naastautako uragaz egindako bautismuak ez dabela balijo. Au da batiatuteko uraren gainian kristinaubak jakin biar dabena.

Ta ze berba esan biar jakoz seinari, batiatuteko, ura ezarten jakonian? Jesukristo geure Jaunak berak esateko agindu euskuzanak. Ez geijago ta ez gitxiago. Eurak bakarrik, Eleisa Ama santiak erakusten deuskuzan moduban. Ez naastautá, ez birrinduta. Ez beste aitu emote batera ekarríta, ez bada eurak bakarrik ta zuzen. Jesusek berak erakutsi eutseen apostolu santubai, zer berbagaz egin biar ebeen bautismoko sakramentuba. Ta agindu eutseen: *Juanda, erakutsi egijezu jente guztiai ebanjelijoko esana; ta batiatu egizuz Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian*. Ara emen Jesukristoren beraren ao santuti, seiná batiatuteko berbak. Guztiak dira biarrekuak edo popuertzakua. Popuertzakua da Jaungoikuaren iru personak, AITIA ta SEMIA ta ESPIRITU SANTUBA izentetia. Popuertzakua da, batiatuten dabena ta batiatuten danaren personak izentetia. Baita batiatuten dabena aituten emotia bere. Au guztiau egiten da esanagaz: NIK BATIATUTEN ZAITUT AITIAREN ta SEMIAREN ta ESPIRITU SANTUBAREN IZENIAN. Amen. Berba oneek dira, seiná batiatuteko esan biar dirianak, orain zubei jagotzunez. Ez dira gitxitu biar. Ez dira geitu biar. Ezda naastau edo okertu bere. Bada, okertu edo naastetan badira daukeen esaneti, ez dau balijoko bautismuak. Artu egizuz, kristinaubak, ondo buruban berba santu oneek, biar orduban seiná batiatuten ondo jakiteko. Ta entzun egizu uragaz ta esan dirian berbakin zelan batiatu biar dan seiná.

## II.

Ez da emen ezer esaten, eleisan seiná batiatutiaren gainian. Au eleisa gizonai jagokuena da. Nik erakutsi biar deusdana da, sein bat jaijota laster illteko peligruban daguanean ta eleisara eruateko lekurik emoten ez dabenean, zelan batiatu biar dozun. Onetarako jakin biar da *lelengo*, orain aita ditugun seinak diriala jaijota dagozanak. Bada, jaijo ezinda dagozanak edo denporia baino leenago galduten dirianak zelan batiatu biar dirian, esango da geroko erakutsijan. *Bigarrenian*: Etxe bautismua emoteko seinari, ez da biar ez aita besuetakorik ez ama besuetakorik. *Irugarrenian*: Edozein gizon nai emakumek batiatu legi seiná premia orduban, batiatuten jakin ezkerro. *Laugarrenian*: Eleisara eruan al dedilla ta laster illteko peligrurik ez daukala, ez jako seinari etxe bautismua emon biar. *Bostgarrenian*: Gurasuak ainbat lasterren eruan biar dabee seiná eleisara batiatutera. Bada, Erromako Katezismuak dinuan legez, pekatu andija izango litzaateke, popuertza biar dan baino luzaruago seiná batiatu bagarik eukitia. Seinak bautismua baino beste medijorik ez dauka salbetako. Ta jaijo barrijan txito peligru asko daukaz illteko. Bost gauza oneek goguan diriala esaten da, bada, nora ezian edo ordu popuertzakuan seinari etxe bautismua emoten jakola. Baina zelan? Seiná biloxtuta, buruti edo gorputzaren zati nausi bateti edo gorputz guztiti ura ezarrita, ura ezarten jakonian esanagaz: *Nik batiatuten zaitut Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen*. Ura ezarten jakonian esan biar dira berba oneek. Bada, ura ezartiak ta berbak esatiak bat egin biar dabee. Ura ezarri baino zerbait leenago edo ura ezarrita zerbait geruago esaten badira berbak, ez dau balijo bautismuak. Batiatuten dabena euki biar dau ustia edo gogua, seiná batiatuteko. Ura ezarten deusanak berak esan biar deusaz seinari bautismo berbak. Bada, batak ura ezarri ta bestiak berbak esan, ez dau balijo bautismuak. Ara erakutsita, zelan egin biar dan etxe bautismua premia orduban. Ta oni darraiko erakustia, nok batiatu legijan seiná premia orduban.

## III.

Bautismoko sakramentuba gauza santuba ta andija da, neure entzula onak. Orregaiti ez da edozein modutan egiten dana ta egin biar dana.





Eleisa Ama santiak imini dau moduba gauza onetan bere. Ta Eleisiaren aginduba egin biar dogu. Bautismo santuba nok egin biar daben erakusteko esaten da, bada: 1. Obispo jaunen zeregina da batiatutia. Obispo jaunen urreengo kura jaunen zeregina da. Oneen ondorik sazerdote jaunena. Oneen ondorik diakunubena. Gero sudiakunubena. Gero edozein eleisa gizonena. Eleisa gizonen paltaan, leenago dira gizonetzkuak emakumiak baino. Beste kristinau batiatuten dakijanaren paltaan, dira gurasuak, seinaren aita edo ama. Ordena au gorde biar da seinak batiatuten. Ta austen bada premina bagarik, seinu batiatuteko aurrerago danari egiten jako injurija. Ta au pekatu da, dinue santo Tomasek ta san Karlos Millanguak beste askogaz. Sazerdote baten aurrian batiatuko baleu seinu beste abade ez dan batek, abade jaunak ontzat emon bagarik, egingo leuke pekatu seinu abadiaren aurrian batiatuten dabenak. Gurasuak batiatuko baleu bere umia, beste dakijanok nok batiatu daguala, egingo leuke pekatu ta ekarriko leuskijo bere burubari beste karga astun bat, zein irago biarko leukian bere konpesoriagaz.

Esaten da 2. alako seinu etxian edo jaijoten dan lekuban batiatuteko, ordu estuba danian edo eleisa gizonik ez badago aurrian, onduen dakijanok batiatu biar dabela seinu. Beste lagun asko aurrian egon arren, ez badakije seinu batiatuten ondo ta seguru ta seinaren aitak edo amak badaiki batiatuten ondo, orduban aitak nai amak obeto dakijanok batiatu biar dau seinu. Bada, alako nora ezian ta estu orduban geijen balijo dabena ta biarren dana da, seinu ondo batiatutia ta aren arimia salbetako bidian imintia. Alakuan, ez inori injurija andirik egiten jako, ez gurasuak egiten dau paltarik seinu batiatubagaz.

Esaten da 3. besten paltaan, edozein gizon nai emakumek batiatu legijala seinu biar orduban, Eleisa Ama santiak bautismuan egiten dabena egiteko ustia euki ezkeru. Dinot, *edozeinek*. Nai dala judeguba, nai dala jentila, nai dala morua, nai dala herejia batiatuten dabena, seinari ura ezarriagaz leen izentau dirian berbak esan badeutsaz batiatuteko ustiagaz edo Eleisiak bautismuan egiten dabena egiteko ustiagaz, batiatuta geratuko da seinu, dino Trentoko konzilijuak.

Ez, bada, aaztu, neure entzula onak, zegaz egiten dan bautismoko sakramentu santuba; zelan egiten dan; ta zeinek egin legijan, bai eleisan jagokan naustasun guztiagaz ta bai biar orduban edozein lekutan. Sakramentu biarrekua ta nora ezekua itxi euskun Jesukristo geure Jaunak bautismoko sakramentuba, salbetako. Baina sakramentu merkia, erraza ta presta. Zer gauza eskuragua, sein bat batiatutia baino? Ez da dirurik biar. Ez da izerdirik bota biar. Ez da nekerik artu biar, seinu batiatuteko. Ur

puska bategaz ta berba bigaz batiatuten da seinu edonun ta edonos. Zer gauza errazagua au baino? Zer gauza ugarijagua ura baino? Zer leenago egin ginai berba bi edo iru esatia baino? Zer leenago ikasi ginai, Aitiaren egitia ta *nik batiatuten zaitut* esatia baino? Bada, *nik batiatuten zaitut Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian* esanagaz ta ur puska bat ezarriagaz seinu batiatuta dago. Zerurako prestauta dago. Illtia palta dau, zeruban beti aingeruben lagunkidian biziteko.

Oh, Jesus maitegarrija! Ze jakituna, ze ona, ze artetsuba zarian geure onerako! Ez zenduban gura izan, geu batiatuteko ura itxaso urrineti ekartia. Ez zenduban gura izan, Erroman bedeinkatu biarrekua izatia. Ezda diru askogaz erositakua izatia bere, ez bada edozein berezko ur, nai erre-kakua, nai pozukua, nai ituxurekua... itxi zenkuban bautismo geitzat. Edozein jentil, judegu, nai herejeri emon zeuntsan eskubidia seinu batiatuteko. Edozein leku, nai etxia, nai solua, nai basua, nai bidia, prestau zenduban biar orduko bautismo lekutzat. Oh, kristinaubak! Ez da au Jaungoikuaren miserikordija zabala ta presta, geu salbetako? Ta ez dogu maitetuko, alabauko, adorauko ta bedeinkatuko Jaungoikuaren izen santuba geure bijotz guztiagaz, gogo guztiagaz ta arima guztiagaz? Adanen pekatu gaistoti askatuteko ain modu seguruba, erraza, presta, merkia ta ugarija emon deuskulako? Bai, Jesus ona, ametan zaitugu, adoretan zaitugu ta alabetan zaitugu gogoti guztiok. Ta erregututen deusugu zeure grazija indartsuba, agindu onei kobru emoteko ta onen sarija, zeu zeruban gozetako. Amen.



#### IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Arimia gaiti zer sinistu biar dogun;  
ta zelan pensau daikegun bere asieriaren gainian.*
2. *Ze gaiti galdu oi dirian askotan seinak amaren sabelian.*

Arimiaren betiko onari urreti jagokazan gauzetan ez dogu ezer bere itxi biar, neure kristinaubak, ainbat onduen ikasi bagarik. Erakutsi arren, bada, kristinaubari bautismo santuba zegaz eta zelan egiten dan, bagoz beste gauza batzuk, moduren baten sakramentu oni jagokazanak ta kristinaubak jakitia txito ondo dirianak. Seinak guztiak jaijoko balira amaren sabeleti ondo ta sendo, ez legoke esan dana baino geijago zer ikasi bautismo egitiaren gainian. Baina sarritan jazoten dan legez seinak denporia baino leenago jaijotia edo galdutia, emeti dator arima triste areen errukija. Baita alegin guztiagaz arei lagunduteko naija bere. Batzubetan galduten dira seinak amaren sabelian gurasuen erruz. Beste batzubetan, gurasuak errurik ez daukeela, eurekauten. Gurasuen erruz bere batzubetan, gurasuak berarjaz berak seinu galduta. Beste askotan, berarjaz izan ez arren, gurasuaren beraren erruz. Baita seinak bere galdu oi dira amaren sabelian, batzuk leenago ta beste batzuk geruago. Batzubetan, sortuta laster. Ta beste batzubetan, sortuta nekezago.

Beste aldeti, batiatu bagarik geratuten dirian seinentzat ez dago salbetarik. Amaren sabelian arimia gorputzagaz bat eginda bertati izan arren, batiatu bagarik galduten bada, ez dago arentzat ya zerurik. Ez dau inos Jaungoikuaren arpegirik ikusiko. Ezda ordu betian baino gorputzagaz bat egin ez bada bere. Bautismo bagarik beste mundura doian seinu, beti egongo da linbuan. Ez da, bada, gauza ona ta biarrekua izango, neure entzula onak, guraso guztiak erakustia ainbat onduen ta segurubena? *Lelengo:* Arimen asieria. Ezautu dagijen arimiaren balijua. *Bigarrenian:* Sabelian zelan seinak galdu oi dirian. Errukitu ditezan ta kontu egin dagijuen sabelian daguan seinari. *Irugarrenian:* Inos sein galdute bat jazoten darian, zelan batiatu biar dan. Duda bagarik premina andiko gauzia da au. Arimiaren balijua ezaututa, sein sortubena errukija artuta, jaijo artian ondo zaintuta, ustez uste bagako sein galdu ordu bat jazoten bajakue, jakingo dabee orduban zer egin biar dabeen. Uste dot, kristinaubak, geure neke

guztiak ta ardura guztiak utsak diriala, ez alan galduten dirian arima guztiak, ez bada areetati bat bakarrik salbauko balitz geure partez. Ze poza, ze atsegina, erru bagako arima bat geure aldeti zeruban eukitia! Onetarako esango deusut, bada, erakutsi onetan: 1. *Arimak gaiti zer sinistu biar dogun; ta zelan pensau daikegun arimen gorputzagazko bat egitia gaiti.* 2. *Zelan galdu oi dirian seinak amaren sabelian.* Entzun egizu gogoz. Ta dendatu zaite ondo ikasten.

Egijia esateko, arimiaren gainian zorakerija asko erakutsi edo esan ditubee gizonak. Zeruko argija bagarik ta Jaungoikuaren laguntasuna bagarik geure arimen gainian berba egin dabeenak, jausi dira uts egite andi gogoz ta gustoz jarraitu deusenak, bide illunetan bere ez dabee utsik egin. Arimiaren gainian bere, Eleisa Ama santiari ta Jaungoikuari berari entzun biar deusagu bada, neure kristinaubak. Eleisiak aginduten deusku, bada, sinistuteko. *Lelengo:* Geure arimak diriala, Jaungoikuak ezer bere ezeti egindako edo ateratako espiriubak. *Bigarrenian:* Geure arimak daukeezala aituteko ta nai izateko alarajak edo potenzijak, zeintzuk dirian adina ta naillia. Adina, Jaungoikua ta beste gauzak aituteko. Ta naillia, Jaungoikua bera ta beste gauza onak maitetuteko, deungak gorrototuteko. Baita dauka arimiak gomutia bere, iragotako gauzak gogoratuteko. *Irugarrenian:* Arimak dirian legez espiriuzkuak, ez diriala inos amaituko. Asieria badauke geure arimak, baina amairik ez daukee. Nora ezekua da ya, geure arimak edo zeruko gloriari, edo inpernuko sugarretan, edo linbo illunian beti beti egotia. Au erakusten deusku, neure entzula onak, Eleisa Ama santiak geure arimen izatiaren gainian. Ta arimak gorputzagaz bat egitiaren gainian erakusten deusku Eleisa Ama santiak berak:

*Lelengo:* Gizon bakotxarentzat ta emakume bakotxarentzat Jaungoikuak ezer bere ezeti ateraten dabela edo egiten dabela arima bat. Alan, zeinbat gizon ta emakume sortu dirian guztitan mundubaren asierati amaira, ainbeste arima izango dira betiko. *Bigarrenian:* Sinistu biar dogu, gizona nai emakumia bizirik daguan artian, arimia bere gorputzagaz daguala. *Irugarrenian:* Gizona edo emakumia illten darian doiala arimia Jaungoikuak aginduten deusku lekura: Edo zerura, edo purgatorijora, edo linbora, edo inpernura. Ta azkeneko egunian osteria gorputza biztu dedinian, bat egingo dala arimia bere gorputzagaz. *Langarrenian:* Sabelian sortuteko dagozan gorputzentzat ez ditubala Jaungoikuak leendanaz arimak ezer bere ezeti egiten, ez bada gorputz geija arimia beragaz bat egiteko amaren sabelian prestetan dan orduban, Jaungoikuak ezer bere ezeti aterata, iminten dabela arimia an. *Bostgarrenian:* Seinua jaijo baino leenago



daguala arimia gorputzian. Au sinistuten dogu, neure kristinaubak, arimia gorputzagaz bat egitiaren gainian Eleisa Ama santiaren erakutsiti ta Eskritura Sagraduko jazuetai.

Baina, seina amaren sabelian sortuten daneti zeinbat denpora barru arimiagaz bat egiten dan, ez dago guztiz erabagita. Ez dago guztiz erabagita, sortutako gorputz gei atan Jaungoikuak nos iminten daben lelengo arima espirituzkoa. Baina askok erakusten dabee, ta askoren artian Kanjamila Palermoko kanonigu jakitunak, zein alabeetan daben Benedikto XIV. bere zelo santuzko ta jakiturijazko erakutsija gaiti, erakusten dau beste askogaz, san Basilio ta san Zesario testigutzat artuta, *amaren sabelian seina sortuten daneti laster edo denpora gitxi barru Jaungoikuak arimia iminten dabela gorputz gei sortuban*. Aspaldijetako erakusla askok edo geijenak esaten dabeena da au, neure kristinaubak. Au berau sinistu eragiteko dakarreez errazoe senduak ta jazo azalduabak, jakitunik andijenentzat emotia merezidu izan dabeenak. Ez da, bada, izango ez ebanjelijo santubaren, ez geure kristinautzako erakutsi garbijaren kaltian esatia, amaren sabelian seina sortuten daneti laster edo denpora gitxi barru, Jaungoiko Andijak bere gobernu altubagaz ezer bere ezeti aterata, iminten dabela espirituzko arimia gorputz gei atan. Espirituzko arima a izango dala edo zori onian edo zori gaistuan beti iraungo dabena. Ta orduti ill artian, gorputzari bizitzia ta gizonaren izatia emoten deusana. Ta azkeneko egunian barriro gorputzagaz betiko bat egingo dana. Emeti dator gorputz geija a, amaren sabelian arimiagaz azten daguana galduten bada batiatu bagarik, an daguan arimiak ez dabela inos Jaungoikuaren arpegi-rik ikusiko.

Au da, neure kristinaubak, guraso guztiak jakin biar dabeena ta beti goguan eukitia ondo dana, euren erraijetan sortuten dirian seinai lelengo eguneetati kontu egiteko. Bada, errazoiak ta erakuslaak esaten dabeenez, sortuta lasterreti edo denpora gitxiti dago gorputz geijan espirituzko arimia, gorputza azten, ari bizitzia emoten ta gizonaren izate osora ekarten. Ta gorputz sortu barrija galduten bada amaren sabelian bautismo bagarik gurasuen erruz, zetan geratuten da an daguan arimia? Ah, kristinaubak! Bakizu betiko linbora doiana! Ta bere gurasuen erruz! Ez dago begirik, arima galdu aren gainian biar dan negarra egiteko. Ez aaztu bada, kristinaubak, sortuta laster, esaten danez, edo denpora gitxi barru daguala gorputz erne barrijan mundu guztiak baino geijago balijo daben arima bat. Ta entzun egizu onen ondorik, zegaiti galdu oi dirian askotan seinak amaren sabelian.

## II.

Egunian eguniango jazuak erakusten deuskubee, malpekau, Eleisa Ama santiaren atsekaba andijan, amaren sabelian jaijo baino leenago sein asko galduten diriana. Alan geratuten dira gurasuak ume bagarik, erriajak gizon bagarik ta ez gitxitan zeruba arima bagarik. Ta baita erru bagako arimak bere Jaungoikuaren arpegi maitegarrija ikusi bagarik. Oh, kristinaubaren bijotza erdibi egiteko penagarrija! *Andija ta bildurgarrija zan*, dino arzobispo Jaun batek, *Erodesek Jesusen gorrotoz sein erru bagakuetan egin eban illtia edo illketia*. Baina andijagua ta negargarriagua da, ta askozaz geijago dira, *egun ero Satanasak amaren sabeltan bautismo bagarik galduten dituban seinetan egiten dabena*. *Gauza tristia ta mingarrija da ameen sabeltan ainbeste sein galdutia!*

Seinak galduten dira batzubetan amaren sabelian, gurasuak eurak atara eginda. Alako gurasuak dira euren gurazko sein *illzailak*. Ez da errez, kristinaubak, esaten guraso one[e]k ze pekatu andija egiten dabeen, ta Jaungoikuak ta Eleisa Ama santiak, baita gizatasunaren izate guztiak bere, ze gorroto andija deutseen guraso bijotz gordineko arei, euren sabelko gizon geija galduten dabeelako edo galdutia gura leukeelako edo galduteko ustez zerbait egiten dabeelako. Jaungoikuaren, Eleisiaren, gizonaren ta naturaleziaren kontrako pekatuba da ta pena andijakin eragotzija da, sabelian azten daguan seina galdutia. Onestidadia luurrera bota dabeen emakumiak, edo euren buruti, edo lagun gaistuak erakutsita, edo diabrubak guztiz itsututa, galdu dabeen ondria topau edo jaso guraz, egin oi ditubee euren sabeltako sein erru bagakuakin alako negargarriajak. Oh, ze bide okerra, galdu dabeen ondria jasoteko ta euren pekatuba ta lotsarrija ezkutetako!

Ta zer jadiitxi oi dabee alako sein sortuben borregubak? Sarri entzun oi danez ta jazo oi danez, eurak nai leukenik ez. Emakume asko dendatu dira euren sabelko sein sortu barrijak galduten; baina ezin galdu izan ditubee. Artu ditubee botikakuak, agortu ditubee edatekuak, estutu ditubee euren sabelak... ill nai izan ditubee sabelian euren umiak; baina Jaungoikuak zaintu ditu askotan sein sortubak ama gogorraren eskubetati. Alako ama gaistuen prutu mingotxa oi da, pekatu asko egin, beste asko inori eragin, euren osasunak galdu ta makaldu, euren lotsarrija geitu, euren pekatubak azalduabago egin ta azkenian besteen burlagarri osuan ta agiri-rija seina egin. Au irakurten da liburu askotan. Ta au berau entzuten da sarritan, jazo jakuela atariko emakume askori ta askori. Konturatu bitez,



bada, beste emakume guztiak, ainbeste kalte euren arimai, euren osasunai, euren kleitubari ta euren sabeleko sein errubagai ekarri bagarik.

Ez dira guraso guztiak, euren naiz sabeleko seinak galduten ditubeenak. Baina bai asko biar dan arduraren paltaz, seina galduteko gauzaak pena bagarik egiten ditubeenak. Askotan gurasuak egiten ditube gauza batzuk gatz uste bagarik, zelan ez dakijela ta jakin biar leukeela, sabeleko seinari bizitzia kenduteko duinakuak. Ez dabee guraso askok ondo goguan, ze gauza biguna, urtsuba, ezereza ta alkarri ondo ez dauzana dan amaren sabelian dagan seina. Ojala errukituko balira, bai aita ta bai ama, ta endamas ama, bere erraijetan sortuta Jaungoikuak emon deutsan bendizinoezko seinagaz ta aren arima tristiagaz! Ezautuko balebee gurasuak ondo seme bat edo alaba bat Jaungoikuak emon deuseela dakuseenian, zeinbat balijo daben aren arimiak ta zelan Jaungoikuak itxi daben euren kontura sortu jakuen seina, ez litzaatekez deskuiduan legez ainbeste sein sabelian galduko. Entzun egizu bada, kristinaubak, gurasuen naiz izan ez arren, ze gaiti galdu oi diran askotan sabelian seinak. *Lelengo:* Senarrak emaztiari seindun dagationian emon oi deutsan bake txarra, bizitza gaistua ta kolpiak gaiti. Au edozeinek dakijana da. Ta ez gitxitan jazo oi dan negargarrija. *Bigarrenian:* Emakume seindunaren asarre sutsubak gaiti, gorrotzoko purijaak gaiti inoren gatxerako guraari bizijak gaiti, ta tristeza astunak gaiti. Gauza jakina da, alako guraari sutsubari indarra artuten isten jakonian, odolak sututen diriana, zana tiratuten diriana, ta gorputz guztiari neke andija emoten jakona. Alan, asarre aldi baten ondorik, sarritan emakumiak seinak galdu oi ditubee. *Iruugarrenian:* Biar neke andikuak eginagaz. Edo, neke andikuak izan ez arren, seina galduteko duinakuak eginagaz. Artzuketia, karga andijak erabiltia edo buruba jaso ezin da nekatutia... asko dira, sabelian dagan seina galduteko. *Laugarrenian:* Gorputza laarregi estututa erabilijagaz. Au jazo oi da gorputzari etxura obia emotia gaiti. Baina laarregijagaz, ta endamas sarritakuagaz, geijago ko bagarik galdu legi seina. *Bostgarrenian:* Dantzan edo pandangan ibilijagaz. Gauza agirija da, txito ezaina ta seina galduteko peligru andikua dala, alan dagan emakumiak dantzan edo pandangan egitia, nai bakarrik ta nai lagunakin. Ez leuskijo senarrak itxi biar. Ezda juezak bere.

Erakusla ta mediku jakitun askoren eritxijan oneek dira, neure kristinaubak, sabeleko seinen deskuidoeko edo gurasuen nai bagako galdugarriak. Ta pensau dot ez dala errazoeti kanpora izango, ainbeste balijo daben sailian, zeubei dirianak esatia. Bakotxak, jagokan legez, jakin dagizan ta gorde dagizan. Bada, ez dago dudarik, gurasuen bai aitaren ta bai amaren eginbiar andija da sabelian dagan seinari ondo kontu egitia, bere

denporan jaijo dedin, batiatu dedin ta Jaungoiko andija maitetuteko ta gozetako izan dedin. Ze kontu emongo deutsee, bada, gurasuak Jaungoikuari, euren paltaz gizon gei bat sabelian ill ta arima bat galduten bada?

Euki, bada, beti goguan, kristinaubak, arimiaren balijua, gorputzagaz daukan bat egitia ta ze gaiti galdu oi dirian seinak amaren sabelian jaijo baino leenago, biar orduban, ezaubera santa onegaz seinen gorputzak ta arimak gordetako. Alan gura izan dagijala geure Jaungoiko Egilliak bere ontasun amai bagia gaiti. Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren ize nian. Amen.



## V. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Denporia baino leenago jaijoten dirian edo galduten dirian seinai, zelan lagundu biar jakuen bautismo santubagaz.*
2. *Ze gauza biarrekua dan kristinaubak ondo jakitia, seinari etxe bautismua emoten.*

Arimak salbetia gaiti Jaungoiko bizijaren Semia gizon egin zan. Arimak salbetia gaiti, munduban asko iragota, kurutzian josita ill zan. Arimak salbetia gaiti dira sakramentubak, Eleisia, sazerdotiak, sermoiak ta beste kristinautzako eginbiar guztiak. Bai, neure entzula onak. Espirituzko arimaak munduban Jaungoikua serbidu ta maitetu dagijen ta zeruban beti gozau dagijen dira egijazko asmo on ta zuzen guztiak. Munduko arima guztien artian ez dira preminarik gitxien daukeenak, amaren sabelian dagozanak. Areek euren ez bere ezin legijee. Ta gauza gitxi bat da asko, leengo erakutsijan esan dan legez, euren gorputz geijak galduteko ta eurak zeru santuti betiko erbestetuteko. Au gaiti aztertu biar ditugu eskina guztiak, asmau biar era al guztiak ta artu biar ditugu errazoiak ta kristinautzako erakutsijak prestetan deuskuzan bide guztiak, denporia baino leenago amaren sabelian galduten dirian seinai zeruratuten lagunduko. Ez dogu inos bere sinistu biar, arimen onerako danian, laarregija dala egiten doguna. Zelo santu bategaz sail au ondo pensauta, kristandadeko jakitunak erakutsi deuskuben bidiari jarraitubaz, ez jako ezeri bere zor jakon lotsa ona galduten. Ta beste aldeti, erru bagako arima asko zerura eruateko eginkizuna da. Berau gaiti esango deusut, kristinaubak, ikasikizun onetan, sail onetako jakitunen ta erakuslen esanai jarraituta: 1. *Alan amaren sabelian galduten dirian seinai, zelan lagundu biar deutsegun bautismo santubagaz.* 2. *Ze gauza biarrekua dan kristinaubak ondo jakitia, seinari etxe bautismua emoten.* Prestau zaitetz guztiok ondo aituteko, inos baino gogo obiagaz.

### I.

Zelan batiatu biar da, bada, denporia baino leenago jaijoten dan edo galduten dan seinai? Itaune oni erantzuteko gogoratu biar ditugu, neure entzula onak, gauza batzuk, leen zerbait esanda geratu arren. Ta dira: *Leleengo*, sein galdu batiatu bagakorik ez dala zeruratuten. *Bigarrenian*, *emakume seindun bat illten bada seinai sabelian daukala, ama ill ezkerro, atera biar jakola seinai ainbat lasterren sabeleti ama illari ta bizirik ateraten bada, batiatu biar dala seinai*, dino Eleisiaren neurgarriak. Ta au egiteko, ez dau izentetan Eleisiaren agindubak zeinbat denporakuak izan biar daben seinai sabeleti ateriak, ez bada dino, *sein ateria bizirik badago, batiatuteko*. Emeti agiri da ziur, emakume illari ateraten jakon seinai, dan denporakua dala, bizirik daganian batiatu biar dala; emakume bizirik galduten daben seinai bere, dan denporakua dala, bizirik daganian batiatu biar dala. Bijen preminia bardina da. Ta bijak batiatuteko errazoiak bere bardina da. *Irugarrenian*, Eleisiaren neurgarriak edo erregeliak berak dino, *seinai egiteko ustian dagan emakumiak galduten dabena edo argitara ateraten dabena bada dudakua, edo dan gizona edo ez dan, edo dan kristinau geija edo ez dan; orduban batiatuteko, dino, esanagaz*: Gizona edo kristinau geija bazara, nik batiatuten zaitut Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen. *Langarrenian*, sabelian dagan seinai, sortuten daneti ta jaijo arte guztian daukala peligruba galduteko. Alan galdu oi dira seinai amaren sabelian bederatzi ileen barruban edozein denporatan. *Bostgarrenian*, ez dakijala inok zuzen, amaren sabelian arimia gorputzagaz nos bat egiten dan. Baina jakitunik oneenak ta errazoiak aituten emoten dabenez, seinai sortuten daneti laster edo denpora gitxi barru bat egiten dala arimia gorputz geijagaz, leen esan dan legez.

Onak guztionek dauka egijaren indarra geure izatiaren legian, Eleisiaren neurgarrietan, kristinautzako erakutsijan ta jakitun ezagunen esanian. Ta eskatuten dau diadarka seinai galdu tristen sokorrua, ixildu bagarik. Zelan eremedijau edo sokorridu ginai, bada, alako arimia? Endamas sortuta laster edo egun g[ul]itxi barru galduten dana? Eleisa Ama santiaren erakutsi urten bagarik, Eleisa barruko edo kristandadeko sail alako jakitunik oneenak esaten dabean moduban, seinai galdubak batia



tubagaz. Ez dauka galduten dan seinak au baino beste erremedijorik edo laguntasunik. Alako sein galdute denporan egin biar dana da, bada: *Lelengo*: Emakumiak galduten daben sein a edo seinaren ernia bizirik badago, batiatu ura ezarrira, beste edozein sein ondo jaijotako legez. Ta au, dan denporakua dala. Asko da gizon geijaren edo seinaren erne bizija izatia, arduza bagarik ura ezarrira, batiatuteko. *Bigarrenian*: Igarri ezin baja-ko ondo galdu dan seinari, ala bizirik daguan ala illda daguan, ala kristinau geija dan ala beste gauzaren bat dan, ala bat dan ala bi dirian, orduban bere, ondo ezautu ezin danian bere, dudia dagualako ta menturaz arima bat oraindino gorputz gei atan egon leitekialako, URA EZARRI TA BATIATU. Baina orduban esan biar jako ura ezarten jakonian: KRISTINAU GEIJA BAZARA, NIK BATIATUTEN ZAITUT AITIAREN TA SEMIAREN TA ESPIRITU SANTUBAREN IZENIAN. AMEN. *Kristinau geija bazara* esanagaz gordetan jako sakramentubari zor jakon lotsia edo erreberenzija ta bautismuagaz zeruratuten da arimia, orduban an badago. Galduten dan sein bizija bada, baina bat ala bi dan dudakua bada, orduban bata batiatuten da, edozein sein ondo jaijo legez. Ta gero beste dudakua, esanagaz: *Batiatuta ez bazagoz, nik batiatuten zaitut...* Azkenian esaten da, emakumiak alako gatxagaz argitara ateraten dabena bada sein illa ezagunez ta duda bagarik, edo seinaren ernerik ez daukana, orduban ez dago zer eginik agaz, ezagun dalako kristinau geija ez dana. Entzun dozu bada, kristinaubak, zelan lagundu biar jakon sein galdubari bautismuagaz zeruratuten.

Onetarako biar da zentzun elduba, arima triste aren errukija ta Jaungoikuaren bildur santuba. Ez pensau, kristinaubak, sein galdu atan topau biar dituzula gorputz osuaren etxuria ta zatijak, eskubak, oinak, buruba... Ez. Au ezin jazo leiteke seinaren lelengo egunetan. Sein sortu barri danian. Baina jazo leiteke ta, dirurijenez, jazoten da sortuta lasterreti gorputz geijan arimia egotia, bizirik daguan artian ernia. Beste erneta azten dirian gauza bizijak legez, puskaka azten da amaren sabelian sein a, sortuten daneti jaijotera artian. Ta puskaka ta geldi geldi agertuten jakoz gorputzaren zatijak bere. Au gaiti biar da txito kontu andija, alako emakumiaren gatxian sein galduba topetako, ezaututeko ta batiatuteko. *Oh zainbat sein sortu barri*, dino erakusla jakitun batek, *botetan dirian karkabetera ta sekretetara, batiatuko balira areen arimak zerura bialduta, gorputzak, ezainak izan arren, eleisara eruan da enterrau legizanak!* Baina *nok dauka onako gauzak kristinaubai erakutsikizuna, kura jaunak baino?* dino erakusliak berak.

Lelengo barrijan ez dauka seinak *ar* txiki baten etxuria baino besterik. Ta alan dua puskaka azijaz gorputz oso egin artian. Euki, bada, au goguan, kristinaubak, alako ordubetan ta lagundu seinari bautismuagaz, esan dan moduban.

Baita gogoratu bere, kristinaubak, andiustiar buruba birrinduteko, geure guztion asieria. Alako leku humildian ta lotsazkuan sortu ginian. Alako etxura ezaina ta samurra artu ebeen lelengo gure gorputzak amaren sabelian. Ez dabee beste asierarik euki ez erregiak, ez erreginak, ez gerraginak, ez kaballeruak, ezda beste Adanen semek edo alabek bere. Andi ta txiki, guztiok gatoz asiera humilde onetati mundura. Oh ze ikaslekuba, geure buruko aixiak ta andiarjak kenduteko! Ze ezerezeti etorri-jak garian! Ze ezerezian geratuko garian! Gogoratu daigun, kristinaubak, geure asieria ta geure amaija. Ta ez ditugu ainbeste adoraiko geure gorputzak. *¿Quid fuisti? ¿Quid es? ¿Quid eris?* itanduten deutsa san Bernardok kristinaubari. Ta erantzuten deutsa Santubak berak, esanagaz: Zer zinian? Gauza atsitu bat. *Sperma foeti dum. Zer zara?* Loiz betetako ontzi bat. *Vas stercorum. Zer izango zara?* Arreen janarija. *Esca vermium...* Ez dau, bada, pijau biar edo arrotu biar gizonak, ez errenta andijetan, ez izen altubetan, ez jakiturijan, ez beste munduko portunetan, pobriak ta beetubak oinpe-tuteko. Pobreen ta aberatsen sortueria ta jaijotia bardinak dira. Pobreen arimak bere kosta jakozan Jaungoikuari, aberatsenak edu. Pobreen gorputzak bere ez dira loijago, aberatsenak baino. Ta azkenian bardin jango ditubee luurreko arrak aberatsen ta andijen gorputzak, zein da probreenak ta munduban beetuta bizi dirianenak. Oh ze pensakizunak! Baina biurtu gaitezau sailera.

Gauza bat geitu biar jako emen leen esan danari. Ta da, emakume batek badaki illteko peligruban daguala seindun dana, berak baino bestek jakin ez arren ta bide okerrekoa izan arren bere sein a, esan biar dau konpesinoeti kanpora sein a egiteko daguana. Orduban illten bada, sein a sabel-leti atera dagijuen ta batiatu dagijen, leen esan dan legez. Oi danez, bestek baino leenago daki amak sabelian sein a daukana. Autortuten ez badau konpesinoeti kanpora, ama illagaz galduten da aren sein a betiko bautismuaren paltaz. Orregaiti autortu biar deutsa amak illteko peligruban konpesinoeti kanpora kura jaunari edo adin oneko persona bati sein a egiteko daguana, edo alan uste dabena, denpora gitxikua edo sortu barrija izan arren sein a. Biar dan zentzunagaz ta isiltasunagaz, ama illten bada sabel-leti atera ta batiatuteko. Bestelan ez dago ondo illteko alako emakumia, dana dala. Ta izango ete da biarrekua kristinaubak ondo jakitia seinari etxe bautismo bat emoten? Ikusi daigun.



## II.

Uste dabee askok, seinari etxe bautismo bat ondo emoten ikastia txito dala zeregin andija. Ta ez dala edozeinek jakin legijana edo jakin biar dabena. Baina ikasikizun oneetan esan danari begiratu ezkeru, agiri da ikastia erraza dana ta jakitia txito biarrekua dana. Geure kristinautzako gauza askori ez deusagu begiratuten azaleti baino. Ta onek dakaz gero utsegite asko geure burubetara. Zegaiti Jaungoikuak emon deusku esku-bidia edo alizatia g[u]lizon eta emakume guztioi, bat itxi bagarik, ura ezarrita seinu batiatuteko biar orduban? Zegaiti errazoiaren usuba daukanak, nai zaararak ta nai gaztiak, nai gizonak ta nai emakumiak, jakin ezkeru zelan batiatu legijan sein bat, egin legi bautismoko sakramentu santuba ta Jesus baten zerura bialdu legi betiko linbora doian arima bat? Ez beste gauza gaiti, neure entzula onak, ez bada bautismua nora ezekua dan legez seinak salbeetako, ta naturaleza jausijaren eraan seinak sarritan illten dirian legez ta illgo dirian legez jaijota, eleisara eruuteko asti bagarik, orduban urreengo daganak edo edozeinek batiatu dagijan seinu ta salbau dedin aren arimia. Onetarako Jaungoikuak emon deusku guztioi, seinak batiatuteko alizatia. Onetarako itxi euskuzan batiatuteko berba jakinak ta ikasten errazak. Onetarako itxi euskun bautismogeitzat ur ugarija ta lekuban lekubangua. Bautismuaren paltaz arima bat bakarrik galdu ez dedin, erreztu deusku Jaungoikuak alde guztietati bautismoko sakramentuba. Ta au onan izan ezkeru, ez dau ikasi biar kristinaubak ondo biar orduban etxe bautismo bat emoten seinari? Ain ikasten erraza? Ain kostu gitxikua? Ain sarritan biar oi dana? Ain balijo andikua? arima bat edo geijago salbetiak edu balijo legijana? Ta norberak ez badaki, inok ordu estu atan erremedijau ezin legijona? Ez dau jakingo kristinaubak seinari etxe bautismo bat emoten?

Kontu daigun. Lau lagun dagozan etxe baten edo leku baten palte-tan jako seinu emakume bati. Laurak dakusee bizirik daguana. Baita luzaro iraun ezin legijana bere. Lau lagunetati batek bere ez dakijee seinu batiatuten. Ta illten jakue seinu eskubetan, ura albuau daukeela batiatu bagarik, zelan batiatu batek bere ez dakijelako. Ara, kristinaubak, negar-garri bat. Ez gitxitan jazo dana. Ta osteru bere jazoko dana, zelan seinu batiatu ikasten ez bada. Endamas etxiak banaka dagozan Euskal errijetan, nun dabilzan ta ibili biar dabeen emakume seindunak soluetan, basuetan ta bideetan bakarrik edo lagun gitxiagaz. Baita batez bere lelengo illeetan,

nos galdu oi dirian sein geijago, emakume katigubak biar gatzak egin oi ditubeelako, katigu ez balegoz legez.

Zer esango dogu, bada, seinu batiatu bagarik eskubetan ill jakuen lau lagunak gaiti? Jakin balebee batiatuten, arima a zeruban eguan. Bizirik jaijo zan. Ta bizirik ekuseela euki ebeen eskubetan. Ur puska bat ezarrita, bautismoko berbak esanagaz bialdu eukeen betiko zerura. Baina etxe bautismo bat egiten ez ekijelako, arima a juan zan betiko linbora. An egongo da beti Jaungoikuaren gorrotuan, zeruban egon zaatekian arimia. Ez da au, neure kristinaubak, lastima andija? Ez dau eskatuten onek geure kuido ta ardura guztia? Ah! Ezin ukatu ginai zerubak eta luurrak diadar egiten dabee, *ikasi dagijala kristinau guztiak txikitati, biar orduban etxe bautismo bat seinari ondo emoten*. Usterik gitxien dan lekuban ta orduban jazo leiteke ta jazo oi da askotan sein jaijotzia edo sein galtzeia, batez bere baseerrietako emakumen artian. Bada, ez badakije zelan batiatu edo zelan sokorridu illtera doian sein jaijo barrija edo galdu barrija an dagozanak, nori Jaungoikuak eskatuko deuska arima aren kontuba? Zeubek pensau, neure entzula onak.

Kristinau bat balego illten konpesinoe eske, lau sazerdote dagozan lekuban ta lauretati batek bere ez dakizalako konpesinoeko sakramentuba egiteko berbak illgo balitz a konpesau bagarik, zer esango genduke sazerdote areek gaiti? Bada, ez da premina txikarragua illtera doian sein jaijo barrijarena, illtera doian persona nausijarena baino. Au konpesau ez arren, damu egijazko bategaz salbau leiteke, geijo ezin dabenian. Baina bautismo bagarik seinu inundi bere salbau ezin leiteke. Ta, Jaungoikuak itxi dituban legez sazerdotiak konpesinoeko sakramentugintzat; alan itxi ditu kristinau guztiak biar orduko bautismogintzat.

Oh, kura jaunak! Konpesore jaunak! Sazerdote jaunak! Oh, gurasuaak! Oh, eskoletako erakuslak! Erakutsi, bada, guztiak txikitati, bautismo santuba egiteko berbak ta ura ezartia, biar orduban seinu ondo batiatuteko ta arimak zerura bialduteko. Entzun dagijala Jaungoikuak nire erreguba ta zabaldu dagijala geure arimetara bere ontasuna ta grazija, zeinegaz jaiditxiko dogun zeruban betiko zorijona. Amen.



## VI. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zetarako dirian batioko egite santubak edo zeremonijak.*
2. *Zelan gorde biar ditugun bautismoko agindubak.*

Bautismoko grazijagaz jantzten gaitu, neure entzula onak, Jaungoikuak, bere semetzat geu artutera orduko. Grazija onegaz prestautu, isten deusku bere Eleisa santan sartuten. Entzun dozu leenagoko erakutsijan, ze mesede andija egin deuskun geure Aita zerukuak bautismo santubagaz. Inpernuko etsajaren esku gaistuetati atera ginduzan bautismo santubagaz. Ekarrri ginduzan bere Eleisa santara ta garbira. Artu ginduzan bere etxe era onekuan ta bere mai santuban bere semetzat ta serbizaritzat. Ta eskintzen deusku betiko zeru ondasunez betia, bere esana egiten badogu. Au gaiti bada, neure entzula onak, dendatu biar dogu geuk bere geure Aita zerukuaren ondria zaintuten ta jasoten. Seme onari jagoko aita onaren esana egitia. Ta biar ordu guztian bere aitaren ondria gaiti arpegija ateratia. Seme batek dakusenian bere aita inok zurreetan dabela, desondretan dabela ta oinpetuta darabilela, aitaren onera urtetzen ez badau, al dagijala, seme doilloorra da. Ez dau merezidu aitak semetzat artutia. Bautismuagaz gara Jaungoikuaren semiak. Ta geuri jagoku semetza altu ta ondrau oni esker onagaz ta leijaltasun pinagaz erantzutia. Au agindu genduban bautismuan. Ta berau da kristinaubak sarri goguan euki biar dabena. Onetarako esango deusut ikasikizun onetan: 1. *Zer esan gura dabeen batioko egite santubak edo zeremonijak.* 2. *Zer agindu geuntsan Jaungoikuari bautismuan.* Prestau zaitetz guztiok, zeuben kristinautziaren asierako pausubak ainbat onduen gogoratuteko.

### I.

Seina batiatuten eleisara eruaten danian, sazerdotiak edo bautismoginak urtetzen dau eleisako atera. Ta seina kanpuan daguala, itanduten deus: *Zer eskatuten deusazu Eleisari?* Ta erantzuten deutsee seinaren ordez: *Pedia.* *Zer emongo deus pedia?* dirautsa bautismoginak. Ta erantzuten deutsee: *Betiko bizitzia.* Bada, nai badozu zeruban betiko bizitzia, esaten deus ta seinari bautismoginak, *gorde egizuz agindubak.* *Maitetuko dozu Jaungoikua*

*arima guztiagaz, bijotz guztiagaz ta gogo guztiagaz; ta zeure laguna, zeure buruba legez.* Oneek dira, neure kristinaubak, seinari eleisako atectan lelengo esaten jakozan berbak. Ta Jaungoikuak kristinau barri geijari lelengo egiten deusan eskaarija bere berau da.

Iminten jako seinari izena, batiatutera orduko. Ta izan biar dau *ize-nak* aingeru, santu edo santaren batena. Kristinaubak euki dagijan bitartekotzat zeruban bere izeneko santuba ta poz geijagogaz jarraitu dagijuen aren ontasanari, iminten jako kristinau barrijari santubaren izena.

Bautismoginak auagaz aixe emoten deus ta arnasia botaten deus ta seinari arpegira bertati, satanasa aterateko seinaren arimati. Gero egiten deus ta kurutzia bekokijan ta bularran. Sartuten deus ta gatz auan. Ta igortzen deus ta belarrijak ta suurra txistubagaz. kurutzia da kristinau barrijaren senailia ta osasuneko senailia. Egiten jako bekokijan kurutzia, lotsatu ez dedin inos Jesusen eskolau izatiagaz. Ta egiten jako bularran, Jesusen kurutzeko erijotziak emon dagijon indarra kristinau ona izateko. Auan sartuten jakon gatzak esan gura dau, bautismuak emoten deus ta zeruko gauzen ezauberia ta jakiturija. Txistubagaz belarrijak ta suurra igortziak esan gura dau, Jesusek txistuzko basiagaz igortzita itsubaren begijak argitu zituban legez, argitu ta zurtuten ditubala bautismuak kristinaubaren belarrijak, Jaungoikuaren eskinjak ta berbak entzuteko. Ta suurra, zeruko birtuten ta gauza oneen usain gozua artuteko.

Onen ondorik asten da bautismogina, seinaren ariman daguan Satanaren kontra Eleisako konjurubakin. *Urten espiritu loija.* *Urten diabruba sein onen arimati,* esaten deus ta bautismoginak satanasari, *ta emon leku Espiritu Santubari.* *Ezautu biar dozu, diabruba, zeure kontra daguan maldezinoia.* *Ta emon biar deusazu Jaungoiko egijako bizijari ta aren Seme Jesukristo geure Jaunari ta Espiritu Santubari euren ondria.* *Aldendu zaitz bada, satanas madarikatuba, sein onen arimati.* *Jesukristo geure Jaunak artuten dau bere naiz bautismo santuko iturrira ta bere grazijara.* *Ez zaitetz azartu inos, diabruba, nik orain bekokijan egiten deusadan kurutzia santia oni galdu eragiten.*

Itanduten jako gero seinari, *ia isten deutseen satanasari ta aren egite txaar guztiak.* *ia isten deutseen diabrubari, mundubari ta diabrubaren ta mundubaren ponpa ta banidadiak.* Ta erantzuten dau, *baietz.* *Abrenuntio.* Batiatu baino leenago itanduten deus ta bautismoginak seinari iru bidar. Bada, nora ezekua da diabrubari ta aren asmo txaar guztiak istia, Jesukristogaz bat egiteko. Onen ondorik eruaten da seina bautismo lekura. Ta an barriro itanduten jako, *ia sinistuten dituban geure pedeko egijak.* *Sinistuten dozu,* itanduten deus ta, *Aita Jaungoiko bakar, guztia dagijenagan?* Erantzuten deus ta, *baietz.* *Credo.* *Sinistuten dozu aren Seme Bakar Jesukristo geure Jaunagan?* Ta





erantzuten deutsa, *baietz, credo*. Onan autortuten ditu seinak kristinautza-ko siniskizun guztiak, batiatu baino leenago.

Modu onetan prestetan da seinak edo batiatutera doiana, kristinau egitera orduko, sarri kurutzia bekokijan ta bularrian eginda. Gatz bedein-katubagaz zeruko gauzen ezauberia argituta. Belarriak ta suurra Jaungoikuaren deija ta naija egiteko txistubagaz zurtuta. Sazerdotiaren esku sagradubak buru gainian bein ta birritan iminita. Mundubari, diabrubari ta mundubaren ta diabrubaren egite txaar guztiak betiko largako deutseela erasota. Jaungoikuaren erreguko ta Satanaren bildurreko berba santu ta indartsubakin etsaija aren arimati uxatuta. Batorako orijio santubagaz bularra ta espaldia igortzita. Etsaijaren kontra pelietako, orijio santubagaz prestau ta indartuta. Pedeko artikulu edo siniskizun guztiak autortu eraginda. Barriro itanduten deutsa bautismoginak seinari edo bautismotutekuari, *ia nai daben artu bautismoko sakramentuba*. Ta erantzuten dau, *baietz, volo*. Itanduten jako au aituten emoteko, ez Jesukristo[k], ez Eleisa Ama santiak ez dabeela gura euren etxian nora ezeorik. Ez dabeela gura artu semetaz edo alabatatzat, nai ez dabenik. Orregaiti itanduten jako: *Nai dozu, batiatu zaidazan?* Ta arian da berak edo bere ordekuak erantzun artian *baietz, volo*, ez da batiatuten kristinaugeija. Baina baietz erantzun dagijanian, bertati batiatuten dau bautismoginak ura ezarrita, esanagaz: *Nik batiatuten zaitut Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.*

Emoten jako gero bautismotubari zapi garbi bat, aituten emoteko, bautismuagaz arimiak artu daben edertasuna ta garbitasuna. Ta baita, batioko agindubai jarraituten badeutsee zuzen, zeruban eukiko daben glorija ederra bere. Gero emoten jako kandela ixuia eskura, aituten emoteko, bautismuan artu daben sinistutia edo pedia, karidadiaren subagaz ixiota euki biar dabela. Kristinautzako egite onak erakutsi biar ditubala. Bada, sinistute utsa edo pede utsa egite onak bagarik, utsa da Jaungoikuaren aurrerako. Salbetako biar da sinistutia ta biar dira karidadeko egitiak. Maitetu biar da Jaungoikua, gauza guztiak baino geijago; ta maitetu biar ditugu geure lagunak, geure burubak legez, salbauko bagara. Au esan gura dau kandela ixuia.

Ara emen, kristinaubak, ze gauza santubak ta ontasunez betiak barrututen dituban eleisan egiten dan batio santubak. Ez dago berba bat, ez egite bat bautismuan aparteko erakutsija ta artukizun zerukua ta arimiaren onerakua ez daukanik. Emeti ezautuko dozu, ze aldatza andija ta arrigarrija egiten daben arimiak batiatu bagarik daguaneti ta batiatutakora. Batiatu baino leenago eguan arima tristia, guztia illuna, ezaina, loija,

pekatuzkua, zeruben ta luurren gorrotokua ta demoninuen aginduban ta eskupian eguana. Batiatuta gero dago guztia argija, ederra, zurija, apainduba, aingerubak, santubak ta Jaungoikuak maite dabeena, Espiritu Santubaren egonleku bizija, Jaungoikuaren semia, Eleisiaren semia ta zeruko etxaguna. Zerutar baten grazijazko jantzijagaz apainduta geratuten da arimia bautismo santuban. Grazijazko jaijotza ta aldatza zorijone[ko] au egiten dau batiuagaz arimiak.

Bautismo santuba ez da bein baino artuten. Bada, beinguak parkatuten ditu leenagoko pekatu guztiak. Beinguak emoten dau kristinau izatia, arimako grazija ta zerurako eskubidia. Baita Bautismuak egiten dau ariman marka bat, inos bere galduko ez dana. Bautismuaren marka onegaz ezagun izango dira beti, nai zeruban ta nai inpernuban kristinau guztiak. Erregen soldaubak darabilezan legez seinale agirijak, zein ze erregeren soldau dirian ezaututeko, alan Jesukristok markau ta seinaletan ditu ariman bere soldau kristinaubak bautismuagaz, beti dagozan lekuban dagozala, ezagun izan ditezan. Bautismuaren marka kendu ezinekua izango da onentzat zeruban poza ta glorija. Ta deungentzat inpernuban penia ta lotsarija. Au gaiti, eurenaz, kristinau kondenaubak eukiko dabee inpernuban pena geijago, batiatu bagakuak baino. Begiratu, bada, kristinaubak. Bautismoko grazija ta mesedia andija da. Baita bautismuan Jaungoikuari egin geuntsan aginduba bere andija ta santuba da. Gogoratu daigun, bada, zer agindu geuntsan Jaungoikuari bautismuan.

## II.

Bautismo santuban Jaungoikuari berbia emon geuntsan, diabrubari ta aren egitade deungai betiko isteko. Santuben ta altaren aurrian iru bidar agindu geuntsan Jaungoikuari batorako orduko, diabrubari, mundubari ta aragijari ta areen pekatuak bide deunga guztiak istia. Orduban egin genduban, esateko moduban, tratu bat Jaungoiko onagaz ta mesedez berezat artu gura ginduzanagaz. Jaun Zerukuak guri emoteko zeruko sinistutia, zerurako ustia ta zerubaren naija bere maitetasunagaz ta beste arimiak salbetako munduban biar dituban ta gero zeruban eukiko dituban ontasan guztiakin. Ta guk, Jaungoikuaren sinistuteko, Jesukristo geure Jaunaren ondria zaintuteko ta Jaungoikuaren ta Eleisa Ama santiaren agindubak gordetako, dino san Agustinek. Jaungoikuak agindu deusku zeruba ta geuk Jaungoikuari, mundubari, diabrubari ta aragijari gerra egitia. Au gaiti dino san Eprenek, berbati artuko gaitubala Jaungoikuak, geure bizi



modubak erantzuten ez badeutsa bautismuan egin genduban eskinijari. *Ex verbis tuis condemna beris.* Ta geure bizi moduba bada Jaungoikozkua ta Jaungoikuaren agindubagaz bat egina, geure esaneti salbauko gariala. *Ex verbis tuis justificaberis.*

Diabrubari largetako, maitetu biar da Jaungoikua bijotz guztiagaz, arima guztiagaz ta gogo guztiagaz. Jaungoikua maitetuteko, egin biar da Jaungoikuaren esana. Ta zer da Jaungoikuaren esana? Amar agindubak dinuena. Guztiak dira Jaungoikuaren esanak ta guztiak gorde biar dira. Amarretati bat austen bada, ez da orduban egiten Jaungoikuaren esana, ez bada diabrubarena. Ez genduban, bada, agindu bautismuan diabrubaren esana egitia, ez bada Jaungoikuaren esana egitia. Zer dira mundubaren edo diabrubaren ponpa esaten jakuenak? Dira pekatuzko gurari txarren prutubak. Dira andi guria, ondasun guria, gorputzaren gusto guria, lagunak bera edutzat ez eukitia, inoren onak aintzat ez artutia, inoren naibagiagaz ez errukitutia, daukanagaz kontentu ez izatia, munduko gustuetarako ta olgetarako gogo presta eukitia, dotorerija, apaindurija, jan edan ugarija, alperrerija, dantzia ta gorputzaren jolatsak maite izatia. Oneek ta onei darraikuezan enbidijak, zeluak, gorrotuak, inoren ona ikusi ezinak, gaiski esatiak, lapurretak, logrerijak, adulterijuak, pornikazinoiak, esate ta egite loijak, Jaungoikuaren, santuben ta Eleisiaren kontrako berbak, sakrilejjuak, juramentu guzurrezkuak, ordikerijak, joko laarregijak... guztiak dira mundubaren ponpa ta banidadiak. Oneek guztiok dira diabrubaren, mundubaren ta aragijaren esanak ta naijak. Guztiok dira ez egiteko Jaungoikuak esanak. Onei istia agindu genduban bautismo santuban.

Jesukristo geure Jaunak esan eban, *ugazaba bi inok serbidu ezin legizala.* Ugazaba oneek bijok dira Jaungoikua ta diabrubu. Jaungoikua serbiduten dabenak, ezin serbidu legi diabrubu. Ta diabrubu serbiduten dabenak, ezin serbidu legi Jaungoikua. Au gaiti esan eban Jesukristok berak: *Neure bando ez dana, neure kontra da.* Ez dago bitaarterik, kristinaubak. Edo gara diabrubaren kontra, edo gara Jaungoikuaren kontra. Bautismo santuko eskinijai jarraituten badeutseegu, Jaungoikuaren aldeko gara ta diabrubaren kontra gara. Baina bautismo santuko eskini andijakin aaztuta aragijaren gurarijai, mundubaren era arruai ta diabrubaren eskaari galdubai jarraituten badeutseegu, diabrubaren aldeko gara ta Jaungoikuaren kontra gara. Au gaiti esaten dau san Paulo apostolubak, *argijak eta illunak, grazijak eta pekatubak, Kristok eta diabrubak ez daukeela bat egiterik.* Pekatuko bide illuneti ta diabrubaganik aldendu biar dau, zeruko argijagaz grazijaren bideti Jesukristori jarraituko deutsanak.

Gogoratu bada, kristinaubak, zeinbat arte ta modugaz geure Eleisa Ama santiak batiuan grazijazko jaijotzara aldatu ginduzan. Zeinbat kuru-tzegaz armau ginduzan. Ze gauza ondugarrijakin geure aua, suurrak ta belaarriak santutu ta zeruruztu zituban. Zelan Orijo santubagaz sendotu ta indartu ginduzan, diabrubaren kontra pelietako. Zelan eraso euskun iru bidar, batiatutera orduko, diabrubari ta aren egitai largatia. *Abrenuntio.* Zelan eraso euskuzan kristinaubaren siniskizunak batiorako. *Credo.* Baita zelan eraso euskun bere, geuk geure guraz nai gendubala batiatutia, kristinau izatia ta Jesukristori jarraitutia. *¿Vis baptizari? Volo.* Gogoratu, kristinaubak, ze prestaera santubaz, itzalsubagaz ta berbati artutekuagaz emon euskubeen bautismoko jaijotza grazijazkua. Ta aren ondorik zapi zurija ta kandela ixuia. Zapi zurijan aituten da arimiaren edertasuna ta zeruko gloriya, leen esan dan legez. Jesus illeen arteti biztu zanian, aingerubak zuriz jantzita agertu zirian. Jesusek Taborko mendijan bere gloriyagaz jantzi zurija apostolubai erakutsi eutseen. Zeruko jantzija jantzi zurija ta guztiz garbija da. Onen gogorako emoten jako, bada, batiuan kristinaubari zapi zurija. Esan deusut leen, kandela ixuiagaz aituten dala pedia, esperantzia ta karidadia. Pedia argitasunian, esperiantzia zeruruz begira zuzen egotian ta karidadia berotasunian. Alan gorde biar ditu kristinaubak bere bizi guztian pedia, esperantzia ta karidadia. Bada, pekatu illgarrija egiten dan bakotxian amatetan da bautismoko kandela ixuia ta loituten da zapi zurija ta austen da bautismoko agindu santuba.

Iges, bada, urrin, kristinaubak, pekatubetati, gorde daigun geure arimiak bautismo santuban artu eban jantzi zurija ta grazijazkua, zeinegaz irabaziko dogun erijotza ona ta betiko zeruba. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## VII. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zetarako batiuan emoten jakozan seinari aita ta ama besuetako.*
2. *Zeintzuk dirian oneen eginbiarrak.*

Erromako Katezismuak itanduten dau, neure kristinaubak, *ia bantismogi naz ostian, zetarako emoten jakozan batiuan kristinaubari aita ta ama besuetako deritzuenak*, Eleisiaren txito antxinako oituria dan legez, bada, katezismuaren beraren esanian, kristinau barrijari bautismuan nok besuetan artu edo garbillako iturriti nok atera emotia, pensatu dot ondo izango dala, onen gaineko ikasikizuna zeubei erakustia. Esango deusut, bada, bautismoko azkeneko erakutsi onetan: 1. *Zer aituten dan kristinaubaren aita ta ama besuetakogaz.* 2. *Zer egin biar dabeen kristinaubagaz.* Artu egizu, bada, gogua, ainbat onduen entzuteko.

### I.

Jaijoten dan seinak biar daben legez nok kontu egin ta bularra emon, azi dedin, alan biar dau, dino katezismuak, batiatuten danak bere kristinautzako ta arimako gauzak nok erakutsi ta zeruba irabazteko bideetan nok kontu egin. Onek dira kristinau barrijaren aita ta ama besuetako esaten deutsegunak. Eleisiaren lelengo Gurasuetati dator, kristinau barrijari espirituzko jaolaak emotia bautismuan. Leenagoko denporetan kristinau barri bakotxari emoten jakozan jaola asko. Baina Eleisiaren Trentoko batzaar santubak gitxitu zituban jaola bat izatera, edo geijenaz bi. Bata gizona ta bestia emakumia. Alan useetan da gizeozko bat ta emakume bat emotia seinari, batiatuten daniel jaolatzat edo aita ta ama besuetakotzat. Esaten jakue onei seinaren *arçailak*; kristinauba batiatuten daniel euren eskubetan edo besuetan artuten dabeelako. Baita esaten jakue, kristinau barrijaren ordeko *eskinçailak*, seinaren izenian eurak eskintzen deutselako Jaungoikuari ta Eleisa Ama santiari, Jesukristori ta kristinautza egijazkuari jarraitutia. Baita esaten jakue, kristinau barrijaren *pijadoriak*, eurak geratuten dirialako, sein arek Jaungoikua serbiduko daben pijadore.

Baita esaten jakue, *aita ordekuak*, gurasuen paltaan, eurak kontu egin biar deutselako seinari arimiaren onerako gauzetan. Azkenik esaten jakue, *seinaren aita ta ama besuetako*, eurak eskuban daukeela batiatuten dalako sein.

Ez da, neure entzula onak, edozein imini biar sein besuetan artuteko, ez bada egikizun atako biarra ondo kobru emongo deutseena, edo nai badau, emon daikuena. Au gaiti ez jakue emon biar sein besuetara, ez erejiai, ez judegubai, ez moruai, ez kristinautza bagakuai. Ezda ez jako emon biar gura ez dabenari bere, edo seinari biar orduban lagunduko ez deutsanari bere, dino Erromako Katezismuak. Sein besuetara emon biar jakue dotrinia ondo dakijenai, kristinau pielai, al badedi, konfirmauta dagozanai, ekandu ta kristinautza onak daukezanai ta umetako denporia iragotakuai. Seinaren beraren ez aitak, ta ez amak artu legije bautismuan euren umia besuetan. Bada, aragizko sortutia emon deutseenak, ez deutsee emon biar grazijazko jaijotzia. Batiatuten dana aitaren ta amaren parteti da Adanen seme. Ta besteren parteti izan biar dau Jaungoikuaren seme.

Baita onezaz ostian, gogoratu biar da, bautismoko sakramentubak sortuten daben *espirituzko senikeria* bere, zeinek utseratuten daben ezkontzia onetariko seniden artian, aldunak leendanaz kenduten ez badeutsee katigu au. Espirituzko senide egiten dira bautismuan, *bantismogina ta aita besuetako ta ama besuetako batiatuten danagaz.* Baita seinaren *gurasuak bere, bantismoginagaz ta aita ta ama besuetakogaz senide egiten dira.* Aldunak edo atarako Eleisa santan eskubidia daukanak kendu artian espirituzko senikera au, ezin ezkondu leitekez alkarregaz esan dirian senidiak. Ta ez jakinez ezkonduko balira bere, senikerako katiguba kendu bagarik, ez leuskijue ezkontziak balijoko. Au jakinda euki biar dabee aita besuetako ta Ama besuetako guztiak. Balijo bagako ezkontzaren bat egin ez dagijen eurak bautismuan besuetan artu dabeenagaz edo aren gurasuakin. Espirituzko senikera au ez da oratuten edo ez da sortuten, etxian sein batiatuta eleisara eruaten daniel, ez batiatutera, ez bada bautismo nausigintzako beste gauza sagradubak seinari egitera. Orduban bere juan oi dira aita ta ama besuetako. Baina ez jakue oratuten senikerarik, batiatuten sein euki ez dabeelako. Bada, senikera au ekarteko nora ezekua da eleisan sein batiatuten daniel, ura ezarrira berbak esaten jakozanian, sein eskubetan eukitia.

San Dionisiok esaten dau leenagoko denporetan aita ta ama besuetakok berbaz aginduten ebeela, euren besuetako seinari kuido egitia. Ta esaten ebeela: *Aginduten dot, sein au errazoiaren usura eldu dedinian, esango deusadala sarritan ta egingo dodala alegina, diabrubaganik ta pekatuba ganik alde egin dagijan ta orain agindu daben guztiari kobru emon dagijon.* Au esaten ebeen ta



aginduten ebeen aita ta ama besuetakok, seinä besuetan artuten ebeenian. Ezautu ezkeru bada, neure kristinaubak, zer aituten dan seinaren aita ordekuak gaiti, zeintzuk izan biar dabeen, ta ze senikera dakarren seinä besuetan artuten dabeenak ta bautismoginak, ikasi biar dogu, ia zer egin biar dabeen aita ta ama besuetakok.

## II.

Askok uste dabeen baino estubaguak ta andijaguak dira, bada, oneen eginbiarrak. *Balekijee kristinaubak*, dino erakusla batek, *ze karga andija dan seinä besuetan batiuan artutia, ez leuke inok ainbeste naiko, ta gura suak bere ez leuskijue seinä besuetara emongo edozein lelengo agiri dani.* Au gaiti, Erromako Katezismuak esaten dau, erakutsi biar jakuela kristinaubai seinä besuetan artutiak dakazan eginbiarrak. *Ain ardura gixigaz begiratuten jako egikizun santu oni kristandadian, ze ya aita ta ama besuetakoren izen utsa baino besterik ez da geratu*, dino Katezismuak. Egikizun oneetati batzuk dira, seinä batiatuten danian egin biar dirianak. Ta beste batzuk, gero egin biar dirianak.

Aita ordekuen seinä batiatuten daneko eginbiarrak dira: *Lelengo*: Aita ta ama besuetakok eskini edo oprezidu biar deutsee seinä batiuan Jaungoikuari ta Eleisa Ama santiari. Alan, eurak erantzuten dabee seinaren orde batiuan ta Jaungoikuak artuten dau sein batiatuba euren esku-betati bere semetzat. *Bigarrenian*: Gurasuen ta baustismoginaren paltan, besuetan artuten dabeenak imini biar deutsee seinari izena bautismuan. Leen esan dan legez, zeruban Jaungoikuagaz dagan aingeru, santu edo santaren baten izena da, seinari imini biar jakona. *Irugarrenian*: Besuetan seinä artuten dabeenak erantzun biar deutsee, badakije, bautismoginak seinari egiten deutzazan itaunia. *Laugarrenian*: Euki biar dabee seinä esku-betan edo egon seinari oratuta, baustismoginak ura ezarrita batiatuten dabenian. Baita errezetan dabee kredua bere besteekin; ta erregututen deutsee Jaungoikuari seinaren kristi nautza ona gaiti. Oneek dira, seinä batiatuten daneko aita ta ama besuetakoren eginbiarrak.

Seinä batiatuta gero egin biar dabeena da: *Lelengo*: Goguan euki beti, bautismo santuban seinagaz ta seinaren gurasuakin oratu jakuen espiri-tuzko senikeria. Baliyo bagako ezkontzaren bat egin ez dagijen inos alkarren artian.

*Bigarrenian*: Aita ta ama besuetakoren eginbiarra da, eurak bautismo-ko iturri santuti atera ebeen kristinauba aparteko legiagaz maite izatia. Bada, eurak erantzunda, eurak lagunduta ta eurak eskubetan artuta jaijo

zan a seinä bautismuan grazijara. Orregaiti dira aita ordekuak, aren pija-dorijak Jaungoikuaren aurrerako ta egijazko espirituzko gurasuak. Au gaiti zor deutsee euren besuetako umiai aparteko maitetasuna ta nai ona.

*Irugarrenian*: Euki biar dabee kontuba, euren besuetako seinak artu dagijen, denporia danian konpirmazinoeko sakramentuba.

*Laugarrenian*: Aita ta ama besuetakoren zeregin nausija da, eurak besuetan artu dabeenari kristinau on izaten erakustia. Gurasuen paltan, edo gurasuak euki arren areek erakusten ez badeutsee, alegina egin biar dabee besuetan seinä artu ebeenak, seinak dotrinia ikasi dagijan, edadia dabenian; Jaungoikuari ta Eleisiari obeidu dagijon; bautismoko bere agin-dubak gorde dagizan; ta zerurako bidian bizi dedin. *Esaten deusut*, zirau-tseen san Agustinek beste denpora baten aita ordeko guztiai, *esaten deusut*, baustismoko umiak *daukazuzan gizon ta emakume guztioi*, *ezautu dagizula ondo*, bautismoko iturrijan besuetan artu *zenduzanen pijadoriak zariala Jaungoikuaren begjetan*. Orregaiti, dino Santubak, *gogoratu egjezu sarri ta esan egjezu gogoz*, gorde dagijela *kastidadia*, *maite izan dagijela zuzentasuna ta euki dagijela karida-dia*. Erakutsi *lelengoti*, dino, *zeuben besuetako umiai Kredua, Aitageuria, Jaungoikuaren agindubak ta kristinautzan jakin biar dabeena*.

Onan berba egiten dabee Eleisiaren Gurasuak aita ordekuen egin-biarrak gaiti. Erakusla batek artuten daben legez bere kontura ikasliari erakusteko sail atan jakin biar dabena, alan aita ta ama besuetakok bere artuten dabee euren kontura, seinari kristinautzan jakin biar dabena era-kusteko. Besuetan artuten dabeenak dira espirituzko gurasuak, dino san Dionisiok. Bada, guraso on baten arduriagaz begiratu biar deutsee, euren besuetako kristinaubaren arimako gauzai ta salbetiari. Gurasuak edo gura-suen lekuban dagozanak kontu egiten badeutsee euren besuetako umiari, ez daukee aita ta ama ordekuak eginbiarrak. Baina ikusten badabee euren besuetako kristinauba errazoiaren ezauberara elduta dotrinarik ez dakija-la, Jaungoikuaren ezauberarik ez daukala, sakramentubak artuten ez ditu-bala, artuteko zelan prestau ez dakijala ta kristinautzako bideti urrin dabi-lela, egin biar dabee aita ta ama besuetakok euregan dana, jakin biar dabe-na erakusteko ta kristinau egijazko baten bizi modura ekarteko.

Ta asko izango da kuraak ta abadiak atarako dagozala, ta orreek era-kutsi biar deutsee la esatia? Ez, kristinaubak. Kura jaunak ta abade jaunak egozala Eleisiak ordenau eban, aita ta ama besuetako seinari batiuan emo-tia. Apostolu santubetati datorren usadijua dala au, esaten dau san Dionisiok. Eleisiaren lelengo giza aldijetako kura jaunak ta abade jaunak beekijezan euren eginbiarrak. Ta ziatz kobru emoten eutseen euren zere-gin santubai. Baina orduti ona beti ikusten da, kristinau barrijari espiri-



tuzko gurasuak emotia. Zegaiti, bada, au? Kura jaunez ostian kristinau barriak euki dagijen, gurasuen paltan, kristinau izaten ta zeruba irabazten nok erakutsi ta nok lagundu. Ez da, bada, asko izango aita ta ama besuetakuentzat, kura jaunak erakutsi biar deutseela esatia. Eureena da a eginbiarra. Ta euren eginbiarrari ez deutsee kobru emongo, inok egitekuagaz.

*Bostgarrenian:* Txito gauza ona ta eurai jagokuena da, aita ta ama besuetakok, eurak bautismuan artu dabeen umiari, errazoiaren usura eldu dedinian, esatia ta gogoratu eragitia, bautismo santuban bere orde zer erantzun eutseen Jaungoikuari ta Eleisiari; ze promes edo eskini santubak ta jasua egin zituban orduban Jaungoikuaren ta altaren aurrian; zelan agindu eban diabrubari, mundubari ta aragijari gerra egitia; Jesus maitiaren kurutzitari jarraitutia; Jaungoikuaren agindubak gordetia; Eleisa santiari obeidutia; ta kristinautzako sinistutia karidadiaren subagaz ixiota beti ariman eukitia. Au jagokue aita ta ama besuetakori gurasuen paltan. Batez bere ikusten badabee euren besuetako umia Jaungoikuaren bide santuti aldenduta. Edo dabilela munduko banidadetan, edo eskandaluko tratubetan, edo pekatu agirijetan, edo bere arimia galduteko bideetan; orduban gogoratu biar deutseez bere bautismoko agindu santubak.

*Seigarrenian:* Aita ta ama besuetakok erregutu biar deutsee Jaungoikuari, eurak batiuan artu dabeen kristinauba gaiti. Bada, modu guztietara lagundu biar deutsee, aleginaz, kristinau egiten lagundu eutse-nari Jaungoikua serbiduteko ta zerurako izan dedin. Ta modu oneen artian ez da gitxien balijo deutsana aita ordekuen sarritako orazinoia.

Ara emen, kristinaubak, aita ta ama besuetakoren eginbiarrak, Eleisiaren Gurasuak ta Katezisimuak dinuenez. Ez dira aaztuta eukitekuak, ez bada bakotxak, jagokanez ta preminiak eskatuten deutsanez, aibat ziurren kobru emon biar deutseenak. Duda bagarik, kontu artuko deutsee Jaungoikuak aita ta ama besuetakori, ia zeren pijadore jarki zirian, seinia euren besuetan batiatu zanian. Ta ikusirik eurak batiuan artutako seinia bautismoko eskini santubakin aaztuta, Jaungoikuaren ta zerubaren ezauberak bagarik, diabrubari ta galdu bidiari jarraituten deutsala, aleginaz kontu egiten ez badeutsee kristinauz bizi dedin, zer erantzungo deutsee Jaungoiko zuzenari? Ah! Eurak pensau daikue errazago dala seinia besuetan artuten, ari darraikoizan eginbiar santubai kobru emoten baino.

Baita beste aldeti, kristinau guztiai jagokue euren aita ta ama besuetakori latsa ona artutia; arimiaren onerako emoten deutseezan ikasikizunak ta konseju onak esker onagaz entzutia; euren esan santubai ta kristinautzak zuzenekuai pozik eta gogo prestagaz obeidutia; aita ta ama besuetakori aparteko legia ta maitetasuna erakustia; ta eurak gaiti Jaungoikuari

gogoz erregututia. Au jagokue kristinau guztiai euren aita ta ama besuetakoren ondrarako ta esker onerako. Aitu dozu bada, neure entzula onak, zetarako seinari emoten jakozan batiuan aita ta ama besuetako. Baita zeintzuk dirian oneen sail atako eginbiarrak bere.

Derixat erakutsi deusudala ikasikizun oneetan, bautismoko sakramentu santubaren gainian zeubek jakin biar dozuna. Esan deutsut, ze izate daukan bautismuak; nok itxi euskun sakramentu santu au; ze biarrekua dan geure arimak salbetako; zegaz egiten dan; zelan egiten dan; premina orduban zeinek egin legijan; bautismuak geure ariman zer egiten daben; denporia baino leenago galduten dirian seinai zelan bautismuagaz lagundu biar jakuen... ta azkenik, aita ta ama besuetakori jagokuen erakutsija. Oni darraiko, neure entzula onak, leen esan deusudana: 1. Jaungoikuari esker onak emotia, kristinau egin ginduzalako. 2. Sarri edo beti goguan eukitia, batiuan Jaungoikuari egin geuntsazan eskini santubak ta altubak. 3. Kristinautzako eginbiarrak ta jakinkizunak ondo ikastia. 4. Kristinaubaren izen santuba inos lotsatuko ez dan bizi moduba beti eukitia. Onegaz izango gara duda bagarik guztiok zeruko betiko etxagunak.

Oh, Jesus, geure Salbazaille maitia! Zeuk artu ginduzuzan bautismo santuban zeure semetzat ta zeure ondriaren jaolatzat. Zeuri eskatuten deutsugu, bada, amaitu dagizula gudan asi dozun grazijazko biarra. Ez zinduguzan zeu ezautuko, zeuk zeure Eleisara eruanda, batiatu ez baginduzuz. Emon egiguzu, bada, Jauna, grazija egilia, kristinau izateko ondria zeu ganik daukagun legez, euki daigun zeruban beti zeugaz bizi izateko ta zeure ontasanak kantetako ditxia. Amen.



## IKASIKIZUN BAKARRA

zeinetan erakusten dan

*bigarren sakramentubaren izatiari ta egitari jagokana.*

Jesukristo geure Jaunak bigarren lekuban itxi euskun sakramentu santuba da, neure entzula onak, *konfirmazinoia* esaten jakona. Sakramentu au gaiti dino Erromako Katezismuak: *Kura jaunak beti izan badabee konfirmazinoeko sakramentuba erakutsi biarra, orain duda bagarik inos baino geijago den datu biar dabee kristinaubai erakusten sakramentu santu onen izatia ta grazijak. Bateti, kristinau askok jaamonik egiten ez deutseelako sakramentu oni. Ta besteti, gitxi dirialako sakramentu onek daukazan prutu grazijaz kuakin balijetara den datuten dirianak. Erakutsi biar jako, bada, kristinaubari, sakramentu oni jagokan ikasikizuna. Orduba danian, ezaubera osuagaz ta prestaera onagaz artu dagijan konfirmazinoeko sakramentu santuba ta aren grazija ugarijak. Onetarako, esango deusut dotrina onetan: 1. Sakramentubaren izatiari ta egitari jagokana. 2. Zelan artu biar dan. 3. Zer egiten daben.*

## KONPIRMAZINOEKO SAKRAMENTUBA

### I.

Lelengo erakutsi biar jako kristinaubari, *konfirmazinoiak* zer esan gura daben. Ez da, bada, beste gauzarik aituten *konfirmazinoiagaz*, ez bada leen sendo daguana, senduago egitia; leen pirme daguana, pirmiago egitia; edo leen indar onian daganari, indar geijago emotia. Au berau egiten dau, bada, Eleisiaren bigarren sakramentubak kristinaubagaz. Bautismuak emoten deutsa grazijaren bizitzia, grazijaren indarra ta sendotasuna. Ta onen gainera konfirmazinoeko sakramentubak emoten deutsa kristinaubari aparteko indarra, pirmezia ta sendotasuna, Jesukristoren soldautzan pelietako. Alan, esan ginaijo konfirmazinoeko sakramentubari *sendotuteko* sakramentuba. Bada, sakramentu onen egite nausija da, grazijan dagan arimiari indar barrija ta sendotasun barrija emotia, Jesukristoren ondria kristinautzan bildur bagarik zaintuteko.



## II.

Baita sinistu biar dau kristinaubak, arimiaren sendogarriko sakramentu au itxi euskula Jesukristo geure Jaunak berak. Baita Jesukristo geure Jaunak berak itxi euskun, Erromako Katezismuak esaten daben legez, konfirmazioeko sakramentubaren geija ta egite moduba bere. Bada, Jaungoikuak berak ez bada, bestek ezin emon legijo munduko gauza bati, pekatuben parkagarri ta grazijaren geigarri izateko birtutia. Au gaiti, Eleisiaren zazpi sakramentubak dira Jesukristo Jaungoiko ta gizon egijazkuak berak itxijak, leen esan dan legez.

## III.

Zer da, bada, konfirmazioeko sakramentuba? Oni erantzuteko esaten da: 1. Obispo jauna dala berez konfirmazioeko sakramentugina. Apostolu santubai ta areen ordeko obispo jaunai emon eutseen Jesukristok, kristinaubak konfirmetako alizatia. 2. Sinistu biar dogu, batiatu bagarik daguana ezin konfirmau leitekiala. Bada, nora ezekua da batiatutia, beste sakramentubak artuteko. 3. Jakin biar da, konfirmazioeko sakramentuba ez jakola kristinaubari bein baino emoten. Batiua, ordia ta konfirmazioa ez dira barristetan, beste sakramentubak legez. Au ezautu ezker esaten da bada, neure entzula onak, konfirmazioeko sakramentuba dala, *batiatuta dagan kristinaubari balsamuagaz naastautako ta obispo jaunak konsagrautako orijuagaz bekokijan obispuak kurutzia egitia*, esanagaz: *Markeetan zaitut kurutzjaren senailiagaz ta konfirmetan zaitut osasuneko krismagaz Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.* Au da konfirmazioeko sakramentubaren geijari, izatiari ta egitari jagokana. Baina gauza ona da kristinaubari aituten emotia, oneek guztiok zer esan gura dabeen.

## IV.

Zer esan gura dau, bada, krismak edo sakramentu onen geijak? Gauza asko esan gura ditu, neure entzula onak. Ta guztiak dira sakramentu onen egitadiai jagokuezanak. Krisma da balsamuagaz naastautako orijo

konsagrauba. Orijuak sendotu ta zalduten ditu gorputzak. Oriju da bijotzeko alegrijaren senailia. Oriju da argigarrija ta pozgarrija. Oriju da bake onaren senailia. Oriju da nai burdiniari, nai zurari, nai arrijari, nai beste edozein gauzari etxuria edertuten deutsana, zaltasuna ta pirmezia gordetan deutsana. Oriju da gauzak usteldu bagarik, ugartu bagarik, sistu edo irotu bagarik gordetan ditubana. Alan, osasuna ta indarrak gorputzian gordetako, esaten eban Salomonek: *Zenre buruban ez dakizula paltau orijua.* Argitasuna, edertasuna, gozotasuna, zaltasuna, sendotasuna ta osotasuna emoten deutsee orijuak, ezarten jakuen gauza guztiak. Orregaiti Eskritura Sagraduban ainbeste bidar Espiritu Santubak aitauten dau orijua ta arbola orijogina edo *olibua*, alako esan dirian ontasunetati bat edo bat aituten emon gura deuskunian. Berau gaiti, aintxinako burrukarijak bere orijuagaz gorputzak igortzita, juan oi zirian alkarregaz pelietara.

Oriju balsamuagaz naastetan da, konfirmazioeko sakramentuba egiteko. Balsamuak bere, beste askoren artian, egitade bi daukaz txito ezagunak: Bata da usain gozua. Espiritu Santubak aintzat artuta, txito jaso andija emoten deutsa bere esposiaren izenian esaten dabenian: *Balsamo usaintsu baten moduban, emon dot usaina.* Bestia da, balsamua izatia pasmuaren kontrakua. Gorputzak pasmua ganik libretako ta usteldu bagarik gordetako, balsamotuten dira. Izan ezker, bada, konfirmazioe geija orijua ta balsamua, alako egitade ta ontasun agirijak daukeezanak, berekautan legez ezaututen da konfirmazioeko sakramentubak geure arimetan zer egiten daben. Onegaz aituten da, konfirmazioeko sakramentubak sendotu, edertu, osotu ta zaldu egiten dabela geure arimetako grazija. Inpernuko etsaijaren tentazioiak ta asmo galdubak inos goitu ez dagijen. Pekatubaren usteltasunagaz ezaindu ez dedin. Ta grazijaren usain gozua ta estimauba galdu ez dagijan. Baita obispo jaunak konsagrautakua izan biar dau orijo-balsamuak edo krismak bere. Bada, san Pabian Aita Santu martirijak erakusten dau, Erromako Katezismuak dinuanez, Jesukristo geure Jaunak alan egiteko agindu eutseela apostolu santubai Eguben Santu gabeko aparijan. Obispo jaunaren konsagrazioiak prestetan ditu orijo ta balsamo bat egina, sakramentubaren gei izatera. Bada, konsagrau bagarik ezin legi eurakin sakramenturik.

## V.

Konfirmazioa egiteko berbak bere, guztiak dira peliadarako kristinauba prestau ta azkortuten dabeenak. *Markeetan zaitut kurutzjaren senai-*



*liagaz*, esaten deutsa obispo jaunak, krismagaz bekokijan kurutzia eginda. Kurutzia ta kuruziaren senailia da kristinaubaren arma sendua ta seguru-ba. Kuruziagaz goitu zituban Jesukristo geure Jaunak arimen arerijo guztiak. Ta kurutzia itxi euskun arma nausitzat, munduba, diabruba ta aragija goituteko. *Ta konpirmetan zaitut osasunaren krismagaz*, dirautsa obispo jaunak konpirmazioan. Berba onek ta krismagaz bekokijan igorztiak edo unjidutiak, guztiak esan gura dau kristinaubari sakramentu onetan emoten jakon espiritzuko alizate sendua ta indartsuba. Ta noren izenian? *Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Zer izan leiteke, bada, gauza atarakuagua sakramentu santu onek arimiari emoten deutsan sendotasuna erakusteko, balsamozko orijo konsagrauba, agaz bekokijan kurutzia egitia ta esan dirian berba santubak baino? Bekokijan egiten da kurutzia bere. Bekokijan, lotsa lekuban. Ta zetarako? Inos lagun aurrian lotsatu ez dedin kristinautziagaz. Inos lotsatu ez dedin Jesusen ondria zaintuten ta kurutze santiari jarraituten. Onetarako egiten jako bekokijan kurutzia, konpirmetan danari.*

Baita emoten deutsa obispo jaunak konpirmetan danari eskubagaz matrellako bat bere. Onegaz aituten emoten da, konpirmauta daguana ya dala Jesukristoren soldauba. Ez bestiak joteko. Ez lagunari min emoteko, ez bada, Jesusen izenian, lagunak emoten deutseezan gatzak ta egiten deutseezan nai bagaak onian eruateko. Jesukristo ez zan mundura etorri inori gatz egitera. Baina bai inok egin eutsazan gatzak pazienzijaz iragotera. Beste ainbeste egin biar dau konpirmauta dagan kristinaubak.

## VI.

Baina gogora etorriko jatzu benturaz, kristinaubak: Ez ginduzan, bada, bautismo santubak egin guztiok Jesukristoren soldau? Zetarako da, bada, konpirmazioa, batiatuta egon ezkerok? Esaten da bada, neure entzula onak, bitaarte andija daguala bautismuaren ta konpirmazioaren artian. Bautismua da grazijaren bizitzara jaijoteko. Ta konpirmazioa da jaijotako grazija sendotuteko. Bautismuak egiten gaitu Jesukristoren seme. Ta konpirmazioiak Jesukristoren soldau. Au erakusten deusku san Melkiades Aita Santu Erromakuak, edozeinek aituko daben moduban. Dino bada: Agintarijak soldautzat norbait artuten dabenian, ez deutsa soldautzako senailia edo ezagungarrija emoten bakarrik, ez bada ezagungarriaren gainera, emoten deutsaz armaak, soldautzan pelietako. Alan jazoten jako kristinaubari bautismuan ta konpirmazioan. Espiritu Santubak,

zeruti jatsita, bautismoko iturrijan emoten deutsa arimiari grazija; ta konpirmazioan, grazija gordetako indarra ta armia. Ta munduban beti bizi biar dogun legez arimiaren etsaijen kontra peliadan, bautismua da bizi izateko ta konpirmazioa pelietako. Bautismuak garbituten gaitu ta konpirmazioiak sendotuten gaitu. Asko da bautismua, geu salbetako. Baina bautismuaren gainera da konpirmazioa, arerijuak goituteko. Onan erakusten deusku, kristinaubak, Melkiades santubak, bautismuagaz konpirmazioaren artian dagan bitaarte grazijazkua. *Bautismuan emoten da Espiritu Santuba, pekatubak parkatuteko; ta konpirmazioan, pekatuban jausi ez dedin pelietako*, dino san Pedro Damianok. Ikasi ezkerok, bada, kristinaubak konpirmazioeko sakramentubari jagokana, jakin biar dau zelan p[r]estau biar daben sakramentu santu au artuteko.

## VII.

Onetarako esaten da aurraz batiatu bagakuak ezin artu legijala konpirmazioeko sakramentuba. Baina kristinau batiatubak artu legi konpirmazioa. *Ta Eleisa Ama santiak txito nai dau, bautismuagaz bere semetzat artu dituban kristinau guztiak, konpirmazioagaz kristinaubaren izate osora eldulia*, dino Erromako Katezismuak. Alan, al izan ezkerok, artu biar dau kristinaubak konpirmazioeko sakramentu santuba. Esaten da, ez dala ezereztzat edo balijo gitxikotzat eukita itxi biar konpirmazioa, ez bada estimau biar dala, gauza balijo andikotzat euki biar dala ta ordu onian al izan ezkerok artu biar dala. *Ez dakizu*, esaten eutsan san Jeronimok Luziperiano herejiari, *Eleisiaren usadjua dana, batiatubai obispo jaunak eskubak imintia ta Espiritu Santubari dei egitia? Dinozu, nun eskribiduta dagan? Apostoluben Egitetan. Ta Eskrituriaren esanik ez balego bere, kristandade guztiak alan egitia edo konpirmetia, agindu baten terzjokua da*. Modu onetan erakusten eban san Jeronimok Eskritura Sagradubagaz ta Eleisiaren betiko usadijagaz konpirmazioeko sakramentubaren preminia.

Konpirmazioeko sakramentuba artuteko, prestau biar dau kristinaubak (errazoiaren usura eldu dana bada) pekatuben damu egijazkuagaz. Esaten da, pekatu mortalien daganak konpesau biar dabela, konpirmetara orduko. Bada, pekatu illgarrijagaz konpirmauko balitz, egingo leuke sakrilejiozko pekatu andija, sakramentu santuba pekatuban artu dabela. Onezaz gainera, dino Erromako Katezismuak, konpirmazioeko sakramentuba artuteko denporan gauza ona dala, barubagaz, limosniagaz ta beste egitate santubakin kristinaubak prestetia. Au erakutsiko deutsee





kura jaunak kristinau pielai ta gurasuak euren umiai. Onetarako gogoratu deutseez, konpirmazinoeko sakramentu santubak geure arimetara dakazan grazija ta mesede santubak ta ugarijak. Ta artuko dabee kristinaubak sakramentu santu au ainbat onduen pretauta, sinistute egijazko bategaz, Jaungoikuaganako gogo bizijagaz, pekatuben damu osuagaz ta arima garbijagaz. Espiritu Santubari dei eginda artu biar da konpirmazinoeko sakramentuba. Ez dago denpora erabagirik kristinauba konpirmetako. Errazoiaren usura kristinauba eldu dedinian da tertzijorik oneena konpirmetako, dinue Erromako Katezismuak, san Karlos Millanguak ta beste askok. Orduban asten dira arimiaren arerijuak kristinaubaren kontra. Ta orduban dau biarren grazija sendotutia ta sakramentubaren birtutiagaz bizkortutia, arimako etsaijak goituteko ta Jesusen ondria zaintuteko. Baina obispo jaunari deritxonian errazoiaren usuba baino leenago seinak konpirmetia, ez dago eragotzita, dino san Karlos Millanguak. Ikusi daigun, bada, ia zer egiten deusant kristinaubari konpirmazinoeko sakramentubak.

## 8.

Esan dot, kristinaubak, dotrina onetan, zer egiten daben sakramentu onek geure arimetan. Baina oraindino obetuago aitu dagizun beronen birtute mirarizkua, jakin biar dozu: 1. Konpirmazinoeko sakramentubak, beste sakramentu guztiak legez, parkatuten ditubala berez pekatubak, ondo pretauta artuten danian. 2. Iminten dabela marka bat geure ariman, inos bere kastau edo galduko ez dana. Soldaubak soldau dan artian darabilen legez soldautzako ezagungarrija, alan kristinaubak eukiko ditu beti beragaz bautismuan ta konpirmazinoian artu zituban markak edo kristinautzako ezagungarrijak, Jaungoikua Jaungoiko dan artian. Ondo balijetan bada, zeruban glorija geijago eukiteko. Gaiski pelietan bada, inpernuban geijago peneetako. Geure ariman isten daben ezagungarri au gaiti, ez da bein baino artuten konpirmazinoeko sakramentuba. 3. Konpirmazinoeko sakramentubak iraaften dau edo iminten dau espirituzko senikeria, bautismoko senikeria gaiti esan zan legez. Bada, bautismuan emoten jakozan legez seinari kristinautzarako pijadoriak ta lagunak, alan emoten jakoz konpirmazinoeko sakramentuban. Ta bautismuak dakarren espirituzko senikeria, dakar konpirmazinoiak. 4. Konpirmazinoeko sakramentubak ariman egiten daben aparteko mesedia da, leen esan dan legez, grazija sendotutia, tentazinoiak goituteko.

Sakramentubaren grazija indarrezko au ez da berez ezaututen ain ondo. Baina bai ezaututen da bere egitadetan. Au aituteko esaten deusku Erromako Katezismuak, gogoratu daigula apostolu santubai zer jazo jakuen.

Bada, gauza jakina da apostolubak bildurtijak ta arpegi gitxikuak ziriana Jesusegaz ebilzarian, Jesusen pasinoian ta baita gaineko egunetan bere, Espiritu Santuba zeruti euretara jatsi artian. Judegubak Jesus preso artu ebeenian, apostolubak bildurrez iges egin ebeen. San Pedrok, guztien artian indartsubenak ta azartubenak, emakume kondo baten berbiak bildurtuta, iru bidar ukatu eban Jesus bere Jauna. Jesus illen arteti biztuta gero bere, judeguben bildurrez etxe baten sartuta ezkutauta legez egon zirian; Espiritu Santuba euretara etorri artian, zegaiti, bada, au? Zelan ain bildurtijak ta animo gitxikuak apostolubak? Ez beste gauza gaiti, ez bada konpirmazinoeko sakramentubaren grazija osua artu ez dabeelako. Oraindino palta ebeen Espiritubaren etortia, zein jazoten dan aparteko modubagaz ta grazijagaz, konp i rmazinoeko sakramentuba biar dan prestaeriagaz artuten danian.

Bada, apostolubak eurak, Espiritu Santuba artu ebeenian Pazkua maijetzekoz ez zirurijen leenguak. Judegubak ta mundu guztia baino senduago, indartsuago ta azartubago zirian. Judegubai plaza betian arpegijan ezarten eutseen euren Jaungoiko illtzako pekatu erru gaistokua. Ta jentil ekandu nasaikuen artian bildur bagarik prediketetan ebeen geure Jaungoikotzat ta Salbazaile bakartzat Jesukristo kurutzian illa. Ez zituban bildurtuten apostolu santubak Espiritu Santuba artu ebeen ezkeru, ez agintarijak, ez soldaubak, ez ezpatak, ez karzelak, ez narru eraztiak, ez samia ebatiak, ez beste penagarrik. Ez zirurijen ya gizonak, ez bada ezeren bildur bagako zerutar azartu batzuk.

Zek deritxazu, alan sendotu zitubala? Konpirmazinoeko sakramentuban emoten dan Espiritu Santubaren grazijak. Onegaz goituten ditu kristinaubak arimiaren arerijuak, munduba, diabruba ta aragija. Grazija santa ta sendo onegaz ainbeste gizon ta emakumek, bai edadekuak ta bai gaztiak autortu dabee Jesusen izen santuba ta zaintu dabee Jesusen ondria, bildur bagarik, agintari gogorren aurrian, penagarrik andijentetan. Zeinbat gizon edadekok goitu ditubee laba gorriak ta kalzaidu zorrotzak bildurtu bagarik, Jesus ez ukatutia gaiti? Zeinbat neskatilla gaztek burla egin deutsee borregubai, batzuk artzen ta otsuen artian, beste batzuk orijo iraaquinezko galdaretan, beste batzuk azote gogorretan ta beste askok lotsarizko milla pena garratzen artian, bizitzia galduteragino Jesukristoren izen bedeinkatuba, amodijo garbija ta berbia zaintutia gaiti?



Oh, kristinaubak! Ez daukee zeinbatek onetariko Espiritu Santubaren egitate arrigarriak. Ta oneen grazija ta sendogarrija emoten jako kristinaubari konpirmazinoeko sakramentuban.

Gogoratu bada, neure entzula onak, sakramentu santu onen izatiari ta egitiari jagokana; zelan pretauta artu biar dan; ta zer egiten daben geure arimetan. Eskatu daijogun Espiritu Santubari, geitu dagijala geure sinistutia, sendotu dagijala geure grazija, argitu dagijala geure adina, sutu dagijala bere amodijo santubagaz geure nailla mukerra, igartu dagizala geure bijotzetako guraari luurrezkuak, barristau dagijala geugan orijo santubaren espirituzko igortzija, balsamo santubaren usain gozua ta kurutze santiaren indarra, inos lotsatu bagarik beti jaso daigun ta zaintu daigun Jesusen legia ta ondria munduban ta gozau daigun zeruban. Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## PENITENZIJAKO SAKRAMENTUBA



## I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer dan penitentsija.*
2. *Zeinbat modutakua dan.*
3. *Ze preminatakua dan.*

Trentoko batzaar santubak ta beste Eleisiaren Erakuslak iminten dabee, neure kristinaubak, konpirmazioeko sakramentubaren ondorik komuninoeko sakramentuba. Baina bateti geure errietako gazteerari erakusten jakon legez konpirmazioaren urrengo *penitentsia*, ta besteti komulgetara orduko oi dan legez konpesetia, uste dot ez dala errazoeti kanpora izango, komuninoeko sakramentuba baino leenago erakustia konpesinoekua edo penitentsijakua.

Gauza gitxi izango dira kristinaultzako erakutsi santuban ondo ikasteko ta aituteko preminia geijago daukeenak, penitentsija egijazko bati darraikozanak baino. Duda bagarik, txito kristinau asko bizi dira, neure entzula onak, urte luzeetan pekatubaren besuetan lo egiten dabeela, *penitentsija egijazkuaren* azaleko ezaubera illun bat baino ez daukeelako. Eleisa Ama santiak pena andi bategaz negar egiten dau bere semen gatx triste au. Bada, esaten dau bere batzaar oso baten, *penitentsija paltsua dala beste naibagen artian Eleisa Ama santia txito asko peneetan dabena*. Berau gaiti kontu estuba iminten deutsee Eleisa santiak obispo jaunai, kura ta sazerdote jaunai, erakutsi dagijuen kristinau pielai, inos kansau bagarik, penitentsija egijazkuaren izatia ta preminia. Euren erakutsijaren paltaz, dino, kristinauben arimak penitentsija paltsuagaz engainauta, inpernura juan ez ditezan. *Ne falsis poenitentis laicorum animas decipi, et in infernum detrabi, patientur.*

Eleisa Ama santiaren agindu ta opa on au neure egikizuntzat artuta, gogo onagaz erakutsiko deusut, kristinaubak, sakramentu onetan ainbat laburren ta argiruen penitentsija egijazkuari ta konpesinoeko sakramentubari nora ezian jagokana. Bakit sail onek txito kanpo andija daukana. Bakit erakutsi labur batzuketan gauza andirik esan ezin negijana. Baita sakramentu santu onetan zuben burubetarako ez dirian gauza asko dagozana bere. Alderatuko ditut oneek guztiok aleginaz neure erakutsijetati. Ta bakarrik esango deusut ainbat ziatzen, zeubek jakin biar dozuna. Guztiyai asipena emoteko esango deusut ikasikizun onetan: 1. *Zer aituten dan peni-*

*tenzjaren izenagaz. 2. Zeinbat modutakua dan penitentsija. 3. Ze preminatakua dan.* Guztiok dakuszu, ondo entzutiak ta ikastiak asko balijo deusuna. Prestau zaitez, bada, ainbat gogorik oneenagaz entzuteko.

### I.

Ez da menturaz ezer bere sarrijago aitatuten, neure kristinaubak, ez erakutsi oneko liburubetan, ez pulpituetan, ez konpesalekubetan, penitentsija egijazkua egitia baino. Ta benturaz geu salbetako nora ezeko gauzetan ez dago beste bat, sustrai gitxiagaz kristinaubak dakijeenik. Ta au jazo leiteke, dino Aita Burdalue jesuita zelotsubak, biar dan argitasunagaz kristinaubai erakusten ez jakuelako penitentsijaren izatia ta preminia. Zer da, bada, penitentsija? Edo zer esan gura dau penitentsijak? Ez da, bada, beste gauzarik, neure entzula onak, penitentsija, ez bada *penia artutia* edo bijotza peneetia. Zerbait jazo jakolako edo jazo ez jakolako noberak bijotzian artuten daben penia, damuba edo garbajia da penitentsija. Onako penia edo damuba izan leiteke modu askotakua. Izan leiteke damututia ta penetia Jaungoikua gaiti. Izan leiteke zeruba edo inpernuba gaiti. Baita kleituba, osasuna edo eukijia galdu dabelako bere. Baita adiskide bategazkua galdu dabelako bere. Leenago nai izan daben gauzia, damututen jakonian ta garbatuten jakonian dauka bijotzak penia. Ta au da berez penitentsija. Askotan izaten da pena au munduko gauzak gaiti. Ta orduban da munduko penitentsija. Penitentsija onek erijotzia dakar, dino san Paulo apostolubak. *Saculi autem tristitia mortem operatur.*

Orain aita dogun penitentsija da, Jaungoikua gaiti artuten dana. Jaungoikuaren aginduba ausi dabeelako bijotzian artuten daben penia da kristinauba salbetan daben penitentsija. *Onek*, dino Apostolu santubak, *dakarrela arimako osasuna*. Alan, Espiritu Santubak leku askotan esaten deuskunian penitentsija egiteko ta penitentsijaren preminia, batian: *Egizu penitentsija, zeruko erreinuba urreratu da ta;* bestian: *Penitentsija egiten ez badozu, guztiok era batera galduko zara*. Leku baten: *Penitentsija egiten ez badogu, jansiko gara Jaungoikuaren eskubetan ta ez gizonen eskubetan*. Beste baten: *Pekatarijak egiten badau bere pekatu guztien penitentsija... biziko da zeruban. Ez da illo... Biurtu zaite bijotz guztiagaz Jaungoikuagana ta salbauko zara...* Jaungoikuak onako berba askogaz eskatuten deuskunian penitentsija, dinot, neure kristinaubak, eskatuten deuskula pekatubagaz Jaungoikua bera injurijau dogulako bijotzeko penia ta damuba. Pekatu egina garbatu-



tia ta ostera pekatu rik ez egiteko asmo bizija artutia, pekatuba Jaungoikuaren kontra dalako da penitenzijaren eginkizuna.

Pekatu egin dabenak ezin ukatu legi Jaungoikuaren aginduba ausi dabena. Ezin ukatu legi, Jaungoikuaren esana egin baino bere guraarjia egin naijago izan dabena. Ezin ukatu legi, Jaungoiko andijari ta santubari lotsia galdu deutsana. Bada, penitenzija egiteko, ezautu biar dau bere gaiski egina. Damutu biar dau bijotzian pekatu eginagaz, Jaungoiko santubari lotsia ta ondria galdu deutsalako. Eskatu biar deutsa Jaungoikuari bere pekatubaren parkazinoia. Artu biar dau bijotzian gogo osua, ostera pekatu rik ez egiteko. Aldatu biar dau pekatuko bideti ta okasinoeti. Ta prestau biar dau pekatuba autortuteko konpesinoian, al dagijan parkazinoia Jaungoikuaganik jadiisteko uste osu[a]gaz. Au da penitenzija egijazkuaren egitadia. Pekatu egin ebanian geijago gura eutsan pekatu geijari, Jaungoikuari baino. Bada, penitenzija egijazkua egiteko, geijago gura biar deutsa Jaungoikuari beste gauza guztiai baino. Au da penitenzijagaz Jaungoikuagana bijotza biurtutia. Pekatu egin ebanian, luurreko gurari bat gaiti itxi eutsan betiko Jaungoikuari. Bere nai oker baten truke saldu eban Jaungoikua. Geijago maitetu eban pekatu gei bat, Jaungoikua baino. Bada, penitenzija egiteko, luurreko gurari eragotzi guztiai itxi biar deutsee Jaungoikua gaiti. Munduko gauza guztiak, osasuna, kleituba, eukija, ondatsunak, adiskidiak ta bizitzia bera bere trukau biar ditu ta galdu biar ditu, biar badira, Jaungoikua ez galdutia gaiti. Maitetu biar dau Jaungoikua bijotz bijotzeti, beste gauza guztiak baino geijago; ta gorrotua artu biar deutsa egin daben pekatubari. Au da penitenzija egijazkuagaz pekatarija Jaungoikuagana biurtutia.

Benetan Jaungoikua gaiti pekatubagaz garbatuta daguanak, beti dauka bijotzian penia ta naibagia Jaungoiko Santuba ta Altsuba pekatubagaz asarratu ta galdu dabelako. Baina pekatubaren garbajak bateti emoten badeutsa mina ta penia bijotzian ta tristezia ariman Jaungoikuaren kontra pekatu egin dabelako, besteti emoten deutsa uste oso bat, Jaungoiko onaganik bere pekatuba ren ta gaiski eginaren parkazinoia jadiisteko. Baita penazko ta damuzko amodijo garratz gozo bat bere, Jaungoiko on, parkazaillia maitetuteko ta ostera pekatubagaz ez asarratuteko. Au da penitenzijak pekatarijaren bijotzian egiten daben aldatzia. Pekatu egin ebanian, ondo eritxon pekatubari ta gorroto eutsan Jaungoikuari. Orain gorroto deutsa pekatubari ta ondo gura deutsa Jaungoikuari. Orduban bere ezauberaz ta naiz itxi eutsan Jaungoikuari ta zerubari gurari gaisto bat gaiti. Orain gurari txaar guztiak ta gorputza penau ta mindu gura lituke, Jaungoikuaren naija egitia gaiti ta zeruba ez

galdutia gaiti. Orduban nai eukian Jaungoikorik ez egotia, beti pekatu egiten egoteko. Orain nai leuke pekatu rik ez egotia, beti Jaungoikuagaz egoteko. Orduban pekatubaren pisubak erasten eutsan bere gogua luurreko atseginetara, beste zer maiteturik ez balego legez. Orain pekatubaren damubak emoten deutsa luurreko atsegin guztien gogo betia ta ikusi ezina, ta jasoten deutsa bere gogua ta bijotza espirituzko atsegin gozuetara. Orduban, pekatu egin ebanian, begiratuten eutsan Jaungoikuari *izate* andi, astun, illun, gogor, zelotsu bati legez; ta pekatu egitari, gauza eder, bigun, gozo, ezer gaiti bere itxi ezin legijonari legez. Ta orain, pekatubagaz damututa daguanian, Jaungoikuari begiratuten deutsa Aita on, bigun, parkazaille, guztiz maitegarri, berak bere erruz asarratuta daukanari legez; ta pekatubari, gauza deunga guztietati deungenari, ezainenari ta gorroto-garrijenari legez.

Au da penintezija egijazkuak pekatarijaren bijotzian ta ariman egiten daben aldatza santuba ta espirituzkua. Aldatza santa onek erasoten deutsa pekatarijari arima arimati pekatubaren minagaz ta damubagaz: *Oh, ze gaiski egin dodan! Oh, ze azartu deungakua izan nasan, Jaungoikuari lotsia galduteko! Jaungoikua desondretako! Oh, ze berandu ezautu zaitudazan, neure Jaungoiko ona ta parkazaille maitia! Oh, pekatu madarikatuba! Oh, milla bidar leenago ill banintze, Jauna, zeure lege santuba ausi baino! Oh Jesus, zeu besuak zabalik biloxik ill zinian kuruzian josita ni gaiti, ta niki pekatu egin dot zeure kontra! Zek itsutu ninduban ni alan, neure Jauna ta Jaungoikua, zeure kontra pekatu egiteko? Miserikordija, Jauna, nigaz. Parkatu, Jauna, niri neure pekatubak. Damu dot, Jauna, bijotze guztirik, pekatu egina. Ez dot, Jauna, ostera egingo zeure grazijaren laguntasunagaz. Betoze, Jauna, nire ganera emen gatxak ta mingarrijak, neure pekatuben kastigurako. Penau nagizu, Jauna, emen ta parkatu egidazu gero zeruban...*

Ara emen, kristinaubak, aituten emonda zerbait, zer dan penitenzija egijazkua. Penitenzija egiazkuak iminten dau ariman pekatubaren damuba ta gorrotua; bildurrezko ta lotsa oneko amodijua Jaungoikuaganako; pekatu rik ostera ez egiteko asmo sendua; pekatubaren parkazinoia Jaungoikuaganik jadiisteko uste osua; ta pekatuba konpesetako gogo egijazkua.

## II.

Modu bitara, dino santo Tomasek, aitu legijala penitenzija. Batera, pekatubaren damuba dan legez. Ta bestera, konpesinoeko sakramentuba dan legez. Ez da esaten au gaiti penitenzija bi diriala, ez bada dira peni-



tenzija egijazkuaren era bi. Bata da bijotzian edo ariman artuten dan pekatubaren damu bizija ta egijazkua Jaungoikuaren kontra pekatu egin dabelako, leen esan dan legez. Bestia da bijotzian daukan pekatubaren damu egijazkua, konpesinoeko sakramentuban seinale ezagunakin agertutia. Lelengo modubaren edo bijotzeko damu egijazkuaren gainera, bigarrenak geituten deutsa damubaren ezagungarrija agirira konpesinoian agertutia. Lelengo damubaren moduba edo eria beti izan da nora ezekua pekatarija salbetako, laster esango dan legez. Baina bigarrena, Jesukristo geure Jaunak konpesinoeko sakramentuban itxi euskuna da. Jesukristo geure Jaunak agindu euskun, batiatu ezkeru eginiko pekatu illgarriak bijotzeko damu egijazkuagaz guztiak konpesetako. Au da penitenzijako edo konpesinoeko sakramentuba.

Erromako Katezismuak esaten deusku, Jesukristo geure Jaunak zetarako jaso eban penitenzija egijazkua sakramentubaren izatera. Zetarako, bada? Ziurrago ta segurubago egon gaitez dan geure pekatubaren parkazinoiaren gainian. Jaungoikuak agindu deutsa pekatarijari pekatubaren parkazinoia, damutu ta garbatuten bada pekatubagaz. Damu egijazko au dan legez arimakua ta bijotzekua, ikusten ez dana ta oratuten ez jakona, dudiagaz ta bildurragaz biziko zan beti pekatarija, ia damutu zan edo ez pekatubaren parkazinoia jadisteko duinaan. *Bada, geure arimako bildur zoli ta triste au zerbaitan osatuteko Jesukristo geure Jaunak itxi euskun konpesinoeko sakramentuba. Geure pekatubak damu egijazkuagaz konpesinoian autortuta, sazerdotiak pekatuti askatuten gaitubanian sinistu daigun edo uste segurubagua enki daigun, Jaungoikuak sakramentubaren bitaartez parkatu deusku zula geure pekatubak.* Alan etorten jako kristinaubari bere arimara, pekatari andija izan arren, ez dakit zelako sosigu bat ta pekatubak parkatu jakozan uste oso bat, beragan dan guztia eginda damu egijazko bategaz konpesetan danian.

Emeti ezaututen da, neure kristinaubak, konpesinoeko penitenzijak ez ditubala pekatubak parkatuten bijotzeko penitenzija bagarik. Azaleko penitenzija paltsua da. Ao utsezko penitenzija paltsua da. Bijotza aldatu ta onduten ez daben penitenzija, pekatubaren damubak ariman min emoten ez deutsan penitenzija, pekatubaren gorrotua ta Jaungoiko zuzenaren ta parkazailliaren bildur oneko amodijua ez dakarren penitenzija, penitenzija paltsoak dira. Bizitzia obatuten ez daben penitenzija, pekatubari ta pekatu bidiari alde eragiten ez deutsan penitenzija, penitenzija paltsoak dira. Oh, zeinbat onetariko penitenzija paltso kristinauben artian! Sinistute siku ta soil bategaz bizi dira kristinau asko urte luzeetan. Pekatubak autortu ezkeru konpesinoian uste dabee parkatuta dagozala, pekatuba gaiti bijotza damutu, ta pekatuti gogua aldatu bagarik. Ez dau, bada,

Jaungoikuak, ariman ondo damutu ta garbatu bagako pekatu illgarriak parkatu. Ta ez dau aginduten, parkatuko dabela bere. Au gaiti da nora ezina penitenzija egijazkua, pekatarija salbetako.

### III.

Bai, neure entzula onak. Ez zaitez engainau gauza onetan. Bide bi baino ez dagoz zerurako. Edo erru bageko bidia. Edo penitenzijazko bidia. Erru bageko bidia da pekatu egin ez dabenarena. Baina nortzuk dira oneek, ondo esatez jantzi daiguzan? Gaistokerijan sartu ez dirian umiak. Baita beste arima asko bere daukaz Jesusek bere Eleisan, Baal gaituari belaua makurtu ez deutseenak. Pekatuek illgarriak egin ez daberen arimak. Zerubak geitu dagizala. Oneek duaz erru bagako edo inozenzijako bideti zerura.

Baina egin dozu pekatu illgarrija? Bada, ez dago zuretzat zerurako beste biderik, ez bada penitenzija. Pekatubaren damubak, pekatubaren garbajak, pekatubaren peniak, pekatubaren negarrak, pekatubaren gorrotuak, pekatubari itxijak, pekatuba Jaungoikuaren kontra dalako, eruan biarko zaitu zerura. Osterantzian zuzen kondenuko zara. Jesus geure zeruko Erakusliak alan esaten deutsee pekatari guztiai: *Penitenzija egiten ez badozu, guztiok modu batera balduko zara.* Duda guztiak erabagiten ditubee Jesusen berba itzaltsu oneek. Au gaiti esaten dau san Juan Klimakok: *Inun dan bizia modurik altubena ta santubena artuten badozu bere, sinistu egizu ez deusula balijo, pekatubaren damu egijazkua ez badaukazu.* Berau gaiti dino san Jeronimok, *salbetako bigarren ola dala penitenzija.* Galdu dozu tentazinoiaren olatubagaz grazijaren ontzija? Bada, edo ito pekatubaren uretan betiko, edo oratu ontzi galdubaren olari, zein dan salbetako penitenzija egijazkua. Au berau erakusten deusku Eleisa Ama santiak Trentoko batzaar santuban. *Pekatuek illgarrija egin daberen guztiarentzat, beti izan dala nora ezekua penitenzija egijazkua salbetako,* dino konzilijauk.

Ta ez da, neure entzula onak, penitenzijaren premina au oraingua pekatarija salbetako, ez bada betikua. Mundubaren asierati amairainokua. Penitenzijagaz salbau zan Adan, geure lelengo gurasua. Baita Eba bere. Baita Dabid erregia bere. Baita lapur ona bere. Baita beste asko bere, konpesinoeko sakramentuba Jesukristok itxi euskun baino leenago. Ta Jesukristo geure Jaunak konpesinoeko sakramentuba itxi euskun ezkeru bere, pekatarija salbetako ez dago beste biderik, pekatubagaz benetan



garbatuta, bijotz osuagaz Jaungoikuagana biurtutia baino, pekatuba konpesetako ta aren zorra pagetako gogo osuagaz.

Ez, bada, aaztu, neure kristinaubak, zer esan gura daben penitenziak. Zeinbat modutakua dan ta ze premina andikua dan, pekatarija salbetako. Oin onetati erraztuago aituko dituzu konpesinoeko sakramentuko ikasikizunak. Guztiaz izango dira penitenzija egijazkuari edo konpesinoeko sakramentubari darraikozenak. Eskatu daijogun Jaun zerukuari, bialdu daigula arimako argitasuna, geure pekatuben gatxa ezaututeko. Bigundu dagizala bere amodijo santubaren espiritubagaz geure bijotz pekatubagaz liortubak. Sortu dagijala geure arimetan pekatubaren gorrotua ta Jesusen amodijo garbija. Oh, Jaungoiko maitia! Askatu gaizuz pekatubetati ta biurtu gaizuz zeugana, beti zeugaz bizi gaitezuan zeruban. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*zelan pekatubak gogoratu biar dirian,*  
*konpesinoian autortuteko.*

*Jaungoikuari esker onak emonda gordeko balebee kristinaubak batiuan artu ebeen ontasuna ta grazija, ez zan pekatuben parkazinoerako bautismua baino beste sakramenturen preminarik egongo, dino neure entzula onak, Eleisa Ama santiak Trentoko batzaarrian. Baina ontasunian ta miseri[ke]jordijan aberatsa dan Jaungoikuak ezanttu eban luurrezkuak gariana; ta batiatu ezkeroko pekatuban jausita diabrubaren bendian euren arimak imini ditubenai bere, itxi deutsee konpesinoeko sakramentuba, zeinetan emoten jakon kristinaubari batiatu ezkeroko pekatuben parkazinoia Jesukristoren eri jotziaren mesediagaz. Eleisa Ama santiaren erakutsi onetati dakusku, kristinaubak, geure Aita Jaungoikuaren ontasuna, geure pekatubak parkatuteko ta geu zerura eruateko. Biztu egizu, bada, zeuben sinistutia. Maitetu egizu bijotz guztiagaz Jaungoiko parkazaillia. Ta jaso egizu ondo esatez bere miserikordija amai bagia.*

Sinistuten dogu, Jesukristok itxi euskuna konpesinoeko sakramentuba. Baita batiatu ezkeroko eginiko pekatu guztiak konpesinoe egijazkuaz parkatuten jakuzana bere. Oh, pekatarijaren pozgarriko sakramentu santuba! Pekatu guztiak parkatuten ditu konpesinoe egijazkuak? Bai, kristinaubak, guztiak. Erejjako pekatubak bere bai? Baita. Jaungoikuaren edo santuben gorrotokuak bere bai? Baita. Adulterijuak, gizonilltzak ta lapurretak badira bere bai? Baita. Askok, ezainak ta guztiz lotsarizkuak badira bere bai? Baita. Itxasuan areiarik ta luurrian bedarrik daguan beste badira bere, guztiak parkatuten ditu konpesinoe egijazkuak. *Pekatarija garbatuten bada bijotzeti Jaungoikuaren kontra egin dituban pekatu guztiakin, aaztuko nas aren pekatu guztiakin*, dino Jaungoikuak Ezekiel propeta santubaren aoti. Ta askotan pekatuban jausten bada bere bai? Baita. Zeinbat bidar pekatuban jausten dan, ainbeste bidar konpesinoe egijazkuak parkatuten ditu pekatubak. *Milla bidar pekatu egin dozu? Bada, konpesan zaitez milla bidar*, dino san Juan Krisostomok. Ta Jesukristok san Pedrori esan eutsan: *Ez zazpi bidar, ez bada irodogeta amazazpi bidar*. Edo pekatarija damututa, garbatuta, ondo pretauta konpesetan dan guztian, parkatuko deutzazuz bere pekatubak neure izenian. Ez dago, bada, dudarik onetan, kristinaubak. Pekatu andijak, asko ta askotan izan arren, egin dirian guztiak parkatuten



ditu konpesinoe bakotzak Jesusen erijotzako irabatzijak gaiti. Zeregina daukana ta nekez askok egiten dabena da, konpesinoe egijazkua zer dan jakitia ta gero ondo konpesetia.

Alan, bagoz konpesinoeko sakramentubaren gainian gauza batzuk, guztiok dakizuzanak. Ta oneek erakusten ez dago zetan emon denporia. Oneek dira: 1. Konpesinoeko sakramentuba Jesukristok itxi euskuna, batiatu ezkeroko pekatubak parkatuteko. 2. Ondo konpesautako pekatubak, betiko parkatuta geratuten diriana. 3. Sazerdote jaunak baino bestek, konpesinoian pekatubak parkatuteko alik ez daukana. 4. Pekatarija pekatuben damubagaz ondo prestetan dan beste bidar konpesau leitekiana. 5. Goguan daukan pekatu illgarrija, al dagijala, konpesau bagarik inor zerura jua ezin leitekiana. 6. Azkenian, pekatuba konpesau ezin danian, Jaungoiko ona pekatubagaz injurijau ta desondrau dabelako damu egijazkuak, al dagijanian konpesetako ustiagaz, balijo deutsal pekatarijari salbetako. Oni esaten jako *akto kontrizinoekua*.

Konpesinoeko sakramentubaren gainian bagoz beste ikaskizun asko. Baina ez dira ainbeste kristinau guztiai jagokazanak, zeinda eleisa gizonai. Berau gaiti ez deusut alako gauzen gainian ezer esango, ez bada kristinaubak konpesetara orduko, konpesetan danian ta konpesauta gero zer egin biar daben erakustia izango da sakramentu onetako ene lana ta zeuben ikasikizuna. Pekatarijak konpesetara orduko gogoratu biar ditu bere pekatubak. Ta oni esaten jako, pekatuben *gomutatzia* edo examina konzientzajakua. Artu biar dau pekatubaren garbajia. Ta oni esaten jako, pekatubaren bijotzeko *damuba* edo doloria. Imini biar dau gogo sendo bat bere ariman, ostera pekatuik ez egiteko. Ta oni esaten jako, pekatuik ez egiteko gogo egijazkua edo proposituba. Esan biar deusaz pekatubak guztiak konpesoriari. Ta oni esaten jako, pekatubak *autortzia* edo aozko konpesinoia. Ta egin biar dau konpesoriaren aginduba. Ta oni esaten jako, pekatubaren zorrari *kobru* emotia edo penitenzija kunplidutia. Ara emen, kristinaubak, konpesinoe on bat egiteko umiai erakutsi oi jakuezan bost gauzak: 1. Examinia. 2. Doloria. 3. Proposituba. 4. Konpesinoia. Ta 5. penitenzija kunplidutia. Ta euren sailla da, geure moduban esateko: Pekatubak guztiak gogora ekarri, damutu ta garbatu bijotzeti eurakin, artu asmo sendo bat ostera geijago ez egiteko, autortu dirianak konpesoriari parkazinoiaren ustiagaz, ta kobru emon aren agindubari. Au da konpesinoe on bat egitia. Ta berau izango da nire erakutsikizunen geija ta zuben ikaskizuna. Guztiai asipena emoteko, esango deusut: 1. *Zer dan pekatubak gogoratutia, ondo konpesetako*. 2. *Zelan gogoratu biar dirian*. Ezin ukatu zinai, kristinaubak, premia andiko ikaskizuna dana. Entzun, bada, zur ta gogo-

ti. Ta etorri geroko domeeketan bere, guraso ta ume, al dagizun guztiok, sakramentu onetako erakutsija entzutera.

## I.

*Konpesinoe* edo autortze onaren asipena da, pekatubak guztiak gogora ekartia. Bai, kristinaubak, Jesukristo geure Jaunak itxi euskun *autortzako* sakramentu santuba, zeinetan parkatuten dirian pekatu guztiak. Baina ez edozein modutan, ez bada geu geure aldeti atarako pretauta. *Jaungoikuak egin ginduzan geu bagarik; baina ez gaitu salbanko geu bagarik*, dino san Agustinek. Jaungoikuak aginduten deuskun moduban geuk geugan dana eginda, parkatuko jakuz geure pekatubak. Jaungoikuaren agindu onetati bat da, pekatubak guztiak ziatz, bat bere itxi bagarik, konpesoriari autortutia. Au da ebanjelijo santubaren asierati onako Jesukristo geure Jaunaren aginduba. Pekatubak guztiak ziatz esateko autortzako sakramentuban, ziatz guztiak gomutatu biar dira. Ara, bada, Jaungoikuaren aginduz pekatu guztiak gogoratzeko premia edo examinia egin biarra.

Zer da, bada, konpesoriari esateko pekatubak gogora ekartia edo *examinia* egitia? Ara, kristinaubak. Ez engainau gauza onetan. Zubek askok uste dozun baino ardura andijagokua da. Pekatubak ziatz gogora ekarteko, jakin biar dau pekatarijak kristinautzako erakutsija ondo. Ez azaleti, ez bada sustraiz ta ondo. Zelan gogora ekarriko ditu ezaututen ez dituban pekatubak? Aintzat ez daukazan pekatubak? Pekatutzat euki biar dituban ta pekatutzat ez daukazan pekatubak? Zelan gogoratuko dau pekatarijak konpesinoe gaistuak zeinbat bidar egin dituban, ez badaki nos dan konpesinoe ona ta nos dan gaistua? Zelan gogoratuko dau gurasuak umiai zeinbat bidar parkatu deutseezan pekatu dirian gauzak, ez badaki umiai areek parkatutia pekatu dana? Zelan gogoratuko dau kristinaubak lagunari zeinbat bidar pekatu bida edo *eskandaluba* emon deusaz, ez badaki inoren aurrian gaiski egitia edo *eskandaluba* emotia aparteko pekatuba dana? Zelan...? Baina, zeinbat onetariko ezjakin, neure entzula onak, kristinauben artian? Kristinaubaren lelengo egikizuna da ondo pekatubak gogora ekarteko, dotrinia ondo ta sustraiz ikastia.

Kristinautzako *dotrinia* edo erakutsija ondo ikasi ezkerko, *examinia* egitia edo pekatubak gogora ekartia ez da beste gauzarik, ez bada leenago ondo konpesau zaneti orduraginoko pekatu illgarri guztiak ziatz gomutatutia, konpesoriari esateko. *Pekatu-autortzia* edo konpesetia bada bere bizi



guztikua, gogoratu biar ditu bere biziko pekatu illgarri guztiak. Bada urte bikua edo laukua edo amarrekua, gogoratu biar ditu urte areetako pekatu guztiak. Pekatutubak bada il bi edo irukua, gogoratu biar ditu denpora atan egin dituban pekatubak. Berba baten esateko, azkeneko pekatu-autortza ona konpesoriari egin eutsaneti, orduraginoko pekatu guztiak gogoratu biar ditu kristinaubak, ondo konpesetako. *Pekatubak ziatz gogora ekarteko*, begiratu biar deutsa kristinaubak astiro bere arimiari ta Jaungoikuaren agindubari, bijak bateratuta, nun goi beia daukeen gogoan artuteko. *Pekatubak gogoratuteko* aztertu biar ditu pekatarijak bere bijotzararen baztar guztiak. Ta zabaldu, bere naijen edo nai ezeen, egiteen edo ez egiteen, egonen edo ibilijen, artubeden edo emonen, adiskiden edo arerijuen gainian euki dituban asmo txaar, gurari oker, uste gaisto ta egitate deungu guztiak. *Pekatubak gogoratuteko* Jaungoikuari ta Ama Birjina guztiz santiari atarako grazija eskatuta, bere arimiaren esan ziurra ta Jaungoikuaren aginduba ispilluztat edo zuzengarriztat artuta dendatu biar dau pekatarijak txito kontu andi bategaz, pekatubak guztiak gogora ekarten. Irago biar dau astiro bere goguan *ze estadu edo biziera daukan; ze zeregin edo opizijio daukan; ze pekatutan sarrijen jausi oi dan; zeren gainian konpesoriak konturik geijen artu eutsan; zer agindu eutsan ak; aren agindubari zelan kobru emon eutsan; ze saldu erosi edo artu emon enki daben; ze arerijo edo adiskide deunga izan daben; ze anzi edo ezda baida inogaz erabili daben; nundi nora ibili dan; ze oitura oi daben; ze gura ari goitu oi daben...* Ta beste onako pekatubeden gomutatza oso ta zia-tzerako biar daben guztia.

Ez dago denpora erabakirik pekatubeden gogoratzarako. Konzienzia naastauba ta konpesinoe bitarte luzia daukanak, denpora geijago biar dau duda bagarik. Sarritxutan ta ainbat onduen konpesetan danak, gitxiago biar dau. Saldu erosi, artu emon ta eginbiar asko ta andijetan dabilenak, denpora geijago biar dau. Bere etxeke eginbiarrak baino ez darabilenak, oi danez, denpora gitxiago biar dau. Ta alan beste guztiak. Au da bada, kristinaubak, pekatubak gogora ekarteko bidia. Baina ikusi daigun argi-ruago, zelan egin biar dan.

## II.

*Txito ardura ta kontu andijagaz pekatubak gogoratu biar diriala*, dino Trentoko batzaar santubak. Baina ze ardura edo ze kontu imini biar da onetarako? Ara, kristinaubak. Ardura andija imini biar da, pekatubak gogoratuteko. Alegin osuagaz ziatz pekatu guztiak gogoratu biar dira,

konpesetara orduko. Baina ze aleginagaz? Bakizu ze aleginagaz? Ze ardurartuten dozu ta ze alegin egiten dozu, asko balijo deutsun auzi bat irabazteko? Artzeekodunai zeure zor andi zati askotakuen kontuba emoteko? Gaixo illgarri bateti osatuteko? Zer egiten dozu? Ze ziatz zeure zorren zati txikijak bere gogoratuten dituzun, geijago kontu egin ez daginez artzeekodunak! Zelan, gabaz bere luari itxita, konturatuten dituzun juezari esateko berbak ta auzija irabatzi eragin leizubeden errazoiak! Ze kontutuz gomutatuten dituzun zeure gaixuaren asipenak, nos nunguak ta geitu gitxitutiak, osalariari ziatz esateko! Bada, beste ainbeste ardura ta alegin, neure entzula onak, pekatubak guztiak ziatz gogora ekarteko.

Pekatu egiten da Jaungoikuaren amar agindubeden, bost Eleisakuen, *obra misericordiazkuen* edo eginbiar nai onekuen ta bakotzak bere bizierako edo *estaduko* eginkizunen kontra. Pekatuba da esatia, egitia edo nai izatia zerbait, esan dirian agindubeden ta eginbiarren kontra. Irago biar ditu, bada, pekatarijak ziatz ta astiro goguan Jaungoikuaren amar agindubak, Eleisiaren bost agindubak, *nai oneko* edo *bijotz errukiorreko* eginbiarrak ta bere bizierako eginkizunak. Ia esanagaz, eginagaz, edo naijagaz areetati bat edo bat ausi daben, edo zeinbat bidar ausi daben gogoratuteko. Geure pekatubetan ez daukee lekuri gitxien geure sengarriak. Areek dira pekatubeden atiak. Ta eurak aratu biar dira, pekatubak ezaututeko.

Aztertu bada, kristinaubak, ta erabildu ondo goguan: *Lelengo*: Zeuben pausubak. *Oinetan dagoz loijak*, dino Jeremias propeta santubak. Gogoratu, zeuben oinak nun erabili dituzun, nun sartu dituzun ta zeuben gabeetako ta egunazko pausu txaarrakin zeinbat sospetxa ta zeresan emon dozun.

*Bigarrenian*: Gogoratu zeuben eskubakin zeri oratu deutsazun. *Pikiari ikututen deutsana, beragaz loituten da*, dino Salomonek. Nun erabili dituzu zeure eskubak? Zer artu dozu? Zeuria ala inorena? Zeinbat bidar? Nori luzatu deutsazu eskuba? Zetarako? Zeinbat bidar? Zeinbaten aurrian kristinaubaren lotsa ona, eldutasuna ta onestidadia aaztu ta lotsatu eragiten dabeen eskuka orreek? Zeinbat bidar biarra egiten egon biar leukeen esku orreek erabili dituzu jokuan ta asmo pekatuzkuetan?

*Irugarrenian*. Gogoratu zeuben aoko pekatubak. Auan dago miina. Baita jan gauzen ta edan gauzen sengarrija edo gustua bere. *Miinan dago arimiaren bizitzia edo erijotzia*, dino Salomonek. Zer emon deutsazu arimiari miinagaz? Bizitzia ala erijotzia? Zeinbat gaiski esate? Noren kontra? Eleisa gizonen kontra? Agintarijen kontra? Gurasuen kontra? Gogoratu. Zeinbat maldezinoe? Zeinbat bidao? Zeinbat berba loi edo desonestu? Zeinbaten aurrian? Gogoratu, zeinbat premina bagako gauza sabelaren-





tzat auan sartu dituzun. *Ara, oraindino okelaak aginetan eukeezan... Sabel betiak in asarratu ebeen Jaungoikua ta etorri zan euren gainera txito kastigu andi bat, dino Espiritu Santubak gulerubak gaiti. Zeinbat gozogarri auarentzat? Zeinbat ordikerija? Zeinbat jaate ta edaate neurri bagako? Zeinbat umen ta zarren kaltian? Gogoratu ondo.*

*Langarrenian:* Gogoratu nora zabaldu dituzun zeure begijak. *Bentaneetati sartuten da erijotzia, dino Jeremiasek. Geure begijak dira arimiarren bentanaak. Emakumiari begiratuten deusanak beraganako gurari txarragaz, egin dau bijotzian pekatu, dino Jesukristo geure Jaunak. Zeinbat begirakune arima illzaille, bada? Zeinbat eleisetan, Jaungoikuaren etxe santuban? Gogoratu ondo.*

*Bostgarrenian:* Aztertu ta aratu ondo zeuben bijotzen izurturaak. Bijotza da pekatu tokija, pekatu lekuba ta pekatuben ernelarija. Bijotzeta urtetan dabee adulterijuak, pornikazinoiak, lapurretak, berba deungak ta gurari txaarrak. Bijotzian erneetan da gorrotua, buru eritxija, ondasun guria, gozo guria, agindu guria ta pekatu guztien azija. Gogoratu bada, kristinaubak, ainbat ziatzen zeuben bijotzetako pekatubak, guztiak konpesetako. Ta ez aaztu orrako burutazinoe aixetsu ta arruakin. Ez aaztu, ia gogora etorri jatzuzan gauza pekatuzkuak nai izan dituzun edo ez, ia leku emon deutseezun edo ez, ia burutazinoe areek eukiko zenduzan lekura ta lagunetara, premina bagarik zeure guraz jua zarian edo ez. Gogoratu oneek guztiok ondo. Batez bere kastidadiaren kontrako pekatubetan, zeintzuk oi dirian komedijetan, saraubetan, naasteko dantzetan ta olgeta nasajetan.

Ez kansau, neure entzula onak, konpesetara orduko pekatubak ondo ta ziatz gogora ekarten. Bada, noberaren paltaz, gogoratuta esaten ez dan pekatuba ez da konpesinoian parkatuten. Ta bat isten bada esan bagarik noberaren erruz, esaten dirianak bere ez dira parkatuten. Ta au onan izan ezker, zer esango dogu kristinau askoren konpesinoiak gaiti? konpeso-riaren oinetan zer erantzun, eritxi baten baino ez dakijenak gaiti? Zeinbat bidar onako edo alako gauza esan edo egin edo naitu dozu itanduten jakue- nian, buruba gora jasota kontubak ateraten asten dirianak gaiti? Ta zeinbat onetariko kristinau? Batez bere urtian bein edo birritan baino konpe- setan ez dirianak? Oneek gaiti esan legi, mezia entzutera juateko edu pres- tetan diriala konpesetara juateko. Baita esan legi, alako konpesinoietan ez dabela kristinaubak pijau biar bere pekatuben parkazinoia. Ikasi bada, neure kristinaubak, zer dan ondo konpesetako pekatubak gogora ekartia. Ta zelan ekarri biar dirian. Konpesinoe onaren nora ezeko asipena da pekatubak gogoratzia. Eskatu daijogun Jaungoikuari bialdu daigula zeru-

ti bere argi santuba, geure gaiski eginak, gaiski esanak ta gatx naijak ondo ezaututeko, guztiak ziatz gogoratuteko ta konpesinoian biar dan damuba- gaz autortuteko. Eskatu daijogun Dabid erregiaren espiritu garbatuba ta damutuba, geure urte guztietako pekatubak arimako peniagaz ta min garratzagaz goguan ondo iragoteko. Alan gura izan dagijala zerubak Jesukristo gere Jaunaren minezko iragua ta erijotzia gaiti. Amen.



### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer dan pekatubaren damu egijazkua.*
2. *Zeinbat modutakua dan.*
3. *Zelakuak izan biar daben.*

Leengo erakutsijan esan dan arduriagaz ta kontubagaz, pekatubak ziatz gogora ekartiari darraiko, neure entzula onak, ondo konpesetako pekatubaren damu egijazkua. Alperrik da pekatubak guztiak banaan banaan gogora ekartia ta bat itxi bagarik guztiak konpesinoian artortutia, ez badago bijotzian pekatubaren garbai minduna. Ez gaitzean engainau, kristinaubak. Leengo ikasikizunian esan neutsun zerbait onen gainian. Ta barriro esaten deusut orain. Sinistu biar dogu ez dabela Jaungoikuak pekatu mortalik parkatu inos ta ez dabela parkatuko bere, pekatarija garbatu ta damutu artian pekatu eginagaz. Au erakusten da. Au esaten da. Ta au sinistuten da kristinautzan. Baina ez dakit zeinbat dirian, pekatubagaz biar dan moduban garbatuten dirianak. Ojala, kristinaubak, ni engainauko baninz! Ojala, dinot, txito kristinau askok egingo ez balitubee konpesinoe deungak damu egijazkuaren paltaz! Baina bildur nas. Ta esaten deusut, neure entzula onak, damu egijazkuaren paltaz oi diriala konpesinoe deungarik geijen. Examinariaren paltia zerbaitan erremedijau legi. Edo pekatu geijago gogoratu ez jakolako. Edo konpesoriak gogoratu eragin deusazalako. Edo deskuiduan bat edo beste aztu jakolako. Lotsaz pekatubak konpesau bagarik isteen ditubeenak bere ez oi dira asko. Konpesoriaren aginduba bere zelanbait egin oi da. Damubaz gaineko konpesinoiaren zatijak geijenian iminten diriala esan legi. Baina pekatubaren damu egijazkua da konpesinoe askotan palta oi dana. Ta berau gaiti konpesinoe deunga asko.

Aituten emongo deusut bada, kristinaubak, erakutsi onetan: 1. *Zer dan konpesetako biar dan pekatubaren damuba.* 2. *Zeinbat modutakua dan.* 3. *Zelakuak izan biar daben.* Erregututen deusut guztioi, imini dagizula txito ardura andija dotrina oneek ainbat onduen entzuteko ta ikasteko.

#### I.

Zer da, bada, konpesinoe ona egiteko nai ta ez biar dan pekatubaren damu egijazkua? Ez da au, neure kristinaubak, gorputzeko mina, alia edo naibagia. Ez da au osasuna, kleituba edo aziendia galdu dabelako damuba edo garbajia. Pekatubaren damuba ez da begijakin ikusten dana, belarrijakin entzuten dana, ez eskubakin oratuten jakona. Ez da onetarikua pekatubaren damu egijazkua. Pekatubaren damu egijazkua ta konpesetako biar dana da, pekatu eginagaz Jaungoikuaren aginduba ausi dabelako kristinaubak bere bijotzian artuten daben penia, damuba ta garbajia, osterera pekatu egiteko gogo osuagaz. Iru gauza daukaz pekatubaren damu egijazkuak. Lelengua da: Egin daben pekatubaren damuba. Bigarrena da: Pekatubaren beraren gorrotua. Ta irugarrena: Ostera pekatu egiteko ta pekatuko okasinoeti alde egiteko gogo osua. Irurak esaten deuskuz Trentoko batzaar santubak, dinuanian: *animi dolor, et detestatio est de peccato comisso cum proposito non peccandi de caetero.*

Ez da asko damu egijazkua eukiteko, aoz esatia *damu dot*. Edo *bai, baukat damuba*. Au guztiak esaten dabee konpesinoian. Ez da damu egijazkuaren señaile ziurra, konpesoriaren oinetan negar egitia. Askok egin oi dabee, pekatubaren lotsiak ta konpesau biarrak eraginda. Ez da damu egijazkuaren senaile ziurra bularra jotia. Guztiak konpesinoian jo oi dabee. Egijia da, *damu dot* esatia, bularra jotia ta negar egitia pekatu egin dabelako, gauza onak dira ta aintzat artuten dira. Baina biar da, kristinaubak, *damu dot* esanagaz, bularra juagaz ta negar eginagaz aituten emon gura dana. Au da pekatubagaz Jaungoikua asarratu dabelako bijotzian artu biar daben damuba ta garbajia, pekatubaren kontra artu biar daben gorrotua ta osterera ez egiteko gogo sendua. Au ez badauka bere bijotzian bene benetan, *ez damu dot* esanak, ez negar eginak, ez bularra juak, *ez* pekatubak konpesaubak, ez deusa balijo pekatarijari pekatubak parkatuteko. Gogoratu egizu zer jazoten jakon bide zati bat uts eginda kontuban jausuten danari. Damu dau bide okerreti juana. Peneetan da uts egitiagaz. Biurtuten da arin atzera bide zuzenera. Ta artuten dau gogua, osterera bide okerreti ez juateko. Beste ainbeste egiten dau pekatubaren damu egijazkua daukanak. Damu dau pekatubaren bideti juana. Garbatuten da pekatubaren uts egitiagaz. Pekatubaren bidiari itxita, biurtuten da Jaungoikuaren bide zuzenera. Ta artuten dau asmo sendo bat osterera pekatubaren bidera ez juateko.



Au da damu egijazkuak geure bijotzian egiten daben aldatzia ta bijotzari berari emoten deutsan penia ta garbajia. Au gaiti esaten deusku Jaungoikuak Joel propeta santubaren aoti: *Urratu egizuz zeuben bijotzak, ez zeuben erropak*. Ta beste leku baten esaten deusku Espiritu Santubak: Barristau egizuz edo *egin egizuz zeubentzat bijotz barrijak*. *Biurtu zaite pekatarijak zeuben bijotzetara*, esaten deusku beste leku baten. Oneetan guztietan ta beste onako leku askotan eskatuten deuska Jaungoikuak pekatarijari, penau dagijala, mindu dagijala ta atsekabatu dagijala bere bijotza pekatubaren damubagaz ta garbajagaz. Onetan dago, kristinaubak, damu egijazkuaren izatia. Baina ikusi daigun zeinbat modutakua dan damu egijazkua ondo konpesetako, naita ez biar dana.

## II.

Modu bitakua da, bada, pekatubaren damuba. Batari esaten jako, *kontrizinoia*. Ta bestiari *atrizinoia*. Edo batari esaten jako, amodijozko damuba. Ta bestiari, bildurrezko damuba. Amodijozko damuba da, pekatubagaz Jaungoiko ona opendidu dabelako, kristinaubak bijotzian artuten daben penia ta garbajia, pekatuba konpesetako ta ostera pekatuik ez egiteko gogo bizijagaz. Amodijozko damubak ez deuska ainbeste begiratu ten, ez grazija galdubari, ez zeruba galdubari, ez inpernuba irabazijari, ez bada zeruko Aita ona ta guztiz maitegarrija pekatu mortalagaz injurijau dabelako. Ezaututen dau Jaungoikua dana aita on guztiak baino obia; ama bigun guztiak baino bigunagua; zuzen guztiak baino zuzenagua; ta maitegarri guztiak baino maitegarrijagua. Bada, ezaubera santa onek ta Jaungoiko onaren amodijuak emoten deuska pekatarijari bijotzian damu bizija, bere zeruko Aita onari lotsia galdu deusalako, pekatubagaz Jaungoiko maitia asarratu dabelako edo bere aginduba ausi dabelako. Au da pekatarijaren amodijozko damuba.

Bildurrezko damuba da pekatu mortala edo ilgarrija egin dabelako penia, konpesetako ustiagaz ta ostera ez egiteko goguagaz. Baina zer? Ah! Pekatubaren beraren ezaintasuna gaiti. Pekatubagaz galdu dabelako arimako grazija ta zerurako eskubidia ta irabazi dabelako inpernuko suba. Pekatubaren kalte ikaragarri onek bildurtuten dabee pekatarija. Baki Jaungoiko zuzenak parkatuten ditubana, ondo damutu ta konpesautako pekatubak. Alan prestetan da pe[ka]tuduna pekatubak konpesetako, pekatu eginaren damubagaz, Jaungoiko zuzenaren amodijuagaz ta ostera pekatuik ez egiteko uste osuagaz. Au da pekatarijaren bildurrezko damuba.

Amodijozko damuba ta bildurrezko damuba bardin dira gauza batzubetan. Baina beste batzubetan ez. Bijak dira Jaungoikuaren grazijazkuak ta Espiritu Santubaren doia. Bijak dauke, egijazkuak badira, ostera pekatuik ez egiteko asmo sendua ta pekatuko okasinoeti alde egiteko gogo bizija. Baita pekatu eginak ziatz konpesetako gogua bere. Iru gauza onetan bat izan arren amodijozko ta bildurrezko damuba, beste askotan ez dira bat. Bada, amodijozko damuba karidadiagaz dago. Baina ez bildurrezko damuba. Amodijozko damubak bertati iminten dau pekatarija Jaungoikuaren grazijan. Baina ez bildurrezko damubak konpesau bagarik edo sakramentubak bagarik. Bildurrezko damubak berak bakarrik ez ditu parkatuten pekatubak, amodijozko damubak legez. Baina prestetan dau pekatarija, ondo konpesetako. Ta bildurrezko damu egijazkuagaz ta konpesinoeko sakramentubagaz parkatuten dira pekatubak. Amodijozko edo bildurrezko damuba nai ta ezekua da, neure kristinaubak, Jaungoikuak pekatubak parkatuteko. Pekatu egin ondo damutu ta garbatu bagarik, ez deuska inos Jaungoikuak pekatu andirik edo ilgarririk parkatu inori, leen esan dan legez. Artu biar da pekatubaren gorrotua. Artu biar da pekatubaren damuba. Artu biar da pekatuik ostera ez egiteko asmo sendua. Ta biar da pekatuba konpesetako gogo osua, Jaungoikuak parkatuko badau pekatuba. Baina zelakuak izan biar dau pekatubaren damu nai ta ezeko esan dan onek?

## III.

Damubak izan biar dau, neure kristinaubak, nai amodijozkuak ta nai bildurrezkuak, konpesetako ta pekatubak parkatuteko balijoko badau. *Lelengo*: Jaungoikua gaiti ta arimiaren ona gaiti artuba. *Bigarrenian*: Damu guztietati andijena. *Irugarrenian*: Pekatu guztiena.

1. Jaungoikua gaiti ta geure arimiaren ona gaiti garbatu biar jaku pekatu egin. Onek esan gura dau, zeruko sinistutiagaz balijauta, Jaungoikua asarratu dogulako, grazija ta zeruba galdu ditugulako ta inpernuba irabazti dogulako garbatu biar dogula pekatubagaz. Ez pekatubak mundurako gatzen bat ekarri deuskulako. Zeinbat garbatuten dira ta garbatu leitekez, lapurretan eginagaz kartzelara edo erbestera lapurretia gaiti daruazalako? Zeinbat emakume libre garbatuten dira ta garbatu leitekez, euren pekatu naijak azaldau dirialako, kleituba galdu dabeelako ta beste leengo lagunak buria egiten deutseelako? Asko. Baita negar andijak egin bere. Zeinbat gaiski esala ta miin luzedun garbatu oi dira ta garbatu leite-



kez, inor gaiti deungaro esanagaz juezaren aurrian guzurti egin ditubelako? Asko. Ta balijo deutsee arai guztiai onako damubak konpesetako ta pekatubaren parkazinoia jadisteko? Ez, kristinaubak. Pekatubak mundura dakazan gatzak gaiti dira onetariko damubak. Ta ez dabee balijo konpesetako ta Jaungoikuagaz bakiak egiteko. Jakinda egon, bada, kristinaubak. Zuben pekatubaren damuba ta penia bada, edo osasuna galdu dozulako, edo adiskidia galdu dozulako, edo kleituba edo ondria galdu dozulako, edo aziendia nai diruba galdu dozulako, edo karzelan egon biar dozulako, edo beste munduban iragoten dan gatz edo kalte bat zeure burubari pekatu eginagaz ekarri deutzazulako, ez deutsu ezer bere balijo damutubak ta garbatubak, pekatuba parkatuteko. Geratuko zara damu a gaiti damubagaz, garbajagaz, peniagaz, pekatubaren kaltiagaz ta pekatubagaz beragaz Jaungoikuaren gorrotuan, konpesau arren. Damubak izan biar dau zeruti jatsijak ta Jaungoikua gaiti ta arimiaren erremedijua gaiti artubak, leen esan dan legez, balijoko badau konpesetako ta pekatuba parkatuteko.

Oh zeinbat damu balijo bagako, neure kristinaubak! Oh, zeinbat negar paltso konpesoriaren oinetan! Damubak eta peniak ateraak. Baina ez, Jaungoiko ona pekatubagaz openditu dabelako; ez, zeruko Aita Jaunaren aginduba lotsa bagarik ausi dabelako; ez, arimako grazija ederra pekatubagaz galdu dabelako; ez, zeruba betiko galdu dabelako ta inpernuba betiko irabazi dabe lako. Ez dira pekatari askoren konpesinoeko damubak eta negarrak Jaungoikua, zeruba ta arimia gaiti, ez bada, pekatubagaz euren gainera ekarri dituben gatzak eta kaltiak gaiti; edo pekatuba konpesau biarrak emoten deutseen larrija, penia ta lotsarija gaiti. Sinistu biar dogu bada, kristinaubak, damu egijazko ta zeruti jatsitako onen paltaz diriala konpesinoe deungarik geijenak. Biar da, bada, pekatubaren damuba Jaungoikua gaiti ta arimako ona gaiti artuba, konpesetako. Baita izan biar dau pekatubaren damubak damu guztietati andijenak bere.

2. Bai, kristinaubak. Nai dozu ondo konpesau? Nai dozu Jaungoikuagaz bakia egin ta adiskide izan? Nai dozu Jaungoikuak parkatu daizuzan zeuben pekatubak? Bada, damutu biar jatzu ta garbatu biar jatzu bijotz bijotzeti pekatu egin. Baina zelako damuba? Beste munduko gatz guztiak ta kalte guztiak emon legizuben baino damu andijagua. Au da ondo konpesetako biar dan damuba. Damu guztietati andijena. Pekatu mortalagaz galdu dozu Jaungoikua, galdu dozu zeruba ta irabazi dozu inpernuba. Galdu dozu gauzarik oneena ta irabazi dozu gauzarik txarreena. Bada, pekatu egin dozulako peniak bere izan biar dau, zeure euki al dagizun penarik andijena. Emoten deutsu zeure bijotzian pekatu mortala eginak lastima geijago, atsekaba geijago, pena geijago ta damu geijago,

Jaungoikua, zeruba ta arimia galdu dituzulako ta inpernuba irabazti dozulako, beste ekarri leuskezuzan kalte guztiak gaiti baino? Bada, prest zagoz ondo konpesetako. Geijago begiratuten deutzazu zeure gogoan kleituba jasotiarri, osasuna gordetiarri, eukija ez galdutiarri, bizi izatiarri ta adiskidia-gazgua eukitiarri, pekatu mortalak arimara ekarri deutzuzan kaltiai baino? Bada, ez zagoz prest ondo konpesetako. Ez daukazu biar dan damurik. Ez da zure pekatubaren damuba damu guztietati andijena.

Oh, zelan itsututen dirian pekatarijak gauza onetan! Damu erdi bategaz, pekatu egin ez baleu oba zalako bategaz, uste dabee kristinau askok parkatuten jakuezala konpesetan dituben pekatubak. Abere bat edo ganadu bat galduten jakuenian, peniaren penaz euren burubaren jaube ez dira. Zor bat inok ukatuten badeutsee, atsekabiaren atsekabaz lorik egiten ez dabee. Etxe bat erreetan bajakue, gaineko urte betian edo geijaguan negarrez dagoz aitatuten dan guztian. Onako penia ta damuba emoten dautsee kristinaubai munduko kaltiak ta gatzak. Baina nekez ikusten da, pekatu eginak emoten deutzala inori alako damu bizija ta andija. Zek egiten dau au, kristinaubak? Pekatubaren kaltiak ondo gogoratu ezak. Bada, zer dauke zer ikusi munduko kalte ta gatz guztiak pekatu illgarri baten kalte amai bagakuakin? Damutu bada, kristinaubak, damutu pekatubagaz, beste munduko gatz guztiakin baino geijago. Izan dedilla zeuben pekatubaren damuba damu guztietati andijena. Baita pekatu illgarri guztiena bere.

3. Alperrik da pekatu bategaz edo beste bategaz damututia, guztiakin damututen ez bada. Pekatu illgarri edo mortal guztiakin damutu biar dau pekatarijak, konpesinoian pekatubak parkatuko bajakoz. Bada, pekatu illgarri guztiak eta baktotxa dira asko Jaungoiko andija asarratuteko, aingerubak tristetuteko, santubak desondretako, Espiritu Santubaren grazija galduteko, demoninuari arimia entregetako ta inpernuba irabazteko. Kalte oneek guztiok ekarten ditu pekatarijak bere gainera pekatu illgarri baktotxagaz. Bada, guztiakin damutu biar dau, parkatuko bajakoz. Pekatu guztiak eta baktotxa konpesau biar dira, parkatuko badira. Bada, zeinbat pekatu konpesau biar dirian, ainbestegaz garbatu biar da. Alan, garbatu arren pekatarija lapurretan eginagaz, garbatuten ez bada orditubagaz, ez deutsa balijo damubak. Garbatu arren juramentu guzurrezkua eginagaz, garbatuten ez bada mezia entzun ezagaz, ez deutsa balijo damubak. Garbatu arren emakume bategaz pekatu egin, garbatuten ez bada beste bategaz egin, ez deutsa damubak eta garbajak balijo. Modu onetan, kristinaubak, beste pekatu illgarri guztiakin. Bada, guztiak eta baktotxa dira Jaungoikuaren arerijuak. Ta guztiai ta baktotxari gorroto izan biar deutseegeu.



Erakutsi onetati ezaututen da, konpesinoe palsuak egiten ditubeela askok, pekatu guztien damu egijazkua artu ezagaz. Norbait damututen da mezia bere erruz uts egin dabelako. Ta konpesoriak itanduta, konpesau arren umiai ta otseginai gabaz ta egunaz or emen ardura bagarik ibiltzen itxi deutseena, ez da damututen au gaiti. Bada, ez dau aren konpesinoiak balijo. Beste bat damututen da zerbait ostu dabelako. Ta ez da damututen berba txarra, bidaua ta maldezinoia ta juramentuba isildu bagarik auan darabilzalako. Bada, ez dau aren konpesinoiak balijo. Beste bat damututen da aragizko pekatu bat egin dabelako. Ta ez da damututen auzuagaz berbarik egin gura ezda, ikusi ezinian ta gorrotuan luzaro bizi dalako. Bada, aren konpesinoiak ez dau balijo. Beste bat damututen da inor gaiti bide bage deungaro esan dabelako. Ta ez da damututen, eria daberenian, zaragija legez ardaoz beteten dalako. Bada, aren konpesinoiak ez dau balijo. Onan dira txito konpesinoe asko paltsuak ta sakrilejjozkuak, pekatu guztien ta bakotxaren damuba palta dabeelako.

Gogoratu bada, neure entzula onak, zer dan pekatubaren damu egijazkua; zeinbat modutakua dan; ta zelakuak izan biar daben. Ez aspertu aoz esaten ikasijagaz. Irago buruban sarri ta batez bere konpesau biar dozunian zer dan pekatu illgarrija; zer irabazi dozun pekatubagaz; zer galdu dozun; ze gorroto deutsan Jaungoikuak; ta damutu bijotz bijo[t]zeti pekatu guztiakin ta bakotxagaz. Orduban parkatuko jatzuz pekatu guztiak konpesinoeko sakramentuban. Alan gura izan dagijala zerubak Jesusen erijotza santia gaiti ta Maria Santisimiaren erraija errukiorrak gaiti. Amen.

## IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zelakuak izan biar daben ostera pekatu-  
rik ez egiteko propositubak edo goguak.*

[2.] *Zelan ezautuko dan nok daukan, ostera pekatu-  
rik ez egiteko propositu edo asmo egijazkua.*

Konpesinoe ona egiteko biar dirian bost gauzetan, irugarren leku-  
ban iminten da, neure kristinaubak, ostera pekatu-rik ez egiteko *propositu-  
ba*. Proposituba darraiko damu egijazkuari. Damuba bada egijazkua,  
benetakua, bijotzekua, Jaungoikua ta arimia gaiti artuba, pekatu guztiena  
ta damu guztietati andijena, leengo dotrinan esan dan legez, neure kontu-  
ra, iminiko dau pekatarijak konpesinoerako *propositu* egijazkua. Artuko  
dau asmo sendo bat edo gogo oso bat, ostera geijago pekatu-rik ez egite-  
ko. Au gaiti, *propositubaren* gainian erakutsi barrija imintia ez da beste gau-  
zarik, ez bada kristinaubari geijago ta geijago aituten emotia ze biarrekua  
dan pekatu eginagaz ondo garbatutia konpesetako. Espirituzko gauzak  
dirian legez bai damu egijazkua ta bai ostera pekatu-rik ez egiteko asmo  
ona, ez dira begijakin ikusten ta ez jakue eskubakin oratuten. Au gaiti, ez  
dogu zuzen ezaututen nos daukagun pekatubaren damu egijazkua edo  
pekatu-rik ez egiteko asmo ona, oraintxe badaukat ta oraintxe ez daukat  
esateko. Orregaiti iminten jakoz kristinaubari *ezagungarri* edo *senaile*  
batzuk, guztiz ziur ez bada bere zerbaitan aitu eragiteko nos daukan peka-  
tubaren damu egijazkua ta pekatu-rik ez egiteko asmo biarrekua.  
Ezagungarri onetati ikusiko dau pekatarijak, zeinbat engainetan dirian  
gauza onetan ta zeinbat bizi dirian sarri konpesau arren, pekatu morta-  
lian, inpernurako bidian. Au obeto aituteko gogoratu egizu, kristinaubak,  
leengo dotrinan damubaren gainian esan dan guztia. Ta azaz gainera, aitu  
egizu ainbat gogorik oneenagaz: 1. *Zelakuak izan biar daben konpesetako biar  
dan pekatu-rik ez egiteko asmuak.* 2. *Zelan ezautuko dozun, munduban ezautu  
ginaijan tertijuan, nos daukazun edo ez daukazun pekatu-rik ez egiteko asmo egi-  
jazkua.* Ojala, berba bat bere ondo aitu bagarik itxiko ez bazendu! Entzun  
egizu, bada, ainbat gogorik oneenagaz.



## I.

*Proposituba* edo pekatuik ostera ez egiteko asmo ona ez da beste gauzarik, neure kristinaubak, ez bada artutia pekatarijak bere bijotzian gogo sendo bat, Jaungoikuaren ondria gaiti ta bere arimako ona gaiti osterara inos bere pekatuik ez egiteko. Au da asmo sendo ta konpesetako biarreko onen izatia. Guztiok dakizu au aoz esaten. Guztiok esaten dozu: *Irugarrena proposituba*. Baina ez dakit, berba oneek zer esan gura dabeen guztiok aituten dozun ondo. Berba oneek esan gura dabeena da, bada, pekatarijak ezaututen dabenian egin dabela pekatu illgarrija ta pekatu agaz jausi dala Jaungoiko onaren gorrotuan; galdu dabela bere erruz zeruko glorijs andija; emon deutsal leku etsai gaistuari bere ariman ta irabazi dabela pekatubagaz betiko inpernu sutsuba. Au astiro gogoratuten dabenian pekatari tristiak, Espiritu Santubaren grazijak lagunduta, asten da bere artian kontubak ateraten: Ze gauza deungia ta bildurgarrija egin daben pekatuba! Zelan lotsia galdu deutsal bere agindu santuba ausijagaz zeruko Aita onari! Zelan imini daben bere buruba beti betiko galduteko arrisku jakinian.

Pensamentu santu onegaz damututen da, garbatuten da ta peneetan da pekatarija bere artian, ain gauza deungia egin dabelako. Naijago leuke ill balitz edo pausurik egin ezinda geratu balitz, pekatu egin eukian baino. Ez daki zer egin edo zelan bengau bere burubagaz, ain gauza deungia ta kalte andikua egin dabelako Jaungoiko santubaren kontra ta bere burubaren kontra. Pekatu egin dabelako peniaren peniak ta damubaren damubak, tristeziaren tristeziak ta atsekabiaren atsekabiak lotsa andi bategaz eraasten deusta bere bijotza luurreragino. Baina zeruko sinistutiagaz animauta, parkazinoiaren uste osua artuta igoten dau Jaungoikuaren miseri-kordijagana, pekatubaren parkazinoia eskatutera. Baina oraindino ez da azartuten Jaungoikuari bere pekatubaren parkazinoia eskatuten, arian da bijotz bijotzeta esan artian: *Jauna, ez dot geijago pekatuik egingo; Jauna, leenago galduko ditut beste gauza guztiak, ostera pekatu egin baino; Jauna, ez nas geijago pekatuko okasinoe atara, ez leku atara juango; Jauna, ez nik geijago pekatuik egin.*

Ara emen, kristinaubak, pekatuik ostera ez egiteko gogo sendua, asmo osua, egijazkua, bijotzekua ta atxekija bagakua, ta, nai ta nai ez pekatarijak bene benetan artu biar dabena, konpesinoiak balijoko badeusta. Berau gaiti esaten da, pekatuik ostera ez egiteko goguak izan biar dabela: 1. *Egilia*. 2. *Zala*. 3. *Indartsuba*. 4. *Pekatu guztiena*.

1. Nos izango da pekatuik ez egiteko asmua egilia? Egilia da gogugaz esaten dabena eginagaz erakusten dabenian. Gogo egilia da, Jaungoikuari emon deutsal pekatuik ez egiteko berbia, ondraitasun bategaz ta leijal gordetan dabena. Berba utsetan geratuten bada, askoren pekatuik ez egiteko asmua geratu oi dirian legez, ez da egilia ta ez dau balijo. Begiratu, kristinaubak. Konpesoriaren oinetan emoten dozun berbia, Jaungoikuari berari emoten deutsal. Ez dedilla, bada, izan ao utsetkua. Ez dedilla izan konpesoria engainetakua. Ez dozu Jaungoikua engainauko. Pekatarija ondo konpesetako ez da asko, askok esan oi dabeen legez, esatia: *Nai neuke, bada, pekatuik ez egitia; nai neuke on izatia; nai neuke okasinoe onetati urtetia; nai neuke ekandu txaar oni istia...* ta beste onako nai egite bagakuak. Nai zenduke? Bada, egizu. Ez egizu pekatuik egin. On izan zaite. Nok eragozten deutsal on izatia? Zer egiten dozu pekatuik ez egiteko? On izateko? Ezer bere ez. Bits makala gainian daukan ur geratuba legez egon pekatuban. Bizi pekatuko okasinoian. Bizi pekatuko oituran. Bizi pekatuban. Au da pekatari askoren pekatuik ez egitia. Ta uste dozu, pekatari tristia, *nai neuke* otz bategaz, desio ill bategaz ta borondate geldi bategaz, pekatuik ez egiteko gogo sendo bat ta egindun bat bene benetan artu bagarik, konpesauko zariala ondo, ta parkatuko jatzuzala pekatubak? Ah! Engainauta bizi zara.

Inpernuban dagozanak bere euki ebeen on izateko *nai neuke bat*. Baina ez utseen balijo izan *nai neuke* utsak. Pilatosek bere nai eukian Jesus askatu judeguben eskubetati ta erijotzati. Baita artu eban gogua bere askatuteko edo libretako. Baina ez eban egin biar ebana. Ta balijo izan eutsal Jaungoikuaren aurrian nai izate otzak ta gogo egite on bagakuak? Ez. Pilatos kondenau zan. Erodesek bere nai eukian ta artu eban proposituba edo ustia, san Juan Bautista karzelati aterateko ta ez illteko. Baina bere uste ta gogo guztia jausi zan luurrera laster, dama batek dantziaren saritzat san Juanen samia eskatu eutsal ta bertati agindu eban santubari samia ebateko. Ta balijo izan eutsal *nai neuke* egite bagakuak ta gogo otzak Erodese? Ez. Kondenau zan. Oh, zeinbat onako pekatuik ez egiteko propositu edo gogo geldi egite sendo bagako dagozan inpernuban erreentan! Ez da asko, kristinaubak, pekatarija ondo konpesetako, pekatuik ez egitia *nai neuke* esatia edo pekatubari isteko gogo motel bat artutia. Biar da, konpesinoia ona izango bada ta pekatuba parkatuko bajako, pekatuik ostera ez egiteko gogo sendua ta egilia. Baita zala ta pirmia bere.

2. Zetan dago, bada, pekatuik ostera ez egiteko gogua *zala* izatia? Zeubek dakizu, kristinaubak. Zala da nekez paltetan dabena. Zala da nekez ukatu edo zinka egiten dabena. Zala da ondo irauten dabena. Zala



da bere lekuba gogor ta zuzen gordetan dabena. Zalak izan biar dau, bada, pekatuik ez egiteko artuten dan goguak. Izan biar dau, ezer gaiti bere pekatu illgarririk ez egiteko asmo sendua... Jazoko balitxako kristinaubari, edo pekatu egin edo kleituba galdu? Galdu kleituba ta pekatuik ez egin, santa Susanak egin eban legez. Jazoko balitxako, edo daukan guztia galdu ta karzelara jua, nos arteko ez dakijala, edo pekatu egin? Galdu daukan guztia ta jua betiko karzelara erru bagarik ta pekatuik ez egin, Jose aintxinakuak egin eban legez. Jazoko balitxako, edo ill edo pekatu egin? Ill, biar bada, ta ez pekatu egin, Eleazarok ta beste martirijak egin ebeen legez.

Ara, kristinaubak, pekatuik ostera ez egiteko gogo zala ta sendua. Artuten dozu konpesinoian onako gogo sendua ta zala zeuben ariman, ezer gaiti bere pekatuik ostera ez egiteko? Hai! Ori andija ta gogorra da, esango dozu askok. Bada, nik esaten deustut, gogorragua dala inpernuba; ta andijagua dala zeubek pekatuik ez egiteko berbia konpesoriaren oinetan emoten deustazun Jaungoikua. Berau gaiti, kristinaubak pekatuik ostera ez egiteko artu biar daben goguak, izan biar dau arima arimati ataria, egijazkua, egilia ta zala. Baita indartsuba bere, balijoko badeutsa konpesinoiak.

3. Ta nos izango da indartsuba, pekatuik ostera ez egiteko gogua? Indartsuba izango da, pekatarijak ezaututen ditubanian arimiaren ta grazijaren kontra daukazan arerijak, zeintzuk dirian munduba, diabruba ta aragija. Arerijo senduak ta indartsubak dira oneek. Txito arima asko goituten dabee. Geuk bere sarritan sentiduten dogu euren gerria. Ta ez gitxitan, malpekau, egiten deustakubent kaltia. Bada, arerijo indartsubagaz pelietako nai ta nai ezekua da gogo indartsuba. Gogo epelagaz asten bada peliadan arerijo indartsubakin, bertati dago goituta. Pekatuik ostera ez egiteko gogo erdi ill, ezdabaidako bategaz urteten badau batek konpesinoeti, lelengo eraan dago pekatuban jausita. Baina gogo senduagaz asten bada pelietan, indar gitxi daukala uste izan arren, goitu egiten dau arerijua. Ta pekatubaren kontrako peliadetan Jaungoikuak emoten dau indarra arerijak goituteko, norbera gogo onagaz asi ezker. Alan aginduten deusku Jaungoikuak, artu daigula gogo sendua ta indartsuba, inos ostera pekatuik ez egiteko. Baita izan biar dau gogo onek pekatu guztiena bere.

4. Esan da leen, ez dala asko konpesetako, pekatu bategaz edo beste bategaz damututia. Damutu biar dala pekatu guztiakin. Bada, beste ainbeste esaten da, pekatuik ez egiteko gogo biarrekua gainian. Pekatu guztia ta pekatu egiteko era urrekua edo okasinoe urrekua emoten deusteen gauza guztia isteko gogo sendua ez daukan artian, ez da pekatarija

ondo konpesauko. Zuk daukazu sarri pekatu eragiten deustun adiskide bat auzuan; baita sarri ordituten zarian taberna bere. Bada, ez da asko zu ondo konpesetako, adiskide deungiaren etxera ostera ez juateko gogua artutia, taberna atara ez juateko gogua artu bagarik. Zu zara lapurra ta juralaria paltsua. Bada, ez da asko zu ondo konpesetako, juramentu guzurrezkorik ez egiteko gogua artutia, lapurretarik ez egiteko gogua artu bagarik. Ta onan beste pekatu guztietan. Begiratu bada, kristinaubak, ia zeuben pekatuik ez egiteko gogua edo proposituba dan edo ez egilia, zala, indartsuba ta pekatu guztiena. Ta entzun orain zelan ezautu zinaian nos daukazu pekatuik ez egiteko gogo biarrekua.

## II.

Baina zelan ezautu ginai pekatuik ostera ez egiteko gogo sendua nok daukan? Jaungoikuak esan bagarik, guztiz ziur ta zuzen ezin jakin ginai, neure entzula onak, nos daukan pekatarijak pekatubaren damu egijazkua ta pekatuik ostera ez egiteko gogo egijazkua. Au egijazkua da. Bada, Jaungoikuak berak esan bagarik, ezin jakin ginai Jaungoikuaren adiskidiak ala arerijak garian. Baita egijazkua da, pekatarijak artu arren bere ariman ostera pekatuik ez egiteko gogo egijazkua ta ondo konpesetako biar dana, jausi leiteke ostera bere pekatuban. Dabid bere jausi zan. San Pedro bere jausi zan. Ta beste edozein jausi leiteke, munduban bizi dan artian. Ezin atera legi, bada, seinala edo ezagugarri seguru bat alako nosbaitako ta ustez uste bagarik legezko pekatuban jausteti ezaututeko zuzen, nok daukan edo euki daben pekatuik ostera ez egiteko gogo egijazkua. Baina orregaitino bere esaten dabee Eleisako Erakuslak, kristinaubaren bizi modubari begirata ezaututen dala zerbaitan, nok daukan edo euki daben pekatuik ostera ez egiteko gogo egijazkua. Azaldau daigun puska bat au zelan dan.

Ekarri egizu, bada, gogora, neure entzula onak, ekanduzko juralaria bat, bake galzaile bat, gorrototsu bat, ordi bat, luxurijotsu bat, logreru bat, lapur bat, gaiki esala bat, lotsagalduko bat, jokolari alper bat nai beste edozein pekatari konpesetan dala urtian bein edo birritan edo sei bidar edo amar bidar. Autortuten ditubala konpesinoian bere pekatubak. Esaten deustala konpesoriari konpesinoe baktotxian, *badankala gogua edo proposituba, ostera geijago pekatuik ez egiteko*. Au konpesinoe baktotxian Jaungoikuari edo konpesoriari edo bijai esan da jausten dala leengo pekatubetan. Ordija ordituten dala, leenago legez. Lapurrak ostuten dabela,



leenago legez. Gaiski esaliak murmuretan dabela, leenago legez. Loiija loi dala, leenago legez. Ta modu onetan, pekatubak gitxitu bagarik, pekatuko ekandu gaistua kendu bagarik, pekatuko lagunari, pekatuko lekubari, pekatuzko opizijuari, pekatuzko esanai ta pekatuzko egitaii itxi bagarik bizi diriala urtetan ta urtetan. Pekatubak konpesau ta pekatubak barristau. Goixian konpesetan ta arrasteijan edo andi laster, urrengo eria dabenian, leengo pekatubetan. Beti leenian. Ordija ordi. Jokolarija jokolari. Alperra alper. Logreruba logreru. Etxe galzaila galzaile. Tematikua tematiko. Guraso nasaija ta ardura bagakua nasai ta ardura bagako. Berdia berde. Desonestuba desonestu... Alan pekatu zarrari barrijak geitubaz iragoten jakuela gazte denporia, edadian sartuba ta zaartzia.

Zer deritxazu, kristinaubak? Nun da onen pekatu rik ez egiteko gogua? Zetan geratu dira oneek Jaungoikuari ta konpesoriari emon deutesezan *ostera pekatu rik ez egiteko, pekatuko lagunari isteko, pekatuko bidera ez juateko... berbak?* Esango dogu euki dabeela oneek euren konpesinoetan pekatu rik ostera ez egiteko gogo benetakua, egilia, zala, indartsuba ta pekatu guztiena? Ez, kristinaubak. Esango dogu txito min emoten eutsee la pekatu eginak ariman, pekatubagaz Jaungoiko andijari lotsia galdu eutsee lako, grazija ta zeruba galdu ditubeelako ta betiko inpernuba merezidu dabeelako? Ez, kristinaubak. Ezin au esan ginai. Bada, ez dira nekatu pekatubari isteko. Esango dogu konpesinoe bakotxian damu egijazkuaren ta pekatu rik ez egiteko gogo onaren paltaz Jaungoikuari ta sakramentubari burla egin deutseela? Au izango da egijja, kristinaubak. Au izango da kristinau askori konpesinoe askogaz jazoko jakuena.

Begiratu, neure entzula onak, zeuben konpesinoiai ispilu onetan. Emeti zerbaitan ezautuko dozu, zelakuak izan dirian. Bildur nas asko bizi ete dirian itsu itsuban edo zoro zororik kondenetako bidian. Uste dabee sinistute gaisto bategaz, asko dala pekatubak konpesoriari esatia ta ostera pekatu rik egingo ez dabeela esatia, Jaungoikuak euren pekatubak parkatuteko. Ez da, bada, asko, neure entzula onak, leen aitu dozun legez, pekatubak aoz esatia edo konpesetia. Kainek bere autortu zituban bere pekatubak. Saulek bere bai. Antiokok bere bai. Judasek bere bai. Baina oneek guztiok kondenau zirian. Dabid erregiak bere autortu zituban bere pekatubak. Ta parkatu jakozan. San Pedrori bere bai. Madalenari bere bai. Ta oneek salbau zirian. Zegaiti? Areek, damu egijazko bagarik pekatubak autortu zitubelako, kondenau zirian. Ta oneek, damu egijazkuagaz ta pekatu rik ostera ez egiteko gogo osuagaz pekatubak konpesau zitubeela

ko, parkatu jakuezan pekatubak guztiak ta salbau zirian. Eskatu daijogun, bada, Jaungoiko onari, bialdu daigula zeruti geure pekatuben damu egijazkua ta ostera pekatuban ez jausteko gogo biarrekua ta grazija, zein guztioi opa deutsudan. Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.





## V. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. Zer dan *aozko konpesinoia* ta ze *biarrekuia* dan.
2. Ze *pekatu konpesau* biar *dirian*.

Iru gauza biar ditu pekatarijak, penitenzijako sakramentuba artuteko. Ta dira pekatubaren damu egijazkua, pekatubak guztiak ziatz konpesoriari esatia ta pekatubaren zorra pagetia. Pekatubaren damuba ta pekatu-rik ez egiteko gogua alkarregaz dabilz. Ta esanda geratu da zer dirian. Pekatubak gogora ziatz ekartia ta konpesoriari dirianak esatia alkarregaz dabilz. Bada, pekatubak gogoratuten dira konpesinoian autortuteko. Pekatubaren zorra pagetan da, konpesoriaren aginduba eginagaz. Au zelan egin biar dan, esango da geroko dotrinan. Pekatubak gogora zelan ekarri biar dirian esan da leen. Bada, sail oni oraïn jagokana da nik zubei erakustia, pekatubak zelan autortu biar dirian konpesoriaren oinetan. Onetarako esango deusut: 1. *Aozko konpesinoia zer dan ta ze biarrekuia dan.* 2. *Ze pekatu konpesau biar dirian...* Prestau zaite, kristinaubak, ainbat gogorik zurrenagaz, guztioi arimako osasuna ekarri daikegun ikasikizuna entzuteko. Ez sinistu bakizula dotrina onetan jakin biar dozuna. Bada, geijen dakizunoi bere ez deusut gatzik egingo. Ta geijago izango zara ondo dana ez dakizunak, biar dana dakizunak baino. Prestaera onegaz aitu egizu, bada, zer dan aozko konpesinoia ta ze biarrekuia dan.

### I.

*Aozko konpesinoia da, neure entzula onak, pekatarijak autortutia bere ari-man dankazan ta gogora ekarri dituban pekatu guztiak konpesinoiak entzuteko eskubidia dankan sazerdotiari, guztien parkazinoia artuteko ustiagaz.* Esan da *aozkuia*. Norberak, ez kartaz edo mandatariz, ez bada berbaz esan biar deusazalako konpesoriari bere pekatubak. Mutubak autortu biar ditu bere pekatubak, al dagijan moduban. Esaten da, *konpesinoiak entzuteko lizenzija dankan sazerdotiari*. Bada, sazerdote ez danak ezin inori pekatubak parkatu legijoz. Sazerdote jaunai emon eutseen Jesukristo geure Jaunak atarako eskubidia. Ta sazerdote jaunak bere, erijotzako ordubaz ostian, inoren konpesinoiak entzuteko biar dabee euren agintarijen eskubidia. Esaten da,

*pekatuben parkazinoia artuteko ustiagaz.* Bada, konpesonarijuan edo pekatu autor lekuban peka[tu]bak esan arren konpesoriari, konpesetan danak ez badauka ustia pekatuben parkazinoia artuteko, ez da konpesinoia. Ta ez dakaz alako konpesonarijoko esanak edo berbetiak konpesinoiaren kargak ez konpesoriarentzat ta ez konpesetan danarentzat. Esan biar ditu pekatubak konpesoriaren oinetan sakramentuba ta pekatuben parkazinoia artuteko ustiagaz, edo orduban, edo konpesoriak ostera juateko esaten deusanian. Onan erakusten deusku Eleisa Ama santiak konpesinoiaren izatia.

Ta biarrekuia da salbeetako alan pekatubak aoz konpesoriari esatia? Bai, kristinaubak. Inundi al dedinian, nora ezekua ta biarrekuia da pekatubak aoz konpesetia, salbeetako. Ez dago onetan zer esanik. Jesukristo geure Jaunak agindu eutsan pekatarijari pekatuben parkazinoia, konpesetako kargiagaz. Konpesau al dedilla, konpesau bagarik ill dan pekatarijak ez da salbau. Ta ez da salbauko bere. Giza aldirik giza aldirako Eleisa Ama santiaren erakutsija da nora ezeko konpesinoia, batiatu ezkerro pekatu illgarrija egin dabena salbeetako. *Omnibus post baptismum lapsis jure divino necessarium*, dino Trentoko batzaar santubak. Batiatu ezkerro egin dozu pekatu illgarrija edo mortala? Bada, edo konpesau, edo kondenau. Ez dago bitarterik. Ezelan bere konpesau al dedin pekatuba, ez dau Jaungoikuak parkatuko konpesau bagarik. Ezelan bere konpesau ezin danari, edo nogaz ez daukalako, edo berbarik ezin dabelako, edo osteranzian, artuten badau bere bijotzian pekatubaren damu egijazkua ta Jaungoikuaren amodijo santuba, parkatuten deusaz Jaungoikuak pekatubak. Baina konpesau al dedinari ez, konpesau bagarik. Guztiz biarrekuia da, bada, neure kristinaubak, pekatubak konpesetia, al izan ezkerro.

Begiratu, bada, neure entzula onak, ze bide erraza ta seguruba itxi euskun Jesukristo geure Jaunak geure pekatuben parkazinoerako. Juezak aginduko baleutsa gaisginari, ze lapur, ze gizon illzaile, ze gaiskin izango litzateke, guztiak esango ez litukiana? Bat bere ez. Baina munduko legiak ta Jaungoikuarenak ez duaz bardin gauza onetan. Gatz egin autortuten dabena kastigau egiten dabee munduko juezak. Ta pekatu eginak konpesinoian autortuten ditubana, librau egiten dau Jaungoikuak pekatubetati. Nor izango da, bada, ain zorua, zeinda bere pekatubak guztiak konpesauko ez dituban? Konpesetan badiu, andijak, ezainak ta asko izan arren, baki parkatuten jakozana ta inos bere lotsatuko ez dabena. Konpesetan ez badiu, baki parkatuten ez jakozana ta beti lotsatuko dabena ta erreko dabena inpernuban. Ez da, bada, zorakerija edo lastima andija, kristinaubak bere pekatubak konpesinoian ez autortutia gizon bati? Ta gizon



bati? Jaungoikuaren ordeaz atarako daguan bati? Konpesinoian entzun dabena esan ezin legijan bati? Gizon bati? Adanen semeen argaltasuna ezaututen daben bati? Berak bere pekatubakin beste ainbeste, salbauko bada, egin biar daben bati? Ez da lastima andija, dinot, ostera bere pekatubak, nai lotsaz ta nai bildurrez konpesau bagarik istia, al izan ezker? Oh, pekatubak lotsaz itxita bizi zarian errukarri tristiak! Sinistu egizu arima arimati, konpesetan ez badituzu zeuben pekatubak guztiak ziatz, nai isten badozu pekatu bat bakarrik lotsaz konpesau bagarik, guztiak eukiko dituzula agirijan beti inpernuban Jaungoikuaren, aingeruben, santuben, kondenauben ta demoninuen bistan. Oh, ze negargarrija! Bota, bada, lotsia. Kendu bildurra. Ta konpesau pekatubak guztiak. Baita ikasi bere ze pekatu konpesau biar dirian.

## II.

Konpesau biar dira, neure kristinaubak, batiatu ezker egin dirian pekatu illgarri edo mortal guztiak. Jakinaz ta ezauberaz bat isten badau esan bagarik, bat bere esan ez baleu legez da, dino Eleisa Ama santiak Trentoko batzaarrian. Orregaiti konpesau biar dira *pekatu zjartubak*, *pekatu dudakuak*, *leenago aaztutakuak*, *lotsaz itxitakuak*, *norberak bakarrik eginak*, *inori eraginak*, *ez egineko pekatubak*, *pekatubak eukazan geigarrijak* edo zirkustanzija pekatu barrijak daukezanak, nai pekatuba askozaz azten dabeenak; baita *pekatuko okasinoia* bere, konpesoriak itandu ezker. *Pekatu zjartubak* konpesau biar dira, dirian moduban ta dirian beste. Lau badira, lau. Amar badira, amar. Milla badira, milla. Ez agindu guztietakuak kontu baten, ez bada bakotxa bere lekuban. Lau lapurreta, maldezinoe bi ta orditute bat daukana ez da ondo konpesauko, zazpi pekatu egin ditut esanagaz bakarrik. *Pekatu dudakuak* konpesau biar dira. Izan leiteke dudia, ia pekatu egin eban edo ez eban. Baita pekatu txikija ala illgarrija egin eban bere. Baita pekatu egin ebana jakinda, konpesau ete eban edo ez ete eban bere. Bada, konpesau biar dira dudako pekatu oneek. Bakizu pekatu egin zendubana; baina dudia daukazu konpesau zenduban edo ez? Bada, konpesau biar dozu dudaan. Dudaan zagoz pekatu egin zenduban edo ez zenduban? Bada, konpesau biar dozu dudaan. Dudaan zagoz pekatu txikarra ala illgarrija egin zenduban? Bada, konpesau biar dozu dudaan. Ta onan beste konzienzijako duda guztiak.

*Leen aaztutako pekatubak* konpesau biar dira: Aaztu jatzuz konpesinoe baten edo askotan pekatu bat edo geijago? Zeure erruz ez bazan,

onak zirian konpesinoe areek. Baina gogoratu jatzuzanian, konpesau biar dituzu leen aaztutako pekatubak. Baita aaztubak ziriana bere. *Gaiski konpesantako pekatubak* konpesau biar dira. Modu bitara jazo leiteke pekatubak gaiski konpesetia: Edo biar dan moduban prestau bagarik, examinia ondo egin bagarik, pekatubagaz damutu bagarik edo pekatubari isteko gogo bagarik konpesau dalako. Orduban egiten dau konpesinoe gaistua. Ez jakoz parkatuten pekatubak, konpesau arren. Ta barriro konpesau biar ditu dirianak. Edo pekatubaren bat lotsaz itxita konpesau dalako. Orduban bere ez jakoz parkatuten pekatubak. Ta barriro konpesau biar ditu, ez bakarrik lotsaz itxi eban pekatuba; baita beste konpesinoe atan esan zituban bere. *Norberak bakarrik egindako pekatubak* konpesau biar dira. Bada, Jaungoikuarentzat ez dago bakarrik ez ezkuturik. Guztia dauka Jaungoikuak bistaan.

*Inori eragindako pekatubak* konpesau biar dira. Ta emen esaten dira eskandaluko pekatubak. Oneek bere izaten dira modu bitara. Egin dozu pekatu, bestiak dakuseela, entzuten dabeela edo dakijela? Bada, konpesau biar dozu, al badaizu, zeinbat lagun aurrian edo ekijeela izan zan. Zeuk esanda, edo konbidauta, edo aginduta, egin dau batek edo geijagok pekatu? Bada, konpesau biar dozu zeinbat laguni pekatu eragin zeuntseen edo zeinbat lagunegaz balijau zinian pekatu egiteko. Konbidau zenduban, pekatu egiteko edo agindu zeuntsan? Bada, bestiak pekatu egin ez arren, zeuk egin zenduban pekatu ta konpesau biar dozu. Oneetan guztietan inori emoten jako pekatu egiteko bidia. Ta bestiak egin ez arren, beti da pekatu inori pekatu bidia emotia. Ta konpesau biar da. Baita konpesau biar dira erabagita egitezko pekatubak eginak legez, esanezko pekatubak esanak legez, ta pensamentuzko edo burutazinoezko pekatubak burutazinoezkuak legez. Bada, egitia, esatia ta nai izatia ez dira bardinak. Ta autortu biar dira konpesinoian, dirian legez.

*Ez egineko pekatubak* konpesau biar dira. Onetariko batzuk guztiz dira jakinak: Mezia ez entzutia, barau ez egitia, amarrena ez pagetia... Baina beste batzuk, ta ez gitxi, ez dira ainbeste aintzat artuten. Gurasuak, juezak, ugazabak, oh, zeinbat ez egineko pekatu! Ta ze gitxi konpesau! Gurasuen ta ugazaben zelo santubaren, ardura onaren, kuido andijaren, kansau bagako ekinaren ta jardun itsalsubaren paltaz, umiak ta otseginak dotrinarik ez dakijee; umiak ta otseginak konpesetan ez dira; umiak ta otseginak eleisarako gogorik ez dauke; umiak ta otseginak pekatu mortalian bizi dira, etxeuak dakijeela; umiak ta otseginak gau ta egun gura dabeen moduban dabilz; umiak ta otseginak lotsa gaiztoakuak dira... Ta gurasuak ta ugazabak onako ez egineko pekatu andijak konpesetan ez



ditubee. Bada, konpesau biar dira. Mezia ez entzutia baino pekatu andijaguak dira. Juezak, errijen burubak ta arimen gordezailak gaiti beste ainbeste esaten da. Zeinbat bake txaar, zeinbat joko bide bagako, zeinbat ordikerija, zeinbat adiskide pekatuzko, zeinbat emakume galdu errijetan ta pamelijetan juezen ta beste galarazo biar ditubeenen paltaz! Bada, konpesau biar dira egin ezeko pekatu oneek. Barau ez egitia baino andijaguak dira. Dan moduban dala, pekatu andijaren beian egin biar dana ez egitia, beti da pekatu andija. Ta konpesau biar da. Agurra ukatutia, zorra ez pagetia, konseju ona ez emotia, limosnia ez emotia, exenplu ona ez emotia, guztiak dira ez egineko pekatubak. Ta gauza andira eldu ezker, konpesau biar dira.

*Pekatu geigarriak* konpesau biar dira. Pekatua geigarriak edo *zirkesta[n]zirriak* esaten jakue, pekatuko egitiak beragaz euki legizan gatzgarriak. Oneek batzubetan geitu egiten ditubee pekatubak. Ta beste batzubetan azi. Alakuan egite bategaz austen dira agindu bi edo geijago; edo austen da agindu bat kolpe andijaguagaz, oostu dozu eleisan? Ara egite bategaz pekatu bi: Bata, lapurretia dalako. Ta bestia, eleisan dalako. Oostu dozu kaliza bat eleisan? Ara egite bategaz iru pekatu. Kaliza sagraduba eleisan oostu dozula. Egin dozu pekatu ezkondu bategaz? Ara pekatu bi: Bata kastidadiaren kontra ta bestia ezkontziaren kontra. Zeu bere ezkonduba zara ta zugaz pekatu egin daben ezkonduba zeure senidia da? Ara pekatu geijago egite bategaz. Autortu biar dira, bada, konpesinoian alako pekatubak beragaz daukazan geigarriak. Baita pekatubak azten ditubeenak bere, ezautu ezker. Bada, aparteko modubagaz ezaindu ta azi egiten dabee pekatubaren gatxa. Oostu dituzu ogei errial; baina oostu gura zendukeyan milla, al izan bazendu. Bada, konpesau biar dozu oostuba, baita geijagoren oostu guria bere. Lagun bat gaiti edo norberaren ide bat gaiti gaiski esatia deungaro da. Baina askozaz txarrago da gurasuak gaiti, sazerdote jaunak ta juezak gaiti deungaro esatia. Deungaro da maldezi-noiak esatia. Baina txarrago da umeen aurrian esatia. Inor bide bagarik banatutia deungaro da. Baina deungaro da gorrotuaren gorrotoz ill gura leukiala, jotez aspertu ezinda banatutia. Deungaro da inori gorroto izatia. Baina deungaro da gorrotuaren suba amatau bagarik egun osuan eukitia. Deungaro oraindino ille betian eukitia. Ta txarrago urte betian edo geijaguan eukitia. Deungaro da edozein pekatu illgarri egitia. Baina deungaro domeeka santuban edo komulgau dan egunian egitia. Ara emen, kristinaubak, pekatubaren azigarri ta ezaingarri batzuk. Oneek ta onetarikuak gaiti esaten da Erromako Katezismuagaz, autortu biar ditubala pekatarijak konpesinoian, ezautu ta aintzat artu ezker.

*Pekatu eragingarrija edo pekatuko okasinoe urrekua.* Konpesau biar da, konpesoriak itandu ezker. Baita pekatu egiteko ekanduba bere. Bada, norberaren naizko pekatu eragingarrija arimiaren aparteko gatxa da. Ta biar dau konpesoriaren ezauberia, parkatuko badau. Baita aparteko osagarrija bere, kenduko bada. Etxian edo auzuan bere naiz daukan lagun bategaz pekatuban jaustia milla bidar txarrago da arimiarentzat, beste ustez uste bagako bategaz jaustia baino. Bada, esan biar dau konpesinoian, nai dala opizijua, nai dala tabernia, nai dala komedija, nai dala sarauba, nai dala dantzia, nai dala jokua, nai dala gizona, nai dala emakumia pekatu sarri eragiten deutsana ta bere guraz daukana. Beste ainbeste da pekatuko ekandu edo oitura galduba. Ekandu txarrez pekatu egitia askozaz da txarrago arimiarentzat, nosbait pekatuban jaustia baino. Au gaiti autortu biar dira konpesinoian norberaren naizko pekatu eragingarrija ta pekatuko ekandubak.

Sinistu biar dozu, neure entzula onak, dotrina labur baten ezin erabagi legizala sail zabal andi oni darraikozan gauza guztiak. Esaten deutsu bene benetan, gogoratu dagizula ondo, ia zelan aituten emoten deutsuzan edo autortuten deutsuzan osalari edo mediku bati gorputzeko gatzak, gaixorik zagozarian. Oh, ze ziatz! Nos sentidu zenduban, nun sentidu zenduban, zetati sentidu zenduban, zelan geitubaz edo gitxitubaz gatxa juan zan... guztiak banaan banaan bein ta geijagotan esaten deutsuz gorputzaren osalarijari. Zerbait aaztuten bajatzu, bigarrenian dei eginda, oe aurrera eruanda, obeto esaten deutsazu zeuben gatzaren saila. Zegaiti au? Gorputza osatu dagizun. Osagarri zuzenak ta segurubak emon dagijozan zeuben gatzari. Zeuben gatzaren barri ondo jakin dagijan. Ta jakinaren gainera, ondo ta laster osatu zagizan. Bada, kristinaubak, konpesoria da zeuben arimen osalarija. Konpesoria da zeuben arimen erakuslia. Konpesoria da zeuben pekatubak juzgau biar ditubana. Egizu, bada, edola bere zeuben arimen osalarijagaz gorputzen osalarijagaz egiten dozuna. Agertu egijozuz konpesoriari zeuben arimako gatzak guztiak, bat bere itxi bagarik.

Ez da inor izentau biar konpesinoian, ainbagarik pekatuba konpesau al dedilla. Baina esan biar dira pekatubak guztiak, konzienzian dagozan moduban. Ez edertuta, ez apainduta, ez gitxituta, ez geituta, ez inori erruba ezarrita, ez bere buruba garbituta, ez bada Jaungoikuaren begijetan dagozan moduban. Ainbat ziatzen gogora ekarrita, ondo damututa, Jaungoikuari parka eskatuta, ostera ez egiteko berbia gogoti Jaungoikuari



berari emonda, guztien parkazinoia jadisteko ustiagaz. Askatu zeuben konzienzija ta autortu konpesoriari pekatubak guztiak, lotsia ta bildurra kenduta. Orduban, neure entzula onak, entzungo dozu Jaungoikuaren ordez konpesoriaren aoti, Madalenak legez: *parkatu jatzuꝝ zeure pekatubak*. Alan gura izan dagijala zeruko Jaunak, bera dana dalako. Amen.

## VI. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zetarako dan konpesoriak emoten daben penitenzija.*
2. *Zelan kobru emon biar jakon penitenzijari.*

Konpesinoeko sakramentuban parkazinoia artuteko prestau biar dau pekatarijak, leen esan dan legez. Pekatu guztiak gogora ekarrita, eura-kin ondo damututa, ostera ez egiteko gogo osua artuta, guztiak ziatz konpesoriari autortubagaz. Orduban konpesoriak Jaungoikuaren partez esaten deutsa pekatarijari: *Neuk askatuten zaitut zeure pekatubetati*. Ta konpesoriak au esanagaz batera parkatuta dagoz zeruban pekatu guztiak, andi-jak, ezainak ta asko izan arren. Au da Jaungoikuaren beraren esana. Au da Jesukristo geure Jaunaren ordenia. Au da penitenzijako sakramentubaren egitia. Baina pekatarija Jaungoikuaren zordun egiten da pekatu egiten dabenian. Ta pekatu illgarrijaren zorra da, Jaungoikuaganik betiko alden-duta inpernuban erreetan egotia. Konpesinoeko sakramentuban parkatuten dau Jaungoikuak pekatu illgarrijari darraikon betiko zorra; pekatarijak inpernuban pagau biar leukian zorra. Ta zor aren alderako eskatuten dau Jaungoikuak, edo munduban penitenzija egitia, edo purgatorijuan pekatubaren zorra pagetia. Orregaiti esaten da, konpesinoe ona egiteko biarreko gauzen artian bostgarrena dala konpesoriak emondako penitenzija kunplidutia. Aitu dagizun bada, kristinaubak, sail onetan ikasi ta egin biar dozuna, esango deutsut dotrina onetan: 1. *Zetarako konpesoriak emoten daben penitenzija*. 2. *Zelan kobru emon biar jakon konpesoriak emondako penagarrijari*. Entzun egizu guztiok ainbat gogorik oneenagaz. Bada, ez jako gitxiagori eragiten emen, pekatubak parkatutiari baino. Oh, ze gauza andi-ja!

### I.

Jaungoikuaren eskuban dago, neure entzula onak, pekatubak parkatutia. Bestek inok bere, ez zerukok, ez luurrekok parkatu ezin legi pekatu txiki baten zorra bere. Orregaiti, pekatuben parkazinoia aita danian, beti gogora ekarri biar dogu Jaungoikuaren beraren egikizuna dala au. Baita sinistu biar dogu, ez jakuzala inos bere pekatubak parkatuko, Jaungoikuak



berak nai daben moduban baino. Modu askotara parkatu euskeguzan Jaungoikuak geure pekatubak. Baina ya Berak erakutsita dauka Eleisa santiari zelan gura izan daben guri pekatubak parkatutia. Ta au egin biar dabee pekatari guztiak. Zelan, bada, gura izan dau Jaungoikuak guri pekatubak parkatutia? Ara, kristinaubak. Batiatu baino leenagoko pekatubak, parkatuten deuskuz Jaungoiko onak bautismoko sakramentubagaz. Baina zelan? Guztiz. Batiatuten danari leenagoko pekatubaren zorrik ezer bere geratuten ez jakola. Au da bautismoko sakramentubaren egitadia.

Baina batiatu ezkeroko pekatubak ez ditu parkatuten guztiz konpesinoeko sakramentubak. Parkatuten dau inpernuban pagau biar zan zorra. Baina ez dau parkatuten norberak emen pagau al dagijana. Zegaiti, bada, konpesinoeko sakramentuban parkatuten ez ditu Jaungoikuak pekatubak guztiz, bautismoko sakramentuban legez? Ah, kristinaubak! Trentoko batzaar santubak esaten deusku zegaiti. Batiatu baino leenago pekatu egin dabenak, ez jakinez egin dau; Jaungoikuaren seme izan baino leenago egin dau; Jaungoikuari pekatu rik ez egiteko berbia emon baino leenago egin dau. Ta arei euren pekatubaren damu egijazko bategaz parkatuten deutseez bautismo santuban pekatubaren zor guztia, gatx guztia ta erru guztia oraingo ta betiko.

Baina batiatu ezkeroko pekatu illgarrija egin dabenak, dakijala, ezauberaz ta bere guraz saldu dau Jaungoikua, ukatu dau Jesus, tristetu ditu aingerubak ta desondrau ditu bere partez zerutar guztiak. Esker txarreko seme galduba legez, armak artuta jagi da kristinau pekatarija, etsaijen aldraan sartuta, zeruko Aita onaren kontra. Bada, errazoa da ez jakinez ta ondo ezautu bagarik pekatu egin dabenari erreztuago bere gatx egin parkatutia, dakijala ta ezauberaz bere Aita onaren kontra pekatu egin dabenari baino. Au gaiti, bada, Jaungoiko onak ta parkazailiak parkatuten deusaz kristinaubari pekatubak konpesinoeko sakramentuban. Baina pekatarijari berak bere al dagijana pagetiaren beian parkatuten jakoz konpesinoian pekatubak. Kristinau pekatarijak pagau biar dau, bada, pekatubaren zorra, edo munduban penitenzija eginagaz, edo purgatorijuan erreetan egonagaz. Ara emen, kristinaubak, penitenzijaren edo pekatubaren zorrerako penagarriaren preminia.

Konpesore jaunai emon eutseen Jaungoikuak eskubidia, pekatubari jagokan penitenzija edo penagarrija neurtuteko. Alan esan eutseen Jesukristo geure Jaunak san Mateoren aoti konpesore guztiai: *Zeubek munduban pekatuti askatuten dozun, askatuba izango da zeruban. Ta zeubek munduban pekatubagaz lotuten dozun, lotuba izango da zeruban.* Berba onectan emon eutseen Jesusek eskubidia konpesore guztiai. *Lelengo*: Pekatarijen pekatu-

bak konpesinoian entzuteko. *Bigarrenian*: Pekatubaren andi txikija ta alkareza juzgetako. *Irugarrenian*: Ondo prestauta, garbatuta daguan pekatarija pekatu guztietati askatuteko. *Laugarrenian*: Pekatubaren parkazinoia pekatarijari emoten deusnarian, pekatubari jaokan penitenzija edo penagarrija senailauta pekatarijari emoteko. *Bosgarrenian* ta azkenian: Ondo prestau bagarik dator ren pekatarija, bere pekatubakin lotuta atzera bialduteko. Au da Jaungoikuaren aginduba. Emeti dator pekatu guztiak konpesau biarra ta konpesoriak jakin biarra, arei jagokuen penitenzija iminteko.

Au gaiti konpesoriak nora ezian imini biar deusa pekatarijari penitenzija, pekatubari ta pekatarijari jagokana. Pekatue geijagori, geijago. Pekatue gitxiagori, gitxiago. Pekatue andijaguari, andijagua. Txikijaguari, txikijagua. Sarritako pekatubari, ekanduzko pekatubari ta okasinoeko pekatubari, eurai jagokuen. Baita pekatarijari jagokana bere. Zarra bada, gaztia bada, ezkonduba bada, askatuba bada, gurasua bada, umia bada, aberatsa bada, pobria bada, gaixua bada, osasunekua bada, andikija bada, nekezarija bada, ekandu txarrekoa bada, pekatuko jauslekuban daguana bada... bakotxari jagokan ta al dagijan penitenzija iminteko.

Pekaturaren zorrerako kristinaubak artu al dagizan penagarriak, iru eratan iminten ditu santo Tomasek. Ta dira, edo arimakuak, edo gorpuztekuak, edo eukijarenak. Ariman euki ginaizan penagarriak dira *orazinoia* ta *orazinoiari* darraikon guztiagaz Jaungoikua ondretia. Gorputzian euki ginaizan penagarriak dira *barauba* ta beste gorputzari penia emon legijuen mingarri guztiak. Eukijagaz egin ginaijan penitenzija da *limosnia*, nai illeentzat ta nai bizijentzat. *Orazinoiagaz* aituten dira konpesetia, komulgetia, meza entzutia, altaraak ta eleisia bisitetia, errosarijua errezetia, belaunbiko Jaungoikuaren aurrian egotia, liburu onak irakurtia ta beste onetariakuak. *Baraubagaz* aituten dira ez jaatia, ez edaatia, ez lorik egitia, miina isilik eukitia, olgalekura ez juatia, gorputza azotetia, zilizijugaz lotutia ta beste gorputzaren nekegarriak. *Limosniagaz* aituten dira, pobriai, elisai, kobentubai, hospitalai, purgatorijoko arimai ta beste preminakuai dirubagaz edo eukijagaz egiten jakuezan mesediak. Onetariako penagarriak dira, neure entzula onak, konpesoriak pekatarijari bere pekatubaren zorrerako imini biar deusazanak. Ta zelan kobru emon biar deusa pekatarijak konpesoriak emondako penagarriari? Orain artuko dozu.

## II.



Baina au entzutera orduko, jakin biar dozu, kristinaubak. *Leleengo*: Pekatarijak konpesetara doianian edo konpesoriak penitenzija emoten deutsanien ez badauka ustia konpesoriaren aginduba egiteko, ez deutsala balijo konpesinoiak, konpesauta gero penitenzija kunplidu arre n. *Bigarrenian*: Jakin biar dozu, pekatarija badua bere ariz konpesore bere uestezko nasaijetara, erreztuago, penitenzija gitxigaz ta pekatarijaren bera- ren naira irago dagijon ta pena gitxigaz pekatubetati askatutzakua egin dagijon, ez daukala zetan pijau alako konpesinoiagaz. Konpesore nasaijen billa bere ariz dabilen pekatarija, nekez ondo konpesauko da. Jazoko jakue ebanjelijo santubak dinuana: *Itsuba bada itsubaren zuzenzailia, bijak lezgan sartuko dira*.

Onen ondorik esaten jako kristinaubari, konpesoriak emon deutsan penitenzija edo penagarrija egin biar dabela, konpesoriak agindu deutsan moduban ta denporaan. Agindu deutsu konpesoriak illian bein konpese- tako? Bada, konpesau biar dozu illian bein. Agindu deutsu illian birritan konpesetako? Bada, konpesau biar dozu illian birritan. Agindu deutsu onako personagaz ez egoteko? Etxe atan ez sartuteko? Alako pekatu bat egiten dozun bakotxian barau bat egiteko, edo errial bat pobriai emote- ko? Bada, egin biar dozu, agindu deutsun moduban. Aginduten deutsu barijakuban barau egiteko? Santu egun baten besperan aragirik ez jateko? Iru aste barru konpesetara juateko? Bada, egin biar dozu, agindu eutsun denporan.

Ta ze pekatu da konpesoriaren aginduba ez egitia? Batzubetan izan- go da pekatu andija ta beste batzubetan pekatu txikija. Ze agindu austen daben, alan izango da pekatuba. Konpesoriak emoten daben penagarrija izan leiteke gauza andija, baita txikija bere. Gauza anditzat artuten dira meza bat entzutia, konpesetia, komulgetia, barau bat egitia, lau errialera elduten dan limosna bat egitia, errosarijo bat errezetia... ta beste asko. Gauza gitxitzat artuten dira abemarija bat, *sinistuten dot* bat edo *credo* bat, *salve* bat, nai beste errazu txiki bat, nai limosna txiki bat. Baita izan leite- ke konpesoriaren aginduba zatitu legijana ta zatitu ezin legijana. Meza bat entzutia ezin zatitu legi. Barau bat ateratia ezin zatitu legi. Baina meza bi entzutia bai. Bata entzun ta bestia itxi. Birritan konpesetia bere bai. Batian konpesau ta bestian ez. Alan dagoz konpesoriak emondako penagarrijak, zatitu ezin legizanak ta zatitu legizanak. Esaten da bada, kristinaubak. *Leleengo*: Konpesoriak agindutako penagarrija gauza andijan isten dabenak, nai osuan ta nai zatijan, egiten dabela pekatu mortala edo illgarrija. Aginduten deutsuz lau barau ta ez dozu bat bere ateraten? Egin dozu pekatu bat, penitenzija gauza andijan itxi dozulako. Atera dituzu iru

barau, baina itxi dozu bat? Egin dozu pekatu illgarri bat (ez lau baraubak itxita baisen andija), penitenzijaren zati andi bat itxi dozulako. *Bigarrenian*: Isten badau penitenzijaren zati txiki bat, egiten dau pekatu arina edo beniala. Aginduten deutsuz iru *abemarija* ta itxi dituzu bi. Egin dozu peka- tu txikarra. Isten danian penitenzija osua, gauza gitxijan izanda bere, esa- ten dabee batzuk egiten dala pekatu illgarrija, sakramentubaren osotasun guztia isten dalako. Beste batzuk esaten dabee, ez dala pekatu illgarrija penitenzija txikija istia, osua izan arren. *Irugarrenian* esaten da, penitenzija bada *osagarrija* ta isten bajako kobru emon bagarik, egiten diriala pekatu bi. Gauza andijan bada, pekatu mortalak. Ta gauza gitxijan bada, pekatu txikarrak. Penitenzija *osagarrijak* dira, ostera pekatu egin ez dagijan pekatarijari iminten jakozanak. Sarritako pekatubak gaiti, oiturazko peka- tubak gaiti ta pekatuko okasinoiak gaiti emoten jakoz pekatarijari osatu- teko penagarrijak. Bidaio egiteko oituria daukanari aginduten deutsa kon- pesoriak, egiten daben bakotxian luurrari mun egiteko. Au ekandu galdu- ba osatuteko da. Adiskide deungia auzuan daukanari aginduten deutsa konpesoriak, etxe atara ez juateko; ta inos juaten bada, doian bakotxeko barau bat egiteko. Au adiskide deungiagana juan ez dedin da. Aginduten deutsa ordijari tabernara ez juateko; ta inos juaten bada, bakotxeko lau errial pobriai emoteko. Au ordijaren gatxa osatuteko da. Onetariko pena- garri guztiak dira, ostera pekatuban jausi ez dein. Penitenzijaren edo penagarri bakotxeuaren bildurrez, pekatuko oituriari edo okasinoiari itxi dagijon. Ta askotan pekatarijak egiten ditu pekatu bi, alako pekatu bako- txeko penitenzija isten dabenian. Bata pekatuko okasinoetara barrero juan dalako, ta bestia konpesoriaren aginduba egin ez dabelako. Modu onetan aituten da bada, kristinaubak, egin biar dala konpesoriaren aginduba.

Ta itanduten badozu, ia beti dan pekatu konpesoren aginduba ez egitia, esango deutsut, al izan ezkerro egin biar dala konpesoriaren agin- duba. Bada, Jaungoikuaren beraren aginduba legez da. Ezin danian, ez dago egikizunik. Konpesoriak agindu arren, ez daukanak dirurik emon ezin legi. Gaixorik daganak, barurik ezin legi. Preso daganak, mezarik entzun ezin legi. Ta modu onetan beste ezin egijazko asko. Bizitziaren, osasunaren ta kleitubaren kalte jakin andijan nekez izango da konpeso- riaren gogua, pekatarija alako kalte andiko penitenzija pian imintia.

Gauza bat esan negizu, neure entzula onak, konpesoriaren peniten- ziazen gainian. Ta da, ezin ondo erakutsi legizala dotrina labur baten sail onetako milla jazoera. Nos pekatu dan ta nos ez dan; nos pekatu bi edo gijago dirian, edo bat dan; nos pekatu illgarrija dan edo pekatu txikarra dan ta beste onako jazoera guztiak denpora luziak biar ditubee, argiro



aituten emoteko. Pekatarijak sail onetan egin biar dabena da: *Lelego*: Artu uste osua, konpesoriaren aginduba ziur egiteko. *Bigarrenian*: Aitu ondo, konpesoriak emoten deutsan penagarrija. Ez dira bat konpesoriak emoten dituban konsejubak ta penitenzizjak. Konsejubak ez dakarree eurenez eginbiarrik. Baina penitenzizjak bai. Au gaiti pekatarijak aitu biar dau ondo konpesoriak esaten deutsana ala dan konsejuba, ala dan penitenzija. Bada, konpesoriak konsejutzat emon arren, berak artuten badau penitenzizjatzat ta kobru emoten ez badeutsa, bardin egingo dau pekatu. *Iruugarrenian*: Dendatu alegin guztiagaz, konpesoriak penagarritzat emon deutsan guztia (nai dala arimia osatuteko, nai dala zorra pagetako) ainbat ziurren ta osoruen egitera. *Laugarrenian*: Inos isten badau konpesoriaren aginduba osua edo zatija, esan urrengo konpesinoian zer itxi eban ta zer gaiti itxi eban. Onan egingo dau konpesinoe ona. Au da, kristinaubak, nik zubei esan negizuna ta esan biar deutsudana konpesoriak emondako penitenzizjaren gainian.

Baina sinistu biar dozu guztiok, txito uts egite asko ta ez txikijak dagozala kristinauben artian penitenzizjaren gainian. Pekatari askok errosarijo bat edo bigaz gura leukee, euren pekatuben zor andijai kobru emotia. Konpesetan ditubee iru edo lau, edo amar, edo ogei eurak eginak. Ta menturaz beste ainbeste ta geijago inori eraginak. Ta areetati ez gitxi ekanduzkuak, eskandaluzkuak ta leen sarri eginak ta konpesaubak. Zer dira onentzako errosarijo bi ta lau ta amar? Zer da onentzako altarak bisitetia ta ostera *ex egizy egin* esatia? Ez da au, alako pekatu suztraizkuari, pekatu sarritakuai ta pekatu oiturazkuai jagokuen penitenzija. Onako penagarri arinakin, ez arimia osatuten da, ez pekatu andi sustraitsuben zorra pagetan da. Ta aginduten badeutsa konpesoriak alako pekatarijari, edo illian bein konpesetako, edo astian barau bat aterateko, edo pekatuban jausten dan bakotxian peseta bat pobriai emoteko, edo beste onako gijarran ikututen deutsan penagarri bat? Alako etxetan ez sartuteko? Alako pekatu lekura ez juateko? Alako adiskidiagaz ez egoteko...? Ah! Orduban dira gatxak guztiak ta larrijak guztiak. Batak osasunik ez dauka, barau egiteko. Bestiak astirik ez dauka, konpesetako. Bestiak modurik ez dauka, pesetia emoteko. Bestia bildur da mundubak zer esango daben, leengo etxera, leengo adiskidiagana, leengo pekatu lekura ta lagun txaarretara juaten ez bada. Ta gura leukee errosarijo batzugin geijagoko bagarik bialduttia. Oneek guztiok astija, diruba, osasuna ta guztia daukee pekatu egiteko. Oneek guztiok mundubaren zer esanagaz ta kleituba galdubagaz daukee pekatuko laguna etxian edo auzuan edo bijetan. Kleituba galdubaz juaten dira gabaz ta egunaz pekatuko lekubetara. Juaten dira tabernara, jokora ta

orditutera. Juaten dira lapurretara. Juaten dira... Baina ze pekatutara ez? Pekatu egiteko ez jako begiratuten, ez kleitubari, ez mundubaren zer esanari, ez osasunari, ez astijari. Baina penitenzija egiteko guztia palta da.

Ara, kristinaubak, konpesoriagaz pekatarijaren artian iragoten dan gatxa. Ara, kristinaubak, zelakuak izan oi dirian konpesinoe asko. Dinot *asko*, geijenak ez esatiarren. Gogoratu bada, neure entzula onak, zelan pekatubak gomutatu biar dirian; zelan eurakin damutu biar dan; zelan pekatu ostera ez egiteko gogo sendua biar dan; zelan konpesinoian autortu biar dirian; ta zelan konpesinoiaren aginduba egin biar dan. Eskatu daijogun Jaungoikuari, bialdu daigun bere grazija konpesinoe onak egiteko ta euren bitartez zeruko gloriya jadisteko. Amen.



## VII. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Norentzat dan biarrekua ta nora ezekua pekatu guztiak era batera konpesetia edo konpesinoe jenerala.*
2. *Norentzat dan gauza ona.*
3. *Norentzat dan txarra.*

Ez dago, neure entzula onak, bizitziak dirauban artian aterik itxita zeruban pekatariarentzat. Ez dau gura Jaungoikuak inor kondenau dedin, ez bada guztiok salbau gaitezana. Zelan, bada, salbau leiteke, konpesinoe txarrak egin dituban pekatarija? Zelan salbau leiteke, pekatubak lotsaz konpesau bagarik itxi ditubana ta pekatubak sarri gaiski konpesau ditubana, pekatu guztiak ziatz ta ondo konpesau biar badira salbeetako? Ezekias Judeako erregek egiten ebana eginagaz salbauko da. Zelan, bada? Bere urte guztietako pekatubak barrero gogora ekarrita, bijotzeko damu ta pena mingotx bategaz ostera guztiak konpesaubagaz. Gogoratuko deusudaz, Jauna, ta esango deusudaz neure denpora guztiko gatzeginak neure arimako damu mingotxagaz, esaten eban propeta damutubak. *Recogitabo tibi omnes annos meos in amari tudine animae meae.* Ez da au beste gauzarik, ez bada, leenago konpesau ez balitz legez, pekatu guztiak gogora ekarrita era batera konpesetia. Ez da au beste gauzarik, ez bada leen gaiski jorratu dirian landarak barrero ondo ta ziatz jorratutia. Ez da au beste gauzarik, ez bada leenago gaiski egindako sailak barrero ondo egitia. Au da konpesinoe *jenerala* egitia. Orduban pekatarijak zuzenduten ditu leenagoko konpesinoietako kolpe uts guztiak. Ta geratuten dira bere biziko pekatu guztiak konpesinoe on baten azpijan. Alako konpesinoiari esaten jako, *pekatu guztien konpesinoia*. Izan leiteke bizitza guztikua. Baita urte batzuketakua bere. Bizitza guztikua izango da, errazoiaren usura eldu zaneti araginoko pekatu guztiak era batera konpesetan ditubanian. Urte batzuketakua izango da, leenago nosbait pekatu guztiak era batera konpesauta, andi aurrerako urtetako guztiak ostera batera konpesetan ditubanian. Egin dau batek ogei edo ogeta amar urtegaz bere bizi guztiko pekatuban konpesinoia. Baita egin gura dau irurogei urte edo geijago daukazanian, ogeta amar zitubaneti araginokua. Au da urte batzuketako pekatu guztien konpesinoia.

*Pekatu guztien konpesinoiak* balijoko badau, euki biar ditu beragaz leen esan dirian bost gauzak. Pekatubak gogora ekarri ziatz, damutu eurakin, artu gogua ostera ez egiteko, autortu konpesoriari, ta egin aren esana. *Pekatu guztien konpesinoia* batera egin ez arren, ez da ardura. Lelengo egitian edo aldijan esan legiz gogora ekarri ditubanak edo agindu batzuketakua edo urte batzuketakua. Ta bigarren aldijan edo irugarrenian edo laugarrenian, bestiak. Arian da konpesoriaren ta beraren eritxijan, guztiak ziatz esan artian. Konpesinoe au dan legez leenagoko gatzen ta uts egiten osagarrija, ez da guztientzat bardin. Arimako gatzak ta gatz modubak bere ez dira bardinak. Alan *pekatu guztien konpesinoia* egitia bere, batzuketako nora ezekua da. Beste batzuketat nora ezekua ez da, baina gauza ona da. Ta beste askorentzat kaltegarrija da. Esango deusut bada, kristinaubak, erakutsi onetan: 1. *Norentzat dan biarrekua ta nora ezekua pekatu guztien konpesinoia*. 2. *Norentzat dan gauza ona, baina ez nora ezekua*. 3. *Norentzat dan kaltegarrija*. Ez kansau, kristinaubak, inos bere ondo konpesetiari jagokan dotrinia ikasten. Berba bakotxa ta dirianak aitu biar dituzu ainbat onduen. 1. Dinot, bada, askorentzat nora ezekua ta biarrekua dala, egin dituban pekatu guztiak era batera, ondo ta ziatz konpesetia. Oneetati batzuk esango deusudaz. Ta andi aterako dozu besten kontuba. Nora ezekua ta biarrekua da, nai dala modu batera nai dala bestera, leenago konpesinoe txarrak egin ditubanarentzat. Eskina askotati jazoten da konpesinoe txarrak egitia.

*Lelengo*: Dotrinia ez jakinagaz. Doktrinia ez dakijanak konpesinoe onik ezin legi, sarri entzun dozun legez. Asko dagoz, bai gurasuak ta bai umiak, ondo konpesetako biar dan dotrinia ez dakijenak. Ez da asko ondo konpesetako, orazinoe batzuk buruz esaten jakitia. Aitu biar dira sustraiz umetan buruz ikasitako orazinoiak. Aitu biar dira sustraiz, Jaungoikuaren agindu santubak eskatuten dituben ta eragozten dituben gauzak. Aitu biar dira sustraiz, konpesinoe onerako nai ta ez biar dirianak. Aitu biar dira sustraiz, bakotxak bere estaduban daukazanak. Ta zeinbat, neure entzula onak, kasik ezer bere onako gauzarik aituten ez dabeenak? Zeinbat guraso? Zeinbat persona nausi? Bada, dotriniaren paltaz onan destajuban legez egindako konpesinoiak, barristau biar ditubee, salbauko badira.

*Bigarrenian*: Pekatubak ondo gogora ekarri bagarik konpesau dirianak. Iraiz baten, bertatiko baten, edo ondo konzienziija aztertuta pekatubak gogora ainbat ziatzen ekarri bagarik konpesau dirianak, egin ditubee konpesinoe txarrak. Asko batez bere dotrina gitxi dakijenak juaten dira konpesoriaren oinetara, bapere prestau bagarik. Zerbait itandu dakijue-





nian asten dira kontubak ateraten, ta pekatubak gogora ekarten, burubari eraginda. Askok ez daroie prestaera geijago konpesetara, mezia entzuterera edo sermoetara baino. Oneek egiten ditubee konpesinoe txarrak. Ta barristau biar ditubee, salbauko badira. Urte guztian edo denpora luzian bizi dira, aoti, begijetati, miinetati, eskubetati, oinetati ta bijotzeti pekatuba darijuela. Bizi dira, Jaungoikuaren agindu santubak lotsa bagarik austen ditubeela. Ta konpesetara juateko ustia artu baino beste kontu aterate bagarik, nai leukee zortzi, amar edo urte osoko pekatu pillua banaan gogora ekarrita, ziatz konpesau. Alan bizi dira itsu itsuban estadu zori gaistokuan ta kondenetako bidian. Oneek barristau biar ditubee euren konpesinoiak, salbauko badira.

*Irugarrenian:* Damutu bagarik konpesau dirianak. Oneek dira pekatuti konpesinoera ta konpesinoeti pekatuta bizi izan dirianak. Betibee konpesau. Baina inos ez erremedijau. Oneen artian kontetan dira, usurerubak, logrerubak, opizijuetao lapurrak, ardao salzalle, aragi salzalle, erro-tari, dendari, eskribau ta beste euren opizizjuan ekanduz oostuten dabee-nak. Baita jokolarriak, makilarriak, ordijak, okasinoetsubak, kasik beti gauza txaarerrako prest dagozanak. Baita auzilarriak, oker nai zuzen atarako prest dagozanak, auzitan luzaro ibili dirianak. Baita alkarren gorrotuan urtetan egon dirianak bere. Baita seme alabak dotrina bagarik nasai azi ditubeenak bere. Komedijetara, sarau ta bigira nasaijetara, dantza galdubetara ta beste pekatuko okasinoe jakinetara gabaz ta egunaz umiai juaten itxi deuten gurasuak egin ditubee konpesinoe txarrak. Baita gurasuai lotsia galduta, esker gaistuan alako lekubetara jua dirian umiak bere. Baita kristinau loijak bere, batian batagaz ta bestian bestiagaz, edo askotan askogaz kastidadiaren kontra pekatu loijak egin ditubeenak. Urteetan alan berbaz naiz ta egitez loi izan dirianak. Ta konpesa aldirik geijenetan pekatu loijak autortu ditubeenak.

Esan dirianetati batek bere ez dau pijau biar bere alako denporako konpesinoiak. Nai dala dotrinia ondo ez dakijelako, nai dala Jaungoikuaren ezauberarik ta bildurrik bapere sustraiz ez daukelako, nai dala pekatubaren kaltiai begiratuten ez deutseelako, nai dala guztiak gaiti, ez dabee artu euren bijotzian pekatubaren damu egijazkua, etxuriak dinuanez. Ez dabee artu osterera pekatu rik ez egiteko gogo osua. Ta ez deutsee balijo denpora areetako konpesinoiak. Autortu biar ditubee, bada, pekatu guztiak barriro konpesinoe baten, salbauko badira.

*Laugarrenian:* Pekatubak lotsaz esan bagarik itxi ditubeenak. Modu bitara jazoten da au bere. Edo zuzen dakijala, pekatuba lotsaz itxijagaz. Au txito ezaguna ta umiak bere dagijena da. Itxi dituzu pekatu bat edo

geijago lotsaz konpesau bagarik lau, zortzi edo ogei urtian? Bada, urte areetako pekatu guztiak, konpesaubak ta konpesau bagakuak, barriro esan biar dituzu konpesinoian. Pekatubak esan bagarik isteko bigarren moduba da, edertuta, apainduta, inori errurik geijena ezarrita, bere buruba garbitubaz pekatubak konpesetia. Au da diabrubaren astuzija bat, (azartuten nas esaten) konpesinoerik geijenak edo beintzat txito asko *sakrilejijotuten* ditubana. Oh, zeinbat pekatu rik entzuten deusaguzan konpesinoian pekatubak; izan beriak, berak eginak, berak najak, ta inorenak balira legez! Senarrak bere pekatuben erruba ezarten deusa emaztiari. Emaztiak senarrari. Gurasuak ume gaistuai. Umiak gurasuak agindubari edo gurasuak itxijari. Ordijak ardaa edateko eriarri edo trago bat edate-  
ra konbidau ebeenai. Emakume loijak prakadun lotsa galdukuai. Ugazabak errenterubari, errenterubak ugazabari. Auzilarriak juezai, eskri-  
baubai ta letraubai. Oneek auzilari okerrai. Tratalarijak pagazalle txarra-  
ri. Pagazalle txarrak tratalarijari... Zer geijago? Onan irago ginaiz txito pekatu rik askoren konpesinoiak. Zeinbat bidar datorren gogora Adanen ta Ebaren jazua! Ebak egin eban pekatu, berak nai izan ebalako. Ta diabrubari ezarri eutsan erruba. *Serpens decepit me.* Adanek egin eban pekatu, berak gura ebalako. Ta Ebari ezarri eutsan erruba. *Mulier, quam dedisti mihi...* Ta parkatu eutseen Jaungoikuak Ebari ta Adani, inori erruba ezarri-  
ta autortu ebeen pekatuba? Batari bere ez; arian da euren pekatutzat ezaututa, ondo garbatuta, barriro obeto autortu artian.

Beste ainbeste dira, kristinaubak, inori erruba ezarrita, noberaren buruba garbitubaz ta pekatubak edertubaz egiten dirian konpesinoiak. Orregaiti guztiak barriro konpesau biar dira era batera. Atera, bada, kontubak zeuben artian, neure entzula onak, ta begiratu ia edo dotrinia ondo jakin ezagaz, edo pekatubak ondo gogoratu ezagaz, edo pekatubakin damutu ezagaz, edo pekatubak konpesinoian ondo autortu ezagaz konpesinoe txarrik egin dozun. Bada, ez dago beste biderik alakua salbeta-  
ko, pekatu guztiak era batera ondo konpesauta bizitzia obatutia baino. Atariko guztientzako nora ezekua ta preminakua da konpesinoe jenerala.

## II.

Beste batzubenat ez da nora ezekua, baina gauza ona da bere bizi guztiko pekatubak era batera konpesetia. Oneek dira: *Lelengo:* Inos leenago egin ez dabeenak. Guraso onen arduragaz ta erakutsi santubagaz bizi arren kristinauba txikitati ta sarritxutan ta ainbat onduen konpesau arren



umetati, orraitino bere umetako konpesinoiak umetakuak dira. Jaungoikuaren ezauberia, pekatubaren kaltiak ta arimiaren balijua ez dira kolpe baten sartuten geure ariman biar litzatekian argitasunagaz. Au gaiti jazoten da umetan ta gaztetan egitia gauza batzuk, orduban ondo ezautu bagarik, ondo ez dirianak ta gero norbera lotsatuten dabeenak. Ezautu biar zirian edo ez, ala pekatuak duina ezauberia eguan edo ez, au da dudia. Konpesau zirian edo ez, ta biar zan damubagaz konpesau zirian edo ez, au da dudia. Duda onetan geratuten dira umetako ta gaztetako gaistokerija asko ta konpesinoe asko. Au gaiti erregututen eutsan Dabid erregiak Jaungoikuari: *Neure gaztetako pekatubakin ta ez jakinakin ez zaitez gomutatu, Jauna. Ze bide, bada, onako dudaak ta arimako ar aginkaririk kenduteko? Ez besterik, ez bada edadian sartu dedinian, kontuban obeto jausi dedinian, egin pekatu guztien konpesinoia, leenago egin ez dabenak. Alan kristinau guztientzat da txito gauza ona edade elduban sartu ezkerro, bere pekatu guztiak era batera konpesetia.*

*Bigarrenian:* Baita gauza ona da barriro egitia pekatu guztien konpesinoia, leenago umetan egin ebeentzat bere. Amabi, amalau, amasei urte aldia oraindino umetako denporia legez da, alako gauza andija ta balijoa andikua betiko egiteko. Gauza ona ta erakutsi ona da umiai txikitati, dinot, edade atara eldu ezkerro, pekatu guztiak era batera konpesetako esatia. Baita gauza ona da, gero naustubago ta edadian sartubago egin ditezanean, guztiak era batera osteria barristetia bere.

*Iragarrenian:* Gauza ona ta arimiaren bake andikua da pekatu guztiak batera konpesetia kristinaubak, bizieria aldatuteko, edo estadu barrija artuteko. Leenagoko pekatu guztiak konpesinoe baten azpijan giltza emonda, Jaungoikuagaz bake osua eginda prestatu biar dau kristinaubak, biziera barrija artuteko, nai dala prailletzia, nai dala abadetzia, nai dala ezkontzia.

*Laugarrenian:* Gauza ona da urtian bein edo urte birik baten edo alan denpora atako pekatubak guztiak era batera konpesetia. Au arimiaren onera andiko gauzia da, biar dan espirituagaz ta prestaeriaz egin ezkerro. Orduban gogo barriagaz asten da kristinauba paltaak gitxituten ta gauza onak egiten. Esan diriantzat ta beste askorentzat, zeintzubai esango deutseen euren konpesore jaunak, da gauza ona konpesinoe *jenerala*, guztiz preminakua izan ez arren. Baina beste batzubentzat kaltegarrija da. Ta entzun egizu norentzat.

### III.

Eguzki batek argizarija bigundu egiten dau, ta buztina liortu. Alan konpesinoe *jeneralak* bere arima batzuk gozatuten ditu, bigunduten ditu ta zeruko grazijaren iruntz ederragaz samurtuten ditu, amodijo garbijaren prutubak aurrera emon dagijezan. Esanda geratu da, nori onako mesediak egiten deutzan konpesinoe baterakuak. Baina beste arima batzubai, eguzkijak buztiniari egiten deutzana, egiten deutsee pekatu guztien era baterako konpesinoiak. Liortuten ditu, sikatuten ditu ta leen dauken gozo ta debozinoe puskia bere kendu egiten deutsee.

Onakuak izaten dira, leenago pekatu guztien konpesinoia batera euren ustez ondo egin ebeena, baina barriro dudaak ta kezak konpesinoien gainian artuten ditubeenak. Egin dozu bein edo birritan edo geijagotan zeure bizi guztiko pekatuben konpesinoia batera? Juan zinian orduban konpesetara, zeure arimia ondo garbituteko ustiagaz ta aurrera pekatuti alde egiteko gogo osuagaz? Esan zenduzan pekatu guztiak aintzat ziatzen? Amaitu zenduban konpesinoe guztia zeure ta konpesore jaunaren eritxijan ondo? Geratu zinian zeure ustez arimako bakiagaz? Ez jatzun gaineko konpesinoe batzuketan ezer gogoratu orduban esan bagako pekatuak? Edo gogoratu bajatzun, konpesau zenduban barriro? Itxi zeuntsen leenagoko pekatu lagunai, pekatuko okasinoiai ta pekatuko ekandubai? Bada, au onan izan ezkerro, zeindan konpesinoe onaren senailia, ez da zuretzat ondo barriro bizitza guztiko pekatubak konpesetan ibiltia, dudaak eta kezak etorri arren leengo konpesinoiaren gainian. Zure dudaak dira: *Zeure pekatubak ondo konpesau ete zenduzan edo ez zenduzan; konpesoriak aitu ete entsun, edo ez ete entsun; damutu ete zinian edo ez ete zinian...* Bada, beste milla bidar egingo bazendu bere, beste ainbeste duda edo geijago agertuko litzakezuz. Sinistu biar dozu etsaijaren tentazinoiak diriala duda orreek; Jaungoikuak ez dabela gura zu kondenetia; zeugan zana leen egin ezkerro, geijago ez deutzula eskatuko; ta zuk konpesoriari itsu itsuban obeidutia gura dabela Jaungoiko onak ta parkazailiak. Au da Jaungoikuak aginduten deuskuna. Onegaz gainera, konpesinoe *jeneralak* egiten ibiltia, norberaren bake txarrerako ta kalterako da.

Onetarikuen gatxa da guztiz seguru jakin gura izatia, ia pekatubak parkatu jakuezan edo ez. Au etsaijaren tentazinoia da. Esaten jakue, bada, entzun dagijuela konpesore jakitun bati. Ta ak esaten deutseenagaz larga dagijuela era batera leenagoko pekatu zaar parkatuta dagozanak konpese-



tiari, nai badabee euren arimen bakia Bestelan zeinbat geijago erainago, ainbat geratuko dira denpora gitxi barru naastubago, estubago ta txaarago euren arimako gauzetan. Beste uts egite bat bere oi dabee onetari-kuak. Ta da, leenago pekatubak ondo konpesauta ete dagozan txito ardu- ra andija ta barriro konpesau guria bateti. Ta besteti, bizitzia obatuteko ta pekatubak gitxituteko ardura gitxi. Au txito gatx andija da ta osatuten gatxa. Larga, bada, leenguai Jaungoikuaren miseriordijaren ta konpesi- noe egindakuen azpijan. Ta kontu orain pekatu txikarrik bere ez egiteko ezauberaz ta ekanduz. Miina ixilago, begijak itxijago, belarriak batubago, pausubak zuzenago, eskubak biartsubago ta pobrentzat zabalago, bijotza zintzuago, samurrago ta Jaungoikuagana prestago. Au da alako kristinau- bak egin biar dabena.

Gogoratu bada, neure entzula onak, norentzat dan biarrekua ta nora ezekua pekatu guztiak era batera konpesetia; norentzat dan gauza ona; ta norentzat kaltegarrija. Eskatu daijogun Jesus maitiari bialdu daigula bere grazija santuba, konpesinoeko sakramentu santuban geure arimak garbi- tuteko. Emon daigula bere bizitza ta erijotza penazkua gaiti, geure peka- tuben ezauberia ta damu egijazkua. Baita ondo konpesetako laguntasuna bere. Egin daigun geugan dana, kristinaubak. Ta ez deusku ukatuko Jesusek bere grazija, zeinegaz jaditxiko dogun betiko zeruko gloriija. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## VIII. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Ze premina andikua dan geure gorputzak peneetia.*
2. *Zelan penau dituben kristinau askok.*

Penitentzijako sakramentubaren amaijan erakutsi gura deusut, neure entzula onak, agiriko pena artutiari jagokana. Oni esaten jako, *agiriko peni- tentzija*. Ezin ukatu ginai, uts egite asko daukaguzana geure arimako gau- zetan. Jaungoikuak aginduten deusku arimiari kontu egiteko. Ta gorpu- tzaren ainbeste ardura ez artuteko. Baina bestera Jaungoikuak esan baleusku bere, egiten dogun baino asko geijago egingo ez genduke. Zer egiten dogu geure arimia gaiti? Ta zer egiten ez dogu gere gorputzak ondo eukiteko? Au zeubek dakizu, nik esan bagarik. Ikusi daigun, bada: 1. *Ze preminia daukagun geure gorputzak peniagaz ondo eziteko.* 2. *Zelan ezi dituben kristinau askok.* Emeti ezautuko dogu geu zer garian edo zer ez garian. Zurtu zaite, kristinaubak, ainbat gogorik oneenagaz entzuteko berba bat bere uts egin bagarik.

### I.

Jesukristo geure Jaunak esaten deusku, neure entzula onak, bere ebanjelijo santuban: *Inok etorri gura badau nire ondorik, artu begi bere kurutzia ta jarraitu beiti.* Kurutziaaren ta peniaren bideti dei egiten deusku Jesusek beragana. *San Juan Bautistaren denporati*, dino Jesukristok beste leku baten, *zeruban sartuko danak peliau biar dau.* Peliau biar dogu geure gorputzeko gurarijen kontra. Peliau biar dogu ta goitu biar ditugu geure begijak, gauza deungarik ikusi ez dagijen. Goitu biar dogu gere miina, gauza txaarrik esan ez dagijan. Baita belaarriak bere, pekatu dan gauzarik atseginez entzun ez dagijen. Baita aua ta sabela bere, jan edan gozuakin ta laarregi- jagaz arimiari kalte egin ez dagijuen. Baita geure gorputza bere, aragijak espirituba goitu ez daigun. Onetarako armak dira bakartasuna, jantzi latza, zilizijua, azotia, baruba, lo gitxija, oe gogorra, janari mingotxa, gosia ta egarrija. Ta guztia Jesusen izenian. Miina isilik, begijak luurrian, gogua zeruban edo bildurrez inpernuban, bijotza Jaungoikuagan, pekatubak gomutan, erijotzia goguan ta aleginaz norbera bakarrian. Oneek dira gor-



putza eziteko ta neurri santura ekarteko arma egijazkuak. Eurak emoten dabee Jaungoikuaren amodijua, pekatubaren gorrotua, inpernubaren bil-durra, munduba aintzat ez eukitia ta gorputza arerijotzat artutia.

Pena iragote au eskatuten deuta pekatarijari Jaungoikuak Joel pro-peta santubaren aoti. Au berau ninibetarren jazuagaz. Au berau Nabukodo[no]soren pena iragotiagaz ta beste onako millagaz. Diabruba, munduba ta arag[u]lji dira arimiaren arerijuak. Iruretati leunena, labane-na, lotsa gaistokuena, ge[u]gaz beti daguana, pekatuzko eskaari geijen egi-ten deuskuna, pekatuzko eskaari geijen egiten deuskuna, sarrijen goituten gaitubana ta inos bere ondo goitu ezin doguna da aragija edo gorputza. Gorputzari naija egitia da arerijuak etxian aztia. Gorputzari naijak egitia da arimia gorputzaren krijadu egitia. Gorputza luurra da ta arimia espiri-tuba. Gorputza illkorra da ta arimia bizikorra. Bada, gorputzak egon biar dau beti arimiaren aginduban. Gorputza ekarri biar dogu, nai ezian bada bere, arimiaren naija egitera. Alan ekarten eban san Paulo apostolubak. Ta dino: *Kastigetan dot neure gorputza, ezten dot peniagaz ta nai dabena egiten itxi ezaga-z ta ekarten dot neure eskuera ta agindura. Et in servitute redigo.* Gorputza maite dabena ta gorputzari naijak beti egiteko gogua daukana, ez da inos bere izango Jaungoikuaren adiskidia. Dinot, begijai, belarriaji, miinari, sabelari, auari ta aragijari naijak egiteko kontu andija daukana, ez dala Jesusen eskolauba. Dinot, gorputzari pena txiki bat bere Jesusen izenian emon gura ez deutsana, ez dala Jesusen adiskide andija. Ez dago, bada, dudarik, neure kristinaubak, goituko badogu aragi gaisto ta lotsa gitxiko au, peniagaz ta penagarriagaz ezi biar dogu, arimiaren agindura ekarri artian. Alan egin dabee askok. Ta entzun egizu, zetaragino.

## II.

Bai, kristinaubak. Ez dakit zelan bat egingo ditugun geure epeltasu-na ta geure gorputzen ondo gura laarregija, kristinau askoren euren naiz-ko penitenzija ikaragarriakin. Entzun ta beste bagarik ikara eragiten deu-tsee geure bijotz makalari ta penia iragoteko gogo txikijari. Ez dot ezer esango arako zeubek gauza gitxitat ta deskuidotzat daukazuzan ta sarri egiten dituzun pekatubak gaiti Eleisiak pekatarijai iminten eutsezan peni-tenzija luzen ta garratzen gainian. Arako eleisako atetan, barrura sartutia eragotzita, auspaz luurrian jarrita, soka bat samati lotuta, urte askotan egotia. Ur ta ogi iru, lau, sei ta zazpi urtian barau egitia. Autsez buruba estalduta, erropa zaarrak jantzita, negarrez jentiarri parkazinoia eskatuten

leku agirijan urte luzeetan egotia. Onetariko agiriko penitenzija edo penagarriak iminten jakuezan leen pekatarijari. Ta ez eban inok uste laa-rregi zanik, geure pekatuben zorra pagetako. Oh, ze urrin gagozan aree-tati! Beste guztien artian, Jesus maitiak erakutsi euskun kurutze santan ta bizitza guztian geure gorputzak penetan. Ama Birjina guztiz onak ez eban pekatu txiki bat bere egin. Baina peniaren ta kurutzia bideti jua zan zerura. Adan guztion aita bederatzireun urteko peniagaz pagau eban bere pekatubaren zorra. Dabid penadunak autsagaz buruba estalduta, zili-zijuagaz gorputza lotuta, negarragaz oe baztarra bustita, eskatuten eutsan Jaungoikuari bere pekatubaren parkazinoia. San Pedro apostolubak bein egin eban pekatu. Ta bizitza guztian penau eban bere gorputza penagarri guztiakin ta negar mingotxakin. Jakina da Madalenak, san Paulok ta beste pekatari askok zer irago ebeen Jesusen izenian.

Ah, pekatarijak!, engainauta bizi zara, gorputzaren naijetati ta era onetati zerura juango zariala uste dozunian. Ez zan amaitu penitenzija agirikua apostolubaren denporiagaz. Jesusek beti daukaz kurutzia adis-kidiak bere Eleisa santan. Dei egin dagijogun san Juan Klimakori. Ta entzun dagijogun, ia zer esaten deuskun bere denporako penadunak gaiti. Esnaatu zaite, kristinaubak, entzuteko edola bere. Ez deusat berba bat bere geituko. Dino, bada, Santubak:

«Etorri zaite leku batera pekatu egin dozun guztiok. Ta entzun egizu. Neuk kontauko deusudaz zeuben onerako, Jaungoikuak nire ari-miari erakutsi deusazan gauza andijak. Imini daiguzan lekuri ondraube-nian ta onenian, euren naiz ta gustoz Jesusen krijadu humilden bizi modu-ba artu ebeen gizon beneragarriaren penazko egitia. Entzun daigun, begi-ratu daigun. Ta dendatu gaitezan pekatu egin dogunok, euren penazko bizitziari jarraitutera. Jagi zaite ta jarri zaite, pekatuben jausita zagozan guztiok. Jaungoikuagana benetan biurtu gura dozun guztiok, entzun egi-zuz ene berbak txito kontu andijagaz.

Bada nik, ontasun bagako pobri onek, entzun nebanian *karzelia* esa-ten jakon komentuko prailiak egiten zitubeela arrigarriko penitenzija, erregutu neutsan aren urrian eguan beste komentuko *nausi* beneragari bati, eruan nengijala karzelia eritxon komentura, an zer iragoten zan ikus-tera. Ta nire naija egitarren eruan ninduban. Bada, ni eldu nintzanian komentu atara, edo obeto esateko, negar lekura, ikusi nituban bene bene-tan, onan esatia ondo bada, alperren begijak inos ikusi ez ditubeenak; buruginen belarriak inos entzun ez ditubeenak; ta nagijen bijotzera inos eldu ez dirian gauzaak. Entzun nituban, dinot, Jaungoikuari indarra egi-teko, ta bere miserikordija laster ekarteko asko dirian berbaak, egitia ta



gauza indartsubak. Bada, ikusi nituban an, batzuk gau guztian iruntzetan egozala, lorik egin bagarik. Loguria jatorkuenian, armetan zirian luaren kontra, gorputzari atsetan itxi bagarik. Asarratuten zirian gorputzaren kontra, zutinduten zirian ta pena andijagaz zeruruz begiratuta, lagunak esnaatuteko tertzijoko *ajjakin* Jaungoikuari parkazioa eskatuten eutseen.

Beste batzuk ikusi nituban, presuak legez eskubak espaldetara lotuta, euren arpegi sikubak ta oritubak luurrera botata, orazioian egozala. Ta esaten ebeela diadarka, ez ebeela merezietan ez zerura begiratutia, ez Jaungoikuagaz berba egitia; ez ekijela ez zetati asi, ez zelan Jaungoikuari erregutu euren konzienzia naastauba gaiti. Beste batzuk ikusi nituban luurraren gainian jarrita, arpegijak autsez estalduta, gorputzak zilizijoz lotuta, burubak belauan artian sartuta, bekokijagaz luurra josten ebeela. Beste batzuk ikusi nituban zuzpiruka beti bularrak josten ziardubeela, arimia gorputzeta ateraten ebeela esan eukian terzijuan. Oneen artian batzuk beegozan, negar malkuakin luurra bustiten ebeenak. Beste batzuk, negarrik egiten ez ebeelako, zainga ta penaz egozanak. Oneetati askok negar andijak egiten zitubeen, bijotzeko penia kabidu ezinda, adiskide baten enterruban egin oi dirian legez.

Beste batzuk egozan penaren penaz ta damubaren damuz, betibee ustez uste bagako zuzpiru ta diadar andijak egiten zitubeenak. Euren bijotz tristia ondo erakusten ebeenak. Ikusi nituban an batzuk, euren bizi modubari begiratu ezker, bizi ziriala baino illda egozala ta senik ez eukela obeto zirurijenak. Humildadez luurra jota, negarrez sikatuta, tristetuta egozanak. Beste batzuk ikusi nituban, luurrarian jarrita, begijak beera eratsita, burubari gora ta beera eragiten eutseela ta betibee leoiaren moduko orroe tristiak bijotzaren erdi erditi ateraten zitubeela. Oneen artian batzuk uste osuagaz eskatuten eutseen Jaungoikuari euren pekatuben parkazioa. Beste batzuk esaten ebeen egijazko ezauberiagaz, ez ebeela merezietan pekatuben parkazioa ta ez ziriala asko Jaungoikuari kontu emoteko. Beste batzuk eskatuten eutseen Jaungoikuari, penau ta kastigau egizala emen ta parkatu egijuela gero. Beste batzuk beegozan euren pekatuben damubak ta gomutiak erasoten eutseenak, asko zala eurentzat inpernura ez juatia, zerura juan ez arren, izan al baleiteke. An ikusi nituban arima asko damututa, garbatuta, peniaren pisubagaz atxak ta arrijak bigunduteko berbak Jaungoikuari esaten...

An ikusiko zenduzan, neure entzula maitiak, Dabid erregiaren berbak oiniam iminita. Ikusiko zenduzan gizon batzuk penaz ta penagarriz estalduta, beti makurtuta lurrera begira ebizala. Euren gorputzetati atsa botetan ebeela. Aragijak kasik erdi ustelduta eukeezala. Ta gorputzaren

onari begiratuten ez eutseela. Batzubetan aaztuten jakuen ogi kopau bat jatia. Beste askotan autsagaz naastetan ebeen jaten ebeen kopauba; ta negar malkuakin gozatuten ebeen edaarija, zein zan ur utsa. Azalaz azurrai oratuta eukeezan ta eurak bere sikatuta eukeezan, elbitza legez. Ez zenduban an entzungo berba oneek baino besterik: Ai! Ai! Ai! Nire errukarrija! Nire errukarrija! Neuk merezidu! Neuk merezidu! Parkatu, Jauna! Parkatu, Jauna! Areen artian asko ikusi ko zenduzan miina kanpora aterata, txakur egarrija legez. Beste batzuk eguzkijaren galdaan erreetan, alde egin gura ezda. Beste batzuk otzak iragota, izoztuta. Beste batzuk guztiz ez sikatutia gaiti, nosbait ur tanta bat artuten ebeela ta probau orduko egarrijagaz edaatiari isten eutseela. Beste batzuk sartuten ebeen auan ogi kopauba ta ez ebeen jaten, ganaduba legez bizi izan zanak gizonen janarrija artu biar ez ebala, esanda.

Oneen artian ze leku eukiko eban barriak, berba premina bagiak, gorrotuak eta odijauk?... Nun eguan an errietia ta propijia? Nun olgetia? Nun uste alperra? Nun gorputzaren arduria ta erregaluba? Nun munduko gusto ta atseginen naija? Nun ardauaren gomutia? Nun lapiko egosija? Ah! onako gauzak ondo aaztuta bizi zirian. Inos gogoratuteko usterik bere ez eukeen. Baina ardura emogo ete deutsee munduko kontubak? Ete dakije komentu atan, lagunak deungatzat eukitia zer dan? Ah! ez da bapere onako gauzarik. Ez zenduban an ikusiko orazioia ta Jaungoikuari dei egitia baino. Batzuk beegozan, ya zeruko ateetan balegoz legez, Jaungoikuari esaten eutseenak: *Edegi egizuzu, Jaun errukiorra, geuk geure pekatubakin itxi genduban ate au.* Beste batzuk esaten ebeen: *Agertu, Jauna, erijotziaren illunian dagozan triste onei.* Beste batzuk: *Eukiko ete dau Jaungoikuak gugaz miseriakordija! Biurtuko ete gaitu bere argi santura! Zer izango ete da gugaz! Ze sentenzija entzungo ete dogu bere aoti! Aurreratuten ete dogu ezzer onan! Entzungo ete deusku Jaungoikuak! Nok daki, bada, erantzuten eutseen bestiak, nimibetarrak esan ebeen legez, Jaungoikuak aldatuko badau bere setenzija, ta geratuko badau gure kontra dankan azotia. Egin daigun geu gan dana... Parkazailia ta ona da Jaungoikua... Geu ez gaitetzan deskuidan bizij garian artian... Ta zeruko atia edeten badensku, izan dedilla ordu onian. Ta edeten ez badensku bere, izan dedilla ondo esana, jasua ta bedeïn katuba bere izen santuba...*

Onan alkar animetan ebeen penadun areek. Betiko belaunbiko egonagaz, gaillubak eginda eukezan belaunetan. Betiko negarragaz begijak eukezan barrura sartuta, betuliak jausita, matrellak gorrituta, erreta negarragaz, arpegijak sikatuta, orituta ta bularrak kolpeka zaurituta. Batzuk aoti txistubagaz odola botetan ebeela. Nun eguan emen oe bigunaren ta



jantzi leunaren arduria ta naija? Guztia zan urratuba, zatituba, loituba, zorriz betia ta pobria...»

Ara, neure entzula onak, san Juan Klimakok iminten deuskun penadun egijazkuen ispilluba. Berak ikusija ta berak entzuna. Monje edo praille aretati asko zirian, gaztetan konbentuban sartu zirianak. Menturaz inos bere pekatu illgarri bat egin ez ebeenak. Beste asko ogeta amar, berrogeta amar edo irudogeta amar urtian edo geijaguan alan bizi zirianak. Ta guztiak geuk baino pekatu gitxiago egingo ebeenak. Alan bere entzun dozu ze penagarriak emoten eutseezan euren gorputzai. Ta ez sinistu eurakin amatau zala peneen ta penagarriaren naija. Bada, betikua da pekatarijarentzat penia artu biarra. Santa Pelajiaren toki atsituba, santa Maria Ejitokuaren baso bakarra, santa Taisen orma arte estuba, santa Babilasen torria, san Agustinen negarrezko *aijak*, san Jeronimoren bularreko arrizko kolpiak, san Pranziskubaren autsak ta zilizijuak, santa Madalena Paziskuaren ta san Luis Gonzagakuaren barubak, san Pedro Alkantarkuaren otz, beruak ta gose egarriak ta ene Ama santa Teresaren ta Aita san Juan Kurutzekuaren *ill edo penau*, ta *penan ta bildu*, astiro goguan iragoten ditubanak ezautuko dau, Jesusen izenian gorputzari gerra egitia ta penagarriak emotia dala zerurako bidia.

Lotsatu bedi, bada, pekatari alperra, nagija ta burugina. Lotsatu bedi pekatu andi askogaz sengarri guztiak loituta, atsituta, ustelduta daukazan gorputz luurrezkuari naijak egiten ta gustuak emoten dabilen pekatarija. Lotsatu bedi, ikaratu bedi ta bildurtu bedi, esan dirian penadunen albuan bere burubari begiratuta. Oh, ze urrin dagozan onako pekatarijak zerurako bide zuzeneti! Oneen ardura nausija da, pekatu asko egin daben gorputzari aleginaz ondo kontu egitia; ainbat penarik gitxienagaz eukitia; ta ainbat bigunen euren gorputzak artutia. Esan legi san Paulo apostolubagaz, pekatari askoren Jaungoikua gorputza ta sabela dala. Bigar edo etzi egin biar dabeen baru batek, gaurti bildurtuten ditu. Gau bat inori mesede egiteko galdu biar badabee, uste dabee gatxa sartuko jakuela. Janarija badago gazijago edo gazago, goxago edo berandubago, etxeko jente guztia airian darabillee. Barre egiteko gauzak esaten ez badira, berba aldijak kantsetan ditu. Olgeta bagako egun bat iragoten bajakue, urte bete egiten jakue. Aixie otz bat sentiduten badabee, edo jantziija geitu, edo su ondora, edo eguzkija artutera. Bero badago, keizara, alegiinaz. Ikusgarri edo entzungarri alegere bat edo jan edan on bat iragoten bajakue eurak parte izan bagarik, gaineko egunetako penia edo inoren gorrotua, gusto axe begijai edo belaarijai edo sabelari emon ez eutseeleako. Denporia ondo iragoko badabee, kantia edo soinuba, dantzia edo pandangua, jana edo

edana, adiskide maitia edo pasuia biar dabee. Gatx bat Jaungoikuak bialduten badeutsee euren onerako, purijia, asarria ta suba darijue. Soluan, basuan edo etxian biar kansau bat edo nekedun bat egiten badabee, nora ezian ta besterik ezin dabeleako. Gosiaren edo egarriaren puska bat iragoten badabee, edo ez daukelako edo gorde gura dabeleako penaz dagoz gorputzari gusto axe emon ez deuselako edo ezin deutseeleako...

Nos amaitu baina sail au, kristinaubak? Pekatarijen gogua, pekatarijen naija bada gauza ederrak ikustia, alegeriak entzutia, gozuak jaatia ta edaatia, bigunak jantzia, leunak erabiltia, sabela betetia, egarririk ez eukitia, lo ondo egitia, otzak ez ikututia, beruak ez iragotia, minik ez artutia, nekerik ez iragotia, olgeta asko eukitia, adiskide maitiakin ibiltia, ondo atseenda egotia... edo berba baten esateko, inos penau bagarik beti bere erara gorputz pekatugina ta ustelkorra gordetia. Au egin ezkeru uste dabee pekatarijak, beste guztia berez etorriko jakuela eskura erijotzako orduban edo zaartzan. Baina, zelan bat egingo dabee aragizko bizitza au, naita ezeko penitenzijagaz? Zelan bat egingo dabee argija illunagaz? Guzurrea egijagaz? Grazija pekatubagaz? Bizitza aragizkua olgantazkua ta gustozkua penitenzijazkuagaz, damuzkuagaz, penazkuagaz ta negarrezkuagaz? Ezelan bere ez. Bata da bide nasaija, zabala, pekatuzkua ta inpernurakua. Ta bestia zuzena, penazkua, kurutzezkua, ta zerurakua.

Begiratu daigun bada, kristinaubak, zein bidetati guazan. Bildurtu ta ikaratu gaitezkan geure pekatubaren zor andijakin ta penitenzija txikijagaz edo bapere ezagaz. Artu daigun geure gorputzen gorroto santuba. Esan daigun san Luis Beltranegaz edo san Juan Klimakok ikusi zituban praille santubakin: *hic seca, hic ure. Hic non parcas, ut in aeternum parcas*. Betoiz nigana, Jauna, gatx eta penagarri guztiak emen. Ez egidazu, Jauna, emen parkatu ta parkatu egidazu gero. Oh Jesus, penadun nausija, emon egiguzua, bada, zeure argi santuba, egin daiguzkan penitenzija egijazkuaren prutu gozuak, zeinen sarija dan betiko zeruko glotija. Nik zubei opa deutsudana. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## KOMUNINOEKO SAKRAMENTUBA

### I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer dan komuninoeko sakramentuba.*
2. *Ze izenegaz aituten emoten dan.*
3. *Nos itxi euskun Jesukristo geure Jaunak sakramentu au.*

Eleisako sakramentu santuben artian batzuk kontetan dabee komuninoeko sakramentuba irugarren lekuban. Baina komulgetara orduko dan legez pekatubagaz garbatutia ta al dedinian konpesetia, au gaiti imini dot irugarren lekuban konpesinoeko sakramentuba. Ta ari darraiko laugarren lekuban komuninoeko sakramentuba erakustia.

Sakramentu santu onetan guztia da txito altuba, txito andija ta txito ezkutukua. Begijak itxi biar ditugu, adina lotu biar dogu ta belaarriyak zurtu biar ditugu, komuninoeko sakramentu santubaren gainian berba egiteko ta entzuteko. Bada, begijakin ikusi ezin ginaiz sakramentu onetan Jaungoikuak itxi deuskuzan ondasunak. Adinagaz bere aitu ezin ginaiz. Bada, dira gizonaren aitute guztia baino goragokuak. Belaarriyak zurtuta, Jaungoikuari entzunda dakizuz, geuk ikusita ta geuk aituta baino ziurrago, argiruago ta zalago. Jesukristo geure Jaunak esaten deusku, bada, komuninoeko sakramentubaren gainian: *Artu egizu ta jan egizu; au da neure gorputza... Artu egizu ta edan egizu; au da neure odola; edaten dozun guztian, gogoratuko dozu neure erijotzia.* Au da sakramentu nausija. Au da ontasun, grazija ta doe guztien iturri bizija. Sakramentu onetan dago JESUKRISTO Jaungoiko ta gizon egijazkua bizirik. Aita Betikuaren Seme egijazkua, gu salbetia gaiti, Ama birjiniaren erraija garbijetan gizon egin zana, geure artian munduban bizi izan zana, kurutze santan josita ill zana ta illen artei biztuta zerubetan bere Aitiaren alde eskuman jarrita daguana da, komuninoeko sakramentuban janaritzat ta edaritzat emoten jakuna. Oh, zeinbat mirari arrigarri mirari baten! *Esaten azartuten nas, dino san Agustinek, izanik Jaungoikua guztia al daikiana, ezin legi geijago, bere seme bizija janaritzat ta edaritzat sakramentuban geuri emotia baino. Izanik guztia dakijana, ez daki geijago zer emon geuri. Ta izanik guztia dankana, ez dauka geijago zer emon bere. Au dino san Agustinek. Emon deusku sakramentu onetan Jaungoikuak, daukan guztia, dakijan guztia ta al dagijan guztia.*



Sakramentu santu onetan dagoz gauza batzuk, kristinaubak jakin biar ditubanak. Beste batzuk, sinistu biar ditubanak. Ta beste batzuk, egin biar ditubanak. Komuninoeko sakramentubaren gainian jakin biar dau kristinaubak: Zer dan, zer esan gura daben, zegaz egiten dan, nos eta zelan egiten dan ta zetarako dan. Beraren gainian sinistu biar dau kristinaubak, pediak erakusten deuskuna. Ta egin biar dau komuninoe santuba artuteko, Jesukristo geure Jaunak ta Eleisa Ama santiak aginduten dabena. Ara emen, neure entzula onak, sakramentu santu onetako ikasikizunak. Guztia izango da, altarako sakramentu santubaren izatiari, sinistutiarri, ondo edo gaiski artutiari, meza santubari ta eleisako egote lotsa onekuari jagokana. Guztiai asipena emoteko esango deusut erakutsi onetan: 1. *Zer dan komuninoeko sakramentuba.* 2. *Ze izenegaz aituten emoten dan.* 3. *Nos itxi euskeun Jesukristo geure Jaunak sakramentu au.* Konpesinoeko sakramentuko ikasikizunak baziran premina andikuak, ez dira gitxiago sakramentu santu onetakuak. Au gaiti eskatuten deusut barriro, neure entzula onak, artu dagizula aparteko gogua ta poza, Jesus Altarakuaren jazo gozuak eta maitegarrijak ondo entzuteko ta ikasteko. Asi gaitezcan, bada, bere izate santuti.

## I.

Komuninoeko sakramentuba da Jesukristo geure Jaunaren gorputz ta odol bizija ogijaren ta ardauaren irudijan. Sakramentu onetan dago Jesus, Jaungoiko ta gizon egijazkua osorik eta bizirik. Jaungoikua dan aldeti, an dago Aita Betikua, Seme Jaungoikua ta Espiritu Santuba. Gizona dan aldeti, an dago Jesusen arimia ta gorputza osorik eta bizirik. Beste sakramentubetan artuten dogu Jaungoikuaren grazija. Baina sakramentu onetan artuten dogu Jaungoiko gizonduba bera. Sakramentu onetan jaten dogu Jesusen aragi bizija ta edaten bere odol bizija. Bat egiten da Jesukristo geugaz ta geu beragaz. Geratuten da Jesukristo geugan ta geu Beragan, esaten deusku san Juanek. Au da komuninoeko sakramentuba.

## II.

Zeruko grazija guztiak ta grazijen jaubia bera daguan legez sakramentu onetan, izen grazijazko askogaz aituten emoten deuskubek Eleisiaren Gurasuak, eta Erakuslak altarako sakramentubaren izatia.

Esaten jako komuninoeko sakramentubari *Eukaristia*. Onek esan gura dau *grazija* ona. Jesus maitiak, sakramentu onetan geratu zanian, Aita zerukuari *grazijak* emon eutsazalako esaten jako au. Baita sakramentu onek *grazija* guztiak beragaz daukazalako bere. Baita komulgetan garianian Jaunari *grazijak* ta esker onak emoten deusaguzalako bere. Alan da altarako sakramentuba *grazija* ona. Esaten jako, *sakramentu guztiiz santuba*. Beste sakramentubak *santubak* dira. Baina au guztiz santuba da. Santutasun edo ontasan guztia bertan dagualako. Esaten jako, *altarako sakramentuba*. Jesukristo geure Jauna altaran bizirik konsagretan dalako. Ta kristinaubak bizirik artuten dabeelako. Esaten jako, *ostija sagraduba*. Jesus geure arimen Salbazaila dalako sakramentu onetan Aita Betikuari eskintzen jakon *ostija* egijazkua. Esaten jako, *komuninoeko sakramentuba*. Jesusen gorputz *santubagaz ta odolagaz parte oneko kristinau* guztiak bat egiten dirialako komuninoeko sakramentuban. Baita esaten jako au, Jesus guztion janarizat dagualako altara santuban. Guztion janarija da Jesus. Ta guztiok gara beriak. Esaten jako, *mai sagraduba*. Jesusek bere gorputz ta odol bizijagaz prestetan deuskulako geure janarija komunioian. Guztiok konbidetan gaitu Jesusek mai santu atara bere gorputz bizija jaatera ta odol bizija edaatera. Esaten jako, *Kristoren aparija*. Kristok azkeneko apari santuban apostolubai bere gorputza ta odola leleno jaten ta edaten emon eutseezalako. Azkeneko aparija janda gero beriala komulgau zituban Jesusek apostolubak bere gorputz ta odol santubagaz.

Esaten jako *biatikua* edo *bidelaguna*. Mundu onetati urtenda bestera juaun biar dabenean, kristinaubari biderako laguntzat emoten jakuelako. Erijetzako orduban Jaungoikuaren aurrera juateko ta orduko arerijo bildurgarrijai arpegi emoteko laguntzat da Jesus sakramentuban *bidelagun* ona. Emoten deusa arimiari aparteko *grazija*, sendotasuna ta animua pausu triste, larri ta ez jakin areetan arerijuak goituteko ta era onaren uste oso bategaz Jaungoikuaren aurrera juateko. Au gaiti esan eban Jesusek berak: *Neure aragija jaten dabena ta neure odola edaten dabena, ez da illgo*. Ez da illgo ariman. Biziko da zeruban. Esaten jako, *umeen* edo *txikitxuben ogija*. Onek esan gura dau, gatz bagakuai, malezija bagakuai ta pekatu bagakuai emoten jakuen ogija dala komunioia. Umiak ta txikitxubak dira gatz bagiak, garbijak eta onak, bapere engainu bagakuak. Bada, umeen moduban, garbi ta gatz bage egon biar dau komulgau dan arimiak, gero esango dan legez. Au gaiti agindu eban Jesusek berak, *ez jakuela ogi santuba txakurrai emon biar*. Txakurren izenagaz aituten dira erejiak, judegubak, moruak ta pekatu illgarrijan dagozanak. Ez dira oneek, alan dagozan artian, zeruko Aita onaren etxeko umiak, ez bada inpernuko etsajaren





etxequak. Kristinau eldubak eta zaarrak izan arren, badaukee umen gatzik eza, engainurik eza ta arimako garbitasuna, Jaungoikuaren etxeko ume onak dira, zeintzubentzat dan Jesus sakramentuban *janarija*. Esaten jako, *zeruko ogija*. Jesus zeruti mundura etorrita ogijaren irudijan geure janaritzat geratu zalako. Esaten jako, *aingeruben ogija*. Aingeruben betiko poza ta ditxia gizonaren janarija dalako. Alan esaten dau Dabid erregiak: *Aingeruben ogija jango dau gizonak*. Ta Salomonek esaten Jaungoikuari: *Aingeruben janarijagaz jandu zendu ban, Jauna, zeure errija. Ta emon zeuntsan jentari ogi prestauba jateko*.

Izen santu ta grazijazko oneekin ta beste milla emon legijezenagaz aituten da bada, neure entzula onak, komuninoeko sakramentubaren iza-tia ta grazija ona. Aintxinati Jaungoikuak gizonai aitu eragin eutseen, ogi-jaren ta ard[al]uaren irudijan Jaungoikuak emongo euskuna zeruko janari grazijazkua. Melkisedek erregiak Abraan justubaren denporan Jaun zerukuari eskerrak emoteko eskini eutsan ogija ta ardaa, Jesus altarakuaren irudi egijazko ta ogi bat zan. Israeltarra mendijan Jaungoikuak zeruti bialdu eutseen *mana*, beste ainbeste zan. Mana zan legez zeruti etorrija, Jesus altarakua bere zeruti etorrija da. Mana zan legez guztiak duarik ta nekatu bagarik eukeen janarija, Jesus bere altara santuban duarik eta neke bagarik guztientzat prest dagan janari gozua da. Mana zan legez egunian eguniangua, Jesus bere altara santuban egunerokua da. Mana zan legez jaten ebanaren gusto erakua, komuninoe santuba bere alan da. Zelan artuten dan, alan izaten da. Batzubentzat gozua ta beste batzubentzat mingotxa. Au gaiti kantetan dau Eleisa Ama santiak, komuninoe santuba onentzat bizitzia dala ta deungentzat erijotzia: *Vita bonis, mors est malis*. Baita aituten emon eban Jaungoikuak komuninoeko sakramentuba, Elias propeta santubari Jaungoikuak prestau eutsan ogi mirarizkuagaz bere. Lebadura bagarik auspian erretako ogija emon eutsan mendijan Jaungoikuak Eliasi jateko. Ta janari agaz beste bagarik ibili zan propeta santuba sendo berrogei egunian ta berrogei gabian, Horebko mendi santura igon artian. Zer egiten dau gitxiago komuninoe santubak, ondo artu ezkeru? Kansau bagarik ta gosetu bagarik eruaten gaitu Horebko mendi egijazkora, zein dan zeruba. Baita judegubak jan biar ebeen pazkuako bildots garbijagaz bere. Bada, Jesus da bere amodijo santubak pretauta komunioian daukagun bildots garbija, mansua ta gozua, geuk jan biar doguna. Oneek eta beste onako gauza askogaz testamentu zaarrian ta naturaleziaren legian zerubak aituten emon eutseen espirituazko gizonai altarako sakramentu santu andija.

### III.

Nos baina, deritxazu kristinaubak, geratu zala Jesus komuninoeko sakramentuban? Eguben Santu gabian. Munduti bere Aita zerukuagana juan biar ebanian. Gizonak eskerrik txaarrenagaz bere mesediai erantzuten deutseenian. Geu gaiti illtera daroienian. Gau ditxoso ta zorioneko atan geratu zan Jesus altarako sakramentuban. Zetaragino eldu ete zan berak geuri euskun amodijo ixia? Ez zan asko, Jesus maitia ta neure bijotzaren jaubia, geuri zeunskun amodijo itsuba erakusteko zeu mundura etorrita, gizon eginda, geu gaiti kurutzian josita illtia? Ez zan asko zeuk Adanen semiai deutsezun nai zintzua erakusteko, grazijazko lege erraza iminita, leenagoko lege zaar, astun, aragizkua kenduta, zerura bidiak mundu guztiari erakutsita, zeure erijotzan Aita zerukuagaz ta pekatarijagaz bakiak eginda, nai daben guztiarentzat zeruko atiak zabaldua? Ez, dino Jesus maitiak. Neuk geratu biar dot gizonakin munduba mundu dan artian. *Ecce ego vobiscum sum omnibus diebus usque ad consumationem saeculi*. Bakit, dino Jesus geure arimen jaoliak. Bakit gizonak gaiki erantzungo deusteena. Nire mesede andiak ezautuko ez ditubeena. Askok altaran bertan penauko nabeena. Bakit, nik gizonai deutseedan ondo guria ez da aspertuten. Ta eurakin egongo nas beti komuninoe santuban. Neure poza ta atsegina da gizonakin egotia. *Delitiae meae esse cum filiis hominum*.

Baina *nos*, Jesus ona, erakusten deuskuzu amodijo itsu laarregi ori? Eguben Santu gabian. Ez, zeu errietako jentiak ondo esatez ta bendizinoez jasoten zaitubedian. Ez, euren agintaritzat ta erregetzat nai zaitubedian. Ez, jente pillua zeuri entzutera, adoretara ta zeu serbietara prisaka datozean. Ez, zeuri ondo guria ta esker ona erakusten deutsubedian. Ez zinian, Jesus neuria, alako ordubetan geratu altarako sakramentuban nire janaritzat. Eguben Santu gabian geratu zinian. Judas, zeure apostolubeta-ti batek, zeu salduteko tratuba egiten dabenian. Judas, zeure apostolubak berak, lelengo komunioian pekatu mortalian daukan ariman satanasagaz artuko zaitubedian. Judegubak, zeu preso artuteko, galduteko ta illteko bidiak asmetan dabilzanean. Gizonen eskubetati inos entzun dirian ta entzungo dirian penarik tristenak, desondrarik astunenak, ta erijotzarik lotsagarriena ta erukarriena irago biar dozunian geratuten zara komuninoe santuban gizonen janaritzat. Mundu guztia zeure kontra jagiten danian. Beste amaeka apostolubak bere, zeure adiskide andi areek bere, batzuk zeu ukatuta ta bestiak doilorrez zeuri largata iges egiten dabenian.



Inor munduban ikusi dan bakarren, tristen, larrijen ta minduben gizonak gaiti zeure buruba ikusi biar dozunian geratuten zara, Jesus, arima galduben billazailia, komuninoeko sakramentuban arimen janarizat.

Eguben Santu gabian, Jesemaniko ortura odolezko izerdi otz larrija botatera juateko jagiten zarianian, emoten deutsezu zeu illtera duazan gizonai zeure aragi bizija jaten ta odol bizija edaten. Oh, JESUS Ona! Nok neurtu zeure amodijo santuba? Nok ezautu zeuk deuskuzun nai egijazkua? Nok erantzun zeuri esker onagaz? Zer da, Jesus, zeuk egiten dozun ori? Nun eta zelan geratuten zara? Norentzat eta zetarako? Ogijaren ta ard[au]aren irudi puska baten Jaungoiko guztia? Zerubak eta luurrak kabidu ezin dabeena? Pekatari baten eskupian, gilzpe baten preso zeruben ta luurren Egilia? Aingeruben Erregia? Ta gizonaren janarizat? Nor da gizona, Jaungoiko bizijari altaria bere ariman egiteko? Nor da gizona, Jesusen gorputz garbijari, arima garbijari ta odol garbijari egon lekuba bijotzian prestetako? Oh, Jesus guztiz maitegarrija! Nun dira bijotzak, zeure amodijuaren zintzotasun onei erantzuteko? Zeuri esker onak kansau bagarik emoteko? Zeu baino beste gauzarik lurraren gainian ez maitetuteko?

Bai, kristinaubak, onetara konbidetan gaitu Jesusen maitetasunak altarako sakramentuti. Bere azkeneko Eguben Santu gabian apaldu eban amabi apostolubakin bildotsa. Apalduta bertati garbitu eutsezan apostolubai oinak. Baita Judasi bere. Oinak garbituta, guztiak maijan egozala, artu eban Jesusek eskubetan ogija. Esker onak emon eutsazan Aita zerukuari. Bedeinkatu eban eskubetan eukan ogija. Zatitu eban. Ta emon eutsen apostolubai, esanagaz: *Artu egizu ta jan egizu; au da neure gorputza*. Artuta jan ebeen apostolubak Jesusen gorputz bizija ogijaren irudijan. Baita Judasek bere. Artu eban Jesusek gero kalizan ardaa. Esker onak emon eutsazan Aita Betikuari. Bedeinkatu eban kalizan eguan ardaa. Ta emon eutsen apostolubai, esanagaz: *Artu egizu ta edan egizu; au da lege barri-jan betiko isten deitsudan NEURE ODOLAREN kalizija*; zeubek salbetia gaiti laster emongo dodan odol bizija. Au artuten dozun guztian, gogoratu dozu neure erijotzia. Apostolubak artu ebeen ta edan ebeen Jesusen odol bizija kalizati. Ta jagita jua zirian Jesusegaz, Judasez bestiak Jesemaniko orturuz.

Ara, kristinaubak, nos eta zelan itxi euskun Jesus maitiak bere gorputz ta odol bizija ostija ta kaliza konsagrauban. Zeubek pensauko dozu ze esker andijak zor deitsaguzan. Gogoratu bein komuninoe santubaren asieraan, zer dan komuninoeko sakramentuba; zeinbat izen grazijazko ta mirarizkogaz erakusten deuskuben bere izate zerukua; baita nos geratu

zan bere gizonaren janarizat altarako sakramentu santuban. Beti, baina orain inos baino geijago erregutu biar deitsagu Jesus maitiari berari, bialdu daigula zeruti bere grazijaren argi santuba. Urratu dagizala geure luurreko maitetasunen katiak. Ixio dagijala geure bijotzetan bere amodijo garbijaren suba. Oh, Jesus ona! Bakigu zeu bagarik ezer ezin ginaijana. Gosia daukagu, Jauna, ta egarri gara. Jandu egizuz, bada, geure arimak zeruko ogijagaz, zeure gorputz santubagaz, inos gosetu ez gaitezan. Emon egiguzu zeure kaliza santuba, ill daigun betiko geure arimen egarri sikuba. Baita biztu egizu, Jauna, geure gogua, sakramentu altarakuan itxi zeuskuzan zintzotasun neurri bagiak ondo penseetako ta ikasteko bere. Eurakin orain balijauta, gero zeruban aingerubakin ta santubakin zeure ontasun ta anditasun amai bagiak beti kantetako. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan,  
*komuninoeko sakramentubaren gainian*  
*kristinaubak sinistu biar dabena.*

Erraztuago bat egiten dira, neure entzula onak, kristinaubaren sinistzako gauza batzuk geure errazoiaren ezauberiaz, beste batzuk baino. Nekezago ta gitxiago aituten ditugu geure sinistukizun batzuk, beste batzuk baino. Leku geijago dauka geure adinian, Jaungoikuak bere aginduba egiten dabenari sari ona zeruban emongo deusala sinistutiak, Jaungoiko bakar bat iru persona bata bestia ez dirianetan daguala, sinistutiak baino. Lasterrago dator gere errazoiaren erara, Jaungoiko onak ta santubak pekatuak gura ez dabena, Jaungoiko Espiritu utsak Birjina eder baten sabelian sortua, gorputza ta arimia beragana artu ditubana baino.

Gitxiago kostata sinistuten dogu, pekatari garbatubari Jaungoikuak pekatuba parkatuko deusana, Jaungoiko guztia daikiana, zerubak eta luurrak kabidu ezin dabena, ostija txiki baten osorik eta bizirik barrututa daguana baino. Nok aitu legi zelan dagan Jaungoiko guztia ostijan? Zelan kalizan? Zelan ainbeste ostijatan, izanik JESUKRISTO bat? Zelan gizonari emon ain alizate andija, berba bategaz JESUKRISTO Jaungoiko ta Gizon egijazkua ostijan iminteko? Ogijaren ta ardauaren izatia JESUKRISTOREN izate egijazkora bihurtuteko, nai daben guztian? Ah, kristinaubak! Zerubak eta luurrak arirituten dituben siniskizunak dira onetari-ko asko. Jaungoikuaren anditasunak ezkatu eutsan gizonari euren ezau-bera urrinekua bere. Orregaiti ez dira, gitxiago sinistu biar ditugunak. Ez dira egijazkua. Jaungoikuak berak esanak dira. Geure adin laburra lotuta, buruba makurtuta, lotsa santu bategazitsu itsuban sinistu biar ditugunak dira. Zerbait gaiti esaten eutsan Isaias propeta santubak Jaungoikuari: Zu zara bene benetan Jaungoiko ezkutauba. *Ver e tu es Deus absconditus*. Eskutauba da Jaungoikua, begijakin ikusteko. Ezkutauba da, gizonaren errazoe laburrak atxituteko. Ezkutauba da, andiustiak ta aixez burubak beteta daukezanak ezaututeko. *Abscondisti hac a Sapientibus, et prudentibus*. Baina agirija da gitxi ustekuentzat, humildentzat ta Jaungoiko egijazkuari bere esana entzuteko belaarrizak zur ta prest daukezanentzat. *Apparuit benignitas, et humanitas Salvatoris nostri Dei...*

Alan, neure entzula onak, ezkutukua izan arren ta geuk aitu ezin doguna izan arren, sinistu biar dogu itsu itsuban Jaungoikuaren esana, Eleisa Ama santiak erakusten deuskun moduban. Au gaiti, bada, komuninoeko sakramentuban dagozan legez gauza batzuk kristinaubak nora ezian sinistu biar ditubanak, salbauko bada, esango deusut dotrina onetan, *komuninoeko sakramentubaren gainian kristinau guztiak sinistu biar dabena*. Entzun egizu guztiok zurtasun guztiagaz, ezer bere oker aitu ez dagizun.

Sinistu biar dogu bada, neure kristinaubak, komuninoeko sakramentu santubaren gainian: *Lelengo*: Jesukristo geure Jaunak Egubena Santu gabian azkeneko aparija apostolu santubakin jan ebanian, konsagrau ebala eskubetan eukan ogija ta biurtu ebala bere gorputz izatera. Baita kalizan artu eban ardaa bere biurtu eban bere odol izatera.

*Bigarrenian*: Sinistu biar dogu gau ditxoso atan komulgau zitubala Jesusek apostolubak bere gorputz ta odol bizijagaz, zein izan zan lelengo komunioia.

*Irugarrenian*: Sinistu biar dogu Jesukristo geure Jaunak emon eutsee-la apostolubai ta areen ondorengo sazerdote guztiai alizatia edo *potestadia*, ogija ta ardaa Jesukristoren beraren gorputz ta odol bizi izatera bihurtuteko.

*Laugarrenian*: Sinistu biar dogu edozein sazerdote egijazkok, guztiz gaistua ta deungia izan arren, erejia nai exkomulgauba izan arren, komuninoeko sakramentuba egiteko ustiagaz esaten baditu ogijaren nai ardauaren gainian Jesukristok atarako itxi zituban berbak, ogija ta ardaa biurtuten diriala Jesusen gorputz ta odol bizi izatera. Ogijaren ta ardauaren gainian sazerdotiak berba santubak esaten dituban orduban bertan edo, erabagijago esateko, berba santubak esatez amaitu dagizan instantian dala, leen ogi zana ta ardao zana, JESUKRISTO Jaungoiko ta gizon egijazkua, Ama Birjiniaren sabel garbijan sortu zana. Geure artian munduban bizi izan zana; geu zerura eruatia gaiti, kurutzian josita, bere guraz ill zana; illda irugarren egunian illen arteti biztu zana; andi berrogeigarren egunian zerubetara igon ebana; Aita Betikuaren alde eskumati jarrita daguana; azkeneko egunian illak eta bizizak juzgetara barriro mundura etorriko dana; onai betiko zeruba ta deungai betiko inpernuba emongo deuseena; azkenik, Jaungoikuaren Seme bizi gizon egin dala, leen ogi ta ardao zana.

*Bostgarrenian*: Sinistu biar dogu ostijan ta kalizako ardauan, sazerdotiak berba santubak esan ezkeru euren gainian, ez daguala ez ogijaren ta ez ardauaren izaterik, ez bada leen ogi zana ta ardao zana dala orain Jesukristo, Jaungoiko ta Gizon egijazkua.



*Seigarrenian:* Sinistu biar dogu ogijaren ta ardauaren izate guztia biur-tu arren Jesusen gorputz ta odol bizi izatera, geratuten dira bai ostijan ta bai kalizako ardauan ogijaren ta ard[auaren idurija, pisuba, koloria, etxuria ta gustua. Oneek dira ogijaren ta ardauaren izatiari berez darraiko-zanak. Oneek geratuten dira, bada, ogi bagarik ta ardao bagarik, mirari andi baten bitartez, nun egon ez daukeela, komuninoeko sakramentuba artu-ten dogunian sinistutiak edo pediak lekuba euki dagijan, dino santo Tomasek. Ikusten dogu, komulgetara guazanian, emoten deuskubeela ogijaren etxurako, ogijaren koloreko, ogijaren pisuko ta ogijaren gusto egin egineko gauza bat. Ta beste ainbeste kalizako ardauan. Baina sinistu-ten dogu, komulgetan garianian, ogirik artuten ez doguna, ez bada ogija-ren ta ardauaren etxuran Jesukristo, Jaungoiko ta gizon egijazkua dala orduban artuten doguna. Baita sinistuten dogu ta sinistu biar dogu, kon-sagrautako ostijan ta kalizan ez daguala ez ogirik, ez ardaorik; baina bai ogijaren ta ard[auaren azidenteak, zeinak diran koloria, pisuba, usaina, gustua ta etxuria, leen esan dan legez.

*Zazpigarrenian:* Sinistu biar dogu ostija santuban daguala ez bakarrik Jesukristo geure Jaunaren gorputza, ez bada Jesukristo Jaungoiko ta gizon egijazkua osorik ta bizirik. Gorputz odol, arima ta Jaungoiko guztia dago ostija santuban. Beste ainbeste esaten da kalizako ardao santuba edo kon-sagrauba gaiti. Bada, ez dago Jesukristoren odola bakarrik kalizan, ezba-da an dago Jesusen gorputza, odola, arimia ta Jaungoikotasuna, zeruban daguana osorik ta bizirik. Au gaiti esaten da, meza esaliak Jesusen gorpu-tza ta odola ogijaren ta ardauaren idurijan artuten ditubanian; ta kristi-naubak porma txiki bat komunioian artuten dabenian, bijak artuten dabeela Jesukristo osorik eta bizirik. Bijak artuten dabee Jesukristo, Jaungoiko ta gizon egijazkua; batak mezaan ta bestiak komunioian. Ta Jesukristo geure Jauna ez da batian andijago bestian baino.

*Zortzigarrenian:* Sinistu biar dogu ostija santuba zatitu ta puskatu arren, ez dala zatituten, ez puskatuten Jesukristoren gorputza. Ta kaliza santuban dagan odola leku askotara zabaldu arren, ez dala zabaldu-ten, txikituten edo puskatuten Jesusen gorputz ta odol santuba. Bada, ostija osuan dago Jesukristo osorik ta bizirik. Ta ostijaren zati bakotxian dago Jesukristo osorik ta bizirik. Kalizako odol santuban dago Jesukristo oso-rik ta bizirik. Ta odolaren tanta bakotxian dago Jesukristo osorik ta bizi-rik. Ostijaren apur bakotxian Jesukristo bat osorik ta bizirik. Ta ostija guz-tietan Jesukristo bat osorik ta bizirik. Kalizako odol santubaren tanta bakotxian Jesukristo bat osorik ta bizirik. Ta kaliza guztietan Jesukristo bat osorik ta bizirik.

*Beredatzigarrenian:* Sinistu biar dogu ainbeste ostijatan ta kalizatan egon arren Jesukristo osorik ta bizirik, ainbeste meza esan arren egunoro mundu zabalian ta meza bakotxian imini arren Jesukristo osorik ta bizirik ostijan ta kalizan, ez daguala Jesukristo bat baino. Ostija guztietan Jesukristo bat osorik ta bizirik. Ta ostija bakotxian Jesukristo bat osorik ta bizirik. Ta orregaiti ostija guztietan, kaliza guztietan, elexa guztietan, zeru-ban ta luurrian Jesukristo bat, Salbazaile bat ta Jaungoiko bat baino ez dago. Zelan izan leiteke au? Zelan ez dagigu. Baina alan dana bakigu. Zelan jakiteko gurarija etorten bajatzu, erantzungo deutsu san Juan Damaszenok, *Jaungoikuaren esana egija dala, indartsuba dala, guztia daikiana dala; ta Espiritu Santubaren grazijaz beste mirarijak egin dituban legez, au bere Jaungoikuak berak egina dala. Zelan egiten dan, guk jakin ezin ginajana dala...* Au da kristinaubari esaten jakona, alako gauza altu Jaungoikozkuak aztertu ta jakin gura ditubanian. Jaungoikuak zeruko glorijaren argitasunagaz geure errazoiaren lainuak kendu dagiguzanian; Jaun zerukua Bera dan legez ikusi daigunian; arimia gorputzaren katietati ta aragizko estalgietati aska-tu dedinian; zeru zabaliant sartu gaitezanian, dinot, kristinaubak, ikusiko dogu ta jakingo dogu zelan dirian komuninoeko sakramentu santubaren mirari andi ta arrigarri oneek.

Ordu artian sinistu biar dogu, txikijak ta gitxirakuak gariana. Ta guk atxitu al daiguzan baino altubaguak ta ezkutubagokuak diriana. Alako Jaungoikuaren gauza goitsubak ta estaldubak errazoiagaz ondotu ta neur-tu gura izan ditubeenak, urten dabee errazoeti kanpora ta jausi dira Jaungoikuaren kontrako utsegite andi ta negargarrietan. Jazo triste ta negargarri oneek erakusten deuskubez ainbeste erejek. Nai zituken ezau-tu, neurtu ta eskupetu euren errazoe laburragaz Jesukristoren amodijoz-ko mirari andijak ta batu ezinekuak. Ta uts egite bateti bestera, geruago illunago ta geruago okerrago, azkenian ukatu ditubee Jaungoikuaren esa-nak, desondrau dabee Jesukristo, itxi deutsee komuninoeko sakramentu santubari ta prestau dira eurak ta euren ondorenguk inpernurako. Irakurri bedi Lutero, Kalbino, Zuinglio, Melanton, ta beste askoren bizi-tza dudazkua ta erijotza uste gaistokua edo desesperauba. Ta an ikusiko da zer dakarre n, Jaungoikuaren esana Eleisa Ama santiari ez sinistutiak itsu itsuban.

*Amargarrenian:* Sinistu biar dogu Jesukristo daguala ostijan ta kalizan, sakramentubak dirauban artian. Esan gura neuke, Jesukristo daguala osti-ja ta kaliza konsagrauban, ogijaren ta ardauaren usaina, idurija, gustua, koloria ta beste ogijari ta ardauari berez darraiko-zanak galdu artian. Bada, ogijari ta ardauari berez darraiko-zan gauzak galdu ezkeru, nai dala ustel-



duta, nai dala lizunduta, edo urdinduta, nai beste modutan, ez dago ostija edo kaliza atan sakramenturik. Ta ez dago an Jesukristo. Jesukristo dago, sakramentuba daguan artian. Sakramentuba dago ogijari ta ard[aj]uari berez dar[r]aikozanak euren izatasun egijazkuagaz dagozan artian. Oneek galdu ezker, nai modu batera ta nai bestera, ez dago sakramenturik. Baina ogijaren ta ardauren kolore, usain, gusto, pisu ta irudi egijazkua daguan artian, nai ostijan ta nai kalizako odol santuban, an dago Jesukristo osorik ta bizirik komuninoeko sakramentu santuban. Ta egongo da munduba mundu dan artian. *Ecce ego vobiscum sum, usque ad consumationem saeculi.*

Azkenian sinistu biar dogu, Jesukristo geratu zala komuninoeko sakramentuban gauza askotarako ta guztiak geure onerako. Geratu zan sazerdote jaunak Aita zerukuari mezaan egunoro eskini dagijuen barriro Jesus bere Seme gizon eginaren erijotza osasuntsuba. Au gaiti, egunaren ordu guztietan esaten dira mezaak mundubaren eskina batian edo bestian. Alan urte guztietan, egun guztietan ta ordu guztietan eskintzen jako Aita Betikuari altaretan bere Seme maitiaren bizitzia gizonen osasuna gaiti. Geratu zan Jesus altarako sakramentuban geure arimen janaritzat ta edaritzat. Ta ain modutan geratu zan, ze gau ta egun dago geugaz; gau ta egun egongo da geugaz. Ta gau ta egun eskintzen jako Aita zerukuari geure arimetako osasuna gaiti, leen esan dan ta argiruago gero esango dan legez.

Gauza oneek guztiok sinistu biar ditu kristinaubak komuninoeko sakramentubaren gainian. Baita onezaz ostian, Jesukristok berak agindu euskun komulgetako. Au da, komuninoe santuban bere gorputza ta odola artuteko. Alan esaten deusku san Juan Ebanjelistiaren aotik: *Jaten ez badozu neure gorputza ta edaten ez badozu neure odola, ez zara biziko.* Esan gura dau, salbauko bagara, artu biar dogula komuninoian Jesusen gorputz santuba. *Jesusen gorputza jaten dabena ta odola edaten dabena, Jesus egaz beragaz daguala ta Jesus bera bere bai jaten dabena.* Jesusen gorputz santuba komuninoian zelan artu biar dogun bere esaten deusku san Paulo apostolubak, dinuanian, *gaiski komulgetan danak, berak jaten dabela betiko galdutia beretzat. Juditium sibi manducat.* Onezaz ostian, Eleisa Ama santiak erakusten deusku nos eta zelan komulgau biar dogun.

Gogoratu bada, kristinaubak, zeinbat gauza andi ta arrigarri daukaguzan ta sinistuten ditugun komuninoeko sakramentu santuban. Guztia da andija baino andijagua ta illuna baino illunagua, geuk aituteko. Baina ez, sinistuteko. Eskritura Sagradubak iminten deusku komuninoeko sakramentubaren iduri bat Sansonen jazo bategaz. Ezteguna bidian joiala urten

utsan Sansoni leokume batek murruzaka jan guraik edo ito guraik. Oratu utsan Sansonek leoiari ta puskatu eban leoi, bildots bat balitz legez. Andi egun gitxi barru jua zan Sanson leoe illa ikustera. Ta topau eutsan bere auan erlia ezti abauagaz. Artuta jan eban Sansonek ezti, bidian joiala. Ezteguna jua da gero imini eutseen Sansonek philisteotarrei azertakizun illun au: *Jaaten dabena ganik urten dau janarijak ta sendua ganik urten dau gozotasunak. De comedente exivit cibus, et de forti egressa est dulcedo.* Ezin azertau ebeen philisteotarrak Sansonen itaune illunak zer esan gura eban, arian da Sansonen beraren esposiak esan artian. Ezin azertau ebeen ez zein zan *jaaten dabena*, ez zer zan *janarija*, ez nor zan *sendua*, ez ze *gozotasun* zan. Baina Sansonek esan eutsan bere esposiari ta ak philisteotarra. Ta orduban azertau ebeen ta aitu ebeen errazto Sansonen mirari illuna.

Kontu egizu bada, neure entzula onak, au guztiau zala komuninoeko sakramentubaren iduri bat. da *jaaten dabena* da *janarija*. da jaaten emoten dabena. da *sendua*. Ta da *gozua*. Jesusen aoti, azkeneko aparija apostolubakin jaten ebanian, urten eban geure arimako janarijak. Ta janari au berau da Jesus. Jesus bera da sendua. Bera da Isrraelgo judatarren leoe sendua. *Leo de Tribu Juda.* Bera da Sanson egijazkua, bere buruba illagaz arerijak goitu zitubana. Ta Jesus bera da sakramentu santuban gozotasun guztietati gozuen. Sanson leoiaren aoko eztiak eztegurako gozatu eban legez bidian pozik eta gogoz juateko, alan Jesusen gorputz santubak komuninoian artuta, gozatu, poztu, sendotu ta bizkortuten ditu arimak munduban, zeruko eztegubetara juateko. Au gaiti konbidetan ditu zeruko esposuak arima santak, berak bere ezti gozua jan dabela esanda, *comedi favum cum melle meo*, beragaz janari ta edaari gozua naikua artutera. *Comedite amici, et bibite, et inebriamini charissimi.*

Baina nok azertau komuninoe santubak daukazan mirari ezkutuko illun oneek? Zelan guk, philisteotarrak legez, luurreko illuntasunian ta gorputzaren kartzelan arimia daukagunok, zelan aitu ta azertau Sanson egijazkuaren, Jesus maitiaren amodijozko azertakizun gatx ezkutuko oneek? Ezelan bere ez geuk geurez. Ez ebeen inos aituko philisteotarrak Sansonen berbetia, Sansonen beraren esposiak esan ez baleutsee. Ta ez genduban guk bere inos aituko Jesusen berbetia komuninoeko sakramentubaren ganian, Jesusek berak erakutsita, Jesusen esposiak Eleisa Ama santiak esan ez baleusku. *Durus est hic sermo* esango genduban, leenagoko diszipulubak legez. Berbeta gogorra, illuna ta aituten gatxa edo aitu ezin legijana da au, esango genduban, *Jesukristo Jaungoiko ta gizon egijazkua dala gizonaren janarija.* Baina Jesusek berak esan ezker ta Jesusen esposa egijazkuak, Eleisa Ama santiak erakutsi ezker, sinistuten dogu komuninoe-



ko sakramentubaren gainian erakusten deuskun guztia, geuk ikusita ta aituta baino ziurrago, zalago ta senduago.

Oh, Jesus Sakramentauba! Oh Jesus, arimen janari egijazkua! Zeuk gura izan dozu, bada, geugaz altaretan geratutia. Geuri deuskuzun nai ona gaiti egin deuskuzu, Jauna, mesede neurri bagako ori. Zeuri bakarrik gogoratu jatzun, Jesus, geure janari izatia. Nori besteri gogoratuko jakon Jaungoiko gizondubak bere gorputzagaz ta odolagaz janduko zitubala gizonak? Ta nor azartuko zan inos mesede au zuri eskatutera? Oh Jesus andija ta humildia! Andija zeruban ta humildia ogi puska baten etxuran. Andija zeure egitadetan: Zerubak ta luurra kobernetan, aingerubak ta santubak alegeretan, diabrubak ta deungak inpernuban penetan ta onak guztiak munduban gordetan ta zaintuten. Baita ondo txiki eritxikua ta ondo batuba zara, Jesus maitia, ni legezko pekatari baten miinaren gainian, eztarrijan ta bularrian zagozarian. Maitetu zagijezala bada, Jesus ona, arima guztiak ta espiritu guztiak zeruban, luurrian, leku guztietan ta beti. Amen.

### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zelan prestau biar dan komulgetako, arimiaren parteti.*
2. *Zelan, gorputzaren parteti.*

Ez da asko, neure kristinaubak, komuninoeko sakramentubaren gainian Jaungoikuak esaten deuskuna ta Eleisa Ama santiak erakusten deuskuna sinistutia. Bada, sinistute onagaz ta zalagaz ostian, Jaungoikuak ta Eleisa Ama santiak eurak aginduten deuskubee, komuninoe santuban Jesus artuteko geure ariman. *Jaten ez badozu Gizonaren Semiaren aragija ta edaten ez badozu bere odola, ez zara biziko*, dino Jesukristok berak. Baita Eleisa Ama san tiak bere aginduten deusku gitxienaz urtian bein komulgetako. Ezin ukatu ginai bada, neure entzula onak, gauza andija ta andija baino andijagua dana Jesus Jaungoiko ta gizon egijazkuari geure etxian ostatuba emotia. Oh! pensauta beste bagarik ikara egiten dau geure bijotz pobriak, Jaungoiko andija, jaun guztien jauna, errege guztien erregia, zeruben ta luurren jaubia, Jesus santuba, Jesus ona, Jesus garbija geure etxera etortiaz. Zer egin biar ete dau, bada, kristinaubak Jesus maitiari egon lekuba bere bijotzian prestetako? Au da, neure entzula onak, nik zubei ikaskizun onetan erakutsi biar deutsudana: 1. *Zelan prestau biar daben kristinaubak komulgetako, arimiaren parteti.* 2. *Zelan prestau biar daben, gorputzaren parteti.* Uste dot guztion premina andiko dotrinia dala. Berau gaiti ta Jesusen amodijo santuba gaiti erregututen deusut entzuterik oneena.

#### I.

Zer egin biar dau bada, kristinaubak, Jesus bere ariman artuteko? Zer? Gogoratu bere artian astiro, Jonas propeta santubari itxaso-gizonak itandu eutseena. *Zein erritakua zara zu?* itandu eutseen. *Ex quo populo es tu? Nora zuaz? Quo vadis?* Itandu begijo, bada, kristinaubak bere artian Jaungoikuari, komulgetara doianian: *Zein erritakua zara, Jauna? Nora zuaz, Jauna? Zer egitera zatoz nigana, Jauna?* Itandu begi au edo pensau begi au astiro kristinaubak, komulgetara doianian. Ta geratuko da arnasa bagarik, zer esan, ez zer egin ez dakijala. *Zein erritakua da Jesus? Ah!* zeruba baino goragokua. Munduba baino leenagokua. Aingeru santu ede-



rrak jarlekutzat daukazana. Jaungoiko ta gizon egijazkua. Ta nora dator Jesus, ni komulgetan nasanian? Ah! nigana, pekatari triste onegana. Gauza onik bat bere ez daukadan onegana. Milla gurari lotsarizko txiki ta andi daukadazan onegana. Oh, Jesus! Zeu nigana? Ta zer egitera? Neugaz ego-tera. Neure ariman jarlekuba artuta, neugaz berbetan egotera.

Konturatu bada, kristinaubak, ze arimako garbitasunagaz ta apaindurijagaz eldu biar dogun Jesus zeruko Errege bizija geure etxian artutera. Arimia da Jesusen egon lekuba. Ta arimia nai dau Jesusek euki daigun ondo garbituta, bere anditasuna ta ontasuna pozik an egoteko. Arimia da Jesus gordetako kaxia. Bada, errazoia da Jesusen gorde lekuba garbija ta ederra egotia. Leengo legian agindu eban Jaungoikuak kaxa bat egiteko, nun gorde biar zan israeltarren mana, Jesus komuninoekuaen irudija. Jaungoikuak berak esan utsan Moisi, mana gordetako kaxiak zelakuak izan biar eban ta zelan prestaubak izan biar eban. Barruti ta kanpoti urre garbijagaz doretako kaxia agindu eban Jaungoikuak. Leen esan dan legez, Jesus da mana egijazkua Altarako sakramentu santuban. Ta geure arimak dira, mana zeruko au gordetako kaxak edo ontzizjak. Orregaiti dorau biar dau kristinaubak bere arimia urre garbijagaz barruti ta kanpoti, zeinegaz aituten dan arimako ta gorputzeko prestaera ona Jesus komuninoian artuteko. Arimiaren parteti biar da Jesusen *amodijua*, Jesus artuteko *gose* santu-*ba* ta *humildade* egijazkua.

Ondo komulgetako biar da *lelengo* Jesusen amodijua. Bera maite dabeenak ta bere adiskidiak konbidetan ditu Jesusek komuninoeko mai santura. Adiskidiak esaten deustsee zeruko Esposuak, jaateko bere aragija ta edaateko bere odola. *Comedite amici, et bibite, et inebriamini charissimi*. Naitaezko prestaeria da au, kristinaubak, komuninoiak on egingo badeusku. Alkar maite ez dabeen bik ez dabee alkar ondo artuten. Laster gobaituten dira alkarregaz egoten. Ez deustsee batak besteari mesede andirik egiten. Komulgetan danak maite ez badau Jesus ta Jesusek maite ez badau komulgetan dana, izango da komuninoe otza, sikuba, liorra ta, esan oi dan legez, kunplimentuzkua. Arerijo bik bere nosbait alkar bisitau oi dabee kunplimentuz. Baina nora ezian, gogo bagarik ta laster amaitu bisitia. Bada, beste ainbeste komuninoe santubagaz. Amodijo bagarik ta karidade bagarik juan leiteke kristinauba komulgetara, kunplimentuz legez. Baita Jesus bere etorri alako arimara bere berbiagaz kunplidutiarren, Judasenera juan zan legez. Baina geijago ezinian. Gogo bagarik ta karino bagarik alkarreganatumen dira orduban Jesus ta komulgetan dana. Oh, zeinbat onako komuninoe! Oh, zeinbat amodijo bagako ta karidade bagako komuninoe! Oh, zeinbat pekatuzko komuninoe, neure kristinaubak!

Naita ezekua da, bada, ondo komulgetako, Jesusen amodijo santuba, Jesus adiskide ta maite izatia, *Jaungoikuaren grazijian egotia*. Alan erakusten deusku Eleisa Ama santiak Trentoko batzar osuan. Dino bada: *Inok esaten badau, asko dala sinistutia bakarrik komuninoe santuba artuteko, izan dedilla eskomulgauba a esaten dabena... Ta komuninoeko sakramentuba inok bere artu ez dagijan gaiski bere arimiaren erijotzarako ta kondenazinoerako, erabagi dau ta esan dau konzilijo santubak, pekatu ilgarrijan daganak, ondo garbatuta dagnala uste izan arren, ez dabela jua biar komulgetara bere pekatubak ondo konpesau bagarik, nogaz konpesau enki ezkeru. Ta azartuten bada inor, au onan ez dala edo izan biar ez dabela esaten, erakusten edo prediketean, a esaten dabena, erakusten dabena edo prediketean dabena, izan dedilla eskomulgauba, dino Konzilijuak. Pekatu mortala edo ilgarrija ariman ezaututen daben kristinaubak, konpesinoe egijazko bategaz prestau biar dau komulgetara juateko. Konpesinoe on baten pekatubagaz garbatuta, pekatubaren gorrotua artuta, Jaungoikuagaz bakiak eginga, Jesus maitetuta, amodijo santubaren urriagaz bere arimia dorauta, edertuta eldu biar dau kristinaubak komulgetara.*

*Bigarrenian*: Komulgetara jua biar da Jesus artuteko gose santu bategaz. Gosez ta gurariz artuten dan janarijak, gorputzian bere oba egiten dau. Gogo betian jaten danak ez deuska gorputzari on andirik egiten. Askotan bai gatx. Bada, moduren baten, beste ainbeste jazoten da arimiaren janariagaz, zein dan Jesus komuninoeko sakramentuban. Eldu biar dau kristinaubak komulgetara, Jesukristo geure Jaunagaz bat egiteko ta Jesusen grazija ugarijak bere ariman artuteko gurari ta nai bizi bategaz. Orduban aberatstuten dau Jesusek geure arimia zeruko ontasan andijakin. Geituten dau zerurako uste egijazkua ta errazozkua. Geituten dau Jaungoikuaren esanaren sinistutia. Geituten dau Jaungoikuaren ta zeruko etxiaren maitetasuna. Baita pekatuben damuba, erijotziaren gomutia, jui-zijuaren bildurra, pekatarijen errukija, santuben debozinoia ta beste birtute edo arimako ontasan guztiak bere. Ze gose santubagaz ta nai bizijagaz elduten zirian komulgetara ene Ama santa Teresa, santa Katalina, santa Isabel, santa Maria Madalena Paziskua ta beste milla! Oh! euren bijotzak ixiota egozan gose santu bategaz, Jesusen gorputza komuninoian artuteko. Bisperan ez euken kasik beste gauzarik goguan, bijamoneko komuninoia baino. Luze eritxuela egozan, Jesus Esposo garbijagaz euren arimak bat egin artian. Komulgetan zirian egunai labur eritxuen, euren preminak ta karinuak Jesusegaz iragoteko. Askotan gabak denporak emonda, luagaz aztuta egozan Jesusegaz berbetan. Alan urtetan eben komuninoeti, zerutar batzuk balira legez, amodijuaren subak ixiota, mundubak estimetan daben guztia oin azpijan ebeela. Ez da bada, kristinau-



bak, Jaungoikua guretzat ez urrijago, ez zekenago, ez pobriago. Areek legezko gose santubagaz elduko bagina komulgetara, artuko gendukez geure arimetan komunioiagaz eurak artu oi zituben amodijozko ontasan zerukuak.

Txito nai izan dot, esaten eban Jesusek, au apartijau zeubekin jatia. *Desiderio desideravi hoc pascha manducare vobiscum.* Bada, ain gogo andija badauka Jesusek geuk bera artu daigun komunioe santuban, zeinbat nai izan biar dogu geuk bera artutia? Prestau bada, neure entzula onak, komulgetako, Jesusen amodijo santubagaz ta Jesusegaz bat egiteko gurari edo gose bizi bategaz. Baita humildade egijazko bategaz bere, zein dan irugarren arimiaren prestaeria.

*Irugarrenian:* Ezautu biar dau kristinaubak bere buruba ta bere pekaritizia, Jesus ariman artuteko, zein dan humildade egijazkua. Nor nas ni, Jesukristo geure Jaunari neure etxian ostatuba emoteko? Neure bijotzian zeruko Erregia artuteko? Aingeru ederrak beragaz dakazan Jaun andijari jarlekuba neure ariman egiteko? Oh ze etxe pobria, Jauna, nire bijotza zeu artuteko! Utsa da, Jesus maitia, pobria egotia garbija balego! Baina zeinbat samar, zeinbat luurreko auts, zeinbat amaraun ikusten ditut neure ariman, Jesus garbija, zeuri egon lekuba emoteko! Oh, Jesus! Zelan azartuko nas ni zeure mai santura elduten, neure bizitza pekatuzkuari begiratu ezker? Neure andiguriari, neure buru eritxijari, neure kodizija edo diru gura goesekuari, neure asarre sutsubai, neure gurari lotsarizkuari, neure burubaren amodijo itsubari ta laarregijari, neure pekatu andijai...? Zelan, Jauna, azartuko nas ni zeu neure bijotzian artuten, neure pekatu aldra lotsarizkuari, ezainari ta itxusijari begiratu ezker? Neu ainbeste bidar zeure arerijua izan ezker? Neuk pekatubagaz zeu sarritan saldu ezker? O Jesus! Zelan jarriko zara, ainbeste berba deunga esan dituban nire miinaren gainian? Zelan egongo zara, ainbeste pekatu loi, ainbeste lapurreta, ainbeste gorroto, ainbeste gaiski esate, ainbeste ordikerija ta ainbeste engainu lotsa bagarik zeure kontra gura izan dituban bijotzian?

Onan pensau biar dau, neure entzula onak, kristinaubak, bere bizitza ezaina ta pekatuzkua, komulgetara orduko. Imini begiz alkarren parian bere pekatuzko pensamentubak, gurarijak ta egite gaistuak Jesus maitiaren ontasunagaz, zuzentasunagaz, garbitasunagaz ta anditasunagaz; ta geratuko da kristinauba lotsatuta, buruba makurtuta, komulgetan azartu ezinda. Esango dau Zenturion ebanjelijokuagaz: *Jauna, ez zaitez sartu neure etxian.* Edo Publikanuagaz, Jaungoikuaren aurrera juaten lotsatuta, begijak luurreti gora jasoten azartu ezinda, urrineti esango deutsa Jesus onari ta parkazailiari, bularra juaz: *Jauna, miseriakordija pekatari onegaz; Jauna, erru-*

*kitu zaitez nigaz; Jauna, mesede egidazu parkatutia. Deus propitius esto mihi peccatori.* Onako pekatuben ta bere burubaren ezauberiaz txikituta, Jaungoikuari bijotza jasota, parkazinoia eskatuta, elduten danian kristinauba komulgetara, pretauta dauka bere arimia Jesus artuteko. Dendatu bada, kristinaubak, zeruko Errege andija bere naizko ta pozezko arima garbijan artuteko maite izatera, bera artuteko gurari santu ixio bat eukitera ta humildade egijazko bategaz komulgetako zeuben arimak prestetara. Orduban egongo da Jesusen ontzija edo kaxia barruti urre garbijagaz dorauta. Baina kanpoti bere doraua zan mana gordetako kaxia. Alan, Jesus, mana egijazkua artuteko, kristinaubak pretaut biar dau ez bakarrik bere arimia, ez bada baita gorputza bere. Aitu egizu, bada, zelan pretaut biar daben kristinaubak komulgetako, gorputzaren parteti.

## II.

Gorputzian eruan biar dan prestaeria komulgetako da barurik egotia. Au da lelengo biar dana. *Barurik* esaten danian, aituten da ez dabela ezer bere irago biar eztaarrijan beera gau erdiko amabijetati komulgau artian. Auan sartutako gauzarik ezer bere ez. Ez janaririk, ez daaririk, ez beste gauza agiri auan sarturik. Oni esaten jako baru utsa edo baru *naturala*. Au biar da komulgetako. Alan aginduten deusku Eleisa Ama santiak. Ta duda bagarik, erakuslak dinuenez, Espiritu Santubak apostolubai erakutsi eutseen barurik komulgetia. Eleisiaren lelengo asieran Eguben Santu gabian bakarrik artuten zan komunioe santuba apalduta gero, Jesusen azkeneko aparti santubaren gomutan. Baina onezaz ostian, osasuna dauken guztiak komulgau biar izan dabee ta komulgau biar dabee barurik. Bada, orain Eguben Santu gabian bere osasundunik komulgau ezin leiteke, barurik ez dala.

Au aginduten deusku Eleisiak, Jesus onaren erreberenzija gaiti. Komulgetan dan egunian barurik artuta, Jesus maitiari lelengo leku emoten jako geure bularrian. Onegaz erakusten dogu, lelengo lekuba ta estimazinoe nausija daukala Jesusek geure ariman. Egijia da, gaixorik daguanak illteko arriskuban daguanian, barurik egon ez arren, artuten dau gure jauna, komunioeko sakramentu santubaren grazija ta laguntasuna bagarik erijotzako ordu estubak artu ez dagijan. Baina osterantzian ez da inor komulgetan, baruba ausita.

Gorputzaren prestaerari jagoko bigarren lekuban, komulgetako eskubak ta arpegija garbituta, soina modu onagaz jantzita, gorputzeko era





guztiagaz buruti oinetara modestija, humildadia ta lotsa ona erakusten dabela Jesus artutera eldutia. Komulgetara doian kristinaubak, bere begi-jetan, bere pausuban, bere jantzijan ta bere egoneraan erakutsi biar dau, ariman daukan garbitasuna, jasotasuna, humildadia, Jesusen amodijua ta lotsa ona. Ez dau juan biar gizonezko komulgetara, dino san Karlos Milanguak, ez sariagaz, ez birretiagaz, ez ezpatia edo armia gerrijan dabela. Ezda emakumiak bere, dino Santubak berak, jantzi arruakin edo banidadetsubakin. Ezda ule okertubak begijetan ditubela bere; *non crinibus inaniter intortis*. Ezda arpegija berarjaz koloretuta bere; *non fisco, aut pigmentis vultu illito*. Ezda bularrak agirijan bere, edo guztiz agirijan ez arren, gasa argijagaz tapauta bere, ez[bada] arpegijaz beste guztia ondo estalduta. *Non pectore nudo, aut tenui velo oblecto; sed ita vestito, ut en prater faciem quidquam nudum cernatur*.

Modu onetan prestau biar dau kristinaubak komuninoe santuba artuteko, gorputzaren parteti. Uts egiten dabee askok ta ez dabee erakusten kristinautza egijazkuaren senailarik. Batzuk edozein modutan, jaso on bagarik, soinak moduztau bagarik, botoiak euren lekuban lotu bagarik, txito nasai juaten dira komuninoe santuba artutera, bai gizonezkuak ta bai emakumiak. Beste batzuk Jesusen mai santuragino daroie euren arrotasuna ta banidadia soinian. Batez bere denpora onetako emakume askok. Kokotak agirijan ditubela. Irunak eta bularra ondo estari bagarik. Sare mordo bat bekokijan beera aua tapau artian darijuela. Ez gitxitan, ez bada askotan, komuninoe santuba auan iminten sazerdotiari eragozten deustala ezpanak joten deustazan sariak. Beste batzuk euren ule molsuak adartuta, paper zaar batzugin lotuta, bekokijan armatuta daukezala duaz baina zeren etxuriagaz komulgetara? Ez da, bada, ori, neure entzula onak, Jesusek nai daben soina komuninoeko maira juateko. Soin jasua, soin garbija, soin ona, (daukanak) soin ondrauba Jesusen mai santurako. Bai[na] ez soin nasaija. Ez soin jausija ta edegija. Ez soin arrua ta aixetsuba. Ez soin armatuba ta biloxtuba. Ez soin barregarrija. Ez monuen soina. Ez egunian eguniango moden soina.

Gogoratu bada, kristinaubak, ze prestaeriagaz eldu biar dan komuninoe santuba artutera, bai arimiaren parteti ta bai gorputzaren parteti. Gogoratu, Jaun andi batek edo luurreko errege batek etorri gura baleu zeuben etxetara, zeubek bisitetara, zeubekin egun batzubetan egotera ta zeubek beragaz zelan portetan zarian, alan zeubei mesediak egitera. Ta entzungo bazendu txito prestuba dala zeubenera etorri gura leukian jaun andija. Leen bere beste etxe batera alantxe jua zala. Ta etxe atan ondo artu ebeelako, etxeko guztiai betiko ondo izatia etxi eutseela. Zer egingo

zenduke? Edo obeto esateko, zer egingo ez zenduke, kaballero ari naijak egiteko? Zelan garbituko zenduke zeuben etxia? Zelan bere egon lekuba, jar lekuba, jan lekuba? Zelan moduztauko zendukez zeuben berbak ta eskaarijak, berari esateko? Zelan egongo zinaatekez bere aurrian ta bere onduan, etxian daukazun artian? Pensau astiro zeubek, neure kristinaubak. Ta pensau, ia zer dirian luurreko andi ta aberats guztiak Jesus zeruko Erregiagazko. Ah, lastimia! Ain zurrak munduko irabatzirako! Ta ain sorrak Jesusentzako ta geure arimentzako! Oh Jesus! Erremedijau egizu gatx andi au zeure merezimentu andijak gaiti. Amen.



## IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*ondo komulgaubak arimara dakarren mesedia.*

Komuninoeko sakramentu santuban Eleisa Ama santiari, ta arima on bakotxari Jaungoikuak itxi deuskuzan ontasunak eta grazijak ez dauke neurririk, neure entzula onak. Komuninoeko sakramentuban dago bizitzako *arbolia*, zeinen prutiak eukan beste pruta on guztien gozotasuna ta gustua. Paradisubaren erdijan eguan legez bizitzako arbolia, alan dago Eleisiaren erdijan Jesukristo altara santuban, arima on guztiai espirituko bizitzia emoten deutseela. Paradisuban bertan urteten eban legez iturri ugari batek, lau erreka anditara zabaldua, leku zori on atako arbola, bedar ta lora guztiak erregarijetan zitubana, alan Jesus altarako sakramentu santuban, Birjina ederraren luur edo gorputz garbiti urtenda, bere ortu guztietako arbolak, lorak ta bedar usain gozoko guztiak erregarijetan ditubala dago, zeintzuk dirian arima garbi guztien birtute edo ontasunak. Kontetan badira giza aldijetan Jaun zerukuari zerbaitegaz naijak egin jakozala munduban ta eurak gaiti Jaungoikuak mesediak egin deutsezala gizonai, egitade areek guztiak ez dira beste gauzarik izan komuninoeko sakramentubaren irudi bat baino. Abel justubak Jaun zerukuari egin eutsan eskini bedeinkatuba, Noek egin eutsan usain gozokua, Abraanek egin eutsan eskini gatxa ta penazkua, Melxisedek egin eutsan jan edan sendokua ta beste Jakoren semiak egin oi zituben eskini edo *sakripizijo* guztiak, nai ziriala pekatuben zorrak pagetakuak nai ziriala arimako gatxak garbitutekuak, nai ziriala Jaungoikua geure pabore eukitekuak, nai ziriala zeruko grazijak jadistekuak, guztiak daukaz beragaz Jesusek altarako sakramentu santuban. Lege zaarreko ta barriko egite santu ta Jaungoikuaren gogoko guztiak daukaz Jesusek komuninoeko sakramentuban. Ta guztiak daukaz geuretzat, geuk nai izan ezker. Komuninoiak geure arimetara dakazan milla mesede andi ta grazijazkuai itxita, esango deusut bakarrik dotrina onetan: 1. *Komuninoiak bat egiten gaitubala Jesukristogaz.* 2. *Sendotuten ditubala geure arimako birtute edo ontasunak.* 3. *Parkatuten ditubala pekatu txikarrak.* 4. *Zeruko Erreinubaren doia dala.*

### I.

Komuninoiak bat egiten gaitu Jesukristo geure Jaunagaz. Ojala aitu al bazinai, kristinaubak, au zelan dan. Nik esan ezin negizu beintzet. Bakit alan dana. Baina ez dakit zelan dan. Jesusen amodijo santubagaz ta garbijagaz bijotzak prestanta daukazuzanok aitu daikezu *bat egite* zori oneko au. Ez dauke onegaz ze ikusirik bijotza luurreko gauzetan iminita daukeenak. Munduko amodijuetati ta luurreko gurarijetati ustuta nai ditu Jesusek geure bijotzak, beragaz bat egiteko. Espirituzkua ta grazijazkua da bada, neure entzula onak, Jesusegazko *bat egite* arimako au. Zelan, bada, bat egiten da komuninoe santuban geure arimia Jesusegaz? *Argizai zati bi eguzkitan berotuta, alkarri ezarrita bat egiten dirian legez,* dino san Zirilo Alexandrijakuak, *bat egiten diriala gure arimia ta Jesus komuninoeko sakramentuban.* Bat egiten da Jesus arimiagaz. Ez izatez. Bada, Jesus ta geu ez gara *bat* izatez. Baina bai gogoz, naiz ta gurari onakin. *Ez bakarrik karidadez,* dino san Juan Krisostomok. Bada, grazijan daguan arimia beti dago karidadiagaz. Ta beti dago Jaungoikuagaz bat eginda. Baina komulgetan danian onezaz ostian, aparteko modubagaz bat egiten da arimia Jesusegaz. Artuten dau arimiak komulgetan danian Jesusen espirituba, Jesusen bizitzia ta Jesusen naija. Jana ta edana dira gosia ta egarrija kenduteko, dino san Agustinek. Ez dau, bada, beste janarik ez edarik gosia ta egarrija ondo kenduten, Jesusen gorputz ta odol satubak komunioian baino, dino Santubak berak. Gorputz santu au jaten dogunian, artuten dogu betiko espirituba ta betiko bizitzia; au da zeruko santuben lagun izatia. Jesus dan legez geure arimako ontasun guztien emalia ta bizigarrija, Jesus artuten dabenak beragaz dauka zeruko bizitzia ta zeruko ontasuna.

Biar dan moduban prestanta komulgetan danak, zerbait pensetan badau, Jesus pensetan dau. Zerbait nai badau, Jesus nai dau. Zerbaitek ardura emoten badeutsa, Jesus maitetutiak ardura emoten deutsa. Luurreko gauzetati gora igonda, Jaungoiketuta legez geratuten da arimia komuninoiagaz. Jesusen amodijo santubagaz ta zerutar baten pensamentubakin, komuninoe santuba artuta, esaten dau arimiak san Paulo apostolubagaz: *Ya ez nas neu bizji, ez bada Jesus bizji da nigaz.* Neu nago Jesusegaz ta Jesus dago neugaz. Nire naija, nire gogua ta nire uste guztia da Jesusen



naija, Jesusen esana ta Jesusen aginduba egitia. Jesuseganik inos ez alden-dutia. Au da bijotz maitetsu biren bat egitia, dino san Juan Krisostomok. Ta onan komuninoe santubak bat egiten dau arimia Jesukristo geure Jaunagaz.

## II.

Baita komuninoe santubak sendotu ta azi bere egiten ditu geure arimako ontasunak edo birtutiak. Sakramentu guztiak egiten dabee au. Baina aparteko modubagaz komuninoe santubak. Bada, beste sakramentubetan emoten jako arimiari grazija. Baina komuninoeko sakramentuban grazija guztien ta ontasun guztien jaubia, zeindan Jesukristo geure Jauna. Au gaiti esaten dau Jesusek berak: *Neu jaten nabena biziko da neu gaiti* edo neugaz. Ondo komulgetan danian, berez legez sentiduten dau arimiak bere bijotzian Jesusenganako ta zeruko gauzetarako tiria. Argiruago ta erraztuago sinistuten ditu Jaungoikuaren egijak. Berekautan legez sortuten jako ariman zerurako ustia. Ta kasik duda bagarik sinistuten dau, parkatuko deutzazala Jaungoikuak bere pekatubak ta emongo deutzala zeruko gloriya. Komulgetan danian, pekatubaren izena entzunda beste bagarik, ikara egiten dau arimiak. Gorrotuago deutsa ta ezainago deritxo pekatubari orduban, bestetan baino. Ta maitiago dau Jesus ona. Alan, kasik zelan ez dakijala, bere ariman sentiduten ditu kristinaubak ondo komulgetan danian, indar barriak gogo barri bategaz Jaungoikuagan sinistuteko, Jaungoikuagan uste seguru bat eukiteko ta Jaungoikua maite-tuteko ontasunak edo birtutiak. Gose danari jan onak indarrak eta gogua bizkortuten deutzan legez barriro biarrari edo bidiaari ekiteko, alan komuninoe santubak arimako birtutiak bizkortu ta sendotuten ditu, barriro arimiaren onerako biarra ekiteko ta Jaungoikuaren bidia jarraituteko. Pedia, esperantzia ta karidadia onan sendotuten baditu, ez dau gitxiago egiten beste birtutekin.

Begiratu egijozu kristinau egijazko bati, komulgetan dan egunian. Nai eleisan, nai kanpuan ta nai etxian. Ta ikusiko dozu eleisan luzaruago, batubago, humildiago ta Jaungoikuari ta santubai eskarijak ta erregubak egiten gogotsubago. Kanpuan lagun artian isilago, modutsubago ta denpora gitxiaguan. Etxian baketsubago, etxeukuakin ta auzuakin bat eginago ta guztientzako prestubago ta esaneukuago. Au guztiau ikusten dogu kristinauben artian, komulgetan dirian egunian. Zegaiti? Komuninoe santuban arimiari geitu ta sendotuten jakozalako humildadia, pazienzija, isilta-

suna, bakia, karidadia, prestutasuna, bere burubaren ezauberia, lagunnen errukija ta beste kristinaubaren ontasunak. Ta onako arimako indarra ta gogo santuba emoten ez badeutsa komuninoiak; urteten badau komuninoeti leen baisen zaatatsu, leen baisen zital, leen baisen gozo gaistoko, leen baisen arro ta panparroe, leen baisen asarre ta ernegau, leen baisen banidadetsu ta ibilgura; bildur izan zaite komuninoiagaz artu dabela ariman diabruba. Kontu, zeruko kopaubagaz berenua sartu ete jatzun. Entzuten da persona batzuk gaiti: Nos etxian edo kanpuan zitaten, nos bakerik gitxien, nos inok azertau ezinen, komulgetan dirian egunian. Jesus artu daben egunian. Bada, bildur izan aren komuninoiak, astian astian-guak badira bere. Baita astian birritakuak ta geijagokuak badira bere. Txaarrago. Beste ainbeste esaten da arako sarri konpesau oi dirian kristinau batzuk gaiti. Komuninoe askotakuak edo sarritakuak ez badeutseez geituten ta sendotuten kristinautzako ontasun, esan dirianak, bildurtu beitez komuninoakin.

Inor esaminetan, inoren paltak kontetan, inoren barriak jakiten ta ez juakon saltsetan sartuten ta sarri komulgetan, ez da kristinautzia ondo bat egiten. Inori ezer bere parkatu ez; norbera gaiti berba erdi bat inok esan dagijan gura ez; lasto baten kontra sierpia legez jagi; santu bat balitz baino geijago inok ukutu biar ez; auaz pekatari andija dala esanda, bestiak baino obatzat euki bere buruba; zeken ta gogor artu bere eskupian dagozanak; pobriari arpegi asarria erakutsi; bestiak ezertako etzat edo pekatarizat ta gaistotzat euki ta sarri komulgau, ez da kristinautza egijazkuagaz bat egiten. Diabrubak engainauta daukaz alako kristinaubak. Eleisara osteras asko eginagaz ta sarri komulgaubaz uste dabee santu batzuk edo santa batzuk diriala. Ta pazienzijako, humildadeko, karidadeko ta buru ezauberara oneko gauzan bein edo birritan probetan badira, topauko da eurretan soberbija altuba, lagunari parkatu ezina, bestiak ontzak euki ezina, bere burubari gatx txiki bat bere emon ezina ta konpesoren esanera bere etorri ezina ta beste onako bizijo edo gatx zaar inpernuko batzuk ariman sus-traituta daukezala. Ez da errez onakuak osatuten. Ez deutsee onei komuninoe santubak onik egiuten. Komuninoe santubak berez dauka arimako birtute edo ontasunak geitutia ta sendotutia. Baita pekatu txikarrak parkatutia bere.



### III.

Irugarren lekuban komuninoe santubak geure arimiari egiten deusan mesedia da, pekatu arinak parkatutia. Ez dago inor bere pekatu bagarik. Onak eta zuzenak bere jausten dira egunian zazpi bidar. Ta ainbeste ez dirianak jausiko dira geijagotan. Pekatu andijetan ta illgarrijetan jausi bagarik asko bizi izan dira munduban. Baina pekatu txikarretan ta arinetan jausi ez danik ez dakigu, Jesus ona pekatu ezin eukiana ta Ama Birjina maitia pekatu ez txikirik ta ez andirik egin ez ebana baino besterik. Beste mundura etorri dirian gizon eta emakume guztiak dira pekatarijak ta pekatu askotan sarri jausten dirianak. Baita arimarik garbijenak ta konturik andijenagaz bizi dirianak bere, dino san Leonek. Aragijaren argaltasunak ta bizitzako artu emonak ta eginbiarrak nai ta ez ezarten deutsee arimiari munduko autsa ta loigarrija, dino santubak. *Neceste est de mundano pulvere etiam religiossa corda sor descere.* Sinistu biar dogu, kristinaubak, gauza askotan paltetan dogula; sarri jausten garijala; geure bijotzeko gurarijetan ta gorputzeko sengarrijetan pekatubaren erijo asko daukaguzala; gauza gitxiyan bada bere, sarri goituten gaitubeela; ta egunian egunian arimako zorrak egiten ditugula.

Pekatu arinen zorrak pagetako modu asko dagoz Eleisan, zeubek ondo dakizun legez. Baina, Erromako Katezismuak esaten deuskun legez, aparteko grazija ta berezko indarra dauka komuninoe santubak pekatu arinak parkatuteko. Jesusek nai dituban legez arimak garbi ta askatu, bera bakarrik maite izan dagijen, bijotz garbatubak ta humildiak artuten dabenian komunioian Jesus, parkatuten deusaz pekatu arinen zorrak kristinaubari. Edo guztiak edo zati batzuk. Pekatuben damubagaz ta Jesusen amodijuagaz guztiz pretauta badau komulgetara, parkatuko deusaz guztiak. Ainbeste damu ta amodijo ez badarua, zati batzuk. Baina grazijan komulgetan danari, beti parkatuten deusaz komuninoe santubak pekatu txikarrak edo geijago edo gitxiago edo guztiak. Grazija bi egiten deuskuz komunioiak, dino san Bernardok: Bata da, pekatuak ta gauza gatxerako daukagun gogo gaistua ta geugaz sortuba gitxitutia ta argaldutia. Ta bestia da, pekatuak eraak geuri kendutia ta pekatu arinen zorra parkatutia. Komuninoe santubak kenduten deusaz indarrak geure pekatuak goguari. Gitxituten deuskuz pekatuak eraak ta okasinoiak. Emoten deusku indarra ta laguntasuna, tentazinoiak goituteko. Ta parkatuten deuskuz pekatu arinak. Grazija oneek guztiok osoz artuteko pres-

tau biar dau kristinaubak ainbat pekatubaren damurik andijenagaz, Jesusen amodijo santubagaz ta arimia obatuteko gurari bizijagaz. Orduban izango da komuninoe santuba beste grazija guztiakin zeruko ditxiaren doia.

### IV.

Sakramentu guztiak dira geu zerura juateko doiak. Baita Jaungoikuak geu gaiti egin dituban ontasun utsezko mirarijak bere. Baina guztien artian aparteko eria ta eskubidia emoten deusku zerurako Jesusek, komuninoeko sakramentuban artuten dogunian. Au gaiti esan eban Jesusek berak: *Neu nas zeruti jatsi nintzan ogi bizija. Ogi au jaten dabenak, eukiko dau betiko bizitzia ta nik emongo dodan ogija da neure aragija... Zuben gurasuak jan ebeen mendi utsian mana ta ill ziran... Nik emoten dodan ogija jaten dabena, ez da illo, biziko da... Ezagun da bada, kristinaubak, Jesukristo geure Jaunak berba onetan ez illtiagaz ta betiko bizitziagaz esan gura deuskula zeruko erreinuba. Bada, Jesusen aragija jaten dabenak badauka beragaz betiko A, komuninoe santuba izango da geuk zeruba irabazteko daukagun aparteko doia.*

Geijago esan legi oraindino bijotz garbijagaz ta prestaera onagaz Jesus komunioian artuten dabena gaiti. Esan legi, beragaz daukala zeruko erreinuba. Errege daguan lekuban dago erregiaren palazijua. Errege daguan lekuban dago Erregiaren erreinuba. Bada, komulgetan danak, bere bijotzian, bere ariman, bere bularrian dauka zeruko Errege bizija. Zer palta dau, bada, zeruko erreinuba eukiteko? Komulgetan danak beria dau zeruko Erregia, Jesukristo Jaungoiko ta gizon egijazkua, bera bada benetan ta amodijoz zeruko Erregiarena, Jesukristo Jaungoiko ta gizon egijazkuarena. Zer biar dau, bada, geijago komuninoe santuba artuten dabenak, zeruko Erregia ta erreinuba beragaz eukiteko? *Esango dozu, dino san Juan Krisostomok, ikusi gura zendukiara Jesusen beraren etxuria, bere jantzija ta bere soina. Ara bada, dino santubak, bera ikusten dozu, berari ikutu egiten deusazu ta bera jaten dozu. Ecce eum vides, ipsum tangis, ipsum manducas. Zuk bere jantzija ikusi gura zenduke; baina berak ez deus bakarrik emoten ikustia, ez bada baita bera jaatia, artutia ta zeure barruban eukitia bere. Manducare, et tangere, et intra te sumere.* Komuninoe santuban emoten deusku Jesusek bere aragija, odola ta Jaungoikotasuna, daukan guztia. Ta eskintzen deusku beragaz betiko zeruko bizitzia. Au da zerurako doe nausija.



Ez, bada, aztu, neure entzula onak, ondo artutako komuninoiak geure arimara dakazan mesede andijakin. Bat egiten gaitu Jesukristo geure Jaunagaz; sendotu ta geituten ditu geure arimako ontasunak edo birtutiak; parkatuten deuskuz pekatu arinak; ta emoten deusku zerurako aparteko grazija ta doia. Biztu daigun, bada, geure sinistutia. Kendu daigun nagitasuna. Prestau gaitzezan ainbat bijotzik garbijenagaz, Jesus geure ariman artuteko. Zer egingo zenduke errege batek zeure etxera etorri gura baleu zeugaz egotera ta bere ondasunak zeuri ekartera? Zelan garbituko zenduke egon lekuba, lo lekuba, jar lekuba ta maija berarentzat? Zelan berba egingo zeunskijo, zeure etxian sartu dedinian? Ze karino erakutsiko zeunskijo? Ah! zeubek pensau. Zer dira, bada, munduko errege guztiak ta ondasun guztiak Jesus Erregiaren ta aren ondasunen aldian? Ezer bere ez. Utsak guztiak. Oh, Jesus maitia! Zeuk prestau biar dituzu gure arimak, zeu komuninoe santuban geuk artuteko. Emon egiguzu, Jesus geure bijotzen jaube ona, geure pekatuben damu egjazkua, zeure amodijo ixuia ta zeu sarri artuteko gose santuba ta komuninoeko sakramentubagaz zeruko betiko bizitzia. Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## V. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan,  
*ze erru andiko pekatuba dan gaiski komulgetia.*

Komuninoe sakramentuba bada, neure entzula onak, txito grazija ugarijak ta mesede andijak geure arimetara dakarzana, ondo prestauta artuten danian, bildurgarrijago, kaltegarrijago ta ezainago da pekatuzko ariman artuten danian. Komuninoe santuba bizitzia da onentzat ta erijotzia deungentzat. Esan ezkerro leengo ikasikizunian ze mesediak dakarguzan komuninoe onak, erakutsi biar jako kristinaubari ze kaltiak dakazan komuninoe txaarrak edo pekatu illgarrikuak. Ez da erraz pekatarijari aitu eragiten, ze ezaina ta lotsa gitxikua dan gaiski komulgetia. Au puska bat aituteko, gogoratu egizu, bada, neugaz: 1. Nor dan Jesukristo geure Jauna. 2. Zer opa deuskun Jesusek komuninoeko sakramentuban. 3. Zer dan pekatu illgarrijagaz daguan arimia. 4. Ze lotsa galdukua dan alan komulgetan dana. Prestau zaitetz guztiok, oi dozun gogo onagaz entzuteko ta dotrina onetati nik opa deutsudan prutuba aterateko.

### I.

Nor da Jesukristo? Jesukristo da Aita Betikuaren Seme bizija, Jaungoiko egjazkua, ontasun utsa, zuzentasun utsa, garbitasun utsa ta edertasun utsa. Jesukristo da Jaungoikuaren Seme gizon egina, aingeruben poza, zeruben argitasuna, santuben alegrija ta Aita Betikuaren atsegin osua. Jesukristo da aingerubak egonlekutzat, apostolubak krijadutzat, birjinak esposatzat ta zero andijak jarlekutzat gitxiegi ditubana. Jesukristo da pekatu bagako odol garbijagaz sortu zana, pekatu bagako sabel garbijan azi zana, amaren osotasuna ausi bagarik jaijo zana ta pekatu bagarik beti bizi izan zana. Jesukristo da zeruben ta luurren egilia, aingeruben ta gizonen jaubia, munduko errege ta jaunen agintarija, guk guztiok entzun biar deusaguna, sinistu biar deusaguna ta txitik egin bagarik obeidu biar deusaguna. Jesukristo da inori bere ezer zor ez deusana, guztiok zor deusaguna, guztion bizitzia nai erijotzia, osasuna nai gatxa, zeruba nai inpernuba bere eskuban daukana. Au da Jesukristo.



## II.

Zer opa deusku, bada, Jesusek? Edo zetarako geratu zan komunino-eko sakramentuban Jesus ogijaren ta ardauren irudijan? Oh, kristinaubak! Ezautuko bagenduz Jesusek deuskuzan opa onak. Ezautuko bagendu zetarako geratu jakun Jesus altara santuban, maitiago izango genduke ta sarrijago artuko genduke. Zer nai deusku, bada, Jesusek komunioian? Nai deusku bera geugaz bat egitia; geure bijotzak beretzat irabaztia; geure goguak luurreko gauzetati zeruko pozeetara jasotia. Bere gorputz ta odol bizijagaz geure arimai janari gozua ta betikua emotia. Nai dau geure arimak beretzat irabaztia. Nai dau bere neurri bagako ondasun ugarijak, zeruko argitasuna, zeruko gozotasuna, zeruko poza, zeruko bakia ta zeruko atsegina, emen euki al daigun terzijuan, geure arimetan imintia. Nai deusku Jesusek komunioe santuban ge[u] santututia ta zelanbait geu Jaungoikotutia. Nai dau geure naijak, geure aitutiak, geure asmuak, geure goguak ta geure gurarijak, guztiak Jesusenak berarenak izatia, Bera guztia geuria izateko. Geu guztiz bagina Beriak, Bera guztiz izango litzaateke geuria. Au gaiti esaten deusku: *Ekazu zeure bijotza ta artu egizu neuria*. Oneek dira Jesusen opa onak. Zer opa euskegun, bada, geijago Jesusek, geu on, zuzen, bigun, garbi, baketsu, maitetsu, santutu ta zerutartutia baino? Ta zer egin eukian onetarako geijago, Bera geure arimen janari komunioian geratutia baino? Ezer bere ez. Gogoratu daigun, bada, orain ia zelakua dan pekatuban daguan arimia, Jesus maitegarrijari ostatuba emoteko.

## III.

Zelakua da baina pekatuban daguan arimia? Ah, kristinaubak! Gomutatuta beste bagarik, ikara egiten dau bijotzak, azkortuten dira buruko uliak ta zanetako odola bere oztuten da. Pekatuban daguan arimia guztia da illuna, ezaina ta itxusija. Arima galduba, arima illa, arima luurtuba ta arima loituba da pekatuban daguana. Demoninuen tokija da, pekatuban daguan arimia. Ez dago leku bat ez munduban ta ez inpernuban ezainagorik ta itxusijagorik, pekatuban daguan espirituba baino. Ez da ezer bere Jaungoikuak gorroto geijago deusanik ta gitxiago ikusi gura dabenik, pekatuban daguan arimia baino. Luziper bada gauza guztietati

deungeena ta ezaineena, pekatuban dagualako da. Inpernuba bada leku atsituba ta larrija, pekatuben lekuba ta tokija dalako da. Kendu al balekijo pekatuba Luziperri, aingeru eder biurtuko litzaateke. Kendu al baleiz pekatubak inpernuti, guztia argituko litzaateke. Sartu al baledi pekatu bat zeruban, ez litzaateke zeru izango.

Pekatuban daguan arimiari Jaungoikuak gorroto deutsa; Jesukristok gorroto deutsa; Ama Birjiniak gorroto deutsa; aingerubak gorroto deutsee; santubak eta santak gorroto deutsee; mundubak gorroto deutsa; ta inpernubak berak bere gorroto deutsa. Pekatuban daguan ariman ez dago ezer bere gogoz begiratu legijonik. Gizonaren izatia, bautismuaren silluba, kristinaubaren izen sikuba ta bizitza bagako sinistute illa; oneek geratuten jakoz bakarrik. Ta eurok bere desondretako ta geijago ezainduteko. Pekatuban daguanak illunduta dauka bere adina. Pekatubaren kargiak azpiratuta, mukertuta, okertuta dauka borondatia edo naillia. Pekatubagaz loituta, atsa darijola dauka bere bijotza. Gorputz ta arima dago luurreko gauzeetan naastauta, lizunduta ta galduta. Leza baten galduta, euliz beteta daguan abere bat begitanduten jat, pekatuban daguan arimia. Oratuten deutsee inpernuko eulijak, zeintzuk dirian demoninuak. Pekatubaren leza loijan sartuta dauke euren bendian, inok bere ondo begiratu ezin deusan terzijuan.

## IV.

Ze lekutan deritxazu bada, kristinaubak, sartuten dabela Jesus pekatuban komulgetan danak? Jesus, Jaungoiko bizija, Jesus santuba, Jesus erru bagia, Jesus garbija arima loijan! Aingeruben Erregia, Ama Birjinaren Semia, Jesusen gorputz ta arima santia ta bedeinkatuba demoninuen tokijan! Gauzarik balijokuena lekurik galdubedian! Gauzarik argijena lekurik illunenian! Gauzarik garbijena lekurik loijenian! Gauzarik oneena ta ederrera lekurik ezainenian! Oh, pekatuban komulgetan dan zori gaistokua! Pekatubagaz batuten dau grazija; illunagaz argija; inpernubagaz zeruba; ta diabrubagaz Jesukristo. Deungaro egin eban Judasek Jesus saldutia. Baina ez eban obeto egin pekatuban komulgetia. Deungaro egin ebeen judegubak Jesus illtia. Baina pozagorik jua zan Jesus kurtzian illtera, pekatuzko arimara doian baino. Judasek Jesus saldubagaz ta judegubak Jesus illagaz jazo zan gizonaren erremedijua; egin zan Aita zerukuaren esana; pagau zan pekatubaren zorra; emon jakon zerubari



glorija ta mundubari argija. Baina gizona nai emakumia pekatuban komulgaubagaz, ez dator on gauzarik ezer bere.

Zegaz egin legijo, bada, kristinaubak injurija andijagua Jesus maitiari, Berak gitxien gura daben lekuban sartutia baino? Nun egongo da gogo gitxiagogaz Jesus, demoninuaren bendian daguan pekatuzko ariman baino? Jesusen Beraren gorrotoko bijotz ta bular loijan baino? Oh, Jesus bijotzekua! Nun sartuten zaitu pekatuban komulgetan danak? Ze egon leku emoten deutsee zeure begi argijai? Zeure arpegi ederrari? Zeure esku santubai? Zeure gorputz bedeinkatubari? Zeure arima grazijazkuari? Zeure bijotz amodijo garbiz ixiota daguanari? Ze leku? Oh! arima loija, bijotz loija, bular loija, demoninuen egon lekuba. Oh, aingeru santubak! Nun dakuszu Jesus, zeuben Egilia ta Erregia? Zelan adorauko dozu Jesus demoninuagaz daguan ariman? Oh, Birjina ederra! Zelan begiratuko deutzazu Jesus zeure erraija garbijetako Seme garbijari, pekatubak loitutako ariman daguanian? Oh, zerubak! Nora eruan dau zeuben argija, zeuben poza, zeuben alegrija ta zeuben bijotzeko maitia gizonen amodijuak? Pekatu mortalian daguan arimara. Lekurik ezainenera, illunenera, loijenera ta atsitubenera. An dago Jesukristo, pekatarijak nai dabelako. An egon biar dau Jesukristok, pekatarijak nai dabelako. An ikusi biar dabee aingerubak eta zerubak Jesus, nai ez dabeela bere, pekatarijak nai dabelako. Kristinaubak pekatuban komulgau nai dabelako.

Zer deritxazu, neure entzula onak, pekatuban komulgetan danari? Zer egin legijo deungaruago Jesusen gorputz ta odol garbijari? Ah, desdixtauba! Ah, desbenturauba! Ah, Judas bigarrena! *Judasen lagunak dira pekatuban komulgetan dirianak*, dino san Dionisiok, *zein gaiti dinuan san Juanek, komuninoiagaz sartu jakola diabruba. Ez leenago ez eukalako, ez bada pekatuban komulgaubagaz leen baino obeto diabrubak oratu entsalako*. Santo Tomas Billanuebakuak esaten deutsa alan komulgetan danari: Gogoratu egizu ze pekatu andija dan, zeure bular loiko sekreta zikinera edo karkabara Jesusen odol santuba botetia. *Quantum flagitium sit in spurcis siman pectoris tui cloacam Sacratum Cristi Sanguinem fundere*. Pekatuban komulgetia da, dino Santubak berak, Kristo illtia ta bere odol santuba saldutia legez. Judegu erruki bagiak gorputzian Jesukristori emon eutseezan penaak, naibagiak ta mingarriak, espirituz ta bere partez barriro emotia. Onan berba egiten dabee, neure entzula onak, Eleisiaren Gurasuak pekatuban komulgetan danaren lotsa galduba ta egitade bildurgarrija gaiti.

Ez da ondo ogi santuba txakurrai emotia, esan euskun Jesukristok berak. Ez egijezu gauza santuba txakurrai emon; ez[da] gauza estimaubak lau oinekuai bota bere. Emen Jesukristok esaten deuskun *gauza santuba ta*

*estimauba* da komuninoe santuba. Zer santubago bera baino? Zer estimaubago bera baino? Ezer bere ez. Alan aitu bere egiten dabee san Agustinek ta san Juan Krisostomok. Ta txakurraren ta lau oinekuaren izenagaz aituten da, pekatuban komulgetan dana. Esan daigun bada, kristinaubak, abere loi oneekin bat egiten ditubala Jesukristo geure Jaunak pekatuban komulgetan dirianak.

Txakurren izenagaz aituten dira: Lelengo: Luxurijotsubak. Bigarrenian: Kodizijotsubak. Irugarrenian: Enbidijotsubak. Txakurak dira alemanija loijak ta luxurijotsubak. Bada, areen irudikuak dira gizon eta emakume loijak. Au gaiti dino san Jeronimok: Txakurra ta emakume loija bat dira. Bada, bijak dagoz prest luxurijarako. *Canis, et meretrix copulantur, quia utrumque proum est ad libidinem*. Kodizijotsubak bere txakurren modukuak dira. Bada txakurra dan legez gosetsuba, kodizijotsuba bere gosetsuba da. Beti dauka kodizijotsubak dirubaren ta eukijaren gosia. Txakurak oi dabilzan legez ate ondorik ate ondo ta baztarrak baztar gosez, jan utsijaren ondorik, alan dabil kodizijotsuba geijagoren gosez, dirubaren usaina sentidu ezkerro, aren ondorik, oker edo zuzen a beretu artian. Au gaiti esan eban Dabid erregiak, gosia padeziduko dabeela txakurak legez ta ingurutuko dabeela errija edo zitudadia. *Famem patientur, ut canes, et circuibunt civitatem*. Enbidijotsubak bere txakurak legez dira. Txakurak oi dabilz, alkarri aginka, saunkaka ta gorrotoz aginak erakusten. Beste ainbeste dira enbidijotsubak. Alkar ikusi ezinda, alkarri deungaro esaka, inoren ona eurentzat gura leukeela, txakurak legez aoko kopaua bere bestiarri kenduko leuskijuela, alkarren gorrotoz bizi dira enbidijotsubak. Enbidijotsubai jazoten jakue apostolubak dinuana: Alkarri aginka badiarduzu ta alkar jaten badozu, kontu, alkar amaituko dozu. *Si mordetis, et comeditis invicem, videte, ne consumemini ab invicem*. Iru okerreriya oneek dirian legez beste okerreriya edo pekatuben sustrai zabalak, luxurijotsubak, kodizijotsubak ta enbidijotsubak gaiti esaten dana, esan legi beste pekatudunak gaiti. Pekatuban dagozan guztiai esan legijue moduren baten san Juan Ebanjelistiagaz: *Foris canes*. Kanpora txakurak komuninoeko mai santuti. Kanpora, pekatuban dagozanak. Ez sartu ain leku loijan Jesus garbija. Ezda iruntsi bere komuninoe txaarragaz, zeubek kondenetako sentenzija.

Au da beste guztien gainera bildurta biar gaitubana. Ta ez da gitxiago, Espiritu Santubak esana baino. Pekatuban komulgetan danak, berak kondenetan dau bere buruba. *Judium sibi manducat*. Judas zan lelengo gaiski komulgau zana. Ta komulgau zaneti laster sartu zan inpernuban. Kristogaz ta apostolubakin komulgau zan. Komuninoeti jagita Kristo sal-



tzera juan zan. Saldu eban. Desesperau eban. Bere buruba urkatu eban. Tripak urten eutseen esegi zan lekuban gorputz loiti luurrera ta arimiak inpernura. Biar oneek guztiok egin zituban Judasek ordu gitxiren barruban. Ze arin darabilzan demoninuak gaiski komulgetan dirianak pekatu-rik pekatu! Ta pekatuban komulgau dirian guztiai au jazo ez arren bertati, ez pijau, kristinaubak. Jazo triste ta negargarri asko irakurten dira gaiski komulgau dirian arimen kastigurako.

San Ziprianok dino, *berak mezia emoten ebalu artu ebalu batek komunioian ez arimiaren janarija, ez bada bera illteko ezpatia. Egin entsa la eztaarrijan epai andi bat, mudi botetan eban odola. Ta bertan illda edo itota geratu zala aoti odola erijola. Mundukuak engainau zitubala, baina Jaungoikuaren kastiguba sentidu ebalu. Au da komunioe pekatuzkuaren sarija. Beste emakume pekatuban komulgau zan bat gaiti, dino Santubak berak, komulgaua bertati demoninua sartu jakola, jansi zala luurrera ta berak bere aginak in miina zaititu ebalu. Bera izan zala bere burubaren berdiguba. Tripetako minak eta aliak emonda, ezin irau izan ebalu. San Juan Krisostomok eta beste askok esaten deuskubee, ze kastigubak egin dituban Jaungoikuak pekatuzko komunioiak gaiti. Batzuk geratu dira endemoniauta. Beste batzuk gaixotuta. Beste batzuk andituta. Ta beste asko komunioe santuba eztaarrijan beera irago ezinda. Onako bildurgarrijan artian bat esaten da, edozeini ikara eragin biar deusana: *Sarri pekatuban komulgau zan gizon bati illten eguanian agertu jakon demoninua, pormak edo ostijak patena baten zitubala. Ta esan entsan: Sarri pekatuban komulgau zarialak, gaur neure eskuti artu biar dozu komunioia. Ze poza eukiko eban gaisto tristiak alako lagunagaz, ondo illteko?**

Sinistu bada, neure entzula onak, san Paulo apostolubak dinuana. Asko dagozala arimak argalduta ta gaisotuta pekatuzko komunioiak gaiti. *Ideo inter vos multi imbecilles, et infirmi.* Ta asko illten diriala betiko. *Et dormiunt multi.* Komunioe pekatuzkuaren arimako gatxa, gaixua ta erijotzia ez da gorputzian ezaututen. Espirituko gatxa da, espirituko erijotzia da. Ez azartu bada, kristinaubak, inos pekatuban komulgetara. Bildurtu ta ikaratu pekatu ezain andi onegaz. Ez txakurrai emon zeruko ogi santuba. Ez arima loijan sartu Jesus garbijaren gorputz bedeinkatuba. Ez lotsatu zerubak eta luurrak, euren Errege Jauna demoninuen tokijan iminajagaz. Oh, Jesus! Zeure amodijo santuba gaiti, ez dagizula euki inos pekatuzko arimatan sartuterik. Garbitu egizuz, Jauna, arima guztiak ta batez bere niria ta neure entzulenak, zeu komunioe santuban artutera orduko zeugaz artu daigun geure betiko bizitzia, lelengo emen munduban ta gero zeruban. Amen.

## VI. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*sazerdotiaren mezatako egikizunak zer esan gura dabeen.*

Jaungoikuaren irugarren aginduban esan zan meza santuba zer dan ta zelan entzun biar dan. An esan zanaren gainera deritxat, neure kristinaubak, ondo izango dala komunioe sakramentubaren ikasikizunen ondorik zeubei erakustia andi andika baten baino ez bada bere *mezako sazerdotiaren egikizunak zer esan gura dabeen.* Oneek ondo jakinak lagunduko deuta kristinaubari, meza santuba ondo entzuten. Astian bein ta askotan geijagotan mezia entzun biar dogu, al izan ezker. Ta ezpabere pekatu illgarrija egiten dogu. Ez da asko mezia entzuteko edozein modutan eleisan egotia, mezia esaten dan artian. Egon biar da mezatan bijotza ta gogua Jaungoikuaren gauzetara jasota aleginaz. Edo orazinoiak bijotzeti esanaz; edo Jaungoikua alabetako ta arimak onduteko egijak pensaubaz. Guztirako balijoko deutsee kristinaubari meza santuko egikizunak. Bada, Erromako Katezismuak dinuan legez, sazerdotiaren mezatako egite bat bere ez da utsian edo alperrik. Guztiak dira geuri gauza oneen bat aitue do gomutau eragiteko. Prestau zaitz bada, neure entzula onak, arimako zurtasun onagaz sazerdotiaren meza santuko egikizunak entzuteko. Ta obetuago aitue dagizun ta goguan euki dagizun, mezia esateko biar dirian jantziti asita, iminiko deusut ikasizun au itaune ta erantzutetan.

Zer esan gura dabee meza esaliaren soineko jantzizak? Lelengo iru- neti gerrira iminten daben zapizak edo *amitubak* esan gura dau, Jesus maitiari, preso artu ebenen gabian, begijak tapetako ta burla egiteko imini eutseezan trapubak. *Albiak* esan gura dau, Erodesen etxian Jesus maitiari zorotzat imini eutseen jantzi zurija. Gerrija lotuteko *zingulubak*, eskuturreti beera daukan *manipulubak* ta samati beera kurutze daukan *estoliak* esan gura dabee, Jesus maitiari samati, eskubetati ta gerriti imini eutseezan sokak eta katiak edo lotugarriak. *Kasuliak* esan gura dau, azotauta gero Jesus maitiari errege paltsotzat imini eutseen jantzi gorri burlazkua. *Koroiak* esan gura dau, Jesus maitiari buru sagraduban josi eutseen arantzazko koroia. Altariak esan gura dau, Jesus maitiari ill zan lekuba, zein zan kurutzia.

Onan jantzita dua sazerdotia altarara mezia esatera. Baina altara aurrian geratuten da lelengo, nun esaten daben, *Aitiaren ta Semiaren ta*





*Espiritu Santubaren izenian* sartuko dala altaraan. An esaten dau makurtuta ni pekatarija, bularra juaz. Onegaz aituten emoten deusku, Jesus maitia zelan egon zan auspaztuta Jesemaniko ortuban, preso artu ebeen aurrian. Ta baita geuk bere bularrak jota, humildauta, damutu biar dogula pekatubakin meziaren asieraan. Altarara igonda mun egiten deutsa altariari, aituteko Jesus maitiak zeruti ekarri euskun *bake* santuba. Liburu edo misalera juanda, irakurten dau *introituba*. Onek esan gura dau, Jesus maitia mundura etorri baino leenago, patriarka santubak erregututen eutseela sarri zerubari bialdu egijala mundura bialduteko eguana, zein zan Jesus geure Salbazzaille maitia. Onen ondorik esaten dau *Kyrie eleison* ta *Christe eleison*; bata sei bidar ta bestia iru bidar. Orduban eskatuten deutsa Jaungoikuari miserikordija. Aitiari iru bidar, Semiari iru bidar ta Espiritu Santubari beste iru bidar. Onen ondorik esaten dau gero *Gloria in Excelsis*.

Zer esan gura dau onek? Poztu ta alegretan gariala guztiok Jesusen mundura etor[r]eriagaz. Onetarako kantetan dau edo esaten dau aingerubak Jesusen jaijotzan kantau ebeen kantia, *Gloria in Excelsis Deo...* Ta gero erregututen dau sazerdotiak, *Oremus* esanda, Eleisan dagozan guztiak gaiti edo parte oneko guztiak gaiti. Ta orazinoeko eskaari guztiak egiten ditu Jesukristo geure Jaunaren merezidubak gaiti, azkenian esanagaz: *Per Dominum nos trum Jesum Cristum...* Ta bertati asten da *Epistolia*. Zer esan gura dau *Epistoliak*? Onek esan gura dau Jesus mundura etorri baino leenagoko Moisen legia ta san Juan Bautistaren penitenzijazko sermoia, zeintzuk prestau zitubeen bidiak Jesusen etor[r]erarako. Ta orduko legia zan legez astuna, geldija ta grazija gitxikua, alan epistolia irakurri edo kantetan dan artian, jentia jarrita egoten da mezatan. Ez alan ebanjelijuan, ez bada zutunik.

Zer esan gura dau *ebanjelijuak*? Ebanjelijuak esan gura dau Jesukristok erakutsi euskun ta emon euskun lege barrija, arina, erraza ta grazijaz betia. Onek amaitu eban lege zaar astuna. Onek egiten gaitu Jaungoikuaren seme ta zeruko etxagun. Jesusen lege bigunak emoten deuskuz sakramentu santubak ta zerura errazto juateko biar dogun guztia prest, geuk nai izan ezkeru. Au gaiti ebanjelijua asten danian egiten dabee kristinaubak kurutzia bekokijan, auan ta bularrian. Onegaz esaten dabee, ez diriala lotsatuten ebanjelijoko dotriniagaz; aurtortuko dabeela beti auagaz ta gordeko dabeela zal bijotzagaz. *Kredua* da pede santubagaz sinistuten dogun guztia ta Jesukristo geure Jaunak erakutsi deuskun guztia autor-tuteko. Onen ondorik meza esaliak ostija patenan iminita eskintzen deutsa Aita zerukuari. Baita ardaua bere kalizan ur tanta bategaz naastautu. Onek esan gura dau, Jesusek bere gorputzaren, odolaren ta bizitzaren

eskinija zelan egin eutsan Aita Betikuari Jesemaniko ortu santuban, preso artu ebeen aurrian. Onan prestetan da sazerdotia meziaren zati nausira elduteko. Baina oraindino palta ditu gauza bi. Ta zeintzuk dira? Bata da altariaren albora alderatuta atzamar puntak garbitutia. Onek esan gura dau, meza santuba esateko guztiz garbi egon biar dabela; pekatu txikarrak bere aleginaz garbitu biar ditubala. Au aitu eragiteko garbituten ditu atzamar puntak bakarrik. Bestia da eleisan dagozanai esatia, erregutu dagijuela Jaungoikuari. Onetarako esaten dau jirauta: *Orate fratres*, guztiak orazi-noia egin dagijen. Ta berak bere egiten dau isilik.

Alan orazinoe eginda gero asten dau berba altubaguagaz *Prepazijua*. Ta esaten deutsee meza entzuten dagozanai, jaso dagijezala bijotzak gora. *Sursum corda*. Ta erantzuten deutsee meza esaliari: Jaungoikuagana jasota daukaguz bijotzak. *Habemus ad Dominum*. Meza esalia ta entzulak onan pretauta, zeruko aingeru ta espiritu on guztiak konbidautu, guztiak dantzubela ta guztien izenian grazijak emoten deusaz Trinitade guztiz Santubari Jesukristo geure Jauna gaiti. *Prepazijua* amaituta ez dau geijago barbarik egiten paternosterrera artian, isilik baino. Onek esan gura dau, Jesusen erijotzia gogoratuta, bijotzeko lotsa andijagaz ta errespeto guztiagaz entzun biar dogula meziaren zati nausi au. Baita Jesusen erijotza penazkuak geure gogora ekarri biar daben penia ta tristezia bere. Isiltasuna pensakizun andijen ta tristezia ezagungarrija da. Meza santuba dan legez, bada, pensakizun andija ta Jesusen erijotzia dan legez tristezagarri andija, meza santubaren zati nausija isilik esaten da, kristinaubak bijotz guztiagaz isilik adorau dagijen Jesus maitia bere penazko erijotzia gaiti.

*Prepazijua* esanda, andi aurrera meza esaliak ostijaren ta kalizien gainian egiten dituban kurutzia, zeinatutiak, bularra jotiak, buruba ta espaldak makurtutiak ta beti bee begijak gorutz jasotiak, guztiak dira Jesusen penazko iraguak ta erijotza tristia guri aitu eragiteko. Modu askotara ta asko ganik padezidu eban legez Jesu maitiak bere pasinoe santuban, alan barristetan dira mezaan zelanbait Jesusen jaustiak, kolpiak, kurutzia lepuan eruatia, gorputzian egin eutseezan zaurijak ta Aita zerukuari bijotza jasota, pena guztiakin egin eutsazan eskinijak geure pekatuben zorra pagetak. Ah, kristinaubak! Goguan iragoko bagendu puska bat zeinbat gauza on ta andi daukazan meza santubak geure arimetarako, ez litzateke guretzat meza luzerik izango. Sentidu bagarik iragoko litzakegu mezarik luzeena, Jesusen penagarri bat, nai bat adoretan asiko bagina bijotzeta meza bakotxian. Ez, bada, alperrik galdu, neure entzula onak,



mezatako ainbeste arimiaren ondasun. Txito asko kostata irabazi eusku-  
zan Jesus maitiak. Ta guztiak itxi euskuzan geuretzat meza santuban.

Konsagrauta bertati jasoten ditu gora sazerdotiak ostija ta kalizia. Au egiten dau, Jesusen gorputz ta odol konsagrauba kristinaubai erakusteko, guztiak adorau dagijen Jesus. Baita aituten emoteko bere zelan Jesus maitiak kurutzian esegita guztien bistan ill gura izan eban odola erijola, pekatarijak salbetia gaiti. Meza esaliak egiten ditu gero bost kurutze ostija ta kaliza konsagraubaren gainian. Oneek esan gura dabee, Jesus maitiak bere gorputz santuban irago zituban bost *llagaak* edo zauri jak. Ta eurak eskintzen deusaguz Aita zerukuari, geure kontra daukan asarria bigunduteko. Laster egiten ditu ostera beste iru kurutze ostijaren ta kaliziaren gainian. Oneek esan gura dabee, meza santubaren prutubak balijo deutseela parte oneko guztiak. Zeruban dagozanai, glori jarako; purgatorijuan dagozanai, euren penak arinduteko; ta munduban dagozan kristinaubai, euren arimako ta bizitzako ona Jaungoikuaganik jadisteko. Alan esaten da mezia illak eta bizijak gaiti. Zerubari emoten deuta glori ja, purgatorijuari poza ta Eleisa guztiari laguntasuna.

Sazerdotiak erregututen deuta barriro Jaungoikuari illak gaiti. Onetarako egiten dau eskubak batuta orazinoia, konsagretara aurrian bizijak gaiti egin eban legez. Bularra jota erregututen deuta gero gu pekatarijak gaiti parkazinoia, guri gogoratu eragiteko lapur onak kurutzian Jesus maitiari egin eutsan eskari ja. Ak jadjitxi eban legez pekatubaren santuko Jesusen irabazijak gaiti. Emeti aurrera sazerdotiak egiten dituban kurutzia, guztiak aituten emoten deuskubez Jesusek kurutze santan iru orduban irago zituban pena modubak. Ostija santubagaz egiten ditu gero kurutzia kaliziaren gainian ta aurrian. Ta isten dau ostija korporalen gainian. Ta estalduten dau kaliziaren aua. Oneek aituten emoten deuskubee, Jesusen gorputz illa kurutzian egon zana, bere albo santuti odola ta ura emon ebana, ta kurutzeti eratsita gorputz santuba sepulturan imini ebeena.

Sazerdotiak esaten dau gero *Aita geuria*. Ta erregututen deuta geure Aita zerukuari, orazinoe agaz Jesusek erakutsi euskuna. Orazinoe au egiten dau meza esaliak guztiak entzun legijen terzijuan. Ta ostera bere isilduten da. Gomutau eragiteko zelan isilik eta triste egon zirian Ama Birjina ta beste Mari jak, Jesus ill zaneti ta biztu artian. Gero emoten deutsee sazerdotiak guztiak Jesusen bakia, esanagaz *Pax Domini sit...* Onek esan gura dau, Jesusen biztueran Ama Birjiniak, apostolubak ta beste Jesusen adiskidiak artu eben poza ta atsegina. Ostija sagraduba iru zati

egitiak esan gura ditu meza santuban parte daukeen leen izentau dirian iru estadubak, zerukuak, purgatorijokuak ta munduban dagozan Eleisa Ama santiaren semiak. Iru zati areetati bat sartuten dau meza esaliak kalizan ta bat egiten da kalizako odol santubagaz. Onek esan gura dau, Jesus illen arteti biztu zanian, bere gorputza, odola ta arimia bat egin ziriala ostera bere betiko.

*Agnus Dei...* esaten da gero mezaan. Onegaz gogoratuten dogu, Jesus maitiak, Bildots mansuak bere erijotziagaz geure pekatubak kendu zitubana, ta biztuta, Aita zerukuagana igonda, bere erijotzako zauri nausijak gorputzian agirijan daukazala, Jaungoikuagaz pekatariaren arteko bakia jadisten dabena. Komulgetara orduko emoten dau gero meza esaliak *paça* edo bakia. Onek esan gura dau, meza santuban parte daukeenak bake onagaz ta karidadiagaz bat eginda euki biar ditubeela bijotzak. Gorputzaren zatijak alkar zaintu ta alkarri lagunduten deutseen legez beti bat eginik alkarregaz izateko, alan Jesusek eta kristinau guztiak alkar zaintu ta jaso biar dabee, alkar maite izanagaz ta alkarri lagundubagaz. Au da Jesusek zeruti ekarri euskun karidade ta bake santuba. Ta au berau da Jesusen izenian mezatan emoten dan *paça* edo bakia. Bake santu onegaz ta karidadiagaz artuten ditu gero sazerdotiak Jesusen gorputz ta odol bizija mezatan. Grazijan dagozan kristinaubak bere orduban komulgau leitezke espirituz edo arimako nai osuagaz. Ta Jesus euren ariman artu balebee legez, grazijak emon zeruko Jaunari. Kristinau askok egiten dabee meza santuban espirituzko komuninoia arimako onera andijagaz.

Komulgauta gero sazerdotiak esaten dituban orazinoiak dira, meza-tako komuninoe santuba gaiti Jaungoikuari grazijak emoteko. Meza entzuten dagozan guztiak orduban eskerrak emon biar deutsez Jaungoikuari meza esaliagaz batera, meziagaz artu dituben mesede ta ditzak gaiti. Azkenian esaten dau sazerdotiak jirauta: *Ite, missa est.* Esan gura dau, amaitu dala mezatako eskini santuba ta juan leitekiala jentia leisati. Ta emoten deutsee bendizinoia Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian.

Esan daneti ezautuko dozu, neure kristinaubak, ze gauza altubak ta andijak daukazan meziak. Aingeruben arrigarri ja bada Jaungoikuaren Seme bizija gizon egitia pekatarijak salbetia gaiti, zer izango da, egunian egunian Jesus maitiak altaran bere gizon-egintzako jazo bedeinkatuba ta maitetsuba barristetia? Inok ondo aitu ezin legijana bada gizonak padezidu ez dagijan, Jaungoikuak padezidutia; gizona bizi dedin, Jaungoikua illtia, zer izango da, Jaungoiko-gizondu-ill-biztubak mezatan egunero ta orduero bere bizitzia ta bizitzako min, ala, naibage ta lotsari guztiak geu gaiti barriro Aita zerukuari eskintzia? Zelan egongo dira aingeru santubak



altaran, mezia esaten dan artian, Jesus adoretan? Oh! euren egotxubak batuta, txito lotsa ta errespeto andijagaz. Ta zelan egon biar dabee mezatan kristinaubak? Ah! ez zan Jesus altaran geratu aingeruben janaritzat, ez bada geure janaritzat. Geijago egin eban Jesus maitiak gizonak gaiti aingerubak gaiti baino. Bada, aingerubak humildade osuagaz adoretan bada-bee Jesus mezaan, zelan adarau biar dabee gizonak? Esango neuke nik, geure alegin guztia ezer bere ez dala, meza santuban Jesus maitiari zor deutzagunerako. Egon biar da mezatan gogua Jaungoikuagana jasota, gorputzeko sentidubak edo zaatarjak batuta, soina moduz jantzita, bijotzagaz Jesusen jazo santubak maitetuten ta adoretan ditubala.

An gogoratu legi Jesusen jaijotza pobria, isila ta otza. Neguko gau illunian abereen artian kortaan jaijo zan Jesus. Ta abere aska bat izan zan bere lelengo kumia. An adarau legi Jesusen bizitza pobria ta neketsuba. Ainbeste urtian ez naikua jan, ez naikua edan, ez naikua lo egin. Beti gorputzak berez eskatuten eutsan baino gitxiago. An, mezia entzuten dan artian, jarraitu legijo Jesus maitiari kristinaubak bijotzeko errukijagaz ta amodijuagaz aparilekuti Jesemaniko ortu tristera; andi Anas ta Kaifasen etxera; andi Pilatosen ta Erodosen aurrera kurutze santan ill zan artian; kurutzeti sepulturara ta illen arteti biztuta zerubetara igon artian. Au egin legi kristinaubak mezatan, gogua artu ezker. Beste guztien artian biarrekua da, mezia ondo entzuteko, isiltasuna. Zaatia ta otsa daguan lekuban ez da bijotza ta gogua ondo batuten, gauza bat penseetan egoteko. Alan san Ambrosiok, ebanjelijua irakurri edo kant[a]u ze[d]ineti-aurrera, eleisako jentiari esaten eutseen, *isilik egoteko; ez tulik, ez beste zaatarik alegina mezatan ez egiteko*.

Sinistu bada, kristinaubak, besterik ez bada bere, sazerdotiaren mezatako egikizunak guztiak diriala Jesukristo geure Jaunaren bizitzako, erijotzako ta biztuta geroko jazo santubak guri gogora ekarteko, adarau ta amau daiguzan; ta Aita zerukuari eskintzeko mezatan, geure pekatuben parkazinoerako ta arimen onerako. Entzun dozu, ezin ginaijola Jaungoikuari eskini andijagorik ta balijotsubagorik meza santuba baino. Eskatu daijogun, bada, Jesus maitiari, mezia ondo entzuteko ta mezatan Jaungoikua adoretako biar dogun gogua ta grazija. Baita, meza ondo entzunak geure arimetara dakazan onerak bere. Onan kobru emongo deutzagu geure jaijetako ta domeketako zeregin nausijari. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## VII. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*Eleisiari kristinaubak zor deutzan erreberenzija ta moduba.*

Erakutsi ezker kristinaubari komuninoeko sakramentubaren gainian sinistu, ikasi ta egin biar dabena, esan biar jako azkenian zer dan eleisia ta zelan egon biar daben eleisan. Eleisiaren izenagaz aitu legi ta aituden da, kristinau sinistute oneko guztiak alkarregaz dauken battasuna. Guztiak dauke buru bat, zein dan Jesukristo zeruban ta Aita Santu Erromakua, Jesusen ordekua luurrin. Guztiak dauke sinistute bat ta zerurako uste bat. Guztiak dauke sakramentu batzuk ta ebanjelijo bat. Onetara aitu ezker, Eleisia zabaldua dago mundu guztian. Ta parte oneko guztiok egiten dogu Eleisa bat. Beste modu baten aituden da Eleisia. Ta da, Jaungoikuak ta Berak zerurako aukeratu dituban guztiak daukeen battasuna. Ta onan aitu ezker, iru egonera edo aldi daukaz Eleisiak. Lelengua da zeruban dagozan guztiena. Areek dauke egonera edo aldi betiko zorijonekua. Oni esaten jako *Eleisa glorijosna*. Bigarrena da purgatorijuan dagozan arimena. Areek dira Jaungoikuaren adiskidiak ta beti zeruban egongo dirianak. Baina purgatorijuan erretan ta zorrak pagetan dagoz. Ta esaten jako purgatorijuari *Eleisa garbilarija*, arimak an garbituten dirialako. Irugarrena da munduban dagozan kristinau egijazkuena. Onek bere Jaungoikuaren semiak dira. Baina bizi dira munduban arerijuen artian, zeruba irabazten. Zeruba (zein dan geure errija) irabazteko peliau biar dabee kristinaubak aragijaren, inpernuko etsajaren ta mundubaren kontra. Ta au gaiti esaten jako Eleisiaren egonera edo aldi oni *Eleisa peliarija*, etsajen kontra espirituzko armiagaz beti burruka diardubana. Baita esaten deutzagu eleisia, sakramentubak artuteko, Jaungoikuaren berbia erakusteko, meza santuba esateko ta Jaungoikuari errege agirijak egiteko errijetan dagozan etxe edo tenplubai bere. Ta onek dira dotrina onetako zuben ikaskizuna emongo dabeenak. Geijago luzatu bagarik esango deutzut, *kristinaubak zor deutzala eleisiari arimako ta gorputzeko modurik humildena ta erreberenzijarik andijena: 1. Jaungoikuaren etsia dalako. 2. Geure arimen osasun lekuba dalako*. Entzun egizu gogo onagaz.



## I.

Dinot, neure entzula onak, geugaz daukaguzan ormazko eleisa onei zor deutsegula guztiok arimako ta gorputzeko lotsarik oneena, humildaderik andijena ta errespetorik altubena, dirialako luurrian daukaguzan Jaungoikuaren etxiak.

Ez pensau au gaiti, Jaungoikua ez daguala leku guztietan edo Jaungoikua batuten dala geure ormazko eleisetan. Leku guztietan dago Jaungoikua. Zerubak eta luurrak bere egon lekutzat gitxiegi ditu. Ta nai dau geure zeruko Jaun andijak denpora guztietan ta leku guztietan guk bere izen santuba jasotia, alabetia ta adoretia. *Oh, neure arimial* esaten eban Dabid errege santubak: *Bedeinkatu egizu zeure Jauna ta Jaungoikua, berak aginduten daben leku guztietan*. Jaungoikuak berak aginduten daben leku guztietan, dino. *In omni loco dominationis ejus*. Etxeetan, soluetan, basuetan, bideetan ta eleisetan, leku guztietan maitetu, jaso ta bedeinkatu biar dogu Jaungoikuaren izena. *Etorri da ya denporia*, esaten eutsan Jesus onak Samariako emakumiari, *ez mendi onetara, ez Jerusalem jaunkizunike izango ez dana, espiritubagaz ta egijagaz Jaungoikua adoretako*. Gaixuak oian daguan lekuban, lotubak karzelan daguan lekuban, erregiak bere tronuban, nekezarijak soluan ta opizialiak bere lanian egin legijuez Jaungoikuari erregubak, emon legijuez ondo esanak ta jaso legijez gogoz euren bijotzak zerurutz. Au edozein lekutan egin legi kristinaubak. Ta Jaungoikuari zor deutzaguna da.

Baina orregaiti, esaten da kristinau errijetan daukaguzan ormazko eleisa konsagrau edo bedeinkatu oneek diriala, munduban Jaungoikua ondretako dagozan etxiak. Erreinu guztia da erregiarena. Baina erreinuban daukaz erregiak aparteko egon lekubak edo palaziuak. Areetan entzuten ditu erregiak jentiaeren eskarijak. Andi zabalduen ditu bere mesediak. Ta an gordetan jako errege jaunari lotsarik oneena, entzuterik isileena ta errespetorik humildeena. Moduren baten beste ainbeste esaten da bada, neure entzula onak, geure eleisak gaiti. Mundu guztia da Jaungoikuarena. Baina Jaungoikuaren munduko aparteko egon lekuba eleisia da. Eleisan dago Jesukristo Jaungoiko ta gizon egijazkua altarako sakramentu santuban. Eleisia da Sinaiko mendi egijazkua. Ara jasten da Jaungoikua bere anditasun ta glorijagaz. An erakusten ditu bere naijak. An entzuten ditu gogoz gure eskari humildiak. An artuten ditu pozik, guk emoten deutzaguzan inzensubak ta bijotzetako maitetasuna. Andi zabal-

duen ditu bere ondasun ta grazija ugarijak geure etxeetara ta arimeetara. Eleisan dauka Jaungoikuak bere tronu edo jarleku santuba, aingeru ederrak ta apaindubak ingurututen dabeela.

Patriarka santubak jasoten zituben altarak, Jaungoikuak mesede eza-gunak egiten eutseezan lekubetan. Abraani aparteko lekuba erakutsi eutsan Jaungoikuak, Isaak bere seme errubagia sakripiketako. Jakob patriarka santubak, aingerubak zerura igoten ta zeruti jasten ikusi zituban lekuban jaso eban arrija ezagungarritzat. Ezarri eutsan arrijari orijua. Ta itxi eban moduren baten leku santu a Jaungoiko etxetzat konsagrauta. Ta esan eban leku a gaiti: *Bene benetan Jaungoikua dago emen. Ta nik ez nekijan. Ez da au beste gau zarik, Jaungoikuaren etxia ta zeruko atia baino*. Ez eutsan Jaungoikuak itxi Moisi Horebko mendijan, Bera agertu jakon lekura jauten, ezda eguan lekuban egoten bere, oinetakuak erantzi bagarik. *Ortoztu zaitez, Moises*, esan eutsan Jaungoikuak, *bada zu zagozan lekuba luur santuba da*. Karmengo mendi santura eruan zituban Eliasek Isrraelgo erregia ta isrraeltarrak, Jaungoiko egijazkuari sakripiketako, Jerusalemgo eleisia loituta, Jaungoikuari ukatuta eguanian. Isrraeltarrak Jerusalemgo eleisia euki ebeen ainbeste urtian euren Jaungoiko-etxetzat. Baina areek guztiak ez zirian beste gauzarik, ez bada geure eleisa egijazko oneen irudijak. Bada, areek bazirian leku santubak, leku konsagraubak ta luurreko Jaungoikuaren etxiak, zeinbat errazoe geijagogaz dira geure eleisiak Jaungoikuaren etxiak? Ta leku areetan, geure eleisen keizia baino ez ziriaretan, patriarka santubak ain errespeto ta erreberenzija andijagaz sartuten bazirian ta egoten bazirian, bata belaunbiko, bestia ortoztuta, bestia bijotza ta begijak zeruruz jasota ta guztiak arimiako ta gorputzeko modurik jasuenagaz ta humildeenagaz, zelan sartu biar dau kristinaubak eleisa egijazkuan? Ta zelan egon biar dau Jesukristo Jaungoiko ta gizon egijazkua- ren egon lekuban? Zelan, zeruko ta luurreko agintari nausijaren aurrian? Zeubek pensau, neure kristinaubak, ia errazoa dan edo ez eleisa santan, Jaungoiko andijaren aurrian, aingeru santuben aurrian kristinaubak errespeto ta humildaderik andijenagaz egotia. Ta Jaungoiko bizijaren egon lekuba edo etxia dalako zor badeutsagu eleisiari lotsa on ta errespeto osua, ez deutzagu gitxiago zor geure arimen osasun lekuba dalako. Ikusi daigun zer gaiti.



## II.

Bai, kristinaubak. Ez aaztu nundi jatorkuzan geure arimako ditxa ta grazijak. Eleisan batiatu gindubezan. Eleisan, inpernuko etsaijaren esku-betati aterata, Jaungoikuak artu ginduzan bere semetzat. Eleisan entzuten dogu ta ikasten dogu Jaungoikuaren berba santuba. Eleisan artuten ditugu sakramentu santubak, geure arimen bizigarriak. Eleisara guaz geure arimak osatutera, pekatubaren loijak garbitutera ta pekatuben parkazinoia Jaungoikuaren beraren aoti entzutera. Eleisan daukagu gau ta egun beti prest arimen janarija, zeruti jatsitako ogi bizija, Jesus maitiaren gorputz ta odol bizija. Eleisan altara gainian barristetan dau Jesus maitiak egunian ta egun bakotxian sarritan ta leku askotan Kalbarijoko kurutze santan artu eban erijotzia geure arimen erremedijorako. Gatx bat jatorkunian, naibage bat sentiduten dogunian, zerbait jaditxi gura dogunian, nora guaz Jaungoikuari erregututera? Eleisara. Buruko min bat dogunian, alemanija bat palta dogunian edo gaixotuten jakunian, auzi bat irabazteko ustia edo galduteko bildurra daukagunian, eurija edo egunaldi ona gura dogunian, eleisara juaten gara, Jaungoikuari mesede a erregututera. Arimarako ta gorputzerako edo munduban bizi izateko biar ditugun grazija ta meseden billa eleisara juaten gara. Zegaiti? Eleisia dalako Jaungoikuaren etxia, Jaungoikuari erregubak egiteko ta zeruko mesediak geure etxeetara erasteleku.

Alan esan eutsan Jaungoikuak berak Salomoni, Jerusalemgo eleisia egin ebanian: *Eleisa onetan neurri erregututen deustanaren eskarijak entzuteko, zabalik eukiko ditut begijak ta zur belaarriak*. Salomonek eleisa barrija egin ebanian, jente guztia araxe batuta, asi zan Eleisan bere espiritu sinistute ta debozinoerik andijenagaz jente guztiaren aurrian Jaungoikuari esaten ta erregututen: Zerubak eta luurrak kabidu ezin bazaitube, Jauna, zeinbat gitxiago kabiduko zaitu nik egin dodan etxe onek? Ez, Jauna. Ez da zeu kabituteko eleisa au, ezbada zeuk leku onetan ene erregubak ta Israelen eskarijak entzun dagizuzan. Eleisa onetan erregututen deustunari entzun, Jauna, zeure zeruko tronuti ta lagundu bere premia orduban... Norbaitek pekatu egiten badau zeure kontra ta etorten bada eleisa onetara zeuri parkazinoia eskatutera, zeuk entzungo deustazu zeruti, Jauna, ta parkatuko deustazuz pekatubak... Bake txarrik edo gerrarik inok iminten badeusta nire errijetako jentiar... Zerubak euririk egin gura ezda, liortiak joten baditu... Arrak laboriak galduten badeutseez... Gose urtiak etorten baja-

kuez... Gaixua edo gatxa euren etxetan sartuten bajakue... Ta eleisa onetara etorrita, pekatuben damubagaz ta bijotzeko uste onagaz zeuri eskatuten badeustube laguntasuna ta grazija arimako edo gorputzeko premia orduban, zeuk entzungo deustezu, Jauna, zeruko jarleku altu euren erreguba ta eskarija.

Onan erregutu eutsan Salomonek Jaungoikuari, Jerusalemgo eleisia egin ebanian. Ta Espiritu Santubak eskribiduta etxi euskun bere liburu santubetan, zelan dan eleisa, zeruko grazijak ta ondasunak geure arimetara ta etxera ekarteko lekuba. Zer zor ete deusta, bada, kristinaubak Eleisa santiari? Zelan egon biar ete dabee kristinaubak eleisan? Egon biar dogu bada, neure entzula onak, eleisan geure arimako ta gorputzeko modurik andijenagaz. Ez bakarrik meza santuba entzuten dogun artian. Bada, mezia entzun arteko egikizuna ta pensakizuna esan zan irugarren Jaungoikuaren aginduban. Nosnai ta ele isan gagozan guztian zor deustagu Jaungoikuaren etxe santubari: *Lelengo*: Gorputzeko jasua, garbitasuna ta moduba. Gorputzeko jasua dauka, bere jantzija ainbat onduen iminita soinian daroianak. Garbitasuna dauka, jantzija pobria izan arren, garbija daroianak ta arpegija ondo garbituta daukanak. Ez diruri ondo goisian eleisan aste guztian soinian erabili daben jantzijagaz, jantzi maskalagaz ta lisiba biarrekuagaz zeruko Errege andijaren ta aingeru santuben aurrian, ta arrastegijan pasian ta lagun artian olgetan jantzi zuri ederragaz ta soineko galantagaz. Au Jaungoikuari bere etxian burla egitia dala esan legi. Ta zeinbat gizon ta emakume onetariko? Ah, lastimia! Ze lotsia Jaungoikuari! Gorputzeko moduba dauka eleisan, soineko jantzija bako-txa bere lekuban iminita, ez lepoti esegita gizonezko askok iminten dituben legez, ezbada besuetan sartuta ta buruba agertuta gizonezkuak. Ez besuak biloxik, emakume askok legez, ezbada besuak eta gorputz guztia estalduta, arpegijaz ta eskubez bestia emakumiak; onan gorputzak jantzi-ta gero, egon biar dabee kristinaubak eleisan, edo belaunbiko, edo zutunik, edo jarrita, ordubak ta osasunak eskatuten daben legez. Baina alegin guztiagaz begijak batuta. Ez eleisako jentiar begira, nor, nun, zelan dagan ikusteko, ezbada, edo luurrera begira, edo altararako sakramentu santura, edo pensamentu on bat emongo deustan gauzai begira, gogua Jaungoikuagana jasoten lagundu dagijuen begijak. Baita euki biar da miina bere isilik eleisan edo errezetan, zer esaten daben goguan iraguaz. Beste kontubak ta sailak kontetan eleisan egotia, Jaungoiko andijari bere etxian lotsia galdutia da.

Ta zelan euki biar ditu kristinaubak eleisan bere naijak, bere gogua ta pensamentubak? Ah, neure kristinaubak! Gorputzeko modu ona bia-



rrekua bada Jaungoikuaren etxe santuban egoteko, oraindino biarragokua da arimakua. Eleisan dagozanen bijotzai begira dago Jesus altarako sakramentu santuti. Ez ditu bildurtuten kristinaubak orain geure eleisetan trumoe, oinaztu ta erraio ikaragarrijakin, denpora baten Sinaiko mendijan isrraeltarrak legez. Baina ikusten ditu argiro geure bijotzetako najak eta gurarijak. Ez ditu ateraten orain eleisati kanpora Jesusek arpegi asarriagaz ta azote gogorragaz eleisan lotsa gitxigaz kontubak ta tratubak iragoten ditubeenak, denpora baten Jerusalemgo eleisati atera zituban legez. Baina ez deritxue obeto Jesusek geure eleisetan euren gogua ta pensamentubak munduko tratubetan ta sailetan daukezanai, Jerusalemgo eleisia desondretan ebeenai baino. Geu gaixuak gara ta Jesus geure arimako gaxen osalarija. Eskatu biar deuntsagu, bada, eleisan geure arimen osasuna. Geu pobriak gara ta Jesus geure Aita aberatsa. Eskatu biar deuntsagu, bada, eleisan salbetako biar ditugun grazijak ta ondasunak. Geu ez jakinak ta itsubak gara ta Jesus geure arimen argija ta erakuslia. Eskatu biar deuntsagu, bada, bere nai santubak ezaututeko argija ta erakutsija. Geure adina, geure naillia, geure gomutia, geure bijotza ta arimia guztia jaso biar dogu eleisa santuban Jaungoikuagana, Jaungoikua adoretara, alabetara ta maitetutera.

*Leku ikaragarrija da eleisia, dino san Bernardok. Eleisan daukaguz Jaungoiko bizija, aingerubak, sakramentubak, Espiritu Santubaren doiak, martirijen irabazijak, santuben ondo eginak, geure gurasuen orazinoiak ta beste geu santu egiteko asko dirian gauzak, dino san Juan Krisostomok. Zer egiten dozu, bada, eleisan, kristinauba? dino Santubak berak. *¿Quid facis homo?* Zetan iragoten jatzu eleisan zagozan denporia? Ze debozinogaz errezetan dozu eleisan? Ze gogogaz eskatuten deuntsazu Jaungoikuari zeure pekatuben parkazinoia? Ze espiritugaz entzuten dozu mezia, besperak ta sermoia? Zer egiten dozu eleisan? *¿Quid facis homo?**

Ah! askorentzat eleisia ta plazia bardinak dira. Bada, eleisan dagoz berbetan, barreka ta baztar guztietara begira, plazaan legez. Askorentzat eleisia kartzela bat da. Bada, nora ezian ta derrigorrian legez duaz meza bat entzutera. Zer da besterik, mezia altarara artian, eleisan ez sartu gura izatia? Mezia esan orduko arin aringa, txakurrak legez, eleisati urtetia? Mezia puska bat luziago bada, ernegetia? Zer da besterik, errazto al dagijela, sermoetara, besperetara, errosarijora ta beste eleisako egikizun santubetara ez juatia? Zer da besterik, Jaungoikuaren berbia pulpitoti esaten dan artian eleisa ataira urtenda berbetan egotia? Neure entzula onak! Beste lotsagaz, gogogaz ta modugaz egoten dira jentilak euren eleisa paltsuetan, guzurrezko Jaungoikuak adoretan, kristinau asko geure eleisetan Jaungoiko santubaren aurrian egoten dirian baino.

Batu bada, kristinaubak, zeuben bijotzetako eguak eleisa santan. Gogoratu nor zarian ta noren aurrian zagozan. Auspaztu bijotzagaz luurreragino Jesusen altara aurrian. Eskatu humildadiagaz mesediak Jaun zerukuari. Lelengo arimakuak ta gero, ondo bada, mundurakuak. Artu bitartekotzat eleisan Ama Birjina guztiz santia, aingerubak eta norberaren gogoko santubak. Orduban duda bagarik Jaungoikuak entzungo ditu zeruban gure erregubak ta emongo deusku bere grazija. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## EXTREMA-UNZINOEKO SAKRAMENTUBA

### I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zegaiti Jaungoikueak balduten deuskuetan gorputzeko gatxak.*
2. *Zelan irago biar ditugun.*

Bostgarren Eleisa Ama santiaren sakramentuba da. Ill ordurako gaixuai emoten jakuen *orijo-igortzizkua*. Oni esaten jako *extrema-unzinoia*. Azkeneko orduban orijuagaz igortzita emoten jakolako gaixuari. Bautismuan igortzi gindubezan krismagaz buruban ta orijuagaz bularrarian ta espaldetan. Konfirmazioan igortzi gindubezan orijuagaz bekokijan. Ta extrema-unzinoian igortzen da begijetan, belarrijetan, suurrian, auan edo espanetan, eskubetan ta oinetan. Areetan, kristinau egijazko baten indarra ta sendotasuna emoteko. Ta emen, gorputzaren sentidubakin egin dituban pekatu guztiak parkatuteko. Gaixuen edo illteko arriskuban dagozanen sakramentuba dan legez au, esaten deusku Erromako Katezismuak, sakramentu onegaz dabillega erijotziaren gomutia. Ta au erakusten jakuenian kristinaubai, gogoratu biar jakuela erijotzia. Berau gaiti dotrina au izango da gorputzeko gatxen gainian, zeintzubei darraikuen erijotzia. Ta urrengua, sakramentubaren beraren gainian. Esango deusku dotrina onetan: 1. *Zegaiti Jaungoikueak balduten deuskuetan gorputzeko gatxak.* 2. *Zelan irago biar ditugun.* Entzun egizu, kristinaubak, ainbat gogorrik oneenagaz. Bada, gitxiago edo geijago, leenago edo geruago guztioi jagokun ikaskizuna da.

#### I.

Begijekin dakusku ta ukatu ezin ginai, neure entzula onak, geure gorputzak naibagatuteko, argalduteko, minduteko ta illteko, milla gatx modu dagozana. Osalarriak eurak bere kontau ezin ditubee, zeinbat modutara gaixotu oi dirian geure gorputzak. Ta ez gitxitan laster ill bere, zein gatzia, zein edade nausikua, zein zarra, zein jaijo barrija. Egijia da, gatxaren izenagaz aitu ten dira, ez bakarrik gorputzaren gaixuak, ez bada baita gorputzian edo ariman iragoten ditugun naibagiak eta mingarriak bere. Guztiak dira gitxiago edo geijago gorputza nekatuten dabeenak ta illteko prestetan dabeenak. Guztiak dira geure mundu onetako amaija edo erijo-



tzia gogoratuten deuskubenak. Nai alborengo bategaz ill, nai atsekaba bategaz gaixotuta ill, guztia da illtia. Nai sekeriagaz uatuta ill, nai arerijo baten gorrotozko kutziladiak ill, guztia da illtia.

Baita sinistu biar dogu, munduban iragoten ditugun gatz oneek, Jaungoikuaren esku santubak bialduten deuskuzanak diriala. Geuk egin-dako pekatubetan ez dauka Jaungoikuak parterik. Ta euki bere ezin legi. Baina beste geure burubaren gainera jatorkuzan arimako edo gorputzeko atsegina eta naibaga, pozgarri eta mingarri, bizigarri eta illgarri guztiak, Jaungoikuaren esku santubak eta jakitunak bialduten deuskuzanak dira. Alan esaten eban Salomonek: Oh, Aita zerukua, zeuk gauza guztiak kobernetan dituzu zeure buru jakitunagaz. *Tu autem, Pater, omnia tua providentia gubernas.* San Agustinek dino onen gainian: *Jaungoikuaren naija da gorputzeko ta espirituko jira guztien leleno ta azkeneko eragilla nausija. Ez da, bada, ezer bere jazoten, ez egiten inun, agiri dan edo sentidu legijan gauzarik, zeruko Agintari nausijak agindu bagarik edo egiten itxi bagarik.* Sinistu biar dogu, bada, geure arimeta edo gorputzetara jatorkuzan gatzak guztiak diriala Jaungoikuak bialduten deus[ku]zanak.

Ta zetarako bialduten deuskuz Jaungoikuak gatzak eta naibagak? Gauza askotarako. Ta guztiak geure onerako, geuk gura izan ezker. *Lelengo:* Bialduten deuskuz Jaungoikuak gatzak, *geure al gitzija ezantut eragiteko.* Nos uste dogu ezer ez gariana? Ta ezertako ez gariana? Atzamar puntako min bat, agineko min bat edo buruko min bat kendu ezin dogunian. Orduban ezaututen dogu argiro geurez ezerezak gariala. Ta Jaungoikua bagarik ezer ezin ginajana. *Sine me nihil potestis facere.* Ta ez da gauza ona ta biarrekua, kristinaubak bere alik eza ta gauza on txiki baterako bere eza ezaututia? Jaungoikuari gauza on guztiak eskatuteko ta guztiak gaiti esker gozuak emoteko? Bai.

*Bigarrenian:* Bialduten deuskuz Jaungoikuak gatzak, *geure bijotza ta gogua luurreko gauzetan laarregi imini ez daigun.* Nos ezaututen dogu, entzute andijak, ondasun andijak ta gustozko bizierak asko balijo ez dabeena? Entzute andiko bat, guztia galduta, penaz ta desondraz karzelara daroienian; aberats batek, era txarrak jota, daukana galduten dabenian; nai erara dagan bat, jentiaen gorrotora etorrira, penaz daganian... Orduban ezaututen dogu, munduko andiari, agindute, euki ta olgantzta edo atsegintza guztiak badaezbadakuak diriala. Areek euki arren, ez bageunkaz legez bizi biar dogula. *Nihil habentes, et omnia posidentes.*

*Irugarrenian:* Bialduten deuskuz Jaungoikuak gatzak, *erijotziagaz gomutau gaitetzan.* Nos bizijago gogoratuten jaku erijotzia, bataren agonijakua, bestiaen eleisakuak eragitia, bestiaen seinia egin ezina, bestiaen bularre-

ko gatz, bestiaen torre bateti jaustia, edo tiro bat emotia entzuten dogunian edo ikusten dogunian baino? Nos gitxiago pijauko gara bizitziagaz, gazte, sendo, osasuntsu bat urak edo subak, kalenturiak edo naibagiak ordu bete garreneko illda, luurperatuten dabenian baino? Orduban dakusku, gau ta egun beti daguala gure bizitzia ari baten. Ta usterik gitxien dogunian dei egingo deuskubeela Jaungoikuaren aurrera. *Qua hora non putatis, filius hominis veniet.*

*Laugarrenian:* Bialduten deuskuz Jaungoikuak gatzak, *geure gorputzak domeetako.* Arimiaren arerijo nausija ta bildurgarriena da geure gorputza. Da arerijo mukerra, ezi gaistokua, ostikarija, sutsuba ta zala. Arerijo au domau biar dogu, salbauko bagara. Errukijegi dogu geure gorputza, biar dan moduban ezteko ta eskuratuteko. Au jakinik, bada, geure zeruko Aita onak, gorputz gaisto onek ezi bagiaen paltaz galdu ez gaizan betiko, bialduten deuskuz gatzak, nekegarriak ta mingarriak. Geuk geurez ez badaukagu animorik gorputzak ezteko, edola bere domau ta ezi daiguzan zeruti jatorkuzan gatzakin. Au da Aita zerukuak geu emen kastigetia, gero parkatu daigun. *Arguam eum in virga virorum, et in pligis filiorum Isrrael. Misericordiam autem meam non auferam ab eo.* Onetarako dira ez gi txitan liortiak, gose urtiak, pestiak, gerrak eta beste geuk iragoten ditugun gatz modubak; bialduten deuskuz Aita Jaungoikuak zeruti.

*Bostgarrenian* ta azkenian bialduten deuskuz gatzak, geure pekatuben zorra pagau daigun. Guztiok gara Jaungoikuaren zordunak. Guztiok gara pekatarijak. Ta pekatubaren irabatzija da arimiaren zorra. Zelan, bada, pagau Jaungoikuari geure pekatuben zorrak? Ara zelan. Urreginak edo zidarginak sutan ugar guztiak kenduten deusazan legez urriari ta zidarriari etxura ederra euki dagijen, alan Jaungoikuak gatzagaz, penagarriagaz ta naibagiagaz garbituten ditu bere adiskiden arimak pekatubak ezarrirako ugarretati, dino san Juan Krisostomok. Subak urriari egiten deusana egiten deutsee arimiari, gorputzian Jaungoikuaren izenian iragoten ditugun gatzak. Kenduten deutseez arimiari pekatubak ezarri deusazan ugarrak eta zetakak. Gogoz iragotako gatz areek artuten ditu Jaungoikuak geure pekatuben zorrerako. Garbituten dabee arimia. Ta prestetan dabee zeruban sartuteko. Bada, gauza jakina da, ez dala zeruban sartuko pekatubaren ugarrak ez gitxirik ta ez askorik. Gogora bada, neure entzula onak, Jaungoikuak bialduten deuskuzala gaixuak eta beste gorputzeko gatzak, geure alegin txikija ezaututeko, geure bijotza munduko gauzetati zerurutz jasoteko, erijotziagaz gomutetako, geure gorputz ezi gaistokuak dometako, ta geure pekatuben zorra pagetako. Oh, zeinbat gauza on daukaguzan gatz onetan, geu eurakin balijau ezker Jaungoikuak berak nai daben





moduban! Ta zelan balijau biar dogu? Edo zelan irago biar ditugu geure gainera datozen gaixuak eta beste gatzak? Entzun egizu zelan.

## II.

Gaixorik daguanak lelengo begiratu biar deuta arimako osasunari. Pekatuban bada, topau biar dau laster arimako grazija konpesinoe on baten bitartez. Zorakerija edo negargarrija da pekatubagaz arimia illda daukala, gorputzeko gaixuaren osagarrijen billa ibiltia. Arimiaren osagarrijak, sakramentu santubak, segurubak dira. Gorputzarenak sarritan dira onera bagakuak. Osatu, bada, lelengo arimia. Ta gero gorputza, al bade-di. Oh zeinbat gaixo, medikurik mediku ta botikarik botika dabilzan artian, arimia osatu bagarik illten dirian ta betiko kondenetan dirian!

Bere aleginagaz arimia osatuta oian gaixorik daguanak, irago biar dau gatzak esker oneko goguagaz. Gogoratu biar dau gaixuak, Jaungoikuak zeruti bialdu deusala daukan gatzak, penia edo illgarrija; Jaungoikua dala zeruko Aita biguna; inori bere gatzik opa ez deusana; geuri zegaz onduen juakun onduen dakijana; ta au gaiti, gorputzian daukan gatzak dala ordu-ban biarren dabena. Au gogoratubagaz, artuko dau gaixuak esker onagaz ta bijotz prestagaz gatzak. Alan artu eban Ezekias erregiak Jaungoikuak bialdu eutsan gatzak arimako ta bijotzeko ezaubera ta humildade guztiagaz. Ta ikusi ebanian Jaungoikuak Ezekiasen prestaera naizkua berak bialdu-tako gatzak iragoteko, osatu eban gatzeti ta luzatu eutsan amabost urteko bizitzia. Beste ainbeste jazo jakon Job santubari moduren baten. Bialdu eutsazan Jaungoikuak txito gatz andijak ta mingarriak Job santubari. Izanik aberatsa, pobretu zan. Izanik entzute andikua ta estimauba, galdu jakon entzute ona ta jausi zan bere emaztiaren burlagarri izatera. Izanik osasuntsuba, usteldu jakon bere gorputza. Bere umiak, bere ondasunak, bere kleituba, bere osasuna ta eukan guztia galduta, karkaba baten eguan Job gorputz usteleti teila zati bategaz arrak kenduten zitubala ta emaztia berari burletan eguala.

Zelan deritxazu, neure kristinaubak, irago zitubala Job[ek] gatz oneek? Zer esango dau, ain aberats, ain pamau ta ain ondo bere buruba ikusi dabena, kolpe baten guztia galduta, gorputz ustel ardundubagaz karkaba loijan daguanian? Esaten eban, bada, Job santubak, oian dagozan gaixo guztiak esan biar dabeena. Ta zer esaten eban? *Biloxik jaijo nintzan ta biloxik biurtuko nas atzera, Jaungoikuak nai dabena da au. Bedeinkatuba izan dedilla Jaungoikuaren izen santuba. Jaungoikuak emon ditu nire gauza guztiak ta*

*Jaungoikuak kendu ditu... Gauza onak artu baditugu Jaungoikuaren eskuti, zegaiti artuko ez ditugu gatzak bere? Ara, Job santubak zelan iragoten zituban bere gatzak. Ta gatz andijak. Tobias santubaren gaixuan, itsututian ta gatzetan irakurten dogu urrian urrian dotrina onetan esaten dan guztia; zegaiti Jaungoikuak gatzak bialduten deuskuzan ta zelan irago biar ditugu jatorkuzan gatzak. Alako bijotz onagaz artuten dabenean kristinaubak zeruti etorri jakon gaixua, errukituten dau Jaungoikuaren bijotz biguna ta mesedegina. Emoten deuta Jaungoikuak gaixuari pazienzija geijago, bere buru pekatariaren ta arimako gauzen ezaubera geijago, zeruko glorijaren nai ta uste geijago, bere pekatuben damu geijago ta Jaungoiko onaren beraren amodijo geijago.*

Gaixorik daguanak gogoratu biar ditu Jesusen ta Ama Birjina gozua- ren penak. Bada, Jesus erru bagiak ta bere Ama pekatu bagiak ainbeste pena ta mingarri irago bazituben euren bizi guztian ta batez bere Jesusen pasinoian ta erijotzan, ze gauza andija, neure entzula onak, gatz puska bat edo gaixo apur bat guk iragotia Jesusen izenian geure pekatuben zorrera- ko ta geure arimen onerako? Duda bagarik gomuta onegaz gozatu ta arin- duko ditu gaixuak bere gorputzeko minak ta alaak. Baita konsolau ta ale- grau bere Jesusen penetan ta Ama Birjiniaren bijotz errukiorian bere ari- mako espirituba. Ez, bada, aztu, kristinaubak, gaixo denporan Jesus mai- tiagaz ta Ama Birjina gozuagaz.

Gaixo orduban ez dau luzatu biar kristinaubak testamentuba egitia- gaz, eginkizuna badauka. Ainbat onduen konpesauta, komuninoeko sakramentuba artuta, munduko artu emonai ta daukazan gauzai gero iza- tia gura dabenean bidia testamentuz emonda, ya Jaungoikuaren eskubetan bere osasuna edo gatzak itxita, munduko ardura guztietati bijotza aldera- tuta, prestau biar dau kristinaubak estrema-unzinoeko sakramentuba artuteko. Erijotzako orduban gauza guztiak dira larriak eta bildurgarriak. Isten bada gaixo orduban konpesetia, komulgetia, testamentuba egitia ta beste eginbiarrak autortutia edo azaldetia goisian arrats aldeko ta arrats aldian bijamoneko, geijenian jazoko da bat bere ondo egin bagarik illtia. Prisako konpesinoia, prisako biatikua, prisako testamentutzia, prisako oleazinoia ta bertatiko illtia ez dira segurubak, Jaungoikuaren aurrera ari- mia juateko. Egikizun bakarra da, egikizun nausija da, illteko ondo pres- tetia. Ez, bada, engainau, kristinaubak, mundubaren amodijo laarregijagaz edo bizitzia- ren nai andijegijagaz. Sinistu arimati ill biarko dogula leenago edo geruago; ez gariala illgo baktotxa bein baino; beingo erijotzako utse- gitia betiko utsegitia dala; ta zeruba edo inpernuba baino gitxiago ez deus- kula balijo ondo edo gaiski illtiak.



Gaixorik daguanak itxi biar dau Jaungoikuaren eskubetan bizitzia ta nai erijotzia. Esaten da, prestau biar dabela gaixuak Eleisa Ama santiak aginduten daben legez ondo illteko. Alan prestauta gero, ez laarregi nai izan osasuna edo bizi izatia, ez bada itxi Jaungoikuaren esku santuban. Bat egin aleginaz Jaungoikuaren naijagaz ta eskini sarri Jaungoikuari bere arimia ta bizitzia. Zer emon ginaijo Jaungoikuari bizitzia baino beste gauzarik, alan gaixo andijagaz illteko arriskuban gagozian? Ezer bere ez. Bada, orduban beste munduko gauza guztiai nai ta nai ez itxi biar deustugu. Erijotzako ordu triste atan, extrema-unzinoeko sakramentuba geure billa dabilenian, munduban euki dogun guztiari agur egiten asiko gara. Agur gurasuak, agur umiak, agur senidiak, agur adiskidiak, agur dirubak, agur aziendak, agur gustuak, agur neure gauza guztiak. Ta agur betiko. Illtera doianak, munduko gauzak ya ez ditu beriak. Bada areek Jaungoikuari eskintzeko ez dabee ainbeste balijo orduban. Nora ezeko eskinija da. Laster itxi biar deutseen gauzen eskinija da. Zer da, bada, beste gauzakin aztu bagarik, Jaungoikuari egin legijon eskinirik oneena? Bere bizitziarena. Bere bizija, bere espirituba ta arimia konpijantza oso bategaz Jaungoikuari pozik eta bijotzeti eskintzia da, orduban gaixuak egin legijan irabazirik oneeneko eskinija. Esan biar dau alako orduban gaixuak, san Martin glorijosuak esaten ebana: *Jauna, gura badozu ni bizji izatia, bizji nailla. Emen nago, munduko neke ta naibagak iragoteko zeure izenian. Ta, Jauna, nai badozu ni ill tia, ill nailla. Zeure eskubetan isten dot neure bizitzia ta erijotzia. Zeuri entregetan deustut neure gorputza ta arimia.*

Gogoratu bada, neure kristinaubak, sarri ta astiro, zetarako jatorkuzan gatzak geure gainera, ta zelan artu ta irago biar ditugun. Alan pretauko gara extrema-unzinoeko sakramentuba artuteko ta Jaungoikuaren grazijan illteko. Au da, kristinaubak, biar doguna ta guztioi opa deustudana. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer dan oleazinoeko sakramentu santuba.*
2. *Zetarako dan.*
3. *Zelan artu biar dan.*

Sakramentu santubai jagokuen dotrinia ondo ikasijaz ezaaututen da, neure kristinaubak, Jaungoikuak geuri deuskun ondo gura neurri bagia. Sakramentubetan itxi deuskuz Jesus maitiak, ez bakarrik geure arimako gatx guztien erremedijuak, ez bada baita premina ordu bakotzeko eta gatx bakotzeko erremedijuak bere. Leen erakutsi dirian lau sakramentubetan, entzun dozu zelan jaijoten garian orduti kristinau ta Jaungoikuaren seme eginda, emoten deuskuben geu beti Jaungoikuaren adiskide izateko grazija. Bada, bostgarren sakramentuban emoten deusku Jaungoikuak geure erijotzako ordu esturako pozezko ta indarrezko grazija. Sakramentu santu onen gainian kristinaubak jakin biar dabena da: 1. *Zer dan extrema unzinoeko sakramentuba.* 2. *Zetarako dan.* 3. *Zelan artu biar dan.* Iru gauza oneek esango deustudaz dotrina onetan, zeubek jakitia ondo dan tertzijuan. Eskatuten deustut oi dozun entzute ona.

### I.

Extrema unzinoeko sakramentuba da, ebanjelijoko lege santuban Jesukristo geure Jaunak itxi euskuna gaixorik illteko arriskuban dagozan kristinaubai emoteko, pekatubak ariman itxi dituban errastu txarrak ta ondarrak kenduteko ta gorputzari osasuna emoteko, bajatorko. Onetarako gaxorik alan dagozan kristinaubak sazerdotiak igorzen ditu orijo bedeinkatubagaz gorputzeko sentidubetan. Esaten jako *extrema-unzinoia*, azkenengo gaixuari emoten jakon orijo-igortzizko edo *unzinoeko* sakramentuba dalako. Bada, ordiako sakramentuba izan arren *unzinoezkua* ta sazerdote guztiak izan arren unjidubak, sazerdote ta unjido guztiai bere *extrema-unzinoia* emoten jakue, gaixorik illteko peligruban dagozian. Baita esaten jako sakramentu oni *gaixuen orijozko sakramentuba*, gaixorik dagozanai baino emoten ez jakuelako. Illteko peligruban egon arren, ez



jakue emoten sakramentu au gorputzeko gaixuagaz edo gatxagaz peligratu atan ez dagozanai. Baita esaten jako illtera duazanen sakramentuba, aiatuten emoteko ez dala asko edozein gaixo kristinauba olietako, ez bada biar da sakramentu au artuteko, kristinauba illteko arriskuban iminteko gaixua, aiatuten jakueneren eritxijan. Eleisiak erakusten deusku, extrema-unzinoia Jesukristo geure Jaunak itxitako sakramentuba dana ta, beste sakramentubak legez, berari jagokan grazija arimiari emoten deusana.

Errazoiaren usura eldu ez dirian umiai ez jakue emoten orijozko sakramentu au, gaixorik illteko arriskuban egon arren. Bada, errazoiaren ezauberarik ez dauken umiak pekatuak ez dauke. Ta pekatubak itxitako gatxak garbituteko da sakramentu au. Guztiz zoratuta bizi izan dirianai bere ez jakue emoten, zer artuten dabeen ta zelan artu biar dabeen jakin ezin legijelako. Konpesau gura ezda dagozan pekatu mortaldunai bere ez, illten egon arren. Bada, extrema-unzinoeko sakramentuba da moduren baten penitenzijako sakramentubaren giltza edo amaigarrija. Penitenzijak emoten deusa arimiari osasuna. Penitenzijak kenduten deusa gatxaren kolpe nausija. Baina gatxa jua arren, geratuten dirian legez gorputzian gatx ondoko argaltasuna, jaustasuna ta makaltasuna, alan pekatuba kendu arren arimati konpesinoeko sakramentubagaz, geratuten da arimia pekatubak itxitako ondarragaz ta makaltasunagaz. Oneek kenduten ditu arimati extrema-unzinoeko sakramentubak ta emoten deusa osasun senduagua bere grazijagaz arimiari. Obetuago aituko dozu au entzunagaz, zetarako itxi euskun Jesukristok extrema-unzinoeko sakramentuba.

## II.

Onetarako gogoratu egizu, kristinaubak, barriro ta obetuago, zer jazoten jakon gatx andi bat goituta gero geure gorputzari. Gatx onduan geratuten da gorputza koloria zurituta, agintia juanda, jaateko gogo bagarik. Azurrak minberatuta daukaz. Jagita ozta dabil. Jarrita egoten kansetan da. Ez jaateko, ez lo egiteko, ez egoteko, ez ibilteko, ez berba egiteko, ez barre egiteko argituten jako gogua gaixuari, gatxak itxita lasterreko egunetan. Zegaiti au? Gatxak gorputz guztia aginteti aterata, argalduta, makalduta itxi deusalako. Zer egiten deusa, bada, medikubak edo osalarriak alako gorputz jausijari? Aginduten deusaz janaririk ta edaririk indartsubenak ta osasuntsu benak, leengo bizkortasunera, osasunera ta indarrera etorri dedin gorputza ta garbitu dedin gatxak itxi deusazan errastu

deungetati. Au ikusten dozu ta au berau egiten dozu, neure entzula onak, gatx onduan zeuben etxeetako gaixuakin.

Kontu egizu, bada, beste ainbeste egiten dabela Jesukristo geure arimen egijazko mediku edo osalarriak. Pekatuba da arimiaren gatxa. Gatx illgarri onen kolpe nausija osatuten dau Jesukristo geure Jaunak konpesinoeko sakramentubagaz. Baina oraindino geratuten da arima tristia pekatu onduan gatxaren errastu gaixuagaz. Ta zeinbat sarrijagotan pekatu illgarrijaren gatx deungia irago daben arimiak, ainbat geratuten da, konpesinoian gatxa osatuta bere, makalago, epelago, astunago ta jausijago, Jaungoiko ona maitetuteko ta zeruko egijetara gogua jasoteko. Konpesinoian pekatuba parkatu arren, pekatariaren gogua ez da guztiz indartuten, luurreko naijetati zeruketara igoteko. Ez dozu ikusten logreru bat edo diruzalegi bat, sarri konpesau arren, leengo gatxagaz geratuten dala ta ostera bere logrerijetan ta lapur tratubetan jausten dala? Ez dozu ikusten loi bat, nosbait konpesau arren, leengo berdetasunak ta aragijaren erako pekatubak erakusten ditubala? Ez dozu ikusten beste ainbeste jazoten jakola ordijari, lapurrari, arruari, andiguriari, gaiski-esaliari, gorrotarijari ta beste pekatarijai? Zeinbat Zakeo topetan dira, logrerijaren ta lapurrariaren pekatuba bein ondo osatu ezkeru, ostera egin ez dabeenak? Zeinbat Madalena, bein Jesusen oinetan pekatuak ostera ez egiteko berbia emon ezkeru, betiko aragijaren labankerijai, pekatuko jantzijai, pekatuko lagunai ta ibiltiaia larga deutseenak? Zeinbat san Pedro? Zeinbat Pelajia? Zeinbat Tais? Zeinbat, bein Jaungoikuagana biurtu arren grazijaren kolpe indartsu bategaz, ariman guztiz osatuta geratu dirianak? Ez dakit, kristinaubak. Zeubek kontau daitezuz, al badaizu. Ejitoko katiguti Jaungoikuak askatu arren arimak ta zeruko mana gozua jaten emon arren, isrraeltarrak jiretan eben euren gogua ta gurarija Ejitoko kipula ta berakatz berdetara.

Zegaiti, bada, gusto geijago edo poz geijago artuten ez deutsee isrraeltarrak, Jaungoikuak zeruti bialdu eutseen mana gozuari? Isrraeltarren gogua, bijotza ta espirituba luurrezkua zalako. Jaungoikuaren mesediak estimetako, zeruko gauzai gustua artuteko ta grazijaren bide santubai jarraituteko, luur jota, makalduta, aginte bagarik egozan isrraeltarrak. Au gaiti naijago zituben pekatu arteko berakatz berdiak ta kipula garratzak, zeruko mana grazijazkua baino. Au da pekatu illgarriak geure ariman isten daben espiritu makalaren ta jausijaren irudi egijazkua.

Ta ze erremedio, onako gatxetati arimia sendotuteko? Unzinoeko sakramentuba. Au da Jesukristo geure Jaunak atarako itxi euskun erre-



dijua. Erremedio jakin andikua ta erremedio seguruba. Jakin andiko erremedijua. Bada, nundi jatorkon arimiari gatxa, an iminten dau sakramentu onek arimiaren osagarrija. Gorputzaren senak edo sentidubak dira arimako gatxen atiak, bidiak edo sartulekubak. Bada, pekatubak oi datoz arimara, edo ikusijagaz, edo entzunagaz, edo usain eginagaz, edo esanagaz, edo jan edanagaz, edo pausubagaz, edo oratubagaz. Begijak, belaarriak, suurrak, miina, aua, eskubak ta oinak dira pekatubaren bidiak. Ta eurak dira, pekatubak gaixotuta isten ditubanak. Emeti datoz arako pekatu azi ugarijak ta sustrai berenotubak. Entzun guria, esan guria, ikus guria, gozo guria ta leun guria, gorputzari bere sengarri guztietan naija emoteko. Pekatubak biztu ta askortuten ditube gorputzaren erako gurari gaisto oneek. Ta zeinbat indar ta agindute geijago daukeen oneek gorputzian, ainbat dago makalago, jausijago ta argalago espirituba zeruko gauzetarako. Pekatubak itxitako erru gaisto oneek osatuteko ta arimiari grazijaren sendotasuna emoteko daukagu bada, neure kristinaubak, extrema-unzinoeko sakramentu santuba.

Alan igorzten deutzaz sazerdotiak orijo santubagaz gaixuari begijak ta esaten deutsa: *Unzinoe santa au gaiti ta bere miserikordija txito biguna gaiti parkatu dagizula Jaungoikuak begijakin egin dozun paita guztia*. Banaan banaan igorzten deutzaz gaixuari sazerdotiak orijo santubagaz belaarriak, suurra, ezpanak, eskubak eta oinak. Ta sentidu bakotxian esaten deutsa: *Unzinoe santa au gaiti ta bere miserikordija txito biguna gaiti parkatu dagizuzula Jaungoikuak entzunagaz... usainagaz... esanagaz... pausu egina gaz... ikutu egina-gaz... gusto artubagaz egin dituzun pekatu guztiak*. Ara emen, gizonaren sentidu guztiak pekatuti garbituteko ta osatuteko sakramentuba. Gorputzaren sentidubak orijo santubagaz igorzten jakozanian gaixuari, sakramentubak ariman egiten deutsa grazija, gaixuak azkeneko ordu triste atan biarren dabena.

*Lelengo*: Extrema-unzinoiak parkatuten deutzaz gaixuari pekatubak ta emoten deutsa arimako grazija, dino Santiagok.

*Bigarrenian*: Gaixuak konpesetako ta komulgetako lekurik euki ez arren, artuten badau extrema unzinoeko sakramentuba jagokan pretaeriagaz, parkatuten jakoz pekatubak, guztiak andijak eta txikijak.

*Irrugarrenian*: Garbituten dau arimia extrema unzinoeko sakramentubak, leenagoko pekatubak itxi deutseezan zetaka, ondokin ta errastu gais-tuetati. Ta au da sakramentu onen lelengo egikizuna. Grazijan daguan arimiari, Jaungoikuaren aurrera juaan biar daben aurrian, pekatubak itxi deutseezan ondokin txaarrak parkatutia.

*Langarrenian*: Extrema unzinoeko sakramentubak emoten deutsa arimiari erijotzako ordu estuban ta larrijan aparteko indarra, espirituba ta sendotasuna, inpernuko etsaijak goituteko. Ezin ukatu ginai, erijotzako orduban kristinaubak izaten ditubala tentazinoerik andijenak, Jaungoikua galduteko. Orduban ekarten deutzaz diabrubak gogora biziro kristinaubari bere biziko pekatu guztiak; baita Jaungoikuaren justizija asarria bere; baita on izateko eraak sarri euki ditubana ta alperrik galdu ditubana bere. Illten daguan gaixuari kolpe baten ekarten deutzaz etsaijak gogora egin dituban pekatubak, entzun dituban sermoiak, gaiski egin dituban ta ondo egin eukezan konpesinoiak ta komuninoiak, inpernuba sarri irabazi dabena, Jaungoikua asarratuta daukana... ta beste gaixo tristia illundu, larritu ta parkazinoiaren ustia guztiz galdu eragiteko asko dirian gomuta bildurgarriak. Zer biarrago, bada, orduban gaixo errukarriak adineko argija ta espirituko indarra baino, etsaijaren tentazinoiak goituteko, bijotza Jaungoikuari jasoteko ta zeruko atetara gogua biurtuteko? Onetarako da, bada, extrema-unzinoeko sakramentuba; erijotzako ordu estuban arimiari indarra ta animua emoteko, Jaungoikuagan uste ona ta konpijantzia galdu bagarik irago dagizan gorputzeko gatxa ta etsaijaren tentazinoiak.

*Bostgarrenian*: Extrema-unzinoeko sakramentuba da gorputzari osasuna emoteko, ariman alan jagokanian. Bada, gorputzaren osasunak izan biar dau arimiaren onerako. Ta ariman ondo ez bajuako, ez dau extrema-unzinoiak emoten gorputzaren osasuna. Alan esaten deusku santo Tomasek, edo biar dan moduban eskatuten ez dalako, edo ariman konbeni ez jakolako, ez dabela extremaunzinoiak beti emoten gorputzeko osasuna. Baina beste esan dirian mesediak beti egiten ditu ariman sakramentutu santu onek, biar dan pretaeriagaz artu ezkerero. Baina zelan pretaur biar dau gaixuak extrema-unzinoeko sakramentuba artuteko? entzun egizu zelan.

### III.

*Ezek bere ez dau geijago eragozten sakramentuben grazija ta prutu ugarija pekatu illgarriak baino*, dino san Karlos Milango obispo jaunak. Berau gaiti, extrema-unzinoeko sakramentuba artutera orduko, konpesau biar dau gaixuak, ezelan bere al bada. Konpesau ezin bada, damutu biar dau bijotz bijotzeta bere pekatu guztiakin, al dagijanian konpesetako uste osuagaz. *Bigarrenian*: Al badau ta eginkizuna badauka, egin biar dau testamentuba unjidutera orduko. Munduko ardurai itxita, arimako gauzai bakarrik



kontu egiteko ordu baliyo andiko atan. *Iruugarrenian*: Prestau biar dau sinistute oso bategaz. Ta emon Jaungoikuari eskerrak, kristinau egin dabelako, Eleisa santan sakramentubakin gorde dabelako ta azkenian ill aurreko sakramentuba artuteko grazija egiten deutsalako. Parkazinoiaren uste oso bategaz eskatu biar deutsa Jaungoikuari grazija, unzinoe santuba artutera doianian. Dei egin biar deutsa Maria Santissima pekatarijen Ama errukiorrari, Aita san Josepe bedekatubari, aingeru gordezailiari ta bere debozinoeko santubai, lagundu dagijuen ordu estu atan Jesus maitiaren aurre-ra juaten. Gogoratu biar ditu Jesus maitiaren erijotzia ta miserikordija andijak. Eurak gaiti parkatu dagijozan Jesusek bere pekatubak. Esan biar dau gaixuak ordu atan: Oh, Jesus parkazailia! Ez zinian zeruti etorri oneen billa, ez bada ni legezko gaistuen ta pekatarijen billa. Zeuk parkatu zeuntsan lapur onari. Zeuk parkatu zeuntsan Madalenari. Zeuk parkatu zeuntsan Dabid, errege pekatariari. Zeuk, Jauna, parkatu deutsezu beste millari zeure erijotzako irabazi amai bagiak gaiti ta daukazuz zeugaz zeruko etxe ditzosuan. Parkatu bada, Jauna, niri bere neure pekatu guztiak. Damu dot, Jauna. Maite zaitut, Jesus ona, beste gauza guztiak baino geijago. Zeure esku santubetan isten dot, neure Jesus maitia, neure osasuna, neure bizitzia ta neure arimia...

Onan prestau biar dau gaixuak extrema unzinoeko sakramentuba artuteko. Baita parkatu biar deutsee arima arimati bere arerijo guztiak ta gatx egin deutseen guztiak, berari Jesusek parkatutia gura daben legez. Baita parka eskatu bere berak gatx egin deutsenai. Orduban artuko dau illaurreko sakramentu santuba sinistute osuagaz, zeruko uste bizijagaz ta Jaungoikuaren ta proximo edo lagun guztien amodijuagaz. Ze ditzosua ta zortijonekua, alan pretauta, unzinoe santubagaz animauta, sendotuta, inpernuko etsaijen bildur bagarik, gatxaren alaak ta bizitzia Jaungoikuari eskinita, bijotzeko pozagaz ta arimako bake santubagaz illten dana!

Au da bada, neure kristinaubak, sakramentu santuben egikizuna. Onetarako itxi euskuzan Jesus maitiak lelengo bost sakramentubak, euren ikasikizunetan entzun dozun legez. Oneek bostok, kristinau guztiak jagokuezanak dira. Ta bakotxa bere denporan artu biar dirianak, al izan ezkerro. Beste bijak, estadubari edo bizi modubari jagokazanak dira. Orregaiti, gura ez dabenak ez dauka areek artukizunik, gero esango dan legez. Emon daijoguzan Jaungoikuari esker onak, geure arimako salbazinoia, geure pekatuben parkazinoia, geure utsegiten erremedijua ta geure arimako gatx guztien osagarriak sakramentu santubetan prest ta seguru itxi deuskuzalako. Izan dedilla, bada, bedekatuba ta ondo esana Trinitade guztiz Altuba, Aitia, Semia ta Espiritu Santuba. Amen.

## ORDIAKO EDO SAZERDOTETZAKO SAKRAMENTUBA



## I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer dan sazerdotetzako sakramentuba.*
2. *Zeintzuk dirian sakramentu onen gradubak edo mallak.*

Jesukristo geure Jaunak itxi utsan Eleisa Ama santa bere esposa garbijari seigarren lekuban ordiako sakramentuba. Sakramentu onegaz egiten dira eleisa-gizonak. Eleisa-gizonen zeregina da Jaungoikuaren beraren urrengo otseginak edo krijadubak izatia luurrian. Balijau zatekian Jaungoikua onetarako aingerubakin. Baina bere jakiturija altubak ez eban au gura izan, ez bada aparteko sakramentu bat itxi euskun, gizonak kon-sagretako, santututeko ta luurrian bere ordeko izateko. Alan esan eutseen Jesus maitiak apostolubai: Artu egizu Espiritu Santuba ta parkatu egijezuz pekatubak kristinaubai. Zeubek jakingo dozu nori parkatu ta nori ez parkatu. Zeubek parkatuten dituzun pekatubak, parkatubak izango dira. Ta zeubek parkatuten ez dituzunak, ez dira izango parkatubak. Au esan eutseen Jesusek apostolubai ta areen ondorengo eleisa gizonai: *Accipite Spiritum Sanctum, quorum remisistis peccata, remittuntur eis, et quorum retinueritis, retenta sunt.* Jesusek egin zituban eleisa gizon, sazerdote, obispo ta apostolu amabi gizon arrain arzaile; ta eurai emon eutseen alizatia ordiako sakramentubagaz eleisa gizonak, sazerdotiak ta obispuak egiteko, mundubak dirauban artian iraun dagijan Eleisa santan sazerdotetziak. Ez da sakramentu au guztiak artu biar dabeena, ez bada, Aaroni legez, Jaungoikuak atarako dei egiten deutseenak.

*Ordiako sakramentuba txito santuba ta jaungoikozkua da,* dino Trentoko batzaarrak. Beste sakramentubak egiteko sakramentuba da, gero esango dan legez. Au gaiti, dino Erromako Katezismuak, txito kontu andijagaz erakutsi biar deutseela kura jaunak kristinaubai sakramentu onen izatia ta mesediak. Guztien onerako izango da au, dino Katezismuak. Kura jaunentzat bere bai. Euren estaduko edo bizierako egikizunak irakurrijagaz, ez dabee ezer bere galduko. Beste eleisa gizonak bere, euren bizierako zeregi nak entzunagaz, obeto goguan eukiko ditubee ta prestage kobru emongo deutsee. Baita biarrekua da ordiako sakramentuba erakustia, beste kristinau guztientzat bere. Bateti, jakin dagijen zer zor deutseen Jaungoikuaren ordeko eleisa-gizonai. Ta besteti, eurak ordenau gura bada-

bee, jakin dagijen ze biziera santuba artuten dabeen. Guztientzat da, bada, txito biarrekua ordiako sakramentubaren dotrinia.

Berau gaiti erakutsiko deusut sakramentu onetan, zer dan; ze esku-bide altuba gizonai emoten deutseen; ta ze mesede andikua dan. Bagoz beste gauza asko ordiako sakramentuban. Baina areek jakitia geijago jagokue eleisa-gizonai beste kristinaubai baino. Orregaiti ez deusut esango guztiak jakitia ondo dana baino geijago. Prestau zaitte bada, neure entzula onak, ainbat gogorik zurrenagaz ta konturik andijenagaz entzuteko: 1. *Zer dan ordiako sakramentuba.* 2. *Zeintzuk dirian sakramentu onen gradubak edo mailak.*

### I.

Ordiako sakramentuba da, *Jesukristo geure Jaunak Eleisa Ama santiari itxitako senaile agiri bat, zeinetan emoten jakon ordenetan danari meza santubari edo komuninoeko sakramentubari jagokan espirituzko alizatia.* Sazerdotetzia edo ordia sakramentuba dana ta Jesukristo geure Jaunak itxi euskuna Trentoko batzaar santubak erakusten deusku, neure entzula onak. Ta sinistu biar dogu, beste kristinautzako siniskizunak legez. Esaten da dala *senaile agirija.* Bada, sakramentu guztiak dira agiriko gauzakin ta berbakin egiten dirianak. Ta baita au bere. Esaten da, *Eleisiari itxi.* Bada, sakramentu guztiak itxi utsazan Jesukristok Eleisa Ama santiari. Esaten da, *ordenetan danari emoten jakola espirituzko alizatia.* Bada, sakramentu au da zeruko alizate bat gizonari emoteko. Ordenau bagarik inundi bere gizonak ezin legizan gauzak egiteko. Ez da alizate au ez indarrezkua, ez jakiturijazkua, ez diruzkua, ez mundukok emon legijona. Baina da ordiako sakramentubak gizonari emoten deusana da espirituzkua ta zeruti jatsija. Esaten da, *meza santubari edo komuninoeko sakramentubari jagokana.* Bada, sakramentu onek emoten daben espirituzko alizatia, eskubidia edo *potestadia* izan arren gauza askotarako, bere egikizun nausija edo lelengua da meza santuba esatia, ogijaren ta ardauaren izatia Jesukristo geure Jaunaren gorputz ta odol bizi izatera biurtutia.

Ordiako sakramentubaren alizate au guztiz santuba ta altuba dan legez, zatika edo pausuka emoten jako gizonari. Beerengo mailati asita, astiro ta pau suka, ondo pensauta ta ondo pretauta eldu dedin ordia bate-ti bestera ta andi goragokora, maila edo gradu nausira. Au gaiti daukaz zazpi maila edo gradu ordiako sakramentubak. Lau txikijaguak ta iru nausijaguak. Lelengo laurak dira. *Ate-jaolia, irakurlia, etsai-bildurzaillia ta meza-*



*lagunzailia*. Edo esango deutsegu: Ostiarjua, lektoria, exorzistia ta akolituba. Euren egikizunak esanagaz aituko dozu obeto ordiako maila edo gradu oneek zer dirian.

## II.

Eleisa-gizon izateko asipena da obispo jaunak buruko ulia moztuta, koroia egitia ordenau gura dabenari. Ez da au ordenetia. Ez jako emen alizate espirituzkorik emoten gizonari, ez bada da ordiako sakramentuba artuteko prestaera bat. Ordiako lelengo mailiari esaten jako ate-zaintzia edo *ostiarjua*. Orduban emoten jako gizonari espirituzko alizatia, eleisako atiak isteko ta edegiteko; eleisan egotia merezidu ez dabenai atiak isteko; ta merezidu dabenai edegiteko. *Ate-jaoliaren* zeregina da erejiak, eskomulgaubak ta agriko pekatari inpamiak eleisati (sartuten badira) ateratia. Ta eleisako ate kontu egitia. Atarako emoten deutzaz obispo jaunak giltzak, ordenetan dabenian.

Bigarren mailia da irakurlia edo *lektoria*. Orduban emoten jako gizonari, leenaren gainera, alizate espirituzkoa eleisan irakurteko Jaungoikuaren berbia altu ta guztiak dantzubela. Baita sakramentu onegaz emoten jako irakurliari grazija bere, espiritu onagaz ta zur irakurteko Eskritura Sagraduba, bai testamentu zaarrekua, baita barrikua bere. Onen eginkizuna da eleisan, guztiak entzun legijen lekuti, Eskritura Sagraduba irakurtia ta kristinaubai dotrinia erakustia. Irugarren mailia da etsai-bildurzailia edo *exorzistia*. Ordia onetan emoten jako gizonari alizatia, endemoniauben gainian Jaungoikuaren izen santubari dei egiteko ta eskubak iminteko, demoninua bildurtu dedin ta aldendu dedin kristinauba ganik. Onetarako dagoz Eleisan giza aldirik giza aldirako sinistutiagaz etsaijak konjuretako liburubak. Atariko liburuba emoten deutsa obispo jaunak etsaibildurzaile ordenetan dabenari ta esaten deutsa: *Artu egizu ta buruz ikasi egizu. Alizatia edo eskubidia dankazu batiatu nai batiatuteko prestetan dagozan endemoniadubai eskubak iminteko*. Eleisa santan beti ezautu da, gizon gorputzetako demoninuak konjuretako, bildurtuteko edo kenduteko alizatia. Jesusek berak bota zituban demoninuak gorputz askotati. Apostolu santubai bere emon eutseen alizatia, bere izenian endemoniadubak askatuteko. Ta geratu zan Eleisan ordiaren irugarren maila au, zeinegaz eleisa-gizonak artuten daben kristinaubak ta kristinaugeijak etsaijetati askatuteko edo libretako espirituzko alizatia. Au gaiti esan legijo sakramentu oni, *exorzista* esaten jakon legez, *etsai-bildurzailia* nai *etsai-kenzailia*. Ez dago

geure Eleisa egijazkoti kanpora onako alizaterik. Moruak, jentilak ta erejiak ez dabee gizon bat edo emakume bat demoninuetati askatu. Jesusen, apostoluben ta geure eleisa gizonen egikizuna da au.

Laugarren mailia da meza lagunzailia edo *akolituba*. Esaten jako *meza-lagunzailia*. Ez berak mezako laguntasun guztia beti meza esaliari egiten deutzalako, ez bada bere egikizun guztia dalako meziaren laguntasunerako. Oni emoten jako espirituzko alizatia. *Lelengo*: Sazerdotiari mezia erasoteko. *Bigarrenian*: Sazerdotiak lagun jantzijak daukazanian mezia kantetako, orduban meza-lagunzaliliak emon biar deutseez arei eskubetara binajerak ta beste mezatan biar dirian gauzak. *Irugarrenian*: Ebanjelijua kantetan danian, *meza-lagunzailiak* edo akolitubak eruan biar ditubee kandela ixuiak kandelarubetan (zeintzubai esaten jakuen *zirijalak*) ebanjelijua kantetan dabenaren albo bijetara. Au da meza-lagunzailen egikizuna. Onetarako emoten jakue espirituzko alizatia.

Ordiako sakramentubaren lau maila edo gradu oneek artuten ditu lelengo eleisa-gizonak. Eurakin prestetan da gizona ordia sagradubak artuteko. Bada, lau maila esan dirian oneek ez dira ordia sagradubak. Leenagoko giza aldijetan txito ziur ta zintzoro gordetan zituben bakotxak bere egikizunak, esan dirian lau maila edo gradubetakuak. *Ate-zainak* zaintu biar zituban nai ta nai ez eleisako atiak. *Irakurliak* egin biar zituban eleisan meza kantauro epistoliaz ta ebanjelijuz gainerako Jaungoikuaren berba irakurtiak. *Etsai-kenzailiak* egin biar zituban eleisako konjurubak. Ta *meza-lagunzailiak* berari jagokazan biarrak.

Onen urrengo dira beste iru ordia sagradubak. Onei esaten jakue subdiakonuba, diakonuba ta sazerdotia; edo *subdikonutzia*, *diakonutzia* ta *sazerdotetzia*. Subdikonutzia da diakonubari lagundutia. Ta diakonutzia da sazerdotiari lagundutia. Subdikonutzia da ordia sagraduba. Onen egikizuna da meza kantauro sazerdotiak esaten dabenian lagun jantzijakin, diakonubari altaran lagundutia. Ostija, kalizia, ardaa ta ura ta beste mezatan biar dirian gauzak diakonubari eskura emotia, ak sazerdotiari prest euki dagijozan, biar orduban. Baita subdiakonubaren zeregina da orain mezatan epistolia kantetia bere. Baita bere zeregina da, meza esaten daguan sazerdotia inok azorau ez dagijan, kontu eukitia bere.

Ordiako sakramentubaren maila onetan artuten dau gizonak, esan dan guztia egiteko ta eleisako ontzi sagradubak eskubetan erabilteko alizate espirituzkoa. Ordia au sagraduba da, leen esan dan legez. Alan geratuten da *subdiakonuba* eleisa gizon santututa. Ordia sagradu au artuteko eskatuten jako eleisa gizonari *boto kastidadekua* edo gorputzeko ta arimako garbitasunaren eskinija Jaungoikuari egitia. Berau gaiti subdiakonuba



gizon sagraduba da. Ta agaz aragizko pekatuba egiten dabenak austen ditu gitxienaz agindu santu bi ta egiten ditu pekatu bi.

*Diakonutzia* da sazerdotetziaren urrengo mailia. Alan emoten jako gizonari ordiako maila onetan alizate geijago, leengo maileetan baino. Diakonubaren zereginak dira: *Lelengo*: Obispo jaunari jarraitutia; sermoia egitera doianian obispo jauna zaintutia ta kontu egitia; ta meza santuban ta beste sakramentu egitetan obispuari ta sazerdotiai lagundutia. *Bigarrenian*: Meza kantauban ebanjelijua kantetia. *Irugarrenian*: Obispo jaunaren ezauberarako, begiratutia ta kontu egitia errijan nor zelan bizi dan, agiriko pekatuba ta eskandalubak erremedijau ditezan. *Laugarrenian*: Ebanjelijua prediketia. *Bostgarrenian*: Komuninoe santuba kristinaubai emotia. Zeregin onek ta beste asko bere emoten jakoz diakonubari, ordenetan daniari. Baina obispo jaunaren aparteko aginduba bagarik, ez ditubee guztiak orain egiten. Diakonubak euren ordian artuten daben alizate espirituzkuaren, egikizun altuben ta eurak euki biar eben ontasunaren ta zuzentasunaren ezauberia daukagu Eskritura Sagraduban. Baita san Esteban ta san Lorenzo martiri diakonuben bizitzetan bere.

Sazerdotia edo *sazerdotetzia* da ordiako sakramentubaren maila nausia. Baina aitu biar dau kristinaubak sazerdotetzia dala modu bitarakua. Bata da arimakua edo kristinaubaren espirituban daguana. Ta bestia, ordiako sakramentubari jagokana ta agiriko gauzetan egiten dana. Batiatuta dagozan kristinau guztiak, ta batez bere grazijan dagozanak, moduren baten sazerdotiak dira. Onek Jaungoikuaren adiskidiak dira Jaungoikua maite dabee bijotzeta. Ta gorputz ta arima dira Espiritu Santubaren egonlekubak ta Jesusen espirituzko gorputzaren zati bizijak. Onek ondra andija egiten deutsee Jaungoikuari. Ta egun oro egiten deutseez Jaun zerukuari euren bijotzen ta nai zuzenen eskini santubak. Au gaiti esaten deusku san Pedrok bere kartaan kristinau guztioi, *Jesukristok, bere odolagaz geure pekatubetati garbituta, egin ginduzala bere Aita Jaungoikuaren sazerdote*.

Onezaz gainera itxi euskun Jesukristo geure Jaunak ordiako sakramentuba agiriko *sazerdotetzarako*. Agiriko sazerdotetza onek aintxinako Lege Zaarrian euki eban asipena, orduban izan zaatekian moduban. Orduko sazerdoten eginbiarrak agindu eutseezan Jaungoikuak banaan banaan Moisi ta Aaroni. Jesukristo geure Jaunak itxi euskun sazerdotetza agirikua da Eleisa guztia zaintu ta gordetan dabena. Sazerdotetzia berez bakarra da. Baina onek bere iru maila edo gradu daukaz. *Lelengua* da sazerdote utseena. Onei emoten jakue ordiako sakramentuban alizate espirituzkua mezia esateko, kristinaubai pekatubak parkatuteko ta ba-

tismoko sakramentuba, komuninoekua ta extrema-unzinoekua emoteko. Baita beste eskubide asko bere emoten jakoz sazerdotiari, ordenetan daniari. *Bigarren* mailia da *obispotzia*. Obispo jaunak dira geure arimen jao-laak, geure arzainak, geure arimen gurasuak. Oneen egikizunak txito dira altubak ta pisutsubak. Eurak dauke alizatia, beste sazerdotiak ezin legijezan sakramentubak egiteko, zeintzuk dirian konfirmazinoeko ta ordiako Sakramentuba. *Irugarren* mailia da *artzobispotzia*. Artzobispuak dira beste obispo, sazerdote ta kristinauben gurasuak legez. Patriarkak beste ainbeste legez dira. Dira kristandadeko guraso nausijak. Baina guztien buruba luurrian, obispo nausija, artzobispo nausija, patriarka nausija, Jesukristoren ordekoa da Aita Santu Erromakua. Onei guztioi zor deutsegu, laugarren aginduban esan zana.

Begiratu bada, kristinaubak, Jesukristo geure Jaunak zelan gura izan eban gizonak prestetia, sazerdotetza santuba artuteko. Geijago luzatu bagarik emon daijoguzan Jesus maitiari eskerrak, geure gatsen erremedijorako bidiak alan prestau deuskuzalako. Baina dotrina onetan entzun dozunagaz ez dozu sazerdotetziaren ezauberia andirik artu izango, leen zeunkan baino geijago. Nora ezekua da orainginkua esatia, bere ezauberara puska bat artuteko. Prestau zaite oraindino obeto, sazerdotetziaren beraren alizate zerukua entzuteko geroko dotrinan. Orduban alabauko dozu aingerubakin geure Jaungoiko maitegarrija. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.





## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*ze andija ta zabalada dan ordiako sakramentuban  
 gizonari emoten jakon alizate espirituzkua.*

Autortu biar dogu, neure entzula onak, sinistute santu bategaz, Jaungoikuaganik daukaguzala munduban dagozan agiri dirian ta agiri ez dirian espirituzko ta gorputzezko gauza on guztiak. *Maitetasuna eskatuten dabeen doe guztiak jasten dira andi goiti, Aita zerukuaren eskubetati,* esaten deusku Santiago apostolubak. Jakiturijarik badago munduban, Jaungoikuak emona da. Ondasunik badago munduban, Jaungoikuak emonak dira. Alizaterik badago munduban, Jaungoiko andijaren esku santubetati etorrija. Bere amai bagako ontasunaren ta jakiturijaren emonak dira zeruban ta luurrian dagozan ontasun guztiak. Jaungoikua bera da berez bakarrik ona. Bera da jakituna. Ta bera da guztiz alsuba. Argi egiten dabee giza aldi guztietan ta leku guztietan Jaungoikuaren ontasunak, jakiturijak ta alizatiak. Orrako zerubei ta zeruko izarra begiratuta, itandu ginaijue: Nok egin zaitu? Ta nok jiretan zaitu? Ta esango deuskube: Geure Jaungoikuak. Itxasuai, mendijai ta kanpuai itandu ginaijue: Nundi izan dozu zeuben izatia? Ta nok zaukaz oinian ainbeste urtian? Ta esango deuskube: Geure Jaungoikuak egin gaitu. Ta berak seguru gordetan gaitu. Aingeru santubai itanduten badeutsegu nok emon deutseen euren izate altuba, argija ta ditxosua, esango deuskube: Geure Jaun eta Jaungoiko zerukuak... Alan, neure entzula onak, agiri dirian gauza bizidun ta bizi bagako guztiak.

Batzubetan Jaungoikuak berak berez egiten ditu gauza arrigarriak. Beste batzubetan balijetan da aingerubakin ta gizonakin, bere naijak egiteko. Jaungoikuak berak egin zituban aingerubak. Baita lelengo geure gurasuak bere. Baita beste egite andi asko bere, inorgaz balijau bagarik. Aingerubakin balijauta gobernetan ditu Jaungoikuak zerubak ta zeruben aldeerak. Baita propeta santuben espiritubak bere. Baita munduko erreinubak bere. Aingerubak dira Jaungoikuaren naija egiteko txito mandatarri prestak. Gizonekin balijauta egin ditu Jaungoikuak ez mirari txikiak. San Paulo apostolubak kontetan ditu zeinbat gauza andi ta arrigarri egin dituban Jaungoikuak giza aldi guztietan, gizonakin balijauta. Mendijak aldatuta, illak bizitutia, eguzkija geratutia, itxasuak agortutia, zerubak zarratutia, subak oztutia, otsuak mansotutia, endemoniadubak askatutia... gizonen

egitadiak dira. Gizonai Jaungoikuak emon deutsee atarako alizatia. Judegubak eurak bere ezin ukatu eben, Jesusen mirari andijak ikusita ta arrituta geratuten zirian, dino san Mateok, ain alizate andija gizonari emon jakolako. *Timuerunt, et glorificaverunt Deum, qui dedit potestatem talem hominibus.* Jaungoikuak gizonari emon deusazan alizate guztien artian ez da, bada, txikarrena sazerdote batena. Ta au da dotrina onetan ikusi biar doguna. Bateti, Jaungoikuari esker onak emoteko. Ta besteti, sazerdote guztiai lotsa ona ekarteko. Nai dot, kristinaubak, zurtasun puska bat geijagogaz entzun dagiun entzunkizun au.

Onetarako jakin biar dozu, kristinaubak, sazerdotetziak beragaz barrututen ditubala eleisa-gizon guztiak. Aita Santu Erromakua, kardenalak, patriarkak, artzobispuak, obispuak, abade ta praile, meza esala guztiak dira sazerdotiak. *Ta oneen espirituzko alizatia da Jaungoikuagaz beragaz ostian ezaututen dan andijena...* Ikusi daigun zelan: 1. *Sazerdotia dalako meza esalia.* 2. *Dalako pekatu parkazailia.*

### I.

Guztiok gara zerbait daikegunak munduban. Guztiok artu dogu Jaungoikuaren esku santubetati zerbaiterako alizatia, gitxiago edo geijago. Erregiak ta agintarijak eskubide andija daukee luurraren gainian. Aginduten deutsee erriji ta erreinuko jente guztiari. Euren esanian dago mundu guztia. Eurak egiten ditubee bizitziaren ta erijotziaren legiak. Baina euren aginte ta eskubide guztia ez da iragoten luurreko gauzetati. Agintari batek, errege batek, gerragin batek emon legijoz bati entzute andiko zereginak, izen altubak ta ondasunak, Paraonek Jose aintxinakuari emon eutsazan legez. Baina Jaungoikuaren gauzetan, Eleisiaren gauzetan, sakramentubaren gauzetan ezin parkatu legijue gizonari pekatu txikar bat munduko agintari, errege, gerragin, aberats ta indartsu guztiak bat eginda atan kansauko balira bere. Munduko altsubak bendetu legijez gizonak, lotu ta karzelatu legijez, Erodeseke san Pedro egin eban legez; ill legijez gizonak, agintari odolzale askok erruki bagarik ta euren artian Bonapartek geure egunetan ill dituban legez. Baina munduko altsu guztiak bat eginda, euren *alizate* osuak alkarri iraatsita, guztiak nai balebe bere, meza bat esan ezin legije.

Munduko altsubak estaldu legijez itxasuak ontziz, armaz ta gizonez, alkar illteko; bete legijez errijak soldauz, polboraz, kainoez ta alkautzez, alkarren kontra pelietako; birrindu legijez gaztelu senduak, torre andijak



ta antxinetako etxiak, erre legijez etxiak, eleisak, errijak ta erreinubak; itxi legijez kanpuak soilduta, guztiz galduta, gatza emonda, nok negar egin ez daukeela, gerragin askok, esaten danez, alkarren gorrotoz egin dabeen legez. Baina onen guztion *alixatia* geratuten [da] zuretan, arrijetan, burdineetan ta geijen bere gizonen gorputzetan. Guztiak bat eginda bere ezin *konjurau* legije endemoniadu bat. Ezin *bedeinkatu* legije ur tanta bat. Ezin legije eleisako *prozēsinoe* bat. Munduko alizate guztia geratuten [da] luurreko autsaren gainian. Au gaiti esan eban Jesukristok, *gorputzian baino gatxezin leikegubenai, bildurrik ez eukiteko*. Ta san Juan Krisostomok, *urria ta beruna alkarreganik urrin dagozan legez balijuan, alan diriala sazerdoten alixatia ta munduko errege ta agintari guztiena*. Sazerdoten *alixatia* urrezkua ta munduko andi guztien *alixatia* berunezkua da, santubaren esanian.

Noragino elduten da, bada, sazerdote baten *alixatia*? Zeruragino bertaragino, dino san Juan Krisostomok. *Ad Calos usque pervadit*. Sazerdotiari emoten jakon alizatia zeruti jatsija da ta zeruragino bertaragino elduten da. Munduban jazo dan gauzarik andijen ta arrigarriena da Jaungoikuaren Semia gizon egitia. Bada, sazerdoten eskubetan egun oro Jaungoikuaren Semia gizon egiten dan barriro moduren baten, dino san Agustinek: *Vere veneranda Sacerdotum dignitas, in quorum manibus Dei filius, velut in utero Matris, incarnatur*. Berba bigaz sazerdotiak edegiten ditu zerubak ta dakar Jaungoikuaren Semia altara gainera. Berba bigaz ogijaren ta ardauaren izatia biurtuten ditu sazerdotiak Jesukristo Jaungoiko ta gizon egijazko izatera. Ta jazo mirarizko, aingeruben arrigarri au ez dau sazerdotiak egiten bere aldijan bein, ez urtian bein, ez illian bein. Nos, bada? Egunduztietan. Egunduz bizi dan arte guztian. Egunduz egunduz Jaungoiko guztiak obeiduten deutsa sazerdotiaren berbiari. Ta alan Jaungoikuak obeiduteko sazerdotiaren berbiari ta sazerdotiaren esana bertati Jaungoikuak egiteko, izan biar dau sazerdotiak ona, zuzena, santuba ta Jaungoikuaren beraren adiskidia? Ez, kristinaubak.

Au gauza ona izango litzaateke. Baina ez da biarrekua, sazerdotiak berba bigaz Jesukristo zeruti eratsita altaran iminteko. Nai ona izan nai pekatarija izan sazerdotia, nai Jaungoikuaren adiskidia izan nai aredijua izan, nai sinistute onekua izan nai erejia izan, dana dala dan modukua dala, mezaz ordenauba bada, mundura agertu dan gizonik deungena izan arren sazerdotia, zeruban Jaungoikuak obeiduteko deutsa aren esanari, ogija ta ardaa konsagretan ditubanian ta beste sakramentubak egiten ditubanian. Illak biztuteko, gaixuak osatuteko, mutubai berbia emoteko, etorkizunak jakiteko... doia edo alizatia ez deutsee, oi danez, Jaungoikuak emoten bere adiskidei baino. Alan milagro egijazkuak egin dituben gizo-

nak eta emakumiak izan dira Jaungoikuaren adiskide andijak, zeintzuk kontetan dituban Eskritura Sagradubak ta Eleisa Ama santiak. Onei bere, bere adiskide andijak eta txito maitiak izan arren, ez eutseen Jaungoikuak emoten *alixatia* eurak gura eben guztian ta orduban oker edo zuzen milagruak egiteko, ez bada Jaunaren beraren nai santuba zanian. Baina sazerdotiari ordia santuban Jesukristo geure Jaunaren gorputz ta odol santuba konsagretako, Jesukristo Jaungoiko ta gizon egijazkua bera konsagrauta jateko edo inori emoteko edo gordetako emoten jakon alizate altubak ta santubak, ez dauka neurririk, ez dauka eskina baturik, ez dauka ordu jakinik.

Sazerdotiak mezia esan ezkeru, esaten daben moduban esaten dabela, esaten daben lekuban esaten dabela, ta esaten daben beste esaten dabela, beti da mezia meza. Ta beti sazerdotiak berba konsagretakuak esan dagizan orduban, Jaungoiko ta gizon egijazkua osorik eta bizirik bere aurrian. Beti Jaungoikuak obeidu sazerdotiaren konsagretako berbiari, atarako ustez ogijaren ta ardauaren gainian esan ezkeru. Egijua da, sazerdotiak egingo dau pekatu andija, Jaungoikuak berak ta Eleisa Ama santiak aginduten dabeen orduban ta moduban mezia esaten ez badau. Baina au gaiti ez da gitxituten sazerdotiaren alizate santuba. «Oh, Sazerdote Jaungoikuarena! *dino Kasianok*, begiratuten badeutsazu zerubari, zeu altubago zara; begiratuten badeutsazu eguzkijaren, illargijaren ta izarren argijari ta edertasunari, zeu argijago ta ederrago zara; begiratuten badeutsazu aingeruben izate jasuari ta banakatubari, zeu jasugo ta banakatubago zara; begiratuten badeutsazu Jaun andi ta altu guztien altasun jagijari, zeure altasun espirituzkua alsubagua ta jagijagua da; Jaungoikua, gauza guztien Egilia da bakarrik zu baino andijago. *Solo Deo, et creatore tu inferior es.*» Ezer bere ez dago luurraren gainian gauza ondraubagorik... Ta ezda Jaungoikuaren aurrian bere ditxosuagorik sazerdotetzia ba[i]no, dino san Agustinek. *Hoc honore nihil in hac vita prestantius... nihilque etiam apud Deum beatius*. Begiratu bada, kristinaubak, ze jasua ta neurri bagakua dan sazerdotiaren alizate espirituzkua, *meza esalia dalako*. Ta zer, pekatuben parkazailia edo konpesoria dalako?

## II.

Pekaturak parkatutia Jaungoikuari berari jagoko. Judeguben erakuslak bere ezautu eben, Jaungoikuak berak baino bestek gizonari pekatubak parkatu ezin legijozana. Aingerubak bere ez. Santubak bere ez. Erregiak



bere ez. Jaun andijak bere ez. Jakitun andijak bere ez. Aberats aberatsak bere ez. Inok bere ezin parkatu legijoz gizonari pekatubak, Jaungoikuak berak baino. *Quis potest dimittere peccata, nisi solus Deus?* Bestek inok bere ezin legijan gauza andi au egiteko alizatia ta eskubidia emon deutsa, bada, Jaungoikuak sazerdotiari. Sazerdotiai esaten deutsee Jesukristok ta obispo jaunak mezaz ordenetan ditubanian: *Artu egizu Espiritu Santuba; ta zenbek luurrian parkatuten dituzun pekatubak izango dira zeruban parkatubak; ta zenbek parkatuten ez dituzun pekatubak, ez dira zeruban izango parkatubak.* Oh, alizate santuba! Oh, eskubide Jaungoikozkua! Oh, sazerdote Jaungoikotuba! Begaz, zeure zain dagoz munduko pekatu guztien parkazinoiak? Begaz, ez dau Jaungoikuak zeruban parkatuko, sazerdotiak munduban parkatuten ez daben pekaturik? Ez, kristinaubak. Sazerdotiari esan bagako edo esateko ustia artu bagako pekaturik, ez dau Jaungoikuak zeruban parkatuko. Au da sazerdote jaunai Jaungoikuak emon deutseen eskubidia.

Berau gaiti munduko pekatari guztiak, dirianak diriala, esan biar deutsez euren pekatubak sazerdotiari, salbauko badira. Munduko erregiak, agintarijak, jaunak, obispo ta eleisa gizon guztiak bere, pekatu egin bada-bee, Jaungoikuari parka eskatuta, sazerdotiaren aurrian auspaztuta, autor-tu biar deutsez euren pekatu guztiak ta zain egon biar dabee sazerdotia-ren oinetan entzuteko bere aoti: I. *Ego te absolvo a peccatis tuis.* Bada, sazerdotiak askatuten badau pekatubetati, askatuba izango da zeruban. Baina sazerdotiak askatuten ez badau, geratuko da pekatarija bere pekatubakin ta ez deutsaz Jaungoikuak parkatuko. Sazerdotia egin dau Jaungoikuak bere ordeko pekatuben parkazaile.

Zer izan leiteke, bada, munduban gauza andijagua, Jaungoikuaren beraren egikizuna egitia baino? Gizonari bere pekatubak parkatutia baino? Jaungoikuagaz gizonaren artian bakiak egitia baino? Sazerdotiak askatuten badau pekatubetati, askatuta dago gizona, munduban dan pekatarijak andijena izan arren. Ta sazerdotiak lotuten badau pekatuban, geratuko da pekatuban ta ez da inos askatuko pekatuti. *Quorum retinueritis, retenta erunt.*

Zer esango genduke, dino san Juan Krisostomok, ikusiko bagendu errege batek emoten deutsal bere aginduko bati alizatia ta eskubidia, berak nai ditubanak karzelan sartuteko ta ostera karzela ateratako? Ze andija, esango genduke, dala alako gizonaren eskubidia, bere eskuban itxi ezker erregiak nai ditubanak karzela atera ta nai ditubanak karzela sartu egiteko? Baina zer dauka zer ikusi, dino santubak berak, onek, Jesukristok sazerdotiari emon deutsan pekatubak parkatuteko ta lotuteko

eskubide ta alizatiagaz? Zerubak eta luurra legez, gorputzak ta arimak legez dira oneek. Erregiak emon al dagijena luurrekua, aragizkua. Jesukristok sazerdotei emon deutseena zerukua, espirituzkua, arimakua. *Quanto Coelum terra pretiosius est, quanto etiam animae corporibus praestant.*

Esan daigun bada, kristinaubak, sazerdotiari ordiako sakramentu santuban emoten jakon espirituzko alizatia, Jaungoikuaren beraren urrengua da. Oh ezautuko bagendu zeinbat mesede daukaguzan ordiako sakramentu santuti! Esango deusut, bada, au geroko ikasikizunian. Esker onak emon daijoguzan Jaungoikuari mesede oneek gaiti. Ta begiratu daijegun sazerdote guztiari luurreko Jaungoikuai legez edo zeruko aingerubai legez. Oh ze lotsa ona, ze jera ona, ze amodijo ona zor deutsegun sazerkote guz-tia! Nai izan dagijala, bada, zerubak, egikizun santu oni guk kobru emotia. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan  
*zeintzuk dirian ordiako sakramentubak dakarguzan mesediak.*

Jesukristo geure Jaunak egin zituban ta irago zituban pausu ta pena guztiak dira, neure entzula onak, geure mesederako. Jesusen sortutia, jajo-tzia, bizitzia, berbak, penak ta erijotzia, guztia da geu zerura eruateko. Sakramentu guztiak bere onetarako itxi euskuzan Jesus maitiak, oraingino bakoxtaren erakutsijetan entzun dozun legez. Baina sakramentu guztien artian, aparteko pensakizunak ta Jesus maitiari zor deusagun maitetasunaren biztugarrijak daukaz ordiako sakramentu santubak. Beste sakramentubak gaiti esan legi, artuten ditubanaren mesederako diriala bakarrik. Baustismua da batiatuten danaren mesederako. Konpesinoia ondo konpesetan danaren mesederako. Komuninoia ondo komulgetan danaren mesederako. Alan beste sakramentubak. Baina ordiako sakramentuba da artuten dabenaren mesederako ta baita kristinau guztien mesederako bere. Iru mesede egiten deusaz ordiako sakramentubak sazerdotiari: 1. *Emoten deusa grazija.* 2. *Emoten deusa laguntasuna, sazerdote ona izateko.* 3. *Egiten deusa ariman inos galduko ez jakon espirituzko markia.* Beste iru mesede egiten deutseez ordiako sakramentubak batiatuta dagozan kristinau guztiai: 1. *Sazerdotiak egitia.* 2. *Ain prest ta ordu onerako egitia.* 3. *Eleisa guztiari edertasuna emotia.* Mesede bakoxtaren gainian zerbait entzuteko prestau zaite, kristinaubak, sinistute oso bategaz. Ta eurak jirauko zaitube barrero, Jesus onari eskerrak emotera ta sazerdote jaunak ondretara.

I. Sakramentu guztien egitadia da, biar dan moduban pretauta artu ezkerro, arimiari grazija emotia. Ta leen grazijan badago arimia, grazija aztia ta geitua. Ordiako sakramentubak bere au egiten dau. Emoten deusa edo geituten deusa arimako grazija, ordenetan danari. Parkatuten deusaz pekatu txikarrak. Sendotuten deusa arimia etsajaren tentazioiak goituteko ta biztuten deusa gogua Jaungoikuaren naija beti ziur egiteko. Baita onezaz ostian emoten deusa ordiako sakramentubak artuten dabenari, sazerdote ona izateko laguntasuna bere, zein dan bigarren mesedia.

II. Gauza bat da kristinau ona izatia ta beste bat sazerdote ona izatia. Geijago biar da sazerdote ona izateko, kristinau ona izateko baino. Sazerdotetzia dan legez biziera altuba, aingeruben parekua,

Jaungoikuaren urrekua ta espirituzkua, bere eginbiarrak ta zereginak txito dira andijak, astunak ta aragizko gorputz bizijarentzat gatzak. *Jesus bizija egunian egunian eskubetan erabiltia ta eztarrijan beera irunstia... Munduko pekatu guztien juez izatia... Jesusen odolagaz erositako inoren arimen kontuba emotia... Aingeru baten garbitasuna ta ontasuna gorputzian ta ariman gordetia... Munduban bizia ta zerutar izatia...* Oneek dira, neure entzula onak, sazerdotiaren eginbiarrak. Ta oneek dira, aingeruben euren indarrari ikara eragiten deutseenak. Karga astun oneek jasoteko ta sazerdotetzako eginbiar santubai ta gatzai ondo kobru emoteko, ordiako sakramentu santubak emoten deutsee aparteko grazija, argija ta laguntasuna eleisa gizonai. Ordiako sakramentubaren grazijagaz ta laguntasunagaz erakusten dabe sazerdotiak Jaungoikuaren legia; entzuten ditube konpesinoiak; lagunduten deutsee illten dagozan tristia; errukituten dira pekatarijagaz; dendatuten dira kansau bagarik deungak onduten; esaten dabee meza santuba debozinoez; erregututen deutsee Jaungoikuari egunoro onak eta deungak gaiti; alde egiten dabe pekatu lekubetati; emoten deutseez kristinaubai konseju onak, exenplu onak ta betiko egijen ezauberak; gordetan dabee aingeruben garbitasuna luurreko auts ustelaren artian; ta egiten dabee zerutar batzuben bizitzia. Ezin legijez gizonak sazerdotetzako egikizun santubak ordiako sakramentubaren aparteko grazija ta laguntasuna bagarik. Baita egiten deusa sakramentu onek sazerdotiari ariman inos galduko ez jakon markia bere, zein dan irugarren mesedia.

III. Erregiak euren soldaubai imini oi deutseez markak edo ezagun-garrijak jantzijan. Batari bat, bestiari bi ta bestiari iru edo geijago zeinbat nausijago, ainbat geijago, ezagun izan dedin euren alizatia ta mailia. Jaungoikuak, geure Errege egijazkuak bere iminten deutsee bere soldaubai markia ariman, beti ezagun izan ditezan. Bautismuan iminten deutsee kristinau guztiai leleengo ta gero konfirmazinoeko sakramentuban. Marka onek kristinau guztienak dira. Onezaz gainera, aparteko markia egiten deutsee sazerdotiai ordiako sakramentuban. Marka onegaz ezautuko dira sazerdotiak beti Jaungoikuaren urrengo gizontzat. Sazerdotetzari ondo erantzuten badeutsee, arimako marka ak emongo deutsee zeruban Jaungoikuaren ta aingeruben aurrian ondra andija, aparteko argitasuna ta glorijsa. Baina sazerdotiak erantzuten ez badeutsee euren biziera santubari ta jaungoikozkuari, ordiako sakramentubak egin deusaren arimako markia bera izango da inpernuban sazerdoten lotsagarri ta erregerri betikua.

Au gaiti santubak begiratu deutsee beti sazerdotetzari txito bildur andijagaz. Aretati askok ez eben ordenau gura izan sazerdote, sazerdotetzaren karga andija jasoteko bildurra gaiti. Aita san Pranziskuba orde-



nau zan diakonu. Baina ez zan azartu meaz ordenetara, inok egin eutsan alegin gaiti. Jakinak dira Eleisako jazueta san Juan Krisostomoren ta san Basilioren atzerapenak ta aleginak, obispotzia ez artuteko. Baita euren negarrak ta atsekabak, ustez uste bagarik obispo egin zitubelako. Baina guztien azgarrija da Amonimo beneragarriagaz jazo zana. Gizon santu au ordenau gura ebeen sazerdote ta obispo bere jakiturija, ontasun ta zelo agirija gaiti. Bestelan eragotzi ezin ebanian Amonimok sazerdotetzia, jakinik belarri bagako gizona ordenau ezin leitekiana Eleisako erregelak aginduten dabeenez, ebagi eban bere belarrija ordenau ez egijen. Ez eutsan balijo izan onek. Bada, jadiitxi ebeen patriarka jaunaganik Amonimo ordenetako, belarri bagarik egon arren. Ta beeroien nai ta nai ez sazerdote ta obispo ordenetara. Besterik ezin ebanian, esan utseen Amonimok alan bera eroian jentiarri: *Neure berbak diriala medijo naruazu ordenetara. Bada, isten ez badenastazu, agimekin ebagiko dot neure miina ta orduban itxi biarke denastazu.* Onan librau zan Amonimo gizon santuba sazerdote-tzai. Onan begiratu biar jako, kristinaubak, sazerdoten biziera edo estadu altsu, santu ta altubari. Ta erregutu biar deustagu Jaungoikuari, zabaldu dagijuezala sazerdote jaunai ordiako sakramentu santubaren grazija ta mesede guztiak, euren zeregin pisutsubai kobru emoteko ta sakramentu onen mesediak kristinauben arimetara iragoteko. Ikusi daigun, bada, zeintzuk dirian ordiako sakramentubak kristinau guztientzat dakazan mesediak. Onek dira, leen esan dan legez: *Sazerdotiak egitia; orduban ordubango prest eukitia; ta Eleisiari aparteko edertasuna emotia.*

I. Sazerdotetzia da, neure entzula onak, Eleisa Ama santiaren seme ta alaba guztiak gaiti. Alan esaten deusku san Paulo apostolubak. Gizonen arteti artuten diriala obispo guztiak; ta gizonak Jaungoikuagaz daukazan gauzetarako, gizonak gaiti egiten diriala obispo. *Omnis Pontifex ex hominibus assumptus, pro hominibus constituitur in iis, quae sunt ad Deum.* Eleisa guztia ta kristinau guztiak dagoz ordiako sakramentubaren zain, beste sakramentubaren grazijak artuteko. Sakramentu guztiak eta bakotxa dira zeruko grazijen iturri ugarijak. Baina guztien giltza dala, esan legi, ordiako sakramentuba. Kendu bediz sazerdotiak Eleisati, ta zer geratuten da? Kendu bedi ordiako sakramentu santuba. Ta nok egingo ditu beste sakramentubak? Nok parkatuko ditu pekatubak? Nok esango ditu mezak? Nok iminiko dau altarako sakramentu santuban? Nok sendotuko gaitu sinistutian konfirmazinoiagaz? Nok igortziko ditu gaixo illainekuak orrijo santubagaz? Sazerdotetzia kendu ezker, inok bere ez. Nora ezian bautismo bat egin legije kristinaubak ordiako sakramentuba bagarik. Bada, ezkontziak bere sakramentuba izateko, askoren eritxijan, sazerdotetzia biar dau.

Zeinbat esker on emon biar deustaguz bada, neure kristinaubak, Jesus maitiari sazerdotetzako sakramentuba gaiti! Zeinbat maite izan biar dogu Jesus ona, Berak zerura igon da gero bere ordekuak munduban itxi euskuzalako! Munduban daugagu, Jesus zeruban egon arren, nok geure pekatubak parkatu, nok meza santuba esan, nok geu komulgau, nok geuri sakramentubak emon, nok geuri Jeusen berbak esan, nok geu gaiti egin Jesusek berak egingo eban guztia. Ordiako sakramentu santubagaz pretauta itxi euskuzan Jesukristo geure salbazaila Jaunak sazerdotetan, geu salbetako biar dogun guztia. Au da ordiako sakramentubak kristinau guztiai egiten deutseen lelengo mesedia. Baita onezaz gainera edo oni beroni darraikona, *orduban ordu bango sazerdotiak prest eukitia bere.*

II. Ze ditxa andija, neure kristinaubak, orduban orduban ta lekuban lekuban sazerdote jaunak prest eukitia, geure arimako gatzak eta kezak erremedijetako! Eguzkijak jira egiten daben leku guztietan dagoz sazerdotiak. Leku guztietan dagoz prest sakramentu santubak ta Eleisa Ama santiaren grazija ugarijak. Ez dago Jerusalemgo pizsinara jua biarrik ta aingerubaren etor[r]eriaren zain urte askotan egon biarrik geure arimak garbituteko, pekatubak parkatuteko ta zeruko eztegetetako prestatoko. Errijan errijan daukaguz eleisak, sazerdotiak, sakramentubak, ta eleisetan, sazerdotetan ta sakramentubetan kurutzeko arbola santubaren grazija ta ondasun ugarijak, geuk nai izan ezker. Oh ze mesede andija au, dinot oster bere! Onen gainian zerbait esan zan bautismoko sakramentuban. Baina kristinaubak sarri gogoratu biar daben mesedia da au, Jesus maitiari amai baga esker onak emoteko. Sazerdote bat baino mundu guztian izan ez balitz? Amabi baino izan ez balira? Txito banakak ta kontaubak baino izan ez balira? Zer esan ginaijon Jaungoikuari? Ezer bere ez. Eskerrak emon, bat bakarrik itxi euskulako bere. Baina zeinbat neke ta gatz andi, meza bat entzuteko? Pekatubak konpesetako? Jaungoikuaren berbia entzuteko? Zer sinistu, zer eskatu, zer egin ta zer artu biar dogun jakiteko...? Oh, neure entzula onak! Zeubek dakuszu ze gatz izango genduban orduban sakramentubak artuten. Esan daigun, bada; autortu daigun, bada, txito mesede andija egin euskula Jesus onak, lekuban lekuban ta orduban ordubango sazerdotiak itxijagaz. Maitetu dagijela, jaso dagijela ta ondo esandu dagijela Jesus maitegarrija zeruban aingerubak ta santubak. Baita munduko bijotz guztiak bere, ordiako sakramentu santubagaz ainbeste mesede egin euskulako. Ta Eleisiari sakramentu onek emoten deustan edertasuna?

III. Bijuz urrin, neure entzula onak, Eleisa Ama santiaren agiriko edertasunari begi okerrakin begiratuten deutseen guztiak. Bijuz urrin



geure eleisetati orrako luurrezko ta aragizko bijotz lizundubak. Orreek, aragijaren umiak, eurok ta inok daukan guztia nai dabee sabelarentzat, aragijarentzat ta lotsarizko gurarijenzat. Orreek batu al dagijen guztia gitxijegi dabee soinerako, saraurako, jokorako ta *komediantiak* pagetako. Jaungoikua ondretako Eleisa Ama santiak prestetan daben guztia bere txupau gura leukee, uzanak odola legez. Ikusten badabee Eleisa santan zerbait obetuago, osotubago ta edertuago, diadar egiten dabee Judas saltzailiagaz: *¿Ad quid hæc perditio?* Zetako da eleisarako ainbeste kastu egitia? Onan pensau dabee ereje guztiak Eleisiaren ondasun puskak gaiti, Eleisiari egiten jakozan limosnak gaiti, eleisetako abade jaunak gaiti ta komentubetako prailiak gaiti. Inpernuko etsaijak su emonda gerra egiten deutsee Jaungoikuari bere Eleisan. Birrindu ditubee eleisak ta altarak, ukatu ditubee sakramentubak ta ill edo erbestetu ditubee euren errijetati abadiak ta prailiak. Au da, neure kristinaubak, egun oneetako jakitun barrijen egikizun nausija: Sazerdotetzia galdutia ta guztiak aberen gisaan bizi izatia.

Baina gizonak ta inpernu guztiak bere ez dabe balijo Jaungoikuaren kontra. Ordiako sakramentu santubagaz gorde dau ta gordetan dau Jaungoikuak bere Eleisiaren agiriko edertasuna. Ezpabere begiratu orra-ko eleisetara ta eleisako korubetara, nun dagozan abadiak eta prailiak gau ta egun Jaungoikuaren ontasunak, mirarijak ta miserikordijak kantetan. An dago praile aldra bat koruban egunaz ta gau erdijan, bestiak lo dago-zanian, Jaungoikua espiritubagaz ta gorputzagaz alabetan. Beste aldian dago abadetegi bat, euren ordubetan kansau bagarik beste ainbeste egiten. Arutzago dago beste sazerdote bat, meza santuba esaten, Jesusen erijotzia barristetan. Beste asko orazinoian, Jaungoikuari pekatari tristiak gaiti erregututen. Beste asko Espiritu Santubaren eskolan Jaungoikuaren legia erakusten... Baina zer dirudije beste gauzarik geure eleisetako korubak eta eleisak edo korubetako ta eleisetako gau ta eguneko abade ta praile errez-kadak, zeru bat baino?

Ta ez da au, sinistute puska bat daukan kristinaubarentzat, txito mesede andija, bere espirituba ta bijotza Jaungoikuagana ta zeruko gau-zetara jasoteko? Ikusirik ainbeste gizon eleisetan ta konbentubetan Jaungoikuari konsagrauta, Jaungoikua alabetan ta Jaungoikuaren bidiak kristinaubai erakusten, gorputzezko aingerubak dirurijela, nor animauko ez da Jaungoikuaren naija obeto egitera ta zeruba irabaztera? Santu ta santa asko egin dira, neure entzula onak, eleisetako ta konbentubetako sazerdoten agiriko exenplu ona ta ordena zerukua gaiti. Kristinauben espirituba zerurutz jasoteko, ordiako sakramentu santubagaz Jesukristo

geure Jaunak bere Eleisiari itxi eutsan mesedia da sazerdotiak Jaungoikuari emoten deutesen agiriko ondria. Ta au da Jesukristok etsai guztien kontra bere Eleisan gordetan dabena. Giza aldjak irago dira, are-rijo indartsu asko jagi dira ta asmo barri asko artu dira abadiak ta prailiak galduteko. Baina ez da galdu, ez illundu san Pedroren pediak Eleisiari emon eutsan edertasuna. San Pedroren semiak, Elias propeta santubaren semiak, san Benitoren, san Agustinen, san Bernardoren, santo Domingoren, san Pranziskubaren... semiak, zeruban izarrak legez, argi egiten dabe Eleisa santan ta ondretan dabee Jaungoikua gau ta egun, lelengo asi zirianian legez.

Gauza bat esango deusut, kristinaubak, onen gainian. Ta da sazerdote jaunai zor deutsezun ondria ta erreberenzija. Bakizu zer esaten eban Aita san Pranziskubak sazerdotiak gaiti? Esaten eban, bada, *zeruti jatsita-ko santu bat ta sazerdote bat aurrera etorriko balitzakoaz batera, lelengo eskuban mun egingo lenskijola bizirik dagan sazerdotiari ta gero adorauko leukiara zeruti etorri jakon santuba*. Onan begiraturen eutseen Aita san Pranziskubak sazerdote jaunai. Baina esango dozu, oraingo sazerdotiak deungak diriala ta ez dabeela merezietan alan ondretia. Ez da ardura. Deungia izan arren, sazerdotia sazerdote da. Sazerdoten pekatubak Jesukristoren kontura dagoz. Deungak zirian Jesus kondenau ebeen sazerdotiak, Anas ta Kaipas. Baina ez eutseen Jesus onak lotsarik galdu. Ez eban Jesusek ezer bere esan euren kontra. Egin eban isil isilik areek agindu eutseen guztia. Beste ainbeste egin biar dau kristinaubak sazerdote jaunakin, eurak deungak izan arren. Bakizu zer esaten eban Konstanzio agintarijak? *Sazerdote bat topauko balen pekatu egiten, bere soineko jantzijagaz estalduko eukiara laster, inok ikusi ez egijan*.

Emon, bada, eskerrak, kristinaubak, Jesus maitiari, ordiako sakramentu santuba ta sakramentubagaz ainbeste mesede andi itxi euskuzalako. Ondrau sazerdote jaunak ta eleisa-gizonak, Jaungoikuaren urrengo gizonak ta geure arimetako gurasuak dirialako. Onan egingo dogu Jaungoikuaren naija, irabaziko dogu arimako grazija ta betiko zeruko glorija. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## EZKONTZAKO SAKRAMENTUBA

### I. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zelan prestatu biar daben kristinaubak biziera barrija artuteko.*
2. *Ez jagokan bizieria artubak oi dakaizan kaltiak.*

Jesukristo gure Jaunak Eleisa Ama santiari itxi eutsan zazpigarren ta azkeneko sakramentuba da, neure kristinaubak, ezkontutekoa. Sakramentu santu onen asipena dator paradisuti, mundubaren asierati. Orduban esan eban Jaungoikuak: *Ez da ondo gizona bakarrik izatia. Egin dajogun bere eriko laguna.* Alan emon eutsan Adani Eba laguntzat. Oneek dira geure lelengo gurasuak ta munduko lelengo senar emaztiak. Andi ona beti iraun dau ta iraungo dau, munduba mundu dan artian, ezkontziak. Jesukristo geure Jaunak leenagoko giza aldijetako ezkontzia jaso eban sakramentu santu izatera. Gauza onetan sinistu biar doguna da, ez dala ezkontzia gizonak asmauba, ez bada mundubaren asieran bertan Jaungoikuak berak itxita, Jesukristok ontzat emonda, sakramentu egin ebana. Au da Eleisa Ama santiak erakusten deuskuna Trentoko batzaar santuban. Dino, bada: *Inok esaten badau Jesukristo geure Jaunak itxitako eban-jelijoko legeko zazpi sakramentubetati egijazko sakramentu bat ez dala matrimonia edo ezkontzia, ez bada dala Eleisiak asmauba ta grazijarik bere emoten ez dabela, izan dedilla eskomulgauba a esaten dabena.*

Sinistute onegaz berba egin biar dogu bada, neure entzula onak, ezkontziaren gainian. Ta ainbat argiruen zeubei aituten emoteko sail onetan jakin biar dozuna, esango deusut sakramentu onen erakutsijetan: 1. *Biziera barrija artuteko prestaeria.* 2. *Ezkontziaren gainian zelan pensau biar dan.* 3. *Ezkontuteko zelan prestatu biar daben kristinaubak; ta ezteguno eguna zelan irago biar dan.* 4. *Ezkontza onaren prutubak.* 5. *Zegaiti uts egin oi dan ezkontzako bizieria artuten.* 6. *Zelan bizji biar daben ezkontubak.* Ara, kristinaubak, guztiok jakitia ondo dana ezkontzako sakramentubaren gainian. Bakizu, askori jagokazan ikasikizunak diriana oneek. Berau gaiti eskatuten deusut guztiok, sakramentu santu onen erakutsijak amaitu artian, etorri zaitezala guztiok entzutera. Bateti, biziera au artuten uts egin badozu norbaitek, jakin dagizun aurrera zer egin biar dozun. Ta besteti, oraindino uts egin ez dozunok edo ezkondu bagarik zagozanok, ikasita egon zaitezkan ezkontzako biziera barrijaren gainian. Gaurko erakutsija izango da edozein estadu edo biziera kristinaubak artuteko prestaeriaren gainian. Esango de-



tsut: 1. Biziera barrija artuteko zelan prestau biar daben kristinaubak. 2. Ez jagokan bizieria artubak oi dakazan kaltiak. Au izango da oraingo zeuben entzunkizuna. Eskatu daijogun zerubari, nik esateko ta zubeke ondo entzuteko biar dogun grazija.

## I.

Ez eban gura izan Jaungoikuak, neure entzula onak, munduko gizon ta emakume guztiak euren biziera edo estaduban lege baten azpian iminitia. Ez eban gura izan, guztiak bide bateti zerura eruatia. Baki Jaungoiko onak, bakotxak bere naijak ta gogoeraak daukaguzana, bizi moduba artuteko. Au gaiti imini zituban zeruban egon leku asko. *Mansiones multae sunt in Domo Patris mei*. Zeruban egon leku asko badagoz, zerura juateko bidiak edo bizieraak bere asko dira, dino san Juan Krisostomok.

Zerura juateko bide edo bizi modu oneek dira, Eleisa Ama santiak erakusten deuskunez: Edo ezkonubena, edo ezkondu bagarik Jaungoikua obeto serbidutia gaiti geratuten dirianena. Lelengo guztiena bide bakarra da. Bada, ez dago ezkontzako sakramentu bat baino. Nai aberatsa izan ta nai pobria izan, nai entzute andikua izan ta nai gitxikua izan, ezkondu bada, ezkonduaren kargak jaso biarke ditu zerura juateko. Jaungoikua obeto serbidutia gaiti ezkondu bagarik geratuten dirianak, ez duaz guztiak bide bateti zerura, ez bada bakotxak onduen deritxuen bideti. Oneek dira: Edo erlijinoe baten sartuta boto sagradubakin Jaungoikuari konsagretan jakozanak, zeintzuk dirian prailiak eta monjaak. Edo ordiako sakramentuba artuta eleisa gizon egiten dirianak, zeintzuk dirian sazerdote jaunak. Edo gorputzeko ta bijotzeko osotasunaren *eskini* santuba (zein dan birjinidateko botua) Jaungoikuari eginda, gorputz ta arima oso ta garbi, erlijinoetan sartu bagarik, Jesus maitiari entregetan deutseenak. Oneek dira birjinidateko botuagaz euren etxeetan bizi diran gizon eta emakumiak. Edo dira birjinidateko osotasuna galduta, aurrera beti garbi izateko eskini Jaungoikuari eginda, ezkondu bagarik euren etxeetan bizi dirianak. Oneek dira kastidateko botodunak. Edo dira azkenian, garbitasunaren botorik edo eskinirik Jaungoikuari egin bagarik, Jesusen amodijo santuba gaiti ezkondu bagarik ta garbi euren etxeetan bizi dirian gizonak ta emakumiak.

Ara emen, kristinaubak, zeinbat bide edo biziera itxi deuskuzan Jaungoikuak, zeruba irabazteko. Bakotxak artu daike gureen dabena.

Batari gatxa badeitxo, bestia. Ari astuna badeitxo, au. Gura dabena gura dabena. Bada, bide onetati guztietan jua dira kristinaubak zerura. Ta aurrera bere juango dira ta irabaziko dabee zeruban dagozan egon leku askotati, bakotxak bere egite onai jagokuena. Zelan prestau biar dau, bada, kristinaubak, nor berari jagokan bizieria artuteko? Aitu egizu, bada, zelan.

Sinistu biar dogu onetarako, Jaungoiko onak ta jakitunak nai dabela gu guztiok salbetia, *vult omnes homines salvos fieri*, ta geuk baino obeto ezaututen dabela geure guztion argaltasuna ta jauskortasuna. *Ipse cognovit figmentum nostrum*. Baki Jaungoikuak zeinek zetan daukagun zeruba galduteko gatx nausija. Gere sortuerati ta leenagoti daki Jaungoikuak ze gurari gaistok emongo deuskun lana ta zeregina, Jaungoikuaren legia gordetako ta zeruba irabazteko. Ta ezauturik Jaungoikuak geure gatx-eragina nausijak, dei egiten deusku bakotxari areek goituteko estatura edo bizierara. Batari soberbijak eta andi guriak galdu eragingo leuskijo zeruba. Bada, ari dei egiten deusa Jaungoikuak humilde ta txiki izateko lekura ta bizierara. Bestiari kodizijak ta ondasun guriak galdu eragingo leuskijo zeruba. Bada, ari dei egiten deusa Jaungoikuak ondasunen ardura bagarik pobre izateko bizierara. Beste bati bijotzeko mukertasunak, gogortasunak ta ezi gatxak ausi eragingo leuskijo legia, egingo leuke buru gaistoko, temotsu ta bake txarreko. Bada, oni dei egiten deusa Jaungoikuak inoren agindupera, an ezi ta mansotu dagijen. Modu onetan, ezetan bere paltarik ez daukan Jaungoikuak dei egiten deutsee kristinaubai zeruba irabazteko onduen juakuen estatura edo bizierara.

Zelan jakingo dau baina kristinaubak, Jaungoikuak ze estatutara dei egiten deusan? Ez pensau Jaungoikuak aingeru bat bialduko dabela au esatera. Askogaz egin dau au. Askori aingeru baten bitartez esan deutsee Jaungoikuak, onako edo alako erlijinoian sartuteko; onako edo alako biziera artuteko. Baina ez da au oi dana. Oi dana da Jaungoikuaren aparteko esan agiri bagarik, estaduba artutia. Au ezaututeko ta jagokana azertetako sinistu biar dau, Jaungoikuak aingerurik bialdu ez arren ta agiriko esanagaz dei egin ez arren onako edo alako bizierara, sarritan bere bijotzian ta goguan kristinaubari aituten emongo deusala zein dan, zeruba irabazteko onduen juakon estaduba. Iragoko jako bere bijotzian ez gitxitan *biziera batari ondo eristia; aintxe zeruba errextuago irabazten dalako argija ta ezauberia; aintxe Jaungoikua ondo serbiduko leukiata pensanta, bijotza pozutua; biziera axe berekautan legez sarri gogora etortia edo gogoti kendu ezin izatia...* Oneek oi dira Jaungoikuak ixilik estadurako egin oi dituban deijak. Batez bere, edo ondo konpesetan danian, edo komulgauta gero, edo arimako gauzetan astirugau pensetan danian. Beste aldeti, onako edo alako esta-





dubari badeutsa kristinaubak bijotzeko gogo illuna, astuna ta nekezkua; a estaduba gogoratu arren, poztuten ez bajako bere bijotza, kasik ezagun da Jaungoikuak atara dei egiten ez deutsana.

Sinistu biar dau kristinaubak onezaz gainera, biziera barrija artuteko denporan ez dala lo egongo inpernuko etsaija. Aragijagaz ta mundubagaz edo munduko adiskidekin ta senidekin balijauta egingo dabela diabrubak alegin guztia, kristinaubari uts eragiteko estaduba artuten. Au gaiti dira mutil edo neskatila batek konbentu batera Jaungoikua serbidutera jua gura dabenian jagi oi jakozan tentazinoiak, bildurak eta larriak, uts egiten ete daben. Baita senidiak, auzuak ta ezagunak milla duda, milla ardu-ra ta milla bildurgarri esatia bere, konbentuban sartu ez dedin ta galdu ez dedin. Zer? Jaungoikuagana zuzen baino zuzenago jua gura dabena ta doiana galdu? Ez. Ez dago olakorik. Diabrubak irundako matasa naas-tauba da, erlijinoe baten sartu gura dabenari senidiak, adiskidiak, ezagunak ta aragijak irakoiten deutseen dudazko, ardurazko ta bildurrezko gerra illuna ta astuna. Oneek guztiok goituteko, biziera barrija artutia pensetan dabenian kristinaubak egin biar dabena da:

*Lelengo:* Garbitu bere gogua ta bijotza ainbat onduen aragizko poz-garrijetati ta ez beste gauzari begiratu estaduba aukeratuteko, Jaungoikua serbidutiari ta arimia salbetiari baino. *Bigarrenian:* Eskatu bene benetan Jaungoikuari ta Ama Birjina guztiz santiari zeruko argija ta bijotzeko gogua, onduen ariman juakon bizieria aukeratuteko ta artuteko. *Irugarrenian:* Egin aparteko erregubak zerubari, estaduba artuteko edadia danian; edo konpesinoiak ta komuninoiak, edo baraubak, edo limosnak, edo santuren bati bederatzi eguneko meza entzutia, estazinoia... Jaungoikuak prestau dagijon gogua ta eria, jagokan estaduba artuteko. *Laugarrenian:* Agertu argiro konpesore bati edo gizon aitu Jaungoikozko bati ze biziera eskatuten deutan bere goguak, ta eskatu uste onagaz bere eritxija edo konsejuba. *Bostgarrenian:* Gurasuak badaukaz edo guraso ordeko nausijak, kontu emon denporaz arei bere, berak artuteko ustia daukan estaduba, ta eskatu euren ontzat eruatia ta bendizinoia. Onan prestetan bada kristinauba Jaungoikuak nai daben ta berari ariman ondo juakon estaduba azertetako uste onagaz, ez deuta zerubak ukatuko biar daben argija, ezauberia ta grazija.

Baina zer jazoten da? Ah! zeubek dakizu ondo. Estaduba artutia danian, geijenian, ez Jaungoikuari erregututen jako bere naija zein dan ezaututeko, ez arimia zeruratutiari begiratuten jako, ez bere bijotzian ta goguan sarri irago jakozan estaduba artutiaren gaineko isilikako deijai ta abisu santubai entzuten jakue, ez arimarako egija egijazkua esango leus-

kijuenai itanduten jakue. Mundubaren eritxijan bizi izateko ona bada artutera doian bizieria, norberaren arimiari jagokana ta Jaungoikuak dei egiten deutsana izan ez arren, itsu itsuban artuten da. Baina pensetan ete dabee ze uts-egite andija dan au bai gorputzerako ta bai arimarako? Ikusi daigun.

## II.

Estaduko uts-egitia ez da edozein uts-egite, ez bada da zimentuban edo oinian uts egitia. Zimentu okerra daukan etxia apiauta baino ezin egon da. Ta apiuai bultzaka dago beti. Oina okerra daukana beti dabil errenga. Ta beti penaz. Kontu egizu bada, kristinaubak, biziera barrija edo estaduba dala etxiaren zimentuba edo gorputza erabilteko oina legez, nor bera munduban kontentuz izateko ta zeruba irabazteko. Uts egiten badau bizieria edo estaduba, iminten deuta asieran errena munduko bizitiari ta arrisku andija zeruba irabaztiari. Euki legi etxian biar dabena ugari. Euki legi osasuna. Euki legi agiriko bakia. Baina, zer balijo deutsee oneek kontentuz egoteko, bizierako errena bijotzian daukanari ta artu daben estadubaren kontra bere gogua beti bultzaka daukanari?

Dei egiten deuta Jaungoikuak ta bere goguak bati ezkontzako estadura. Ta edo gurasuak edo senidiak edo ez dakit nok sartuten dabee konbentu baten a. Zelan biziko da kontentuz, soinian ta sabelian biar dabena ugari euki arren, alan konbentura doian errukarrija? Ta ze arriskutan geratuten da aren zeruba irabaztia? Zeubek pensau. Dei egiten deuta beste bati Jaungoikuak ta bere goguak munduko bizierara. Ta edo gurasuak edo senidiak edo ez dakit nok biurtuten dabee a abade izatera. Zelan biziko da kontentuz, errenta andija euki arren, alako eleisa gizona? Ta ze arriskutan geratuten da bere arimako salbazinoia? Zeubek pensau. Dei egiten deuta beste bati Jaungoikuak eta bere goguak, konbentu baten sartuta, ondo baino obeto gorputz ta arima garbiro Jesus serbidutera. Ta gurasuak edo senidiak edo ez dakit nok ekarten dabee ezkonduera. Zelan kontentuz biziko da goguz kontrako estaduban? Zelan iragoko ditu bere bizitzako egunak? Jaungoikuak eta bere goguak eskatuten deutsee bakartasuna, Jesusen bizitzako ta erijotzako jazuak pensetako astija, bere bijotza, arimia, espirituba ta gorputza Jesus maitiari osorik emotia edo zerutar baten moduban Jaungoikuagaz bizi izatia. Ta daukan bizieraan guztia da luurreko gauzen arduria, zeregina, priisia ta aragizkua. Zelan eukiko dau



poza? Ta ze arriskuban iminten dau alan ezkonduen danak bere arimako salbazinoia? Zeubek pensau.

Begiratu bada, neure entzula onak, estaduko uts-egitia ez dala bein-guan adabetan. Beste uts egitiak, lapurreta batek, alduterijo batek, gizon illte batek erremedio jakinak daukez, norberak nai izan ezker. Baina estaduko uts egitia dan legez bizi guztiko uts egitia, beragaz dauka beti gan zorroz bat bijotzaren erdijan, zeinek esaten deutan gau ta egun urtiak iragota bere: *Oker nua. Ezin ni onan salbau neinteke. Ah! Zeinbati entzun oi deutsegun berba triste, errukarri ta bildurgarri au?* Estaduko uts egitiak erabagiten dau geijenian geure zerurako edo inperurako bidia. Munduko eraak gaiti, aragijaren engainubak gaiti, etsaijaren eskini paltsuak gaiti, edo inoren erregubak gaiti artuten da nor berari ez jagokan estaduba, Jaungoikuak dei egiten ez deutan estaduba, itsu itsuban arimaren onari begiratu bagarik ta pensau bagarik. Ta gero zelan artu, alan bizi ta alan ill.

Jaungoikuak librau gaizala alako biziera penazko ta arriskukuetati bere neurri bagako ontasuna ta erraija bigunak gaiti. Munduban egunak naibagez ta triste iragota, gero betiko pena lekura eruan ez gaizan. Alan gura izan dagijala Jaun zerukuak, bera dana dalako. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

## II. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*zelan pensau biar dan ezkontzako bizieraren gainian.*

Aitu zenduban, neure entzula onak, leengo erakutsijan, zeinbat bali-jo deutan kristinaubari estaduba artuteko prestaera onak. Gurasuak txito kontu andija euki biar dabee, euren seme alabai nai dabeen bizieria artuten isteko. Bada, norberaren gogo bagako estadubak gitxitan oi ditu prutu onak. Umiak gura daben estaduba artuten lagundu al badagijue gurasuak, lagundu biar deutsee. Baina lagundu ezin izan arren umiari berak gura leukian estaduba artuten, ez dabee esanagaz, erregubagaz, edo zamaijagaz ekarri biar gurasuak umia gogorik ez daukan estadubak artutera. Kontu onetan gurasuak. Ez zaizala diabrubak inos engainau, zeuben irabazija edo munduko ustezko era ona gaiti umia ez jagokan ta atzerapena daukan estaduban imintera. Bada, orduban iminten dozu zeuben partez umia inpernuko bidian.

Au aituten emon ezker, gauza ona da kristinaubari aituten emotia ezkontziaren gaine pensakizun batzuk. Bada, Jeremias propeta santubak dinuanez, munduko gatxik geijenak datoz gauzak ondo ez pensetati. Bada, gatxak erremedijetako gauza ona bada ondo pensetia, bere duinan ez da izango gitxien baliyo dabena ezkontziaren gainian leendanaz ondo pensetia, ezkonduak ondo izateko. Berau gaiti gogoratuko deuntsudaz erakutsi onetan pensakizun batzuk, curai begiratuta kontu obiagaz artu dagijan kristinaubak ezkontzako estadu santuba. Entzun egidazu gogoti.

*Lelengo:* Pensau ta sinistu biar dogu, neure entzula onak, ezkontzia Jaungoikuak berak itxija dala, leen esan dan legez. Adan eta Eba geure lelengo gurasuak kriadu edo egin zitubanian asi zan ezkontzia bere Jaungoikuaren ordenaz. Adan eta Eba dira munduko lelengo senar emaztiak. Andi ta Jesukristo geure Jaunaren etorrierara ezkontzia zan gizonak eta emakumiak egiten ebenen tratu bat, alkarregaz beti izateko ta bata bestiarene gorputzen eskubidia alkarri emoteko, Jaungoikuak ta errazoiak aginduten daben legian. Aintxinako denpora aretan ez eban ezkontziak berez arimia santututen. Ez eban arimako grazija berez emoten. Ez zan orduko ezkontzia egi jazko ta benetako sakramentuba, ez bada zan pekatu bagarik seme alabak eukiteko ta senar emaztiak alkarregaz bizi izateko tratuba edo bategitia. Baina Jesukristo geure Jaunak jaso eban sakramen-



tu izatera ezkontzia. Ta da zazpigarren sakramentuba, leen esan dan legez. Jesusek berak ondrau eban ezkontzia bere Ama guztiz garbijagaz Kanaango eztegetetara jua zanian, nun egin eban Ama Birjiniaren erreguz leleno milagrua, ura ardao biurtuta.

*Bigarrenian:* Pensau ta sinistu biar dogu, ezkontzia itxi ebala Jaungoikuak munduban izan ditezan gizonak eta emakumiak, berak senalauta daukan juizijoko egun artian. Baita Adanen pekatubaganik jatorrun guraririk indartsubenaren ta gaistuenaren erremediorako bere, dino san Paulo apostolubak.

*Iruugarrenian:* Pensau ta sinistu biar dau kristinaubak ezkontzia ez dala pekatu, ereje batzuk erakutsi dabeen legez. Ezkontzako bizieria edo estaduba ona da, santuba da ta santu izan leitekiana da, norberak gura izan ezkeru. Denpora guztietan ezautu dira santu ta santa andijak ezkontzako bizieran. Naturalezaren legian ezkontzako estaduban Jaungoikua serbidu ebeen ta eldu zirian ontasunaren altura andira Noe, Abraan, Isaak, Jakob ta beste asko. Moisen legiaren denporan, ze ontasun ta santutasun andira eldu ez zirian beste askoren artian, Moises bera, Samuel, Tobias, Judit, Susana, san Joakin, santa Ana, Zakarias, santa Isabel ta beste milla? Jesukristok sakramentu izatera jaso eban ezkeru, ugarijaguak dira askozaz ezkontziaren grazijazko prutubak. Erregiak eta erreginak, kaballeruak eta señoarak, nekezarijak eta opizijo guztietakuak dagoz, ezkontzako estaduban lege santuba ziatz gorde dabeenak, bijotz garbijagaz Jaungoikua maite izan dabeenak ta ezkontzako karga astunai ta gatxai karidadiagaz ta pazienzijagaz kobru ondo emon deutseenak. Seme alabak azi ditubee zelo santu bategaz erakutsi onian ta Jaungoikuaren bildurrian. Imini dabee euren uste guztia zeruko ondasunetan ta itxi deutseez ondorengo ezkontdu guztiai zer ikasi ta nori jarraitu.

Ezkontdu santuben artian ez daukee lekuri txikarrena ez zeruban ta ez Eleisa Ama santiaren altaretan san Hermenejildo errege martirijak, san Fernando, san Luis ta san Esteban erregiak, san Enrike agintarijak, santa Margaritak ta santa Isabel erreginak, santa Monikak, santa Paulak ta santa Pranziskak ta geure san Isidro nekezarijak. Oneek eta beste kontau ezin ginaizan eduk, ezkontzako estaduban jaditxi ebeen santu izatia ta Eleisa Ama santiak altaretan iminita ondretia. Ona da bada, kristinaubak, ezkontzako estaduba. Ta ezkontuten danak ondo egiten dau, dino san Paulo apostolubak. *Qui matrimonio jungit virginem suam, bene facit.*

*Laugarrenian:* Pensau biar dogu, ez daguala gizon edo emakume bakotxarentzat nai ta nai ez ezkontuteko legerik. Nor beraren eskuban itxi dau Jaungoikuak, naijen daben estaduba artutia. Nai badau ezkontdu.

Nai badau ain bagarik. Nai badau erlijinioian. Nai badau kanpua. Estadubaren gainan bakotzak gura dabena egin dajjala, dino san Paulo apostolubak. *Quod vult, faciat.* Onako ate zabala ta bide zabala itxi euskun Jaungoikuak geu salbetako. Emon, bada esker onak Jaungoiko Santubari.

*Bostgarrenian:* Pensau ta sinistu biar dogu, estadu guztietati beerengua dala ezkontzia. Esan gura neuke, kristinaubak, ezkontzia baino beste edozein estadu Eleisa Ama santiak erakusten dituban ta leen esan dirian oba dala berez, pekatuban ez jausteko, Jaungoikuaren naija egiteko ta zeruba irabazteko. Esan gura neuke, beste edozein estadutakuak baino ezkontubak era geijago daukazala berez, Jaungoikuaren lege santuba austeko, betiko egiijakin aztuteko, munduko gauzetan bijotza ta gogua laarregi iminteko, pekatu egiteko ta zeruba galduteko. Esan gura neuke, ezkontuben estaduba, bateti munduko arduratsubena dalako ta besteti aragijaren erakuena dalako, dala Jaungoikuaren naija egiteko gatxeena ta arimako irabazirik gitxien berez daukana.

Alan esaten deusku Eleisa Ama santiak Trentoko batzaar santuban. *Esaten badau inok, dino, ezkontubien bizieria obia dala birjinena baino edo ezkontdu bagakuena baino, ta ez dala obiago birjinidadian edo ezkontdu bagarik bizi izatia ezkontuta bizi izatia baino, izan dedilla eskomulgauba ta madarikatuba a esaten dabena.* Jesukristo geure Jaunak ez deusa inori iminten, esan dan legez, ezkontdu bagarik bizi izateko legerik. Baina konbidetan ditu kristinaubak ezkontdu bagarik bizi izatera garbitasunaren amodijua gaiti ta zeruko erreinuba irabaztia gaiti, zeinegaz erakusten deuskun Jesus maitiak, erlijinoeko estaduba, birjinen estaduba ta librean estaduba obiak diriala zeruba irabazteko, ezkontubena baino.

San Paulo apostolubak esaten deusku zer gaiti dan au. Dino, bada, birjinen ta Jesusen amodijo garbija gaiti ezkontdu bagarik geratuten dirianen gogua ta naija dala Jaungoikuari zelan gusto emongo deutseen. *Quomodo pla ceat Deo.* Ezkontubien gogua daguala munduko gauzetan ta euren arduria dala zelan lagunari gusto emongo deutseen. *Quomodo placeat viro.* Birjinen ardura nausija da Jesus maitiari naija egitia. Atarako daukee osorik Jesusentzat euren gorputza ta bijotza. Baina ezkontubien ardura nausija edo guztia da mundubarena ta lagunarena, Jesusentzat ezer gorde bagarik; edo da zati bi egin, bata lagunarentzat ta mundubarentzat, ta bestia Jesusentzat. *Et divisus est.* Ara ezkontubak zelan emoten ez deutsan Jesus garbijari bere bijotza ta gorputza osorik eta garbi, birjinak legez. Esan daigun, bada, estadu guztietati beerengua dala ezkontubena, Jaungoikua serbiduteko ta zeruba irabazteko. *Birjinen estaduba urria, ezkontdu bagakuena zidarra ta ezkontubena burdinia dala,* dino obispo santu batek.



*Birjinen estadubak argi egiten dabela, eguzkijak legez; ezkondu bagakuenak, ixio-tako argia legez; ta ezkondubena dala illuna. Birjinidadekua dala erregina; ezkondu bagakua seinoria; ta ezkondutakua krijadia. Birjina ondasun ugaritsuba, ezkontzakia biarreko duina ozta daukana ta ezkonduba pobria dala. Birjinen bizitzia dala bake osokua; ezkontzakena gerran irabazitako bakezkua; ta ezkondubena presuen bakezkua.*

Modu onetan birjinen estaduba bat egiten dabee urriagaz, eguzkijagaz, erreginagaz, ugaritasunagaz ta pozezko bake onagaz. Birjinidade galduba, baina garbatuba ta Jesusen amodijua gaiti ezkondu bagarik bizi danarena bat egiten dabee zidarragaz, kandela ixuiagaz, seinoriagaz, arerijuak urrian daukazan gerrako bake irabazijagaz ta nora ezekua baino geijago ez daukanagaz. Ezkondubena bizitzia bat egiten dabee burdiniagaz, laino arteko illunagaz, krijada baten biziera bajubagaz, kate lotuzko bakia-gaz ta ezeuki tristiagaz. Ez da ezkontzako sakramentubari berez jatorkana au, ez bada ezkontziaren zereginai ta eginbiarra jatorkuena. Ezkontzia ona da, dino san Gregorijok. *Bonum est conjugium.* Baina ez dira onak ezkontziari darraikoan eginkizunak, aragijaren argaltasunari ta munduko ardurai ta gatxai begiratu ezkeru, dino Santu andijak. *Sed mala sunt, quae circo ilud ex hujus mundi cura succrescunt...* Bide onian jua arren, bide onduko laarrak urratu legijez geure jantzijak, dino Santubak. Beste ainbeste: Ezkontzia ona izan arren, zerurako bide ona izan arren, oratuten jakuez geijenian ezkondubai aragijaren gurari gaistuen ta munduko arduren laarrak, zeintzuk katiatu ta atzeratuten dabeen ezkondubaren arimia zerurako bidetan. Esan daigun, bada, barriro ta sinistu daigun, neure entzula onak, estadu guztietati bajubena dala ezkontzia.

*Seigarrenian:* Pensau ta gogoratu biar da sarri, (ezkonduten danak, ze sailetan bere buruba sartuten daben jakiteko) Eleisako jazuai begiratu ezkeru, ezkontziak berak bakarrrik zeregin geijago emon deusala ta emoten deusala Eleisa Ama santiari, beste estadu guztiak baino. Au bere ezin ukatu ginai, kristinaubak. Giza aldi guztietan ta leku guztietan entzuten dira negargarriak edo ezkondubena artian edo ezkontzia bitarte dala. Batian jagi dira ezkontzia gaiti gerra odoltsubak. Bestian bera gaiti galdu dira erreinu osuak. Baita ez gitxitan erreinu ta erri askotako Jaungoikuaren ta Eleisa Ama santiaren sinistute santuba bere. Ta geratu dira triste errukarri areek pede bagarik ta Jaungoiko bagarik, ezkontzia dala medijo. Baina zeinbat onako gatx negargarri zabaldu dira giza aldijetan asitako ezkontza bat edo egindako bat dala medijo? Oh! Ez da erreze, kristinaubak, sail onen naibagaak kontetan. An entzuten da, emaztiak senarra ill dabena. Bestian, senarrak emaztia ill dabela. Beste aldian, senar-

emaztiak auzitan dabizala. Gerotxuago, alkarregaz izan ezinda apartau diriala. Bata, lagunari burla eginda, adiskide deungekin adulterijotzan sakramentubaren lotsagarrija bizi dala. Bestiak emaztia saltzen tratu loijan imini dabena. Or ikusten dira senar emaztiak alkarri bidaoka, inper[n]u txiki bat eginik euren etxiak. An dabilz neska mutilak auzitan, dabeena ta ez dabeena kastetan alkarren gorrotuan, berba emona ukatu deusalako. Bestia dago karzelan denpora luzetan, ezkondu nai ez dabela. Areek dagoz pekatuban lotsa bagarik erri guztiaren jakinian ta zer esanian, alkarregaz ezkontzeko atxekijagaz. Beste batzuk... Baina zeinbat onetariko naibage, eskandalu ta negargarri, ezkontzia dala bitarte? Ezin kontau legiz, neure entzula onak.

Zegaiti deritxazu au? Ezkontzako sakramentuba ta estaduba ona ez dalako? Ez, neure kristinaubak. Jaungoikuari erruba ezartia izango litzaateke au. Zegaiti da, bada? Zegaiti? Jaungoikuak aginduten daben ta ezkontzako sakramentubak eskatuten daben gogo onagaz, garbijagaz ta zuzenagaz ezkontzako estaduba artuten ez dalako. Au gaiti dira, neure kristinaubak, ezkontzako gatxak. Ikusi arren egunoro ezkontza bide bagakuak, errazoe bagakuak ta onian irauteko etxuririk ez daukeenak; ikusi arren ezkondu asko zelan ezkondu, alan bizi, bake txarra, gozo gaistua, zelo minberak, alkarren gorrotua ta zer esana naikua etxian daukeela; ikusi arren ta entzun arren sarri bide bagako ezkontzen sail negargarriak, ez dau inok sinistu gura ezkontzako estaduba dala uts egiten erraza ta erre-medijetan gatxa, ta orregaiti ondu, astiro pensautu artu biar dana. Ez dau inok penseetan, ezkontzia egin biar danielan, jazo txarrekuia ala ona izateko bidia daroian edo ez. Ta alan jazoten dira gero ainbeste ezkontza zer esaneko.

Ez dakit nik, kristinaubak, zelan dan au. Seme edo alaba batek artuten badau asmo santuba praile edo monja izateko edo Jaungoikua serbiduteko biziera obago bat artuteko, bertati bildurtuten dira gurasuak, seni-diak, baita auzuak bere, estaduba artuten uts egin ez dagijan ta galdu ez dedin. Guztiak esaten deutsee, ta zeinbat bidar? praile edo monja Jaungoikuak dei egiten deusnari, *ondo pensau dagijala; begiratu dagijala; estaduba artutia ganza astuna dala; garbatu lekijola; gero erremedijorik ez daukala; ez dakit nor baiti bere garbatu eijakola...* Atertu bagarik esesten deutsee juakuenak ta ez juakuenak konbentu batera Jaungoikua serbidutera jua gura dabeneri, axe buruti kendu eraitarren. Ez dinot gaiki egin dala, praile edo monja gei bati juakonak esatia, *ondo pensau dagijala zer egitera doian.* Au gauza ona ta biarrekua da. Baina ainbeste bildur ta ardura, inor prailetzan edo monjatzan galdu ez dedin; ta ain gitxi, semia edo alabia, nebua edo



arrebia edo juakona ezkontzan galdu ez dedin, ez dauksa alkarri. Praile edo monja garbatu bakotxeko eun ezkondu garbatu ta geijago izan arren, euren bizi modubak dinuanez, ez dau inok uste ezkontzia aita danian, ezkondu ezkeru, gatxak joko ditubanik. Asko da ezkonduzia, ezkondubak ondo izateko mundukuen eritxijan. Nekez esaten jako ezkongejari: *Kontu, zer egiten dozun; kontu, nogaz bat egiten zarian...*

Begiratu bada, kristinaubak, ezkontzako sakramentuba sakramentu santuba, garbija ta zuzena dala. Baina estadu guztietati bajubena dala. Ezkontzeko, beste edozein estadu artuteko baixen kontu ta ardura andija biar dala. Ezkontzetan txito uts egite asko ta andijak oi diriala. Ta berak zer eginik ta atsekabarik geijen Eleisiari ta juezai emoten deutseela. Oh, zeinbat dagozan ezkonduzia, edo inoren esana ta erreguba gaiti, edo euki-ja gaiti, edo gurasuen naija ta oneria gaiti, edo edertasuna gaiti, edo pekatuzko amodijua gaiti, ondo garbatuta, buztarripian ez balegoz nai leukeela! Oh, Jaungoiko Santuba! Emon egiguzu zeure argija ta grazija, zeruba irabazteko biar doguna egiteko. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

### III. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Zer egin biar daben kristinaubak ezkontzako sakramentuba artuteko.*
2. *Zelan irago biar dan eskubak emoteko eguna.*

Iru gauzatarako itxi eban Jaungoikuak, neure entzula onak, ezkontzako sakramentuba. Aretati bat da, senar emaztiak bake santuban ta egite onetan alkarregaz bizita, lege santuba gordetan ta Jaungoikuaren naija egiten alkarri lagunduta, zeruba irabazi dagijen. Alan esan eban Jaungoikuak Adan gaiti: *Ez da ondo gizona bakarrik izatia. Egin daijogun bere eriko laguna.* Beste bat da, Jaungoikuak emoten deutseezan seme alabak, erakutsi onian ta Jaungoikuaren bildurrian zerurako aztia. Alan esaten deutsee Espiritu Santubak Salomonen aoti gurasuai: *Umiak badaukazuz, auzi egizuz dotrina onian ta Jaunaren bildurrian.* Irugarrena da, *Adanen pekatubak itxi euskun gatx nausija erremedijetako.* Alan dino san Paulo apostolubak: *Propter forni cationem autem unusquique suam uxorem habeat, et unaquaeque suum virum habeat.* Iru gauza oneek txito dira zeregin andikuak ta ezkondubari entero asko edo guztia balijo deutseenak. Berau gaiti da biarrekua esatia kristinaubari: 1. *Ezkontzia asmetan dabenian leendana zelan prestatu biar daben ezkonduzteko.* 2. *Zelan irago biar daben eskubak emondako eguna.* Bakuszu, kristinaubak, askori jagokan erakutsija dana au. Ondo etorriko jakue ezkondubai. Edo euren ezkontzako uts egitiak ezaututeko ta damututeko, edo uts egin ez beeben, Jaungoikuari eskerrak emoteko. Baita ezkondubagakuai bere, jakinda egon ditezan ezkondutera orduko. Entzun bada, kristinaubak, ainbat gogorik zuurrenagaz zer egin biar daben kristinaubak, ezkontzia asmetan dabenian edo tratetan dabenian.

Dinot, bada, ya erabagi ezkeru kristinaubak bere goguan, leenago-ko erakutsijan esan dan prestaeriagaz, lege santuba gordetako ta zeruba irabazteko onduen berari juakon estaduba dala ezkontzia, egin biar dabena da:

*Lelengo:* Erregutu Jaungoikuari bijotzeti ainbat gogorik oneenagaz ta humildiagaz, bialdu dagijola zeruti bere argi santuba ta laguntasuna, ariman ondo dan moduban ezkontzako sakramentu santuba artuteko. Premina ordu guztietan eskatu biar deusagu Jaungoikuari aparteko



goguagaz bere grazija. Bada, nos preminago kristinaubak zeruko laguntasuna, bizi dan arteko estaduba artutera doianian baino? Beste lagun bategaz betiko bat egitera doianian baino? Jakitun edo ez jakin bik, zuzen uste edo oker uste bik, ondo eritxi edo gaiski eritxi bik, aziera bik, aituera bik, naiera bik, enpin gizon batek eta emakume batek beti alkarregaz aragi baten izateko buztarri astuna ta sakramentu ausi ezin legijana artutera duazanian baino? Nos preminago Jaungoikuari ondo erregutu biarra? Nos preminago ta biarrago zeruko argija, nor berari jaokan lagun bategaz bat egiteko? Au gaiti erregutu biar deutsa kristinaubak Jaungoikuari, ezkondu teko ustia artuten dabenian. Au aituten emoten deusku Espiritu Santubak Salomonen aoti esaten dabenian, *gurasuak emon legijnezala umiari ondasunak; baina emazte ona Jaungoikuak baino bestek emon ezin legijola*. Jaungoikua da bakarrik ezkondu gura dabenari lagun on bat emon legijona. Jaungoikuari eskatu biar deutsa, bada.

*Bigarrenian:* Imini biar dau kristinaubak ardura ona, berari onduen juakon laguna aukeratuteko. Kontu euki biar dau, berak laguntzat nai leukiana edo atarako erara jatorkona ze ekandutakua, ze azierakua ta ze jeni-jotakua dan. Askotan onako gauzarik pensau ta jakin bagarik itsu itsuban egiten dira ezkontzak. Ta gero erremedijo bagako negarragaz ezaütuten dira alkarren *paltak*. *Geijenian*, dino san Jeronimok, *ez jako kasurik egiten ezkontzetan emazte geija ze oituratakua dan begiratuari, ez bada eria dana artuten da emaztezat*. *Ez da kasurik egiten ia soberbijosia dan, ia nezijua dan, ia erua dan, ia andiguria dan, ia beste tatxarik daukan*. *Ezkondu gero jakiten dira onako emaztiaren edo senarraren paltak ta tatxak*. *Zaldi bat etxera ekarri biar bada, asto bat, idi bat edo kria[j]du bat etxera ekarri biar bada, itanduten da ta jakiten da kontu andijagaz zelakuak dirian ta paltarik dauken edo ez*. *Ta emaztia ekarten da etxera, zelakua dan jakin bagarik*. Au guztiau da san Jeronimoren esana, zeinegaz erakusten deuskun leen esan deutsudan guztia. San Juan Krisostomo kexetan da oraindino argiruago gatx onen gainian. Ta dino: *Nok kontu egiten dau ze kondizinoe ta bizji modutakua dan ezkongeijsa? Inok bere ez*. *Nullus omnino*. *Ze diru ta ondasun daukan da itanduten dana ta jakiten dana*, dino Santubak.

Munduko gauzetati zerurutz gogua jasota, ainbat usterik garbijenagaz ta zuzenenagaz begiratu biar dau kristinaubak zelau Jaungoikua serbiduko daben artutera doian lagunagaz. Begiratu biar deutsa lagun geijaren edadiari, eukijari, azierari ta beste ezkonduak alkar artuteko ta onian bizi izateko asko balijo daben gauzai. Zaarra gaztiagaz ezkondu ta; aberatsa pobriagaz ezkondu ta; nekezarija andikijagaz edo andiki usainekuagaz ezkondu ta; estu bat edo ernegau bat nasai bategaz edo ardura gitxiko

bategaz ezkondu ta; euki gura ta batu gura zal bat kastalari burugin bategaz ezkondu ta... beti da arrisku andiko ezkontzia, edo norberak ez daukan paltia lagunari arpegijan ezarri legijolako, edo bataren eritxijagaz ta bizieragaz bestia bat egingo ez dalako. Onetariko ezkontzak gaiti dino Eleisako batzaar batek, *entero sarritan entzun diriala arimen kalteko negargarri-jak; jentilak eurak bere egin ez oi xituben aragizko pekatubak*. Gauza guztietan da entero ona ta ederto dirudijana bardintasuna. Baina ezkondu bentzat nai ta ezekua legez da. Bijak badira aziera onekuak, Jaungoikuaren bildurrukuak ta seme alaben naija gaiti amodijo garbijagaz ezkondu ten dirianak; bijak badira andi ustiari, euki naijari, alperrierijari ta pekatubari bardin begiratu ten deutseenak; bijak badira odol bardinekuak, gitxi gora beera euki bardinekuak, kleitu bardinekuak, biziera bardinekuak, dinot, alarguna alargunaz ta askatuba askatubagaz; bijak badira Eleisa Ama santiak ta ezkontzako legiak aginduten daben moduban estadu barrija artuten dabeenak, euren aldeti ainbat onduen pretauta, esan legi ta esan biar da, kristinaubak, onako ezkontziak Jaungoikuaren deijenaren etxura guztia daukala ta zerubak bere grazija paltauko ez deutseela alako senar emaztia.

Esango dozu benturaz, Eleisiak libre emoten dabela bakotxa gura dabenagaz ezkondu teko. Ta arriskukuak balira ezbardinen ezkontzak, eragotziko litukiala Eleisa Ama santiak. Erantzuten jako oni, Eleisa Ama santiak ez ditubala lege gogorragaz eragotzen ondo baino obeto ez dirian gauza guztiak. Baina aituten emoten dau zein dan zerurako bide segurubagua, zein dan seguruba ta zein dan peligruskua. Eleisiak ez dau eragotzen atso zaar bat mutil gazte bategaz ezkondu ta. Ta bijak nai badabee, ezkondu ko dira. Baina jazo leiteke ta jazo oi da, alako ezkontzai kristinaubak barre egitia ta arimarako batari bere ondo ez urtetia. Eleisiak ez dau eragotzen paltasko daukazan emakume bat bai garbitasunian ta bai gorputzeko etxuran, diru gaiski irabazija ugari daukalako, mutil kleitu oneko bategaz ezkondu ta. Baina jazo leiteke ta jazo oi da, dirubak juanda, ondo begiratu ezin deutsan tatxaz betetako emaztia etxian geratutia. Jazo leiteke ta jazo oi da, orduban orduban emaztiak senarraren aoti bere lotsari guztiak entzun biarra. Eleisiak ez dau eragotzen... Baina zetako da luzatutia? Guztiok dakizu, kristinaubak, Eleisiak eragotzi ez arren, onako bardin bagako ezkontzak arrisku andikuak diriana. Berau gaiti artu biar da txito ardura andija ezkondu tera orduko.

*Iruugarrenian:* Ezkontzia iragoten danian, ez dau ezetan bere engainau biar lagun geija. Senar emazten bizitzia astunago ta penazkuago (jakin ezker) egin legijen paltak ta tatxak (badaukaz) azaldau biar deutsaz lagun geijari, paltareek gero agertuta, bizitza gaistua egin ez dagijen. Ezkontzia



da sakramentuzko tratuba. Sakramentuba izan arren, ez deuta isten tratuba izatiari. Tratu baten bere ez da inor engainau biar. Bada, gitxiago ezkontzako tratuban, zein dan urratu ezin legijan bi bat egiteko betiko tratuba. Ezkongejak alkar engainetan badabee ezkontzako tratuban ezkontza onari jagokazan gauzetan, ez dabee gero guzur asko esan arren erraz izango engainuba adabetan. Geratuko jako lagunari zauri bat bijotzaren erdijan, inos bere ondo osatuko ez jakona. Ta bera izango da asko, senar emaztiak alkarren karino egijazko bagarik bizi izateko. Zer pena andijagua berau baino? Egin bada, kristinaubak, Rakelek Tobiassegaz egin ebana. Rakelek Sara bere alabia Tobiasi emon gura eutsanian emaztetzat, banaan banaan esan eutsazan bere alabiaren jazo guztiak. Beste ainbeste egin biar dau kristinaubak, ezkontzia egiten danian.

*Laugarrenian:* Ezkontzia egin ezkeru, ez dabee ezkongejak edo nobijo nobijak etxe baten egon biar. Ezda alkarregaz bakarrik bere, ezda alkar ikusteko alkarren ondorik ibili bere. Alako nobijo nobijen alkar ikustetati ta alkarregaz egotetati zeinbat kalte datorren euren arimetara, ezin esan legi. Andi oi datoz jentiaren gaiski esatiak ta murmuretiak gurasuak gaiti, etxeuak gaiti ta kurak gaiti, eragozten ez dabelako. Andi pekatu egiteko arriskubak, edo esanaz, edo eginaz, edo guztira. Andi, Jaungoikuagaz aztutia, orazinoerik ez egitia, aragijaren gustuetan euren gogua eukitia, Jaungoikua asarratutia ta ezkontzako sakramentubaren grazijak ta bendizinoiak galdutia. Ezkontzia eginda, alan alkarren ondorik jentiaren esanagaz dabilzan ezkongejak gaiti esan legi, aingeru san Rapaelek Tobias santubari esan eutsana, *Jaungoikuaren bildurra galduta luxurija gaiti ezkontuten dirianak, Asmodeo demoninua daukeela eurakin.* Zeinbat nobijo nobija gaiti esan ete legi beste ainbeste? Zeinbat ezkongei, alkar jasoteko keziagaz, onestidadia galdu ta asarratuten ete dabee Jaungoiko Santuba, curai grazija emon biar deutseena? Ah, kristinaubak! Asmodeo demoninuak, Sararen lelengo zazpi senarrak ito zitubanak, dauka eskubidia alako ezkonkeijen bijotzetan ta arimetan. Diadar egiten jakue gurasuai ta jua-kuen guztiai alderatu dagijezala ezkongejak alkarreganik urrin, ezkontzia bein egin ezkeru. Ezkontzia egindako kristinaubaren zeregina da, bestetan baino orazinoe geijago egitia; kristinautasun ta asetasun geijago gordetia; bere buruba leen baino ezkutubago eukitia; bere bizi guztiko pekatuben konpesinoe damuzkua egitia; limosna bat edo beste al badai egitia; ta ainbat lasterren eskubak emotia. Onan prestau biar dau kristinaubak leendanaz, ezkontzako sakramentuba artuteko. Ta zer egin biar dau esku emoteko egunian?

## II.

Oh, neure kristinaubak! Grazijazko sakramentuba ta estadu barrija artuten dan eguna da ezkontzako eguna. Ez da Jaungoikua opendiduteko eguna. Ez da zerutarrak lotsatuteko eguna. Ez da, eztegebaren atxekijagaz, nasaitasunari, ordikerijari ta berdekerijari leku emoteko eguna. Ez da, Jaungoiko bagako jentilak lege, berba lotsagarrijetan, jan edan laarregijetan, dantza desonestubetan ta olgeta zatarretan iragoteko eguna. *Ez dogu entzuten, dino san Juan Krisostomok, antxinako patriarka santuben eztegu betan, orain legezko arrokerijarik, panparrerijarik ta nasaitasunik.* Ez dogu entzuten orduko eztegubetan ez gauza sobraurik, ez biar ez zanik. *Diabrubaren ponparik eta banidaderik, inos bere ez. Soinurik, tanbolinik ta dantzarik, inos bere ez. Satanasaren jan edan laarregirik, inos bere ez. Luxurijaz ta nasaitasunez betetako berbarik eta txanzarik, inos bere ez. Guztia onestidadia, guztia asetasuna ta guztia juisijozkua, dino Santubak, ta amaituten dau bere saila esanagaz: Au egin biar dabee kristinaubak, eskubak emoten dituben egunian.*

Aingeru san Rapaelek erakutsi eutsan Tobiasi, ezkonbarrijak zer egin biar dabeen eskubak emoten dituben egunian ta gaineko bijetan. Esan eutsan, bada, Aingerubak Tobiasi, Saragaz ezkontzia asmau ebanian: *Gorputzaren gustuak gaiti ta luurreko gurarijak gaiti ezkontuten dirianak, geratuten dira Asmodeo demoninuaren agindupian. Au gaiti zure emaztegei Sarari, zazpi bidar ezkontu da, ta zazpi senarrak ill dentsaz Asmodeok ezkontu izan dan zazpi gabetan. Zuk ez dozu alakuen moduban izan biar, ez bada eskubak emon dagizunian, aparteko leku baten sartuta, zeure emaztiagaz bakarrik egingo dozu orazinoia bijok iru egunian... Gero Jaungoikuaren bildur santubagaz ta seme alaben najagaz biziko zara zeure emaztiagaz, Abraanen belauñeti jaditxi dagizun Jaungoikuaren bendizinoia zeure seme alabeetan.* Oneek izan zirian, neure entzula onak, aingerubak Tobias gaztiari, eskubak emotera Saragaz joianian, esan eutsazan berbak ta konsejubak.

Onen beste egingo ez badabee bere esaten jakue, ez dagijela arren Jaungoikua asarratu eskubak emondako egun santuban, eztegubetan oi dirian berba, txanza, eskuka, dantza ta pandango nasai ta lotsagarrijakin ta jan edan laarregijakin. Esaten jakue gorde dagijela egun atan, bizi guztiko sakramentuba artu daben egunian, gorde dagijela lotsa ona, zentzun ona, kristinautasuna ta Jaungoikuaren bildur santuba. Sinistu, neure entzula onak, ezteguban ezkonbarrijak ta konbidaubak egin oi dituben pekatu nasaijak gaiti sarri kastigau ditu Jaungoikuak ezkontubak.



Ez da esaten, ezteguako egunian senide bat edo adiskide bat konbidatu biar ez dala. Au egitia ez dau inok eragozten. Jesus bere jua zan bere Ama guztiz santiagaz Kanaango ezteguetara. Ta bedeinkatu eban ango ezkontzia, mila gro bat eginagaz. Egin, bada, eztegu, biar bada. Baina kristinau usainagaz, esate ta gogo garbijagaz; baina nasaitasun bagarik, zorakerija lotsarizko ta pekatuzko bagarik; baina edan neurri bagako edo kastu alperrikako bagarik. Orduban Jesusek bedeinkatuko ditu zeuben ezkontzak. Alan gura izan dagijala zerubak bere neurri bagako ontasuna ta miserikordija gaiti. Amen.

## IV. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*zeintzuk dirian ezkontzako sakramentubaren onerak.*

Ezkontzako sakramentubak karga andijak ta astunak daukaz beragaz, neure entzula onak. Baina biar dan gogo garbijagaz ta prestaera santubagaz artu ezkeru ezkontzako bizieria, beragaz daukaz sakramentu santubak onera edo prutu batzuk, zeintzuk arinduten dituben ezkontubaren karga astunak, dino Erromako Katezismuak. Ez ditubee guztiz gitxituten edo kenduten ezkontubaren ardurak eta naibagiak, ez bada arindu puska bat, senar emaztiak erreztuago jaso dagijezen. Bada, Jaungoikuaren bide-ti artu arren ezkontzako sakramentuba, ta senar emaztiak bizi arren alkar estimetan dabeela, oraindino eukiko ditubee ezkontzako bizieran gatxak eta naibagak, atsekabak ta aragijaren gerria, dino san Paulo apostolubak. *Tribulationem tamen carnis habe bunt hujusmodi.* Au sinistuta bizi biar dabee senar emazte guztiak. Euren kargak arinduteko ta bizitzia pena gitxiagogaz iragoteko. Ezkontzako sakramentubak daukazan ontasunak ta prutubak dira: 1. *Sakramentubak emoten daben grazija.* 2. *Sakramentubaren iraua.* 3. *Senar emazteen leijaltasuna.* 4. *Seme alabak Eleisiari emotia.* Entzun egidazu gogoz.

### I.

Ya ikasita zagoz, neure kristinaubak, Eleisa Ama santiaren sakramentubak emoten deutseela arimiari grazija. Bada, ezkontzako sakramentubaren lelengo mesedia bere, arimiari grazija emotia da. Ez dago onetan dudarik. Baita entzun dozu sarritan, sakramentu bakotxak emoten deutzazala arzailiari edo artuten dabenari grazija bi. Bata, arimia santututeko; ta bestia, sakramentu bakotxaren egikizunai kobru emoteko. Bautismuak emoten ditu grazija bi. Bata, sortuerako pekatuba parkatuteko ta arimia santututeko; ta bestia, kristinautzako sinistutia beti zal gordetako ta Jesukristori jarraituteko. Konfirmazioak emoten ditu grazija bi. Bata, arimia santu egiteko; ta bestia, bautismoko sinistutiari indarra ta sendotasuna emoteko. Onan emoten ditubee grazija bi beste sakramentu





guztiak. Bata, arimiaren onerako; ta bestia, sakramentubari jagokan sail-lari kobru emoteko.

Sakramentu bakotxaren lelen gozaz, zein dan arimia santu egitia, galdu legi kristinaubak. Ta galduten da edozein pekatu andi edo illgarrigaz. Pekatuba daguan ariman ez dago santutasunik, ez dago grazijarik. Baina sakramentu bakotxaren bigarren grazijak, sakramentubak bere sail-lari kobru emoteko kristinaubari emoten deusant grazijak, bein artu ezkeru, irauten dau kristinaubagan moduren baten. Emeti ezautuko dozu, kristinaubak, ezkontzako sakramentubak ze grazija emoten deutseen ezkontubai, biar dan prestaeriaz artuten dabeenian. Ezkontuten dira bijak ondo konpesauta, Jaungoikuaren bildur santuban ta grazijan? Bada, bijai geituten jakue arimako grazija; parkatuten jakue pekatu txikarrak; ta emoten jakue indarra, grazijaren kontrako etsaijak goituteko. Au da arimia santututeko grazija. Ta onezaz gainera emoten jakue bijai aparteko grazija, senar emaztiak alkar maite izateko, zeruba irabazten alkarri lagunduteko, bake santuban bizi izateko ta seme alabak zerurako azteko. Au da ezkontzako sakramentubaren kargai kobru emoteko grazija. Bijak artuten ditube senar emaztiak, grazijan ezkontuten dirianian.

Ezkontuten dira bijak edo bata pekatuban dagozala? Bada, pekatu illgarrigan ezkontuten danari ez deusant ezkontzako sakramentubak emoten arimako grazija. Ta askoren esanian, ezda ezkontzako kargai kobru emoteko grazija bere, ez orduban ta ez gero. Ara, kristinaubak, grazijan ezkontuten dirianak zeinbat onera artuten dabeen sakramentu santubagaz. Ta pekatuban ezkontuten dirianak zer galduten dabeen. Balijau bada, neure kristinaubak, estadu a artu gura dozunok sakramentu santubaren grazija osuagaz. Au da ezkontziaren lelen gozaz. Bigarrena da irautsuba izatia.

## II.

Onek esan gura dau, ezkontzako lotugarrija edo buztarrija betikua dala. Jaungoikuari erregututa, ondo pensauta, ezkontzako bizieria onduen jaotzula aleginaz jakinda, ezkontu zara zeure gogoko lagun on, maite bategaz? Bada, erijotziak baino bestek ezin kendu legizu lagun ori. Zeuk aukeratu dozu, berari zeuretzat ondo eritxita, beste askoren artian? Bada, bera edo zeu ill artian zeuria izango da beti ta zeu izango zara beria. Au da ezkontzako sakramentubaren iraut santuba, senarra edo emaztia ill artekua. Ez da ezkontzako tratuba gaur baikua ta bijar ezekua. Ez da urteka egiten dan tratuba. Ez da nai danian artu ta nai danian itxi egiten jaku-

na ezkontzako bat egitia. Jaungoikuak bat egin ditu ezkontubak. Bada, mundukok askatu ezin legiz eurak alkarri eskubak emonda imini deutseen lotugarriti. *Quod Deus conjunxit, homo non separet*, dino san Mateo apostolubak. Oh, ze gauza ona ta pozgarrija alkar maite dabeen senar emazteentzat, beti alkarregaz biziko diriana jakitia! Inok bere alkarregan ezin bakartu izatia! Seguru egon biar dabee, bada, senar emaztiak ez ditubala inok askatuko, eurak lotu dabeen buztarriti. Au da ezkontzako sakramentubaren iraut. Atsegin andikua, Jaungoikuaren bildur santuban ta alkarren lege onian bizi dirian senar emazteentzat. Baita pena andikua bere, garbatuta bizi dirian ezkontubentzat. Emeti ezautuko dozu, kristinaubak, nosbait entzun edo ikusi badozu denpora triste oneetan, urte beteko, biko edo orren beste urtetako ezkontu diriala, aren ezkontziak ez dabela balijo. Ez dala a sakramentuzko ezkontzia, ez bada pekatuzko bat egitia. Aragijaren ta diabrubaren egitiak dira alako ezkontzak. Baita beste hereje askorenak bere.

Onetariko ezkontza izeneko ta aragijen naasteko pekatu loijen kontra dauka Jesukristo geure Jaunak bere Eleisan ezkontzako sakramentu santu garbija, ezkontubaren bizitza guztian diraubana. Ezkontubaren bat egitia da Jesukristok bere Eleisiagaz daukan bat egitiaren irudija, dino san Paulo apostolubak. Jesusek Eleisa santa bere esposiari itxiko ez deusant legez, senarrak bere ez deusant itxi biar bere emaztiari. Eleisiak bere ez deusant itxiko Jesus bere Esposo onari; bada, emaztiak bere ez deusant itxi biar bere senarrari. Jesusek maite dau bere Eleisia; ta Eleisiak maite dau Jesus. Bada, senarrak bere maite izan biar dau bere emaztia; ta emaztiak bere bai bere senarra. Jesusek gordeetan deusant ta gordeko deusant beti ziur Eleisiari, emon eutsant berbia; ta Eleisiak bere gordetan deusant ta gordeko deusant beti Jesus onari ziur ta zal bein emon eutsant berbia. Alan senar emaztiak bere alkarri gorde biar deutsee beti, sakramentu santuba, zeinetan itxi eban Jesukristok senar emazten battasuna, maitetasuna, askatu ezina ta leijaltasuna, dino Trentoko konzilijo santubak.

## III.

Alkarri darraikoz ezkontzako sakramentubaren onerak. Lelengua da grazija ona ezkontubai emotia. Bigarrena da iraut onekua izatia; senar emaztiak alkarri itxi ezina. Irugarrena da senar emaztiak alkarri lege ona gordetia. Ta laugarrena Eleisiarentzat seme alabak aztia. Baina ikusi dailgun lelen gozaz, zetan daguan ezkontubak alkarri lege ona gordetia. Bakizu



bada, kristinaubak, zetan daguan au? Ezkondubak esku emotian aginduten deutsee batak bestiari bijak alkar senar emaztezat betiko artutia. Au egin dabee senar emaztiak Jaungoikuaren, Eleisiaren ta testigubena aurrian. Bada, oni darraiko, bai senarrak ta bai emaztiak alkarri emon deutseen berbia beti ziur ta zintzoro gordetia. Zor andija da au, neure kristinaubak, senar emaztentzat. Baina ondo gorde ezkeru, txito atsegin andikua. Ez dabee inos pensau biar senar emaztiak, bat diriala baino. Bere aitari ta amari itxita, emaztiagaz bat eginda, bijak biziko dira aragi baten, dino Jesukristok senar emaztiak gaiti. Ya ez dira bi, ez bada aragi bat. *Jam non sunt duo, sed una caro.* Senar emazten bat izate au gaiti dino san Paulo apostolubak: *Inok bere ez deutsa gaiski gura bere gorputzari; ez deutsa inok gatzik egiten bere burubari. Bada, senarrak bere ez deutsa gatziko gura izan biar bere emaztiari.* Au gaiti esaten jakue senar emaztiari, euren gorputzak legez maite izan biar ditubela euren lagunak.

Oh, ze gauza ona ezkondubentzat! Bataren pozak bijenak izatia; bataren atsegina bijak eukitia; bataren naibagak bijak artutia; bataren penaak bijak bardin iragotia; batak daukanean, bijak eukitia... Oh ze gauza ona, dinot, onan senar emaztiak gauza guztietan alkar artutia, alkarri lagundutia ta alkar maite izatia, gorputz baten zatijak alkar artuten dabeen legez ta alkar jasoten dabeen legez! Orduban ez dira ainbeste sentiduten estaduko berezko kargak, ardurak eta penak. Senar emaztiak alkar erruki badabee, alkar maite badabee, alkar jasoten badabee, alkarri ezer ezkutean ez badeutsee ta alkarri esku emoteko berbia ziur gordetan badeutsee, orduban erreztuago iragoten ditubee ez eukija, gaixua, naibagia ta beste ezkondubai etorri oi jakuezan gatzak. Baina galduten badabee senar emaztiak alkarri zor deutseen leijaltasuna, sartuten bada euren bijotzetan lagunarentzat gogo betia, artuten badeutsa batak edo bestiak inori karia, asten badira alkarri lotsa ona galduten ta gaiski esaten, laster diabrubak ekarriko deutseez beste burutazinoe asko alkarren kontra. Baita laster oi da alako alkarri leijaltasuna ta lege ona galdu deutseen senar emazten etxia inpernu txiki bat dirudijana bere, alkarri bidaoka ta alkar joka. Gorde, bada, senar emaztiak alkarri, ezkontzan emondako berbia ta leijaltasuna. Adulterijoko pekatu ezainaren gorrotua ta penak entzun zenduzan beste erakutsi baten.

#### IV.

Ezkontzako sakramentubak laugarren lekuban emoten dabena prutuba da, seme alabak Eleisiarentzat ta Jaungoikuarentzat aztia. Alan esan eutseen Jaungoikuak Adan eta Ebari: *Crescite, et multiplicamini.* Ezkontzati kanpora seme alabak sortutia pekatu da. Seigarren agindu santubana eragotzita dauka Jaungoikuak. Ezkontzako sakramentuba da seme alabak azteko. Egijia da, ez deutseez Jaungoikuak ezkondu guztia umiak emoten. Batzubei bat bere ez. Beste batzubei, nai leuken baino geijago. Jaun andijak berak daki au zer gaiti egiten dabena. Baina ezin ukatu ginai, seme alaba onak diriana ezkontziaren prutu estimauba, Jaungoikuak emoten ditubana. Ondo azitako seme alabak Jaungoikuari emoten deutsee gloriija, zerubari atsegina, Eleisiari ondria, erriari laguntasuna ta gurasuak poza ta gozotasuna osasunian ta gaixuan, bizitan ta erijotzan. Gaiski azitako umiak bestera. Gurasuak atsekabak ta lotsarizko zaarza txarra, erriari desondria, Eleisiari ta juezai naibagak ta zerubari esker txarra. Au da gaiski azitako umeen amaia.

Gogoratu bada, kristinaubak, ezkontzako sakramentubaren prutubak diriala, arimako grazija ta estaduko grazija; ezkontziaren beraren irautia; alkarri gorde biar deutseen leijaltasuna ta seme alabak zerurako aztia. Eskatu daijogun Jaungoikuari, bere grazija, bakia ta bendizinoia ezarri dagijuen ezkondu guztia. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## V. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Arrisku andikua diriala diruba gaiti egiten dirian ezkontzak.*
2. *Baita inoren ederra ta enpeinuba gaiti egiten dirianak bere.*

Erakutsi ezker kristinaubari zer dan ezkontzako sakramentuba; zelan artu biar dan; ta ze onera santubak daukazan biar dan legez artu ezker, bai kristandade guztiaerentzat ta bai zerubarentzat, ez da errazoeti kanpora izango, neure entzula onak, nik zubei erakustia, zegaiti oi dirian ezkontza txarrak. Ezin ukatu ginai, senar emazte asko bizi diriana alkarren gorrotuan. Batzuk alkarregaz ta beste asko bakartuta, senarra leku baten ta emazia beste baten erriko zer esanagaz ta Eleisiaren naibagiagaz. Au gatx andija da. Eurentzat andijena. Baita euren umeentzat ta beste askorentzat bere ez txikija. Onako senar emazten arteko bizitza gaistua ta alkar artu ezinekua geijenian da, dirudijanez, eurak gura dabeelako. Bada, senar emaziak benetan nai balebee, alkarren paltak iragoko lituke pazienziagaz, Jaungoikuari grazija eskatuta ta biziko litzatekez bake santuban, zein dan ezkontzako sakramentubaren prutu estimauba.

Alan bere, ezkonduen bizi gaistuak ta bake txarrak sarritan oi dau sustraijan gatxa. Ta gatx a ez da osatuten ain erraza. Sustraijan gatxa daukan landaria beti izango da erkina, luur onian egon arren. Zimentuban paltia daukan ormia, beti dago jarkera txarragaz, jausteko arriskuban, azaleti etxura ona euki arren. Beste ainbeste jazoten da ezkontzako bizierriagaz. Uts egiten da asieran, paltetan da zimentuban, gaixotuten jako sustraija ezkontziari; ta geratuten dira ezkonduak lelengo lelungoti alkarren arteko gatxagaz ta atsegin bagarik ta bake on bagarik bizi izateko gaixuagaz. Ze mirari da, bada, gero alkar ez artutia! Egiten dira ezkontzak, laster aaztu edo amaituten dirian luurreko gauzak gaiti, edo ezkonduak Jaungoikuaren bildur santuban bizi izateko balijo ez dabeen gauzak gaiti, bestelan egingo ez litzatezanak edo egin biar ez leukenak. Esan gura neuke, askotan laguna bere gogokua ez dala ta a baino beste bat bere laguntzat goguan obeto jausten jakola, egiten diriala ezkontzak *munduko gauzaren bat gaiti*, bestelan egingo ez litzatekezanak.

Esaten da bada, neure entzula onak, luurreko gauzak gaiti ezkondu-tia ostian egingo ez litzatekian lagunagaz, arriskuko ezkontzia dala; Jaungoikuaren bideti ta Eleisa Ama santiaren erregelata edo neurgarri san-

tubetati ez dan ezkontzia, arriskuko ezkontzia dala. Lelenguak oi dira, diruba gaiti egiten dirian ezkontzak. Inoren ederra edo enpeinuba gaiti egiten dirian ezkontzak. Ta juez aurreti egiten dirian ezkontzak. Bigarrenak oi dira, Jaungoikua opendiduta egiten dirian ezkontzak. Ta baita seniden ezkontzak bere askotan. Erakutsi onetan esango deutsu bakarrik, ze arriskutakuak dirian *diruba gaiti egiten dirian ezkontzak, ta inoren ederra edo enpeinuba gaiti egiten dirianak*. Entzun egizu, kristinaubak, uste dozun baino geijago balijo daben erakutsi au ainbat gogorik oneenagaz.

### I.

*Arrisku andikua da, bestelan egingo ez litzatekian ezkontzia diruba gaiti bakarrik egitia.* Ez da onegaz esaten, kristinaubak, ezkonduak ez dabela estimau biar dote ona edo zegaz bizi eukitia euren estadu barrijan. Bada, errazoiak eskatuten dau ta Eskritura Sagradubak esaten dau, gurasuak umiai dotia emotia, al izan ezker, ezkonduen dirianian. Au mundubaren asierati onakua da. Errazoiak, Jaungoikuak ta Eleisa Ama santiak ontzat emoten dabeena da. Ta, al dagijela, jagokuen ezkontzia egiteko umiai ezer emon gura ez deutsu gurasuak, zamai andijak merezi ditubee. Ezkonduetako laguna dote onekua izatia, zerbait geijago daukana edo aberatsa nai izatia ez dau inok deungatzat emoten, jagokuen balijua dirubai ta eukijari emon ezker. Bide bagakua ta sail gaistokua da norberaren gogoko ez danagaz ezkondu-tia, aberatsa dalako. Alako ezkontziak asiera errena darua beragaz. Ekarri egizu gogora, ezkongei bat dala, edo ordija, edo okasinoetsuba, edo jokolarija, edo aixetsuba ta maina gaistuetan azija, edo oitura nasajetakua ta kristinau usain gitxikua, edo alperra ta burugina, edo odol zer esanekua, edo osasun gitxikua. Bakizu ak ezkongejak, onako zeuri gogua illten deutsun palta bat edo bi edo geijago daukazana. Baina dote ona daukalako, dirubak daukazalako edo aberatsa dalako ezkonduen zara agaz, ezkongejari karinorik ez deutsazula ta bere paltak gaiti goguan jausten ez jatzula. Au, dinot, neure entzula onak, dala arriskua andiko ezkontzia.

Bateti, dirubak eta ondasunak aixe bat legez dira. Askotan bapere igarri bagarik, keia legez, ezkutetan dira. Au sarritan esaten deutsu Eskritura Sagradubak. Ta egun oro ikusten dogun gauzia da. Gizon bat nai emakume bat da asko etxe aberats bat pobretuteko ta azienda osuak galduteko. Diruba gaiti gogoko ez dan lagunagaz ezkonduen dana, geijago ezkonduen dala, esan legi, dirubagaz, lagunagaz baino. Laguna gura



ez leuke ta diruba gura leuke. Ta laguna bagarik diruba ezin dabenian, artuten dau gura ez daben laguna, gura daben diruba gaiti. Ta zer jazo oi jakue alako dirunaiko ezkontubai? Ez gitxitan jazo oi jakue, maite daben diruba juan ta maite ez dabeen lagunagaz geratu. Au oi da, dirubak ta eukija gaiti ezkondu dirian askoren negargeija.

Baina dirubak ta ondasunak iraungo balebee bere, zetan geratuten da goguaz kontrako lagunagaz ezkontuten dana? Zeinbat senar emazte aberats ta bake txarreko ikusten dira? Esango neuke, bake gaistua egiten dabeen senar emazterik geijenak diriala, zerbait modu onian eukijan dagozanak. Pobretxu edo mee bizi dirian senar emaztiak, bake geijago oi dabee euren artian. Ez da, bada, kontu seguruba senar emazten bakerako, diru asko eukitia edo aberats izatia. Diruba gaiti ezkondu danari, diabrubak laster aaztu eragiten deutzaz lagunak ekarri zituban dirubak; ta gogoratuten deutzaz bizi lagunak daukazan paltak. Leen diruba gaiti artu eban laguna. Orain dirubak emongo lituke pozik, laguna ez eukitia gaiti. Onan pensau eragiten deuta diabrubak, diruba ta eukija gaiti gogoko ez dan lagunagaz ezkondu danari. Ta dirubak eukazanari? Aberats eguanari? Oh! milla tatxa ta palta euki arren, aixaatuten deuta buruba diabrubak. Ta uste dau, bera maite izan biar dabela, ta adarau biar dabela lagunak. Berak eukalako daguala etxian zer jan; ta beste palta guztiak parkatu biar deutzazala lagunak...

Ara, neure entzula onak, bestelan egingo ez zan ezkontzia egiteko balijo izan ebeen dirubak ta ondasunak zelan jiretan dituban orain diabrubak, senar emazten bakia galduteko ta bizitza penazkua iragoteko.

Ez da gatx ezaututen alako senar emaztiak, alkarren amodijo bagarik, erruki bagarik ta poz bagarik, zelan iragoko dituben urtiak, egunak eta ordubak. Errukarrija da duda bagarik euren bizitzia. Alkarri zitalkerriak ta errazoe minberak esaten deutseezala. Bata bestiaren lotsagarriak ta paltak arpekira ateraten deutseezala. Ta inos bere gozo onik alkarrentzat ez daukela. Zeinbat onako ezkondu triste? Zeinbat senar emazte gozo gaistoko? Ojala inoren gatxagaz kontuban jausiko balira bestiak! Ojala, ezkondu gura dabenak geijen begiratuko baleutsa, ez dirubari, ez eukijari, ez bada lagun geijaren ekandu onari, zintzotasunari ta kristinautasunari! Baina ez jako oni kasu andirik egiten, ezkontzia egiten danian. Esan oi da orduban: *Dote ona danka ta; etxe ona danka ta; aberatsa da ta; alkar artuko dabee...* Onan dirubari ta eukijari poztuta egin oi dira, bestelan egingo ez litzatekezan ezkontza asko. Endamas denpora triste oneetan. Esan ginai san Juan Krisostomogaz, saldubaz legez egiten diriala ezkontzak. Beste tratubetan baino kodizija geijago ta asmo geijago dagozala ezkontzetan;

ez jakola begiratuten ze ontasuneko lagunagaz bat egiten dan, ez bada ze dote edo aziendagaz bat egiten dan ta ezkontuten dan. Alan desprezietan dabee sakramentubaren grazija ta Jaungoikuaren doia. *Ita donum dei vituperant*, dino Santubak.

Sinistu bada, neure entzula onak, ondasunak onak diriala, bake santuba ta alkarren amodijua dauken senar emaztentzat, eurakin ebanjelijo santubak esaten daben moduban balijauta Jaungoikua obeto serbiduteko. Baina senar emaztiak alkar maite ez badabee, alkarren gogokuak ez badira lelengoti, begija betetan ez deutzaz lagunagaz ezkontuten bada dirubak daukazalako, dirubak eurak ta aziendia izango dira orduban etxe atako gerraginak. Sinistu, bada, arrisku andijan geratuten dala ezkontuben bake santuba, bestelan gogoko ez dan lagunagaz dirubak gaiti ezkontuten danian.

## II.

*Baita inoren ederra gaiti edo enpeinuba gaiti egiten dirianak bere.* Dinot, *inoren ederra edo enpeinuba gaiti*, bide bagarik, modu bagarik ta errazoe bagarik erreguka, edo enpeinuz, edo zamaika gogo bagako lagunagaz ezkontzera norbait jiretan danian. Au jazo leiteke modu askotara. Guraso batek esango baleutsa umiari: *Urlijagaz ezkontuten ez bazara, ez dotsut aziendia emongo; edo ez deutzat doterik emongo.* Ugazaba batek bere esan legijo otseginari edo errenterubari: *Urlijagaz ezkondu biar dozu;* edo, *urlijagaz ezkontuten ez bazara, etxeti aterako zaitut*, edo, *ez dozu ene etxian zer eginik izango.* Baita jazo leiteke au senide bategaz edo beste agindute iskija daukanagaz bere. Bada, guztiak gaiti esaten da, onako inoren enpeinuba edo ederra gaiti noberearen gogoko ez dan lagunagaz ezkontutia, arrisku andikua dala. Ez dinot ezkontza oneek diriala Eleisiak balijua kenduta daukazan bildurrezko ezkontzak. Tertzijo atara eldu ez arren, gauza jakina da, gurasuaren, senidiaren, ugazabaren edo nausi baten erregubak, enpeinubak ta zamai erdijak jiretan dabeela asko, agindupian daganaren gogua. Ta ekarten dabeela, borondate guztia edo libertadia kendu ez arren osoz, bestelan egingo ez leukiana egitera. Baita inos goguan sartu ez jakon lagunagaz ezkontutera bere, askotan jazo oi dan legez. Au da sustrai gaixoko ezkontzia. Au da arrisku andiko ezkontzia.

Egijia da, seme alabak ez dabee ezkontzako berbia emon biar (al izan ezker) gurasuen naija bagarik edo gurasuen lekuban dagozanai esan bagarik ta euren errazoezko naijaren kontra. Asko balijo dau gurasuen



naijak ta bendizinoiak, seme alabak euren ezkontzako estaduban ditxa ona ta bake santuba eukiteko. Geijenian, gurasuak obeto dakije seme alaba gaztiak baino, zein dan eurai onduen juakuen laguna. Gurasuak Jaungoikuaren lekuban dagoz. Seme alaben ona nai dabee. Seme alabak baino buruban pisu geijago daukee. Errazoe zuzenagua ta ezaubera argijagua daukee. Ta geijenian, edo oi danez, umiaren ezkontziari ta ezkongeijari obeto begiratuko deutsa guraso eldubak ta Jaungoikozkuak, umiak berak baino. Au gaiti esaten jakue seme alabei: *Lelengo*: Gurasuari kontu emon bagarik ezkontzia egitia, al izan ezker, pekatu dala. *Bigarrenian*: Guraso elduben ta Jaungoikozkuen eskubetan itxi daikela umiak euren estaduko laguna aukeratutia ta ezkontzia egitia. Dinot, *guraso elduben ta Jaungoikozkuen*. Bada, oi dira guraso berdeska batzuk, umiak euren ezkongeijekin etxian ta kanpuan ibili arren, penarik artuten ez dabeenak. Alako guraso eltzakiak edozeinegaz ta edozein modutan ezkonduko dau umia. Ta ez da nai ta ezekua alako gurasuaren esana umiak egitia bere ezkontzan. *Irugarrenian*: Esaten jakue umiai, guraso eldub a ren naija eginagaz ezkontzan, egiten dau moduren baten Jaungoikuaren beraren naija. Ta darua beragaz ezkontziak asiera bat ona. Gurasuen errazoezko naijaren kontra egiten dirian ezkontzak zer ikusi andija daukee ta oi dira, ez gitxitan, amai gaistokuak.

Ez da, bada, ondo, gurasuen errazuazko naijaren kontra ezkondu. Ezda, gurasuak, ez bestek bere, enpeinubagaz ta zamai erdijagaz inor ekartia ezkondutera gogoko ez dan lagunagaz. Jaungoikuak emondako libertade osua daukee umiak, nai dabeen estaduba edo bizieria artuteko. Baita ezkondu gura badabee, eurei arimarako ta mundurako onduen juakuen laguna artuteko bere. Errazuazko ta Jaungoikuak umiai emondako eskubide onen kontra da, gurasuak nai beste edozeinek, euren aparteko irabazija gaiti, enpeinuba edo temia gaiti, eurak deritxuenagaz edo euren ederrekuagaz inor ezkontzera ekartia, aren gogokua ez dana ezautu arren. Au duda bagarik pekatu andija da. Ta ez gitxitan jazoten dana. Ekarten ditubee ezkontzera, batzubetan gurasuak euren ume tristiak, beste batzubetan ugazabak euren errenteruben umiak, beste batzubetan otseginak, batez bere andi etxeetakuak; ekarten ditubee ezkontzera, dinot, euren gogoko ez dirian lagunakin. Ikusi bere gura ez lituken lagunakin. Gogo betia ta enpaduba emoten deutsen lagunakin. Dotia ez galdutia gaiti, ugazabagazkua ez galdutia gaiti, andikijagazkua ez galdutia gaiti ezkonduen da inos maite izango dabela sinistu ezin daben, lagunagaz.

Ta zeinbat kalte, neure entzula onak, alako ezkontzati? Zelan geratuten dira alako senar emaztiak? Ze bizitza egingo dabee, alkarri gozorik

eta legerik ez deutseenak? Esango dabee alako ezkontzaginak, *odol onekua dala*; *Guraso onen umia dala*; *gauzia ondo daukala*; *ta alkar artu baino ez daukeela...* Baina zer balijo deutsa zeure semiari edo alabiari, zeure otseginari edo errenterubari zuk emon deutzazun ezkongeijaren odol garbijak, ezkongeija bera ikusi ezin badau? Zer, guraso onen umia izanak edo gauzia eukijak, bere ezkongeija, bere laguna, beragaz bizi biar dabena bere gustokua ez bada, inos goguan sartu ez jakona bada? Nos edo zelan oneek alkar estimauko dabee ta amauko dabee, ezkontzako sakramentu santubak aginduten deutseen moduban? Zelan egingo dabee bizitza baketsuba, alkar artuba ta Jaungoikozkua, alkarri borondaterik ez deutseen senar emaztiak? Zeubek pensau astiro, neure entzula onak.

Baina esaten deusut bai gurasuai, bai senidiai, bai ugazabai ta bai beste guztioi, ez dagijozula inos ezkontzarik aitatu inori, bere nai osoko, gogo osoko ta ezaubera errazuazko lagunagaz ez dala; ez dagijozula inos inori, ez umeri, ez otseginari, ez errenteruari, ez besteri, esirik edo munarik imini dotia edo etxia edo adiskidetasuna ukatuta, urlijagaz ezkonduen ez bada, zeuben arimak ta areenak inpernura bota ez dagizuzan. Baita esaten deusut ezkondueteke zagozan guztiai, ez zaitezala inos ezkondu inoren enpeinuba, erreguba edo ederra gaiti, zeuben gogoko ez dan lagunagaz; zeugaz bizi izateko ondo ez deritxazun lagunagaz. Ezda ezer gaiti bere. Munduban inpernu txiki bat ta gero betiko andi bat irabazi ez dagizun. Au jazo oi jakue askori, edo munduko eukija gaiti, edo inoren ederra gaiti noberaren gogoko ez dan lagunagaz ezkonduen danian. Emen gozo gaistoko bizitza ta gero Jaungoikuaren aurrian zer ikusi andija. Ezkontzako sakramentu santuba itxi euskun Jaungoikuak emon daigula guztioi bere grazija ta laguntasuna, bake santuban karidade santuban ta Jaun andijaren beraren bildur santuban bizi izateko ta zeruban aingerubakin beti bera maitetuteko. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.



## VI. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan:

1. *Ze arriskutakuak dirian juezaren aurreti egiten dirian ezkontzak.*
2. *Zelakuak oi dirian Jaungoikua opendiduta egiten dirianak.*
3. *Zelakuak oi dirian senide ezkontzak.*

Gauza pisutsu da ta ardura andikua da, neure entzula onak, aldatu ezin legijan estaduba edo bizieria artutia. Beste tratubetako uts egitiak zelanbait erremedijau oi dira. Baina ezkontzako uts egitia nekez. Tratu gitxitan oi dira engainugarri ta utsgarri geijago, ezkontzetan baino. Ez dakit ze aixek jota, baina itsututa legez geratu oi dira kristinaubak, ezkontzia egiten danian edo egin biar danian. Uste dabee askok, oker edo zuzen asmau edo asi dan ezkontzia, egin ezkeru, ondo daguala guztia. Au gaiti jazo oi dira gero leen esan dirian naibagak ta eskandalubak. Berau gaiti, ezer bere geratu ez dedin esan bagarik ta jakinda egon zaitezkan ezkontzen utsgarri nausijen ta sarrijenekuen ganian, esango deusut erakutsi onetan:

1. *Arriskukuak diriala, juezaren aurreti nekezka egiten dirian ezkontzak.*
2. *Arrikukuak diriala, Jaungoikua opendiduta egiten dirianak.*
3. *Zer ikusi andija daukeela senideenak.*

Entzun egizu gogo onagaz.

### I.

*Juezaren aurreti nekezka egiten dirian ezkontzak.* Onakuak oi dira, edo ezkontzako berbia emonda, edo beste kalteren bat eginda, ezkontzia aginduba garbatu jakuener artian. Orduban dira alkarren kexak. Orduban dira alkarren paltak esatia. Orduban da ondria jasotia ta beste sarri entzun oi dirian zaatak. Emeti oi dator ezkongeiya guzurragaz edo egijagaz justizijagaz zamaituta juez aurrera eruatia, karzellan sartutia, bestegaz ezkontzen ez istia edo emon ezin daben beste dote eskatutia ta beste onako sailak. Onen gainian esaten da: *Lelengo*: Ezkontuteko berbia ez dala emon biar ondo pensau bagarik. *Bigarrenian*: Bein emon ezkeru inori ezkontuteko berbia, kobru emon biar jakola agindubari, aparteko errazoe pisutsu bat agertuten ez bada edo jazoten ez bada ezkongeiyan artian, zeinek era-

gotzi legijan jakitunen eritxijan berba emonari kobru emotia. Alako palta ez jakin, jakin biar zan pisutsu bat agertuten danian edo ezkontzako berbia emonda gero jazoten danian, nai badau ezkondu daiteke berbia emon deusnagaz ta nai ez badau, ez. Baina osteranzian, ezkontzako berbia ta aginduba gauza andija ta astuna da. Eleisa Ama santiak erakusten daben edadiagaz, ezauberriagaz ta alizatiagaz ta beste aintzaz artuta dagozan legen kalte bagarik emon ezkeru ezkontzako berbia, zorra da ta zor andija da. Bada, kobru emon biar jako berbiari. *Irujarrenian*: Esaten da bein alan ezkontzako berbia emon ezkeru lagunari, Eleisiaren ta errege jaunen lege artubak ontzat emoten daben moduban, berbati urtetan dabena ta garbatuten jakona juezez ekarri legijala ezkontutera, beste edozein zordun zorra pagetara ekarri legijan legez.

Ez da, bada, esaten errazoe bagarik burutazinoe bat gaiti garbatuta, berbati urten dabena ezin ekarri legijala juez aurreti, karzelati, nai edo nundi ezkontzera. Atarako dagoz Juezak. Ta au ez da pekatu. Beste gauza bat izango litzaateke, guzurragaz, engainubagaz edo paltakerijaz ezkontzako berbia emon deusala ta edo kaltiak egin deusazala ta, erru bage bat juez aurreti ezkontzera ekarriko baleu. Au pekatu andija da. Au egiten dabenak jaso biar deusaz erru bagiari, euki dituban kalte guztiak. Biurtu biar deusa atzera ondria. Ta, testigu paltuakin nai guzurrezko edo engainuzko paperagaz juez aurreti ekarri arren ezkontzera, ezin ezkondu leitek konzienzijan erru bagiagaz. Ta ezkontuten bada, ya edozeinek daki alako ezkontzak zetan geratu oi dirian. Ez da orain esan gura neuskezuna onako guzurrezko ta engainuzko derrigorreko ezkontzak gaiti. Alako ezkontu nai enbustera Eleisa guztiak ta mundu guztiak deutse gorroto.

Esaten deusudana da, kristinaubak, errazoiagaz izanda bere, juezaren aginduz derrigorrian egiten dirian ezkontzak arrisku andikuak diriala. Ez da gatx, neure entzula onak, au ezaututen. Juezagana bagarik ezkontuten ez dana, gogo bagarik dua ezkontutera. Damututa dago, garbatuta dago berbia emona. Leen zerbait gaiti bere laguntzat ondo eritxanari, orain ez deritxo ondo. Ta juez aurrian ta mundubaren aotan darabilhelako, gorroto deusa. Ez dau agaz ezkondu gura. Askatu edo librau gura leuke bere buruba a ganik. Beste gatx andi baten jausi ez dedin, edo bestegaz ezkontuten itxiko ez deusalako, *baietz* esaten dau ta ezkontuten da. Begiratu bada, kristinaubak, karzelati edo nora ezian legez eskubak emon ditubanak zelan estimauko daben ezkontuta gero bere laguna. Emakumiak oi dira geijenian, ezkontzako berba emonaren billa, juez aurreti dabilzanak. Zelan begiratuko deusa, bada, goguz kontrara gura ez eukianagaz derrigorrian ezkondu dan senarrak, atara betiko juez aurre-



ti ekarri daben emaztiari? Zeubek pensau, kristinaubak. Esango dozu: *Ez dauka errazoerik; zor dau ezkontutia; ez enkan berbia ez emon baino...* Au kontu ona da juez batentzat. Baita auzo batentzat bere, barre eginda esateko. Baina ain kontu ona izango ete da agaz ezkontuten dan emaztiarentzat? Au esanak, maitetu, bigundu ta karinotuko ete dau senarraren bijotza bere alako emaztia ganako? Ez dira gauza asko egiten errazoiaren ta zorraren kontra? Ez oi deritxagu ondo, oker nai zuzen, geuk egiten dogunari? Ez gara zaliak geure temiaz urteten, errazoe gitxigaz izan arren? Nos aaztuko jako, bada, senarrari, goguz kontrara, juez aurreti ta zamaijakin emaztiak ezkontutera ekarri ebana? Nos iruntsiko ete dau guztiz, bere temiaz urten ez eban penia? Nai ez eukian emaztia artu eragin eutsee-na? Ah! oneek dira, neure kristinaubak, diabrubak alako senarrari beti biziro gogora ekarriko deusazan penak eta minak. Ez bada, kristinaubak, ezkontzarik egin juez aurreti. Ez ibili nai ez dabenaren ondorik ezkontuteko. Errazoia zeubek euki arren ta bestiak zeubei ezkontzia zor izan arren, gogo osuagaz nai ez badau, itxi pozik. Bestelan, bizitza gaisto bat beti eukiteko arrisku andijan jarten zara. Au oi dakarree juez aurreti egiten dirian ezkontzak. Baita, ez gitxitan, Jaungoikua opendidubaz egiten dirianak bere. Ikusi daigun zelan.

## II.

*Jaungoikua opendiduta egiten dirian ezkontzak.* Oneek dira, neure kristinaubak, ezkontza guztien artian Jaungoikua geijen asarratuten dabeenak, ezkontzako sakramentubari ondrarik txaarrena emoten deutseenak ta Jaungoikuaren azotia euretara edo euren umeetara lasterren ekarten dabeenak. Beste esan dirian ezkontzako uts egitetarako oi dira ez jakinak, oi dira ez ustiak, oi dira inoren esana egin gurak ta beste atxekija asko, ezkontzia sustraijan gaixotuten dabeenak ta ain erru agirija ez daukeenak. Baina kristinau errijetan ez dago ezkongeirik, pekatu eginda egiten dan ezkontziak oin txarra, asiera txarra ta Jaungoikuaren gorrotua beragaz daroiana ez dakizunik.

Au onan izanda bere, negargarrija da, neure entzula onak, sail onetan daguan itsutasuna ta pekatubaren bildur txikija. Ez deutsa, kristinaubak, Jaungoikuak gorroto pekatubari? Ez eban Jaungoikuak mundu guztia ito pekatuba gaiti? Ez zituban zitudade osuak erre zeruko subagaz pekatuba gaiti? Ez eban inpernuba egin, pekatarijak erreetan an beti eukiteko? Ez zituban demoniuak ta diabrubak betiko inpernura bota pekatu

mortal edo illgarri bat gaiti? Bada, kristinaubak, ainbeste gorroto badeutsa Jaungoikuak pekatu andi bakotxari ta alan kastigetan badau edozein pekatu illgarri edo mortal, zelan begiratuko deutsa ezkontuteko egiten dan pekatubari? Dinot, *ainbeste gorroto badeutsa edozein pekatu andiri*; ez eukijak eragiten daben lapurreta bati; kaltiaren peniak ateraten daben gorroto bati; gosiak ausi eragiten daben barau bati; bildurak eragiten daben guzurrezko juramentu bati... zeinbat gorroto geijago izango ez deutsa, zeinbat geijago kastigauko ez dau sakramentu santubaren keiziaz egiten dan pekatu loijari? Ezkontzako sakramentuba estalgitzat artuta egiten dan pekatubari? Ezkontuko diriala ta bizi dira pekatuban lotsa bagarik, bildur bagarik ta zer esana auzuetan ta errijan emoten dabeela. Ezkontzeko berbia eskatuten da, pekatu egiteko. Sakramentu santubaren estalgija biar da, sakramentubak emon euskuzan Jesus maitia ta garbija desondretako. Oh, zerubak! Ez dakit zelan begiratuko deusazun, gizonak eta emakumiak, neskak eta mutillak aragizko pekatubak egiteko diabrubak asmau daben astuzija madarikatu oni.

Baina zelan begiratuko deutsee? Txito gorroto mortalagaz. Jaungoikuak bedeinkatu ta santutu biarran ezkontzia eurentzat ta ondorengentzat, alako pekatubakin loituta ezkontuduten dirianai ukatuten deutsee bere grazija ta sakramentu santubaren birtutia. Ta ezarten deutsee bizitzako ur mingotxak daukazan bedar gaistua. Oneek gaiti esan legi, ain gerubak Tobiasi esan eutsana, *luxurijaren Asmodeo demoninuagaz ezkontuten diriala alakuak*. Ez daukazu zetan kansau pekatu eginda ezkontu zarienok, zer gaiti ete dan jakiten, era txarra edo nai bagia zeuben bizitzan dakusunian. Senarrak estimetan ez bazaitu, zurria ta kolpiak emoten badeutsuz, inogaz berba bat egiten isten ez badeutsu, zelo arrabijauz erretan badago, zeuri baino beste emakumiai karino geijago badeutsee, sinistu daikezu zeuk ezkontu orduko beragaz egin zenduzan pekatuben kastiguba dala guztia. Badaukazu emazte barritsuba, zitala, temosia, alperra, burugina, ardura bagia, errazoe minberak arpegijan esaten deusuzana, bere adiskidiai zuri baino arpegi argijagua erakusten deutsee... sinistu daikezu zeuk ezkontu orduko beragaz egin zenduzan pekatu loijen kastiguba dala. Etorren bajatzu zeuben etxera, seme alabetara edo ondorengetara bake txarra, lotsa txarra, naibagia, gatxa edo atsekabia, sinistu daikezu ezkontu orduko pekatu egin zenduban senar emaztiak, zeuben orduko pekatuben sari mingotxa dala zeubei ta ondorenguai negar eragiten deutsee. Ez da gure Jaungoikua zurezkoa. Kastigauko ditu gurasuen pekatubak laugarren belauneragino. Gurasuak ez oi dabee erru gitxi gauza onetan. Seme alabak ezkontza atxakijagaz gaiski bizi diriana dakije-



la, lo egin oi dabee ardura bagarik. Oh, gurasuak eta umiak! Ze gitxi nai dozun zeuben ona. Bildurtu, bada, Jaungoikua opendituta egiten dirian ezkontzakin ta entzun zerbait seniden ezkontzen gainian.

### III.

*Zer ikusi andija daukee seniden ezkontzak.* Ez da nire egikizuna, sail au daukan zabaltasun guztiagaz zubei esatia. Bakarrrik esango deusut guztiok jakin biar dozuna edo jakitia ondo dana, Eleisiaren ordenetati ta Guraso Santuben erakutsiti urten bagarik. Iru gauza gaiti eragotzita dagoz laugarren belauneraginoko seniden ezkontzak, ezkontziak balijo ez daben terzijuan. Eragotzita dagoz seniden ezkontzak: *Lelengo*: Senide arteko odolari jagokan lotsa ona gaiti. *Bigarrenian*: Ezkontza onen ta santuben bitartez zabaldu dedin kristinau artera ta leen senide ez zirianen artera ezauberia, adiskidetasuna ta alkar maite izatia. *Iruugarrenian*: Senidiak pekatuko okasinoiak kendutia gaiti. Au gaiti errazoiaren argijak ta Eleisa Ama santiak eragotzi ditubee antxinako denporetati seniden ezkontzak. Ta ezin inor inos ezkonduko da senidiagaz? Asko senidegaz ez. Beste askogaz bai, Eleisiak libretan badau. Senikera batzuk ez ditu Eleisiak bere inos libretan. Beste batzuk bai. Gauza onetan esaten dana da: *Lelengo*: Eleisa Ama santiak ta Aita Santu Erromakuak daukeela eskubidia edo alizatia, senidiak alkarregaz ezkongei egiteko. *Bigarrenian*: Ez deutseela Eleisiak edo Aita Santu Erromakuak kenduten senidiak (oi danez) ezkondu ezina, aparteko ta atarako duinako preminia bagarik. *Iruugarrenian*: Senidiak eskatuten deutseenian Eleisiari alkar ezkongei egiteko mesedia, esan biar dabeela ze premina daukeen alkarregaz ezkonduko. *Laugarrenian*: Iminten badabee edo esaten badabee guzurrezko preminia ezkontzeko libertadia eskatuten dabeenian, Erromati alizatia etorri arren, ez dabela balijo ezkontziak.

Erakutsi onetati esaten jakue kristinau guztiai, nora ezian legez ezkondu biar dabeela senidiak. Txito premina andi bat jazoten danian. Beti da gauza ona Eleisa Ama santiaren espiritubari ta naijari jarraitutia. Au da biderik segurubena gauza guztietan. Baita ez gitxien ezkontzetan. Jaungoikuaren naija ta Eleisiaren naija bardinak dira. Bada, Eleisiaren naijari ezkontzan jarraituten deusanak, beragaz darua asiera ona, baita Jaungoikuaren ta sakramentubaren grazija bere. Egijia da, preminia egon ezkeru ta egijagaz lizenzija eskatu ezkeru, senidiak ezkondu ez da gauza txarra. Baina sarritan jazo leiteke, ezkondu naijak engainetia; gura-

ri uts bati premina andijaren bistia emotia; ta biar dan baisen premina andikua ez izatia senide areek ezkonduko. Ta orduban zetan geratuten da ezkontzia, Erromako libertadiagaz egin arren? Ez aitatu edola bere, kristinaubak, senide arteko ezkontzarik, egijia ondo esango deusun jakitun bategaz leenago astiro irago bagarik. Gauza astunak dira oneek. Ta buru astuna, pisutsuba ta elduba eskatuten dabee, baita jakituna bere saila atera orduko. Uts egiten txito da errez. Uts egina erremedijetan gatx da. Endamas ezkontzako uts egitia.

Gogoratu bada, neure entzula onak, ze arriskutakuak dirian diruba gaiti egiten dirian ezkontzak; inoren enpeinuba gaiti egiten dirianak; juezaren aurreti egiten dirianak; Jaungoikua opendiduta egiten dirianak; ta ez aaztu azkenian, seniden ezkontzak onak izateko zer ikusi andija daukeela. Gaixo oneetati bat edo bat oi dabee askotan ezkontzak. Ta bera gaiti oi dira ainbeste ezkontza edo ezkondu garbatu. Ainbeste senar emazte bizitza txarreko. Ainbeste seme alaba lotsa txarreko ta esker txarreko; ainbeste auzi, naibaga ta zer esan senar emazten ta umen arteko. Entzun dozu, bada, zeintzuk oi dirian gatx onen sustraijak. Ta zubei jagozuna da alde egitia areetati.

Beste gauza asko dagoz ezkontzako sakramentu santubaren gainian. Oneetati batzuk esanda geratu dira laugarren ta seigarren agindu santubetan ta lelengo sakramentuban. Beste senar emaztiak jakin biar ditubena, ikasiko ditubee euren konpesoretati. Eskatu daijogun Jaungoikuari bere argija, ezautu daiguzan egijia oneek merezi daben indar guztiagaz. Alderatu gaitazan uts egiteko ta pekatuban jausteko era guztietati. Jarraitu daijegun beti bere bide santubai ta Eleisa Ama santiaren nai onari ta espiritubari. Imini daigun bitartekotzat Ama Birjina guztiz garbija, berari zerubak esposo ona, zintzua ta garbija emon eutsan legez, ezkondu dirian guztiai jadiitxi dagijuen zeruti lagun ona, baketsuba, jaungoikozkua ta bakotxari zeruba irabazteko jagokana. Oh, Birjina zerukua! Mesede au eskatuten deusut Adanen seme alaba ezkondu guztientzat ta ezkonduko dagozantzat, zeuk san Josepe maitiari ta san Josepek zeuri izan eutsun amodijo santuba, zerukua ta betikua gaiti. Alan gura izan dagijala Aitiak, Semiak ta Espiritu Santubak, iru personatako Jaungoiko Bakarrak. Amen.





## VII. IKASIKIZUNA

zeinetan erakusten dan

*ezkontzan uts egin ebeenak, zer egin biar dabeen.*

Pensau dot, neure entzula onak, sakramentu onen azkenian erakutsi biar deusudala, ezkontzan uts egin dabeenak zelan portau biar dabeen euren estaduban. Ta baita euren bizieriaz kontentu dirianai bere, Jaungoikuaren grazija obeto ezautu dagijen ta gorde dagijen. Batzuk dira euren bizieriaz ta lagunagaz kontentu dirianak. Beste batzuk, ezkondu baino askatu naijago ebeenak ta ezkondu garbatuta dagozanak. Beste batzuk, artu ebeen lagunagaz kontentu ez dirianak. Ez da, bada, errazoe-ti kanpora izango, onei guztioi zerbait esatia, dauken estaduban Jaungoikua serbidu dagijen ta alkarregaz bake santuban bizi ditezan, zein dan Jaungoikuak ta Eleisa Ama santiak ezkondu guztiai opa deutseena.

### I.

*Ezkontzako estaduban kontentuz dagozanak.* Onei esaten jakue, txito asko estimau biar dabeela Jaungoikuak egiten dautseen mesedia. Alako senar emazte suerte onekuak ez dabee arrotu ta buru eritxitu biar, eureen ez ditxa a daukeela sinistuta. Jaungoikuak emoten deutseen doia da. Jaungoikuari esker onak emon biar deutseez ta Jaungoikuaren lege santuba gorde biar dabee ainbat ziatzen ta zintzoruen. Ez dabee biurtu biar Jesus maitiari zor deuten amodijo nausija ta samurra luurreko maitegarrijetara. Ikasi biar ditubee euren bizierako zereginak, konpesore bati itanduta. Ta bein jakin ezker Jaungoikuaren naija ta euren eginbiarra, ez ausi inos ezer gaiti bere. Parkatu biar deutsez alkarri bata bestiaren bizitzako palta txikarrak bake santuba gaiti. Ardura nausija artu biar dabee, euren etxekok inos pekaturik egin ez dagijan. Umiak eta otseginak Jaungoikuaren bildur santuba euki dagijen, Jesus maitiaren, Ama Birjina gozuaren ta san Josepe bedeinkatubaren debozinoo egijazkuak ta bigunak argi egin biar dau ezkondu guztien etxekuetan. Errosarijo santuba errezaubagako egunak izan biar dau egun tristiak senar emazteentzat. Illian bein-go konpesetia artu biar dabee zor santu bat balitz legez.

Sinistu biar dabee kontentuz bizi dirian senar emaztiak, diabruba ez daguala lo. Ezkonduen bizitza gaistua iminten dabenian, arima asko beraganatuten ditubala. Alkarren amodijo laarregijak Jaungoikuaren grazijak atzeratuten ditubala. Dirubaren gurarijak pamelija asko galdu ditubala. Ta eurak euki arren orain bizitza baketsuba ta jaungoikozkua, galdu legijela guztia ta etorri Jaungoikua opendidutera. Saulek txito asiera ona eban ta amai gaistua ta zori gaistokua. Salomonek asiera santuba ta jaungoikozkua eban. Baina gero jausi zan milla pekatu ezainetan. Judasek estadu ta asiera ona zituban. Baina inpernuban dago. Kontu, bada, asiera onagaz bizi zarian senar emaztiak, bizitza gaistua egitera eldu ez zaitezcan.

### II.

*Ezkondu bagarik geratu gura euken ezkonduak.* Asko izaten dira ezkonduen artian, edo gurasuen, edo seniden, edo adiskiden erreguba gaiti, bat bere gogo bagarik ezkondu zirianak. Duda bagarik onei gogora ekarriko deutsez etsaijak euren estutasunetan, *ezkondu ez balira, obeto Jaungoikua ser biduko ebeena; ezkontzakak ditsosunak ta zorijonekuak diriana; suerte txaarra jazo jakuena; nai izanda bere Jaungoikua serbidu ezin legijena; eurak baino txaartuago inor bizji ez dana...* ta beste onako kalte andiko ta probetxu bagako pensamentubak.

Onei esaten jakue: *Lelengo*: kontu atera dagijela astiro, ez daukeela ya erremedijorik ames areekin. Eleisa Ama santiak berak bere askatu ezin legiz ezkontzako buztarriti.

*Bigarrenian*: Eskatu biar deutsee Jaungoikuari bijotz bijotzeta grazija, daukan bizieran bere anditasuna serbiduteko ta zeruba irabazteko. Bada, Jaungoikuak ez dau gura inor galdu dedin. Beti dago prest geure erregubak entzuteko. Ta geugan dana egin ezker, salbauko gara edozein estadutan. Jaungoikuak bakarrik konsolau legi alako ezkondu garbatubaren bijotza. Aldatu legi bere naija. Ta ekarri legi bere estaduba ta laguna estimetara. Au gaiti erregutu biar deuta Jaungoikuari gogo onagaz.

*Irugarrenian*: Alako ezkondu garbatubak ez dau egon biar pensetan, *abade egin balitz, praille egin balitz, monja izan balitz, ze errazubak egingo zituban ta ze ondo Jaungoikua serbiduko eban...* Bera geijago penetako ta pekatu geijago eragiteko diabrubak ekarten deutzazan gomutak dira oneek. *Balitzko* sail txaar areek kendu biar ditu buruti alegin guztiagaz. Zorakerija izango litzateke, gaixo batek bere gatxaren erremedijuan ta gorputzaren onian pensau biarran pazienzija onagaz, osasundunak zelan dagozan gogoratu-



ta, bera alan ez dagualako gau ta egun negarrez egotia. Beste ainbeste esan ginai, alako izan *banintzako* pensamentu zoruakin bere buruba penetan daguan ezkondu garbatuba gaiti.

*Laugarrenian:* Sini[s]tu biar dau ezkondu garbatubak, berez dan baino astunago ta penatsubago begitandu eragingo deusala diabrubak, daukan estaduba. Ta besteena, dan baino arinago ta ditxosuago. Diabrubaren astuzija da, guk inoren kargiari arinago ta errezagotia eristia. Geijenian uste dogu, bestiak obeto bizi diriala geu baino. Bestera biurtu biar dau diabrubaren astuzija au bere bizieran kontentuz bizi nai dabenak. Besteen bizitzai azaleti begiratuten badeutsegu, entero onak, gozuak ta errazak eritxi-ko deutsegu. Baina puska bat barrurago iragota aztertuten baditugu estadu bakotxaren zereginak, guztietan dago kurutzia. Guztietan dago zegaz poza artu ta zegaz penau. Ezkondubak daukaz naibagak ta karga astunak. Abadiak daukaz beriak, prailiak bere estadukuak ta monjiak bere erlijinoe santukuak. Ez dago inor bere kurutze bagarik ta ezda egongo bere. Ez ditu, bada, ezkondu garbatubak bat egin biar bere gatxak besteen onagaz, ez bada bere onak besten onagaz ta bere gatxak besteen gatxagaz. Onan arinduko dau zerbait daukan penia. Edola bere ez dau astunago egingo. Au esaten jakue ezkondu bagarik geratu gura ebeen ezkondubai.

### III.

*Artu eban lagunagaz kontentu ez dirian ezkondubak.* Ezkonduteko bizierara Jaungoikuak dei egin arren kristinaubari ta artu arren a estaduba, jazo leiteke ta sarritan jazo oi da, edo berak gura eukianagaz ezkondu ez zalako, edo artu eban laguna berak uste eban modukua ez dalako, ezkonduba garbatuta penaz bizi izatia. Nai dala batera, nai dala bestera, goguan jaus-ten ez jakon laguna badauka etxian, beti dago penaz ta naibagez ezkonduba. Esan dot leen zegaiti oi dirian ezkonduben artian alako uts egitiak. Errazago ta oba da, ezkondu baino leenago lagun on bat Jaungoikuari erregututia; lagunaren oitura onai, zintzotasunari ta kristinautasunari begiratutia, gero alperrik negar egitia baino. Oh, zeinbat ezkongei pagau-ta geratu oi dirian lagunaren edertasunagaz, plazakua izatiagaz, dantzan jakitiagaz, berba egiteko modu gatzsuba eukitiagaz, diru puska batzuk eukitiagaz ta beste onako azaleko on etxurazko gauzakin! Onako, lino loria legez, agertu orduko ezkutetan dirian on etxura azaleko batzuk ikus-ten badeutsez bati, eurakin txoratuta legez geratuten dira ezkongejak ta bertati geijagori begiratu bagarik egiten da ezkontzia. Ez da pensetan ala-

kuan bere ezkongei gaiti, edo isila dan, edo humildia dan, edo osasun-Suba dan, edo jaungoikozkua dan, edo biargina dan, edo lotsaorra dan, edo bakartasun zalia dan, edo modestija ta garbitasun onekua dan ta beste onako laguna betiko maite egiten dabeen arimako grazijak ta doiak daukazan edo ez. Oneek ezer bere balijo ez balebee legez, itsu itsuban azaleko grazija ezdabaidako bati begiratuta, bertati ezkontzako berbia emoten da. Ta gero etxian laster agertuten dira lagunaren paltak. Orduban dira damubak. Orduban dira asarriak. Orduban dira alkar artu ezinak ta bake txaarra.

Onei esaten jakue bada, neure entzula onak, nai diabrubak ta nai mundubak ta nai aragijak engainauta artu badabee eurei ez juakuen edo artu biar ez eukon laguna, ya ezin itxi legijuela. Nai ona izan ta nai arin ona izan, nai gogokua izan ta nai gorrotokua izan, nai asarre izan ta nai alegere izan, nai nasaija izan ta nai zintzua izan, nai alperra izan, nai burugina izan, dan modukua dala, bat egin zinian zeure lagunagaz? bada, agaz bizi biarko dozu, batori edo bestiori ill artian. Zer egingo dau, bada, alako errukarriak? Desesperau? Ez. Zer, bada? Ezautu ainbat onduen lagunaren gogua eta lagunak zer nai daben. Ta pekatu ez dan gauzetan egin beti aleginaz bere naija. Lagunak sentiduko daben ta euren bakia galdu eragingo daben gauzarik ez esan ta ez egin. Gogoratu bere pekatubak ta sinistu, daukan baino lagun gaistuaguakin inpernuban egotia irabazi ebala pekatubagaz. Gogoratu, bera baino gaiskijago bizi dirian ezkondu asko dagozala ta areek bere euren gatxak iragoten ditubeela. Gogoratu, beste bategaz ezkondu balitz, ark bere paltak eukiko zitubala. Ez da au alakuentzat botikako txaarra. Guztiok daukaguz paltak. Bata bada temosua, bestia da ordija. Bata bada alperra, bestia da galzailia. Bata bada gogorra, bestia da ardura bagia. Bata bada burugina, bes tia da miin zitalekua. Bata bada adiskide barri zalia, bestia da zelotsuba. Bata bada nezijua ta sen bagakua, bestia da buru eritxija ta aisetsuba. Bata bada gaixua edo ezertako eza, bestia da legetsuba ta astuzija gaistuetakua. Gogoratu biar dau alan gogo bagako lagunagaz ezkonduta bizi danak, ez ebala topauko palta bagakorik inor bere. Bere lagunarenak, ak uste daben baisen andijak izango ez diriala. Berak bere paltak daukazala...

Onan pensauta, sinistuta, Jaungoikuari erregututa, irago biar dau kristinaubak gogoko ez dan lagunagaz bizitzia, bake santuba galdu bagarik. Senar emazten artian bata edo bestia badira Jaungoikozkuak, zentzun onekua ta bake santuba nai dabeenak, lagunaren palta asko estalduko ditubee, bakia galdu bagarik. Emazte juizijozko isil, zintzo, jaungoikozko batek, orazinoiagaz, pazienziagaz ta iraguagaz gizon gogor, sutsu, ordi,



gaisto bat ekarriko dau bildots manso, bigun, maitegarri bat izatera, santa Monikak bere senarra ekarri eban legez. Baita andra juizijozko batek erre-medijauko ditu etxian gizonaren palta asko bere, Abigailek bere senararenak erre-medijau zituban legez. Beste aldeti, juizijozko ta jaungoikozko gizon eldu batek, bere emaztiaren zeinbat palta iragoko ez ditu, inok igarri bagarik ta bake santuba galdu bagarik? Zer esan zitalak ta minberak irago ez eutsazan Job[ek] bere emaztiari? Dabid erregiak Mikol bere emaztiari? Tobias zaarrek Ana beriarri? Oneek irago zituben euren emazten esan zitalak, burla minberak, errazoe txarrak ta desprezijo astunak pazienzija santuba ta etxeko bake ona galdu bagarik. Zer gaiti, bada, egin ezin legije beste senarrak bere euren emaztekin? Esango dozu areek santubak ziriala.

Nai dozu, bada, entzun, santu ez zanaren jazo bat senar ernegau, bake txarreko askoren lotsagarrija? Entzun, bada, Senekari zer jazo jakon. Ak gizonak eukan emaztia zitala, miin gaistokua, burugina ta agindunaikua. Ordu gitxi eukazan senarrak etxian, emaztiaren jarduna ta esetsi lotsa txarreku entzuten ez zitubanak. Ez eutsan Senekak emaztiaren miin gaisto askatubari eulijaren brunadiari baino geijago jaamoten. Senarraren pazienzija elduba gaiti zitalago, sutsubago ta lotsa galdukuago egiten zan emaztia. Ernegau eragin gura euskijon ta asarratuta ikusi gura eban bere senarra. Alan emoten eutsan egunero bake txarra senar erru bagiari. Bein batian esetsi eutsan senarrari inos baino errazoe gitxiagogaz ta gana geijagogaz. Emazte lotsa bagiaren jardun aldi andi a iragoteko pazienzija galdu bagarik, urten eban etxeti Senekak ta geratu zan jarrita bere ate aurrian, emaztiari txitik esan bagarik. Errazoe bagako ekinaren ekinagaz ta jardunaren jardunagaz sutu ta asarratu ezin ebanian bere senar baketsuba, zer egiten dabela, deritxazu, emaztiak? Oepian eukan loi-ontzija artuta, bentanara urtenda, ango loijak jaurtegi eutsazan purijaz senarrari buruti beera. Ara, kristinaubak, zetaragino dan emazte baten bijotza. Ta zer, diritxazu, egin ebalta Senekak orduban bere emaztiagaz? Ezer bere ez. Bere buruba ta arpegija garbituten ziardubala geldi geldi, esan eban: *Banekijan ain trumoe andijak eurija ekarriko ebana*. Onegaz amaitu zan areen orduko jarduna. Seneka batek, jentil batek, Jaungoiko bagako batek iragoten eutsazan emazte deungiari, etxeko bakia galdu bagarik, alako esate ta egite mingotxak. Zer egin biar dau, bada, gizon eldu, kristinaubak bere lagunagaz, bake santuba ez galdutia gaiti, zeruba ez galdutia gaiti?

Senarra edo emaztia, bata edo bestia badira zentzun onekuak ta jaungoikozkuak, laster baketuko dira. Nekez etxe atako asarriak kanpuan

jakingo dira. Zentzun ona ta Jaungoikuaren bildur santuba daukan senarrak nai emaztiak laster ezautuko ditu bere lagunaren zalekerijak. Ta berak aurria artuko deutsee, laguna asarratu baino leenago. Entzuten danian senar emazten bake txarra ta alkar artu ezina, sinistu daikegu geijenian bijak diriala alkarren modukuak. Bijak diriala errudunak. Bijak diriala zentzun gitxiak. Bijak diriala Jaungoikuaren bildur bagakuak. Edo bijak diriala, euren pekatubak gaiti Jaungoikuak bake txarragaz kastigetan ditubanak. Egin begije ezkondu guztiak san Juan Krisostomok esaten deutseena ta asarre askori aurria artuko deutsee. Senarra asarre bada ta asarriagaz zer bait esaten asten bada, emaztiak ez aorik edegi senarrari asarria irago artian. Emaztia asarre bada ta ezer esaten asten bada asarriagaz, senarra isilik egon emaztiari aldija irago artian. Ate bi alkarren parian zabalik dagozan artian, aisia dago, dino Santubak. Ate bata isten bada, aisia geratuten da. Beste ainbeste. Senarra agidaka asten danian emaztiak isten bada aoko atia, bertati juango da asarriaren aisia. Emaztiak zerbaite esaten dabeanian subagaz isilik badago senarra, bertati ezkutaiko da emaztiaren asarre aisia.

Alan eukiko dabee senar emaztiak euren etxeetan bake santuba ta gero zeruban betiko gloriya. Onegaz amaituten ditut, neure entzula onak, sakramentu santubetako *ikasikizunak*. Eskatu daijogun Jesus maitiari, emon dagijola indarra ta zeruko grazijaren iruntza bere berba santubari, geure bijotzetan erne dedin, azi dedin ta prutu ugarijak emon dagizan. Aitiaren, Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian. Amen.

AMAIJA